

EUSKARAREN ESANAHIA(K)

Euskalgintzako testu multimodalen
azterketa genero perspektibatik
1960-2018

ONINTZA LEGORBURU LARREA



Onintza Legorburu Larrea (Antzuola, 1993)

Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Langintzan graduatua. Ikerketarako arra, graduan bertan sortu zitzaion, Gradu Amaierako Lanarekin alegia. Ondoren, bi master egin zituen. Bata, Madrilgo Unibertsitate Complutensean, Antropologia sozial eta kulturalaren inguruan, eta bestea, Euskal Herriko Unibertsitatean Ikasketa Feministak eta Generokoen inguruan. Azken master honen baitan, hasi zen euskara genero perspektiba batetik aztertzen, Master Amaierako Lanean hitanoaren erabileran generoak daukan presentzia aztertu baitzituen. Ondoren, EMUN kooperatiban hasi zen lanean 2018. urtean, hizkuntza zein genero berdintasuneko aholkulari. Eta gaur gaurkoz, EMUNen lanean eta doktoretza tesia hasten dabil; ikasketa feminista eta generokoak doktoretza programan; euskal hitzunen subjektibazio prozesuak genero perspektibatik aztertu nahian.



EUSKARAREN ESANAHIA(K)

Euskalgintzako testu multimodalen
azterketa genero perspektibatik
(1960-2018)



ONINTZA LEGORBURU LARREA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>>.

Argitaraldia: 1.a, 2022ko abendua

Ale-kopurua: 250 ale

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta
maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: PRINTHAUS, S.L.

ISBN: 978-84-457-3676-0

Legezko Gordailua: G 839-2022



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0
Nazioartekoa Baimen baten mende dago. Iturriaren
aipamena horrela egingo da: Kultura eta Hizkuntza
Politika Saila (Eusko Jaurlaritza)

Aurkibidea

Hitzaurrea. Bigen Zupiria Gorostidi, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua **7**

EUSKARAREN ESANAHIA(K)
Euskalgintzako testu multimodalen
azterketa genero perspektibatik
(1960-2018)

1. SARRERA	13
1.1. IKERGALDERAK ETA HELBURUAK	17
1.2. METODOLOGIA	18
1.2.1. Generoa analisi kategoria gisara	19
1.2.2. Ikerketan erabilitako teknikak	22
1.2.2.1. Dokumentuen azterketa	22
1.2.2.2. Testu multimodalen azterketa	24
2. EUSKALGINTZAREN BILAKAERA HISTORIKOA	41
2.1 NAZIONALISMO GOIZTIARRA ETA EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDUA	44
2.2. 1960-1970EKO HAMARKADAK: EUSKALGINTZA GARAIKIDEAREN SORRERA	48
2.3. 1980-1990EKO HAMARKADAK: APARRALDITIK BAREALDIRA	56
2.3.1. Euskalgintzaren kezka nagusiak	65
2.3.2. Euskararen erabilera	68
2.4. 2000-2010EKO HAMARKADAK: EGUNGO EUSKALGINTZA	72
2.4.1. Euskalgintzaren kezka nagusiak	75
2.4.2. Euskaraldiaren aroa	81

3. PUBLIZITATEA	93
3.1. SEMIOTIKA	97
3.1.1. Diskurtso multimodalen analisisa	103
3.1.1.1. Diskurtso multimodalei lotutako hainbat kontzeptu	108
4. EUSKARAREN ESANAHIEEN BILAKAERA HISTORIKOA	111
4.1. EUSKARAREN ESANAHIEEN ANALISIA GARAI HISTORIKO EZBERDINETAKO TESTU MULTIMODALETAN	111
4.1.1. 1960-1970eko hamarkadak: tradizioetik abangoardiara	112
4.1.2. 1980-1990eko hamarkadak: gatazkatik despolitizaziora	121
4.1.3. 2000-2010eko hamarkadak: despolitizaziotik infantilizaziora	134
4.2. EUSKARAREN ETA EUSKAL HIZTUNEN TRANSFORMAZIOA	144
4.2.1. Hizkuntza ideologiaren bilakaera	145
4.2.2. Euskararen lekua euskal identitatearen eraikuntzan	157
5. ONDORIOAK	169
6. BIBLIOGRAFIA	189
7. ERANSKINAK	199
7.1. TESTU MULTIMODALEN ANALISI FITXAK	199

Hitzaurrea

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

GENERO BERDINTASUN politikek eta hizkuntza normalizazio politikek elkarrengandik ikasi eta elkar sendotzeko beharra bagenuela aitortu genion elkarri, halako gertuko garai batean, 2018an, zeharkako politikak txirikordatuz sor zitekeen hura sendoa eta iraunkorra izan zitekeela irudikatuta.

Bi politiken arteko gurutzaketak, berdintasunak, ezberdintasunak, bakoitzaren narratibak, ajeak eta aleak... jira eta biran ziren hartan ekin genion saileko berdintasun planean hizkuntza normalizazioa berdintasunetik nola ulertu eta gara zitekeen pentsatzeari. Barnetik kanpora lehenik, eta kanpoarekin harremanetan, ondoren.

Aurrera-atzera horien emaitza bat izan zen galdera bat: zer berri jakin genezake hizkuntza normalizazioaren politikez generoaren ardatzetik irakurketa eginda? Eta galdera hark erantzun ezberdinak sortu zituen, eta galdera berriak, behar berriak txirikorda hartan gertatzen zenaz jabetzeko. Ezagutza eta egiten jakite berriak sortu eta zabaltzeko beharra sortu zitzaigun. Ordu hartan.

Ordutik ondu zaizkigu galdera haiei erantzun asmo zizkien hainbat ekimen. Berdintasun batzordea Hizkuntza Politika Sailburuordetzan eta *Euskara eta feminismoa* jardunaldiak, beste batzuen artean.

Esku artean dugun ikerketa-lan honen ikerketa beka deialdia ere bai. BERDINTZEN bekak jaio ziren orain bi urte eta hauxe da ordu hartan sortutako jakin-min handi baten emaitza bat. Generoa eta hizkuntza uztartzen dituzten corpus, komunikazio edo-eta diskurtso azterketak eremu ezberdinetan lantzeari ekin zion Onintza Legorburu Larreak lan honekin: *Euskararen esanahia(k): Euskalgintzako kartelen irakurketa, genero perspektibatik (1960–2018)*.

Ordutik hona egindako lanaren emaitza jaso eta zabaltzeko asmoz argitaratu dugu. Izan dadin galdera zaharren erantzun berria eta izan dadin galdera berrien abiapuntu berritua. 1960tik 2018ra bitarteko euskalgintzako kartelak aztertu dira lan honetan, eta aztertzeko lan-tresna genero ikuspegiak ematen duen teorizazioa nahiz behaketarako metodologia izan dira. Hiru etapa historikotan banatuta ulertu ditu Legorburuk euskararen esanahiak eta bakoitza zein ideologietan kokatzen den argitzen laguntzen digu.

Karteletan irakurri edota ikusten denaz harago edo sakonean dauden oinarri ideologikoez jabetzea eta toki horretatik momentu historikoaren irakurketa egiten ikastea da ezagutza berri bat. Komunikazioaren esparruan, behaketarako tresna berriak ekarri dira lan honetara.

Esker onak eman nahi dizkiot Onintza Legorbururi BERDINTZEN bekgan jarritako konfiantza eta asmo onari. Ezagutza berritzea ezinbesteko zaigu etorkizunari begira jartzeko, eta lan honek horretarako aukera paregabea ematen digu.

EUSKARAREN ESANAHIA(K)

Euskalgintzako testu multimodalen
azterketa genero perspektibatik
(1960-2018)



«Euskara sistema eragilea izango bada, diseinatu egin behar da, instalatu eta erabiltzaileak horra pasarazi; pasa eta arazi. Bultza. Ze erakargarri izatea ondo dago, eta erakartzen saiatzea ondo dago. Eta bueno, ba nahiko jende guapoa gera, baina, beti seduzitu behar honetan, ederrena ere nekatu egiten da. Eta segiko degu erakarri nahian, baina erakartzeaz gain, ondo legoke, ekar araztea ere»

(Maialen Lujanbio Zugasti, 2015).

1. SARRERA

Komunikaziorako bide garrantzitsua da hizkuntza. Baina jada jakin badakigu, elkarrekintza edota interakziorako trenua soila baino askoz ere gehiago dela. Hizkuntza ezberdinen bidez mundua ezberdin ikusi eta ulertzen dela esan ohi da; nik ez dakit hori egia den. Baina badakit hizkuntzek esanahiak sortu eta barreiatzen dituztela, eta bitartean, pertsonak hizkuntzen gaineko esanahiak ere eraikitzen dituztela.

Hizkuntza, gure kasuan euskara, jendarte zehatz batean dago errotuta, eta, era berean, gizarteko usteek, esanahiek edota botere harremanek zeharkatzen dute. Azken finean, hizkuntza ere gizartearen isla izan baitaiteke.

Zentzu horretan, gizartea egituratzen duten hainbat sistema daude. Baina jaiotzen garenetik –eta baita jaio aurretik ere–, zeharkatzen gaituen sistemetako bat genero sistema da. Hala nola lan honetan, generoa eta euskara uztartu nahi izan dira; betaurreko moreak soinean, aztertu nahi izan da euskararen esanahia eta errepresentazioa.

Ez da lehen aldia generoaren eta euskararen arteko elkarrizketa bat eraikitzen dudana modu akademiko batean. Hala ere, euskaratik sortu nintzela aitortu beharrean nago. Hau da, euskararenganako arra, edota honenganako kontzientzia, aspaldi piztu zitzaidan. Etxetik, eta batez ere, amarengandik dator kit euskararenganako atxikipena. Hala nola emakume ere sortu nintzen. Baina honen kontzientzia beranduago hartu nuen; unibertsitatean ezagutu bainuen feminismoa, eta ordutik, “radarra” piztuta bizi naiz –edo hortan saiatzen naiz bederen–.

Hizkuntza eta generoaren lehendabiziko lotura ere, unibertsitatearen bidez egin ahal izan nuen. Txilen egin nuen Gradu Amaierako Lana, Txileko Santiagon bizi ziren mapucheen inguruan. Hor konturatu nintzen lehendabiziko aldiz, eta emakume mapuche haiei eskerrak, hizkuntzaren esanahia emaku-

meentzat eta gizonezkoentzat ezberdina zela. Beraz, itsasoa zeharkatu behar izan nuen horren gertu bizi nituen hizkuntza eta generoaren arteko harremana ulertzen hasteko.

Bi urte beranduago, eta Master Amaierako Lan bat tarteko, herriko, Antzuo-lako, hitanoaren erabilerari genero perspektiba batetik begiratzeko parada izan nuen. Lan horretan, hortaz, euskara eta generoaren arteko lotura, eta elkar-eraginak aztertzeko beta izan nuen lehendabiziko aldiz.

Master hori amaitu, eta EMUN Kooperatiban hasi nintzen euskara aholkulari gisara lanean. Enpresa ezberdinetan dihardut gaur gaurkoz lan horretan, eta hor, hizkuntzari beste perspektiba batetik begiratzeko aukera izan dut. Lan munduko, eta zehatzago esanda, enpresa industrialetako euskararen erabilerari begira, konturatu naiz euskarak leku batzuetan, eta pertsona jakin batzuen-tzat, esanahi ezberdinak dauzkala, eta horrek erabileran ere zerikusia daukala. Bestetik, eta gure lanari begiratu bat emanez, guk geuk –euskara aholkulariok– euskararen gaineko zernolako esanahiak barreiatzen ditugun ere aztertzeko parada izan dut.

Hala nola, erabileraren eta esanahien arteko lotura bat egon zitekeela pen-tsaturik, eta guzti honen eraikuntzan generoak ere nolabaiteko zeresan bat izan zezakeela iritzita, ikerlan honetan, aspaldian buruan darabildan galdera bati erantzutea izan da helburua: “Euskararen erabilera bultzatzeko egin di-ren kanpainetan, genero perspektiba batetik, zer nolako esanahia eman zaio euskarari?”. Horretarako, euskalgintzako garai historiko ezberdinetan sortu-tako testu multimodalak¹ aztertu dira, genero perspektiba oinarritzat hartuta. Zehazki, 1960 eta 2018. urteen artean sortutako testu multimodalak analizatu dira lanean.

Horrenbestez, ikerketako lehendabiziko puntuan, ikerlana gidatuko duten ikergalderak eta helburuak aurki litezke. Baita horiek lortu eta erantzun ahal

¹ Esanahia eta zentzua sortzeko, modu bat baino gehiago barnebiltzen dituzten kartelak li-rateke testu multimodalak. Hau da, kartelak bere horretan, testu gisara interpretatuak izan-go dira ikerlan honetan, eta hauek kolorez, letraz, irudiz... osatuta egongo diren heinean, modalitate ezberdinen bidez sortuko dute esanahia. Zentzu horretan, testu multimodalak izango dira.

izateko lanean erabili den metodologiaren azalpena ere. Lan hau, metodologia kualitatiboaren bidez egin izan da, eta zehazki bi teknika erabili dira: dokumentuen azterketa eta testu multimodalen analisia edota azterketa.

Bestetik, eta esanahien eraikuntza soziala dela jakinik, testuinguru historikoari garrantzia berezia eman nahi izan zaio lanean. Hori horrela, bigarren puntuan, euskalgintzaren bilakaera historikoa aztertu da. Ikerketa objektua euskalgintzatik sortu diren testu multimodalak diren heinean, euskalgintzaren ibilbide historikoari tentuz erreparatu zaio. Azterketa hau egiteko, garai historiko ezberdinak hartu dira oinarritzat. Zehazki, hiru garai historikotan banatu da atala. 1960ko eta 1970eko hamarkadek osatzen duten lehen atala. 1980ko eta 1990eko hamarkadek osatzen duten bigarrena. Eta azkenik, 2000-2010eko hamarkadek osatzen dutena. Hala ere, bigarren atal horren baitan, euskal nazionalismo goiztiarrari ere erreparatu zaio. Horrek euskalgintzako ibilbide historikoan, eta batez ere, euskararen esanahia generotik aztertzerako orduan, garrantzia berezia izango baitu. Hala nola euskalgintzaren etapa bakoitzeko diskurtsoak, kezkak eta gertakari ezberdinak jaso dira lanaren atal honetan.

Marko teorikoaren hurrengo atala, ikerketako hirugarren atala zehazki, publikitatearen gaiak osatzen du. Analisia egiteko –euskalgintzaren ibilbideaz gain euskarari eman zaizkion esanahi ezberdinak aztertze–, publikitateak osatuko du txapel orokorra. Honetaz aparte, eta esanahien sorrera eta horien interpretazioa ulertu ahal izateko, semiotika ere landu nahi izan da atal honetan. Eta bestetik, hirugarren atal honen baitan, diskurtso multimodalen analisiaren teoria ere aztertu da. Diskurtso multimodalen teoriak eskaini baitizkigu, azken finean, testu multimodalak aztertzeke tresna teoriko eta metodologikoak.

Hurrengo atalean, analisiaren atalean zehazki, euskararen esanahien bilakaera historikoa jasotzen da. Analisia bi zatiz osatua dago. Batetik, euskararen esanahien analisia garai historiko ezberdinetako testu multimodaletan zein izan den azaltzen duen zatia ageri zaigu. Analisiaren zati horretan, eta euskalgintzako hiru garai historikoak ardatz hartuta, testu multimodalen analisi bat egin nahi izan da; testu multimodal horietan, euskarari zernolako esanahia eman zaion aztertuz. Eta analisiaren bigarren atalean aldiz, euskararen eta euskal hiztunen transformazioa analizatu nahi izan da. Hau da, testu multimodalak oinarritzat hartuta, baina modu orokorrago batean, euskararen esanahia

urte ezberdinetan zehar, zein hizkuntza ideologia oinarritzat hartuta eraiki den aztertu nahi izan da. Eta bestetik, euskarak eta euskal identitateak izan duten lotura analizatu da; eta lotura horrek, euskararen esanahiaren bilakaeran izan duen eragina.

Amaitzeko, ikerlaneko ondorioak izango genituzke. Eta horretaz gain, testu multimodalen analisia nola egin den ikusi ahal izateko, eranskinetan testuak aztertzeko erabili diren fitxak gehitu dira.

Ikerlanean murgildu aurretik, eskerrak ematea nahiko nuke zidor honetan bi-delagun izan ditudan hainbat laguni. Hasteko, mila esker Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. “Berdintzen” diru laguntza honengatik ez balitz, ez bailitzatekeen lan hau posible izango. Eskerrik asko ikerketarako babes ekonomikoa eskaintzeagatik. Euskara biziberritu nahi badugu, iragana, oraina eta baita etorkizuna ere, ondo ezagutu beharko baititugu.

Honekin batera, mila esker Oihane Gurrutxagari testuko zuzenketengatik. Eta lagun leiala dudan Ione Larrañagari –Ione Larrago–; horren azal dotorea egiteagatik.

Bestetik, eskerrak Lazkaoko Benediktarren Fundazioari, egoera pandemiko honetan ere atek zabaltzeagatik. Eta bereziki, Edurne Barandarani materiala eskuratzen laguntzeagatik. Eta bestalde, eskerrrik asko baita ere, Topaguneari. Batez ere, Iker Marinez de Lagosi; materiala eskuratu eta bidali ahal izateko hartutako lanagatik. Mila esker Jone Mireni ere, beti bere denbora eskaintzeko prest egoteagatik eta jakintza iturri amaigabea izateagatik.

Nola ez, mila esker EMUNi. Ikerketa hau egin ahal izateko eskainitako baliabideengatik; eta bereziki, baliabide humanoengatik. Eskerrik asko Anaida! Euskalgintzako material bila euskalgintzako barrunbeak mugitzeagatik. Eiderri, erakutsitako prestutasunagatik, eta Txerrari orduak esleitzeagatik. Txerrari berari, tutorizazio zorrotz bezain bikaina egiteagatik. Eta guztiz galduta nabilela, nire buruan zegoena ulertu eta antolatzeko gaitasuna eskaintzeagatik. Eta zela ez, Bisiestotarrei. Biba zuek! Eskerrik asko zerbezengatik, zigarroengatik, kafeengatik, wordeko laguntzagatik, Madrileko gauengatik eta amesteko gaitasunagatik; *laster ikusiko jonau/juau purpurinaz, boaz eta flamenka trajez jantzittako euskera bat!*

Azkenik, mila esker “*Zemouz joiarren hire asuntua?*” galdetu izan didaten betiko lagunei. Eta naizena izateko lehen alea jarri zuten –eta jartzen duten– etxe-koei. Imanoli, osaba soziologoaren papera ezin hobeto betetzeagatik. Aitari, haserreak haserre, nigan inor baino gehiago sinesteagatik. Ahizpari, zaintza lanez arduratu eta liburutegiko orduak oparitzeagatik. Beñiri, etxeko Ander izateagatik, eta oso ondo zertan nabilen ulertu gabe ere, babes amaigabea eskaintzeagatik. Eta bizitzan eredu den gure amari. Bizitzari duintasunez nola begiratu egunero erakusteagatik.

1.1. IKERGALDERAK ETA HELBURUAK

Ikerlan hau hainbat galdera eta burutapenen ondorio da. Hau da, euskararen esanahia oro har, eta batez ere, euskalgintzatik euskarari eman izan zaion esanahia ulertzeko jakinminak sortua da lana. Ikerlan honetako **helburu nagusia**, hortaz, euskararen erabilera bultzatzeko kanpainetan euskarari nolako esanahia eman zaion aztertzea izango da, genero perspektiba batetik.

Hala ere, lanak beste helburu espezifiko batzuk ere barnebiltzen ditu:

- Euskalgintza instituzionalak –Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak² (HPS)– euskara bere erabilera kanpainen bidez nola irudikatu duen ikertzea.
- Euskalgintza sozialeko parte diren erakundeek euskara euren erabilera kanpainetan nola irudikatu duten ezagutzea.
- Euskalgintzako etapa historikoetan sortutako erabilera kanpainetan islatzen diren euskararen errepresentazioei zer nolako euskal hitzuna dagoen aztertzea.
- Kanpainetako euskararen errepresentazioek euskararen erabileran azken urteetan sumatu izan den feminizazioarekin ea loturarik izan duten ikertzea.

² Hemendik aurrera Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari erreferentzia egiteko, HPS siglak erabiliko dira.

Helburuak ez ezik, jakinminean oinarritutako ikerketa den heinean, hiru iker-galderari erantzuna ematea ere izango da lanaren xedea:

- Euskararen erabilera bultzatzeko egin diren kanpainetan, genero perspektiba batetik, zer nolako esanahia eman zaio euskarari?
- Nolako euskal hiztuna dagokie euskararen aldeko kanpainetan ageri diren euskararen errepresentazio horiei?
- Kanpaina ezberdinetako euskararen errepresentazioek loturarik izan al dute euskararen erabileran azken urteetan sumatzen ari den feminizazioarekin?

1.2. METODOLOGIA

Arestian aipatutako helburuak lortzeko asmoz eta bertan planteatu diren iker-galderei erantzun bat emateko xedez, metodologia kualitatiboa izan da ikerketa aurrera eramateko aukeratutako metodologia; horrek eskaintzen dituen teknika ezberdinak baliatuz.

Baina, ikerlanarekin hasteko, lehendabiziko pausua lanaren ildoak finkatzea izan da, hau da, nolabaiteko gidoi bat burutzea. Ez da izan euskara, euskalgintza eta genero perspektibarekin hartu emana izan dudan lehen aldia; baina bai, aldiz, publizitatea, semiotika edota diskurtso multimodalen analisiarekin. Hala nola, eta gaian zentratzeko asmoz, eta baita ikerketa objektua ahalik eta finen zedarritzeko, hainbat dokumentu irakurri dira. Behin lehendabiziko hartu eman bat izan ostean ikerketa objektuarekin, hainbat ikergaldera, helburu, marko teorikoan lantzeko gai, eta analisisan sakontzeko ildo erabaki dira.

Hori horrela, eta metodologia kualitatiboa baliatuz helburu eta ikergalderei erantzun bat emateko, bi teknikaren bidez aurrera eraman da lana: dokumentuen azterketa eta testu multimodalen analisia izan dira erabilitako teknikak.

Hala ere, ikerlan honek foku edota ikuspegi zehatz bat dauka. Generoaren gaia mahaigaineratu nahi izan da. Hortaz, testuen irakurketa eta euskarari eman nahi izan zaion esanahia, generoaren aldagaia erdigunera ekarrita aztertu nahi izan dira. Hau da, genero perspektiba edota ikuspegi batetik garatu da lana.

1.2.1. Generoa analisi kategoriala gisara

Aurreko puntuan azpimarratu bezala, ikerlan honen helburu nagusia euskalgintzatik euskarari eman izan zaizkion esanahiak ezagutzea eta horiek aztertzea izango da. Hala ere, euskarari eman izan zaion esanahi hori aztertzeo begirada konkretu bat izango du ikerlanak. Hau da, ikerlan honetan zentralitatea izango duen aldagaia generoarena da. Ikerlana burutu zitekeen beste ikuspegi edota perspektiba bat ardatz hartuta, baina genero perspektiba batetik esanahiak aztertzea du xede lanak.

Gizon eta emakumeetatik harago doan analisi kategoriala da generoarena. Hau da, gizartea bera genero sistema baten baitan estrukturaturik dagoela esan liteke. Diferentzia sexualaren gaia “super-estruturura” edo gizartea egituratzen duen sistema gisara definitu zuen lehen autorea Gayle Rubin izan zen. Rubin-ek 1975ean idatzitako “The traffic in Women: Notes on the Political Economy of sex” artikuluan, honela deskribatzen du sexu-genero sistema:

“Un sistema de sexo-género es el conjunto de disposiciones por el que una sociedad transforma la sexualidad biológica en productos de la actividad humana, y en el cual se satisfacen esas necesidades humanas transformadas” (Rubin, 1986: 97).

Rubinen ustez, beraz, gizarte orok sexu-genero sistema bat du, eta errealitatea sistema horren baitan ulertzen da. Hau da, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ez ezik, gizartea bera egituratzeko sistema bat da genero sistema. Generoa pertsonen gorputzetan, praktikan, harremanetan, lan esparruetan... joango da eraikitzen. Baina horretaz gain, eta sistema bat den heinean, elementu ezberdinak ere generodunak izango dira, edota generikoki ere irakurriak izan litezkeenak.

Gaian sakonduz, eta Joan Scott-en (1990) “El género, una categoría útil para el análisis histórico” artikulua oinarritzat hartuta, Mari Luz Estebanek (2013: 60) generoak lotura estua duten lau alderdi edo maila desberdin osatzen dituela adierazi zuen. Neurri batean, lau maila edota egitateren baitan ikus litekeela gizartean generoa errepresentatuta:

“Primero, símbolos culturalmente disponibles que evocan representaciones distintas –y a menudo contradictorias– (...) Segundo, conceptos normativos que (...) se expresan

en doctrinas religiosas, educativas, científicas, legales y políticas que afirman categorica y unívocamente el significado de varon y mujer, masculino y femenino. Tercero, la dimensión política e institucional de lo anterior –sistema de parentesco, mercado de trabajo, instituciones relativas a la educación, la economía y la política–. Cuarto, la construcción de la identidad subjetiva, que debe ser abordada, relacionando esa construcción de las identidades genéricas con una serie de actividades, organizaciones sociales y representaciones culturales históricamente específicas”.

Hau da, genero identitate eta baita lehen aipatu dugun genero sistema ere, azaldutako lau alderdi horien baitan egikarituko dira. Hala nola, eta guri dagokigunez, esan daiteke generoaren errepresentazioek gure gizartea hartu eta egituratuko dutela. Hau da, feminitatea eta maskulinitatea gizon eta emakumeen gorputzetan sortu eta aurrera eramango diren arren, elementu, sinbolo eta errepresentazio generizatu ezberdinak ere egongo dira gizartean. Euskara ez da gorputz bat, euskara ez da funtsean ezer pertsonarik gabe, harremanik eta komunikaziorik gabe. Hala ere, euskalgintzatik euskarari eman zaizkion esanahien irakurketa bat egin liteke generotik. Euskara balio maskulinoen bidez, edota praktika maskulinoak ardatz hartuta, edo balio eta praktika femeninoak ardatz hartuta errepresentatu eta esanahia eman nahi izan zaion aztertuko da lan honetan. Horregatik, generoaren eraikuntza, eta baita analisirako genero perspektiba ere, emakume eta gizonez haratago ulertzen den egitatea da.

Ikerlanaren helburua eta ikerketa objektua ingurukoei azaltzean, berehala lotzen zuten ikerketa hau gizon eta emakumeekin; eta are gehiago, komentatzen zidaten euskalgintzan ez dela emakume eta gizonen errepresentazioen arteko alde handirik egongo ere karteletako gorputz errepresentatuen kopuruetan. Eta horixe da justuki lan honek egin nahi ez duena. Jakina testuetan erre-presentatuta dauden pertsonen sexuak eta generoak garrantzia izango dutena, baina harago joan nahi da lanean, eta gizon eta emakumeen errepresentaziorik gabe ere, euskara zer nola errepresentatua izan den aztertu nahi da; balio maskulinoen bidez esanahia eraikiz, edota femeninoak erdigunera ekarriz.

Bestalde, garrantzitsua da argi izatea, generoa eraikuntza sozial bat den neurrian, generoaren errepresentazio eta esanahiak tokikoak direla. Generoaren errepresentazioa lekuan lekukoa eta garaian garaikoa izango da.

Marcela Lagarde (1996) antropologo Mexikarrak esaterako, egoki azaltzen du nola kultura bakoitzak generoaren inguruko bere kontzepzioak sortzen dituen:

“Desde un análisis antropológico de la cultura es importante reconocer que todas las culturas elaboran cosmovisiones sobre los géneros y, en ese sentido, cada sociedad, cada pueblo, cada grupo y todas las personas, tienen una particular concepción de género, basada en la de su propia cultura. Su fuerza radica en que es parte de su visión del mundo, de su historia y sus tradiciones nacionales, populares, comunitarias, generacionales y familiares. Forma parte de concepciones sobre la nación y del nacionalismo; cada etnia tiene su particular cosmovisión de género y la incorpora además a la identidad cultural y a la etnicidad, de la misma manera que sucede en otras configuraciones culturales” (Lagarde, 1996: 15).

Horrela, gaur egun oraindik ere Mendebaldeko gizarteetan sozializazioaren bidez, mutil eta nesken arteko bereizketa ematen da. Hau da, etorkizuneko gizon eta emakumeak balio eta printzipio ezberdinekin eraiki eta hezten dira, euren bizitzetara zentzu diferenteak emanez. Heldu bihurtzean gizartearen funtzio desberdinak –eta hierarkizatuak– bete ditzaten (Lozano, 1995).

Beraz, emakumeei alde batetik, eta gizonei bestetik esleitzen zaizkien funtzio sozial ezberdinduek osatuko dute feminitatea, eta maskulinitatea. Hauek ez dira unibertsalak izango (*Idem.*). Hau da, Donostian emakume izatea edota Nepalgo mendietako herririka batean emakume izatea ezberdina da; eta, horrekin batera, emakumetasunaren errepresentazioa eta esanahia ere ezberdinak izango dira. Leku bakoitzean emakumetasunari rol edota funtzio ezberdinak esleitzen baitzaizkio. Hau da, sozialki eraikitako genero roletan izakiak bereizteak espazio tenporal, sozial eta historiko batean jendarte zehatz bat sailkatu, eta orden sozial bat mantentzeko funtzionalitatea dauka (Alvarez, 2015: 15).

Begirada patriarkal batetik eta gure espazio geografiko eta historikoan, emakumeek feminitate hegemonikoaren gerizpean xamurtasuna, otzantasuna, ulertereko gaitasuna, barkatzekoa, men egitekoa, maitasuna eman eta adieraztekoa eta zaintzarako izango lituzkete ezaugarri nagusitzat. Horrek emakumeak izaki pasibo gisa marraztuko lituzke, inongo agentziarik gabe. Beti besteen zerbitzura dauden pertsona lez. Maskulinitate hegemonikoak, aldiz, pribilegio eta botere batzuk barnebiltzen ditu, emakume eta gizonen arteko berdintasun eza area-

gotzen dituenak. Horren ezaugarriak lirateke: arrazionaltasuna, lehiakortasuna, biolentzia, gogortasuna... (Rodó de Zárate & Estivill i Cantany, 2016: 22)

Horrenbestez, ikerlan honetan, euskarari zer balio eta errepresentazioen bidez zentzua eta esanahia eman zaion ikertu nahi da. Ea balio femeninoak esleitu zaizkion, edota ea praktika eta egitura maskulinoen bidez errepresentatu den; noiz eta zertarako eman izan zaizkion euskarari genero bati edota beste bati dagozkion esanahiak... Beraz, esanahi generizatuak nola sortu, eta zergatik sortuak izan diren jakin nahi da.

Azkenik, eta nahiz eta jendarte guztiz dikotomiko batean bizi garen, eta maskulino eta femeninotasunak pisu nabarmena izango duten, aipagarria da generoa eraiki egiten den neurrian, beti ez dela mutur batean edota bestean kokatzen. Hau da, genero identitatea, mututzen joango da, eta horrek trantsizioan egon litekeen generoa ekar lezake. Ikerlanean ere, ikusi ahal izango da hori. Euskararen esanahia, eta testuinguru historiko determinatu batean esanahi batetik beste batera trantsizioan egongo den neurri berdinean, edo funtzio batetik besterako mutazioan, generikoki ere, trantsizioan aurkituko da. Errealitatea, bitasun simple bat baino askoz ere konplikatuagoa baita.

1.2.2. Ikerketan erabilitako teknikak

Genero ikuspegi edota perspektiba batetik ikerketa objektuari begiratzeaz gain, metodologia kualitatiboa erabili da ikerlan hau aurrera eramateko. Besteak beste, bi teknika dira ikerlana aurrera eramateko erabili direnak: dokumentuen azterketa eta testu multimodalen analisisa.

1.2.2.1. Dokumentuen azterketa

Atal honen sarreran aipatu den moduan, hainbat dokumentu irakurri eta aztertu dira ikerketa hau egin ahal izateko. Hala nola, eta marko teorikoa osatu, jantzi eta egituratzeko, dokumentuen azterketaren teknika baliatu da.

Testu multimodalen azterketa egiteko, lan hau genero perspektiba ardatz harturik egin da. Hau da, genero perspektibak txapel orokor bat, kaleko hizkeran

esaten den gisara “betaurrekoak”, edota nondik begiratu eskainiko dio ikerketari. Hala ere, ikerketa objektutzat hartu diren testuen analisi bat egin ahal izateko, euskalgintzaren ibilbide historikoaren azterketa bibliografiko bat, eta baita publizitatearena –zehatzago esanda semiotika eta diskurtso multimodalen analisiarena– ere egin dira. Bi hanka horien gainean eraikiko baita lana.

Euskalgintzaren ibilbide historikoa osatu ahal izateko, hainbat testu aztertu dira; autore eta urte oso ezberdinetakoak. Hala ere, komenigarria da azpimarratzea lan honetan berebiziko garrantzia izango dutela euskalgintzako garai historiko edota etapa historiko ezberdinek. Testuen azterketa garai historiko horien araberakoa izango baita. Euskalgintzaren historia, hortaz, hiru garai historikoetan banatua izan da: 1960ko eta 1970eko hamarkadak barnebiltzen dituen lehenengo garai historikoa; 1980ko eta 1990eko hamarkadak barnebiltzen dituen bigarrena; eta azkenik, 2000ko eta 2010eko hamarkadak barnebiltzen dituen garai historikoa. Etapa edota garai historiko horiek osatzeko, beste autore batzuen lanak hartu dira erreferentziatzat (esaterako: Martinez de Luna, 2010; Topaberri, 2015 edo Inda, 2019). Edonola ere, garai historikoak zehazteko orduan, euskalgintza garaikidearen sorrera datarekin gertatzen den legez, ez dago batasunik. Lan honetan, garai historikoak hamarkadaka osatzea jo da egokitza; betiere aldatetak denboran zehar, eta hainbat egitateren ondorioz, gertatuko direla jakinda. Hargatik, lanean ere aipatzen dira zehaztasunak. Hau da, 2000ko hamarkadan hasten den garaia adibidez, 90eko hamarkada amaierako hainbat gertakarien ondorioz hasiko da. Baina 2000ko hamarkadan joango dira egonkortzen 90eko hamarkadan emandako aldatetak. Era horretan ematen dira garai historiko guztietako aldatetak. Hau da, ez da urte zehatz batean ematen aldateta, baizik eta urte batzuetako prozesua izango da. Hortaz, urteak “borobiltze” aldera, eta aldateten egonkortzeak eman ziren urteei erreparatuta, aurretik azaldutako hiru garai historikoak zehaztea erabaki da.

Bestalde, eta oinarriztat hartuko diren euskalgintzako garai edota etapak hiru izanda ere, aurretiko garai historiko bat ere aztertu da dokumentuen bidez; euskal nazionalismoa sortzen den garaia, alegia. Hau da, euskalgintza garaikidearen aurreko garai historikoa izango da berau, baina ondorengo euskalgintzaren garapenean zeresan handia izango du; batez ere generoari dagokionean. Hortaz, garai hori ere, dokumentu ezberdinak aztertuz analizatu ahal izan da.

Halaber, euskalgintzaren ibilbide historikoan bertan, eta honen gaineko irakurketan, genero perspektiba sartu nahi izan da. Hau da, euskalgintzaren ibilbide historikoa aztertzerakoan, ez da nahi izan generoaren gaia aparteko gaitzat lantzerik. Hala, genero perspektibatik eta jada idatzita dauden testu ezberdinen bidez, garai bakoitzean emakumeen errealitatea euskalgintzan, edota euskararekiko zein izan den plazaratu nahi izan da. Horretarako, Idoia Fernandez, Teresa del Valle edota Jone Miren Hernandez bezalako autoreen lanak erabili dira. Horrela, euskalgintzaren argazki oso bat eman nahi izan da, generoa aparteko gai gisara lantzea baztertuz.

Euskalgintzaren atala osatzeko erabili diren testuekin amaitzeko, Soziolinguistika Klusterrak eta HPSk egindako euskararen erabileraren gaineko datuen irakurketa bat ere egin nahi izan da. Hau da, idatzizko testuez gain, erabilera datuak ere aztertu dira dokumentuen azterketaren teknika erabilita; euskararen erabilerak izan dituen nondik norakoak aztertzeko asmoz.

Bestetik, eta lanaren bigarren hanka osatu ahal izateko, publizitatearen gaia aztertzeko alegia, hainbat autoreen lanak baliatu dira. Nolanahi ere, eta semiotikak eskaintzen duen txapel orokorra osatzeko, bi semiologoren ideiak jorratu dira: Ferdinand de Saussure eta Charles Sanders Peirceren lanetan oinarrituta. Semiotikan sakontzeko, eta analisi teoriko zehatz bat egin ahal izateko, diskurtso multimodalaren analisiaren teoria garatu zuten autoreen testuak erabili dira gehienbat: Gunther Kress eta Theo Van Leeuwen-enak.

Amaitzeko, esan beharra dago nahiz eta analisisian marko teorikoan erabilitako dokumentuek zeresan handia izan duten, beste autore batzuen testuak ere erabili direla; batez ere analisiaren bigarren zatia osatzeko. Hau da, euskararen eta euskal hiztunen transformazioa aztertzen den atalean.

1.2.2.2. *Testu multimodalaren azterketa*

Euskalgintzatik sortutako testu multimodalak dira ikerlan honetako ikerketa objektua. Zehazki, testu multimodal horietan, genero perspektiba batetik euskarari eman izan zaion esanahia aztertzea izango du xede ikerlanak. Helburu hori aurrera eramateko, eta dokumentuen azterketaren atalean aipatu den gisara, semiotika eta diskurtso multimodalaren analisiaren teoriak erabili dira; esanahien irakurketa baterako teoriarik egokienak direla iritzita.

Oro har, eguneroko elementu gehienak kodigo batzuen baitan ulertzen ditugu, baita horiek adierazi nahi dutena ere. Zeinuak, adierazleak eta hauen esanahiak ulertu eta ikertzeko, semiotika ezinbesteko tresna teorikoa da. Sakoneko esanahietan, ezkutukoenetan, murgiltzeko tresna teorikoak eskaintzen baititu semiotikak. Hala ere, eta esanahien zentzua kulturala dela sinetsita, diskurtso multimodalen analisiaren bidez tresna teoriko zehatzagoak ez ezik, metodologikoak ere eskuratu ahal izan dira. Hala nola, eta lan honetan aztertuko diren testuak “modalitate” anitzekoak –idatziz, irudiz...– osatuak izaki, diskurtso multimodalen teoriak eskainiko dizkigu analisirako tresna eta kontzeptu espezifikoak.

Halaber, eta testuez orokorrean hitz egiten baldin bada ere ikerlanean zehar, kartelei buruz ari gara. Hau da, testu multimodalak izan zitezkeen esaterako pegatinak edota baita pintadak ere; baina soilik kartelak aztertzea erabaki da. Kartelak, pegatinak eta pintadak ez bezala, euskalgintzako etapa historiko guztietan sortu eta zabaldu izan dira. Garrantzitsutzat jo da euskalgintzako eragile guztiek erabili eta sortutako euskarri bat izatea aztertzen dena. Hau da, euskalgintza instituzionalak, eta baita euskalgintza sozialak ere, kartelak erabili izan dituzte. Bestalde, karteletan, pegatinetan eta pintadetan gertatzen ez den moduan, normalean igorle enpirikoa edota egileak agertzen dira. Hau da, kartela testuinguru konkretu batean kokatu liteke, nolabaiteko “jabe” baten baitan. Eta bigarren egitate hori ere garrantzitsutzat jo da kartelak aztertzeko, eta ez beste euskarri multimodalak.

Hala nola lan hau egin ahal izateko, 185 testu eskuratu ahal izan dira. Garai historikoari erreparatuz gero, lehen garai historikoan, hau da, 1960ko eta 1970eko hamarkadetakoak, 10 soilik eskuratu ahal izan dira. Bigarren garai historikokoak, 1980ko eta 1990eko hamarkadetakoak hain zuzen ere, 49 testu. Eta azken garai historikoan aldiz, 2000ko hamarkada eta 2010ekoa barnebiltzen dituenean, 126 testu eskuratu ahal izan dira. Testu gehienak –Topagunekoak, HPSkoak eta EKBko bat izan ezik– Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxiboan egindako bilaketa lan baten ostean eskuratuak izan dira. Topagunekoak, aldiz, Topaguneko Komunikazio sailetik bidaliak izan dira. Hala ere, eta digitalizazio arazoak medio, 2008. urtetik aurrerako testuak eskuratu ahal izan dira. HPSkoak, aldiz, Eusko Jaurlaritzako publizitate memoriari aztertuz erdietsi ahal izan dira. Kasu honetan 2001etik aurrerako testuak lortu

ahal izan dira. Hasiara batean, 1982tik aurrerako –Euskararen Legea onartu zenetik aurrerakoak– testuak aztertzea zen helburua. Baina ezinezkoa izan da 2001etik atzerako testuak eskuratzea. Eta azkenik, EKBko “Bateginik” kanpainako testua –ikerlanean aztertutako pegatina bakarra– internet bidez lortu ahal izan da, eta ondoren, EKBn lan egindako pertsona batekin kontrastatu da, ea kanpainako kartel nagusiaren estetika eta leloarekin bat ote zetorren pegatina edo ez. “Bateginik” kanpainak bere garaian garrantzi nabarmena izan zuen. Nolabait, bi eragilek elkarlanean sortutako lehenengo kanpaina gisara definitu genezake. Eta horretaz gain, kanpainak alderdi abertzaleen babesa izan zuen. Hori horrela, eta nahiz eta “Bateginik” kanpainako kartel nagusia ezin izan den eskuratu, horri zegokion materiala –kasu honetan pegatina bat– ezinbestean lanaren parte izan behar zela erabaki da.

Garai historiko ezberdinetako 185 testu horietatik, 17 izan dira tentuz eta fitxa bidez aztertuak izan direnak. 17 testu horiek, hainbat irizpideren arabera aukeratuak izan dira. Batetik, testuek elementu berbal eta ez-berbalak –irudi bidezkoak, kolorezkoak...– barnebiltzea hobetsi da. Esanahia multimodala den heinean, ez da soilik hitzezko edota soilik irudizko testuetan gelditu izan nahi, baizik eta elementu ezberdinen arteko baturak sortzen duen esanahian jarri nahi izan da arreta.

Bestetik, testuak euskalgintzako eragileek sortuak izatea izan da bigarren irizpidea. Hau da, euskararen inguruko edota horren aldeko testuak beste hainbat eragilek ere sortu dituzte; izan sindikatu, alderdi politiko, eskola... baina euskalgintzako testuetan jarri nahi izan da lupa. Hala ere, aipagarria da irizpide hori lehen garaiko –1960/1970eko hamarkadak– bi testutan ezin izan dela errespetatu. Garai horri dagozkion oso testu gutxi aurkitu dira, eta beraz, hiru karteletatik bi euskalgintzaz aparteko eragileek sortuak dira.

Hirugarrenik, testuak euskararen aldekoak eta horren erabilera bultzatzen dutenak izatea hobetsi da. Eta horren baitan, gaia maila orokorrean landu duten testuak aztertu nahi izan dira. Hau da, ezagutzaren gaia espezifikoki lantzen duten testuak ez dira aztertu –adibidez: matrikulazio kanpainak; Korrika bezalako ekitaldietakoak; Ikastolen aldeko festetakoak...–. Zentzu horretan, testua publiko orokorrari zuzendutakoa izatea lehenetsi da. Hau da, umeei, gazteei, gurasoei... zuzendutako testu espezifikoak kanpoan utzi dira. Era horretan,

80ko eta 90eko hamarkadetako testuetan esaterako, AEKren presentzia bat egon badago. Baina ondorengo hamarkadetan, AEK edota HABEren testurik ez da aztertu. Bigarren garai historikoa hartzen duten urteetan –1980/1990–, AEK-k testu orokorrak sortuko ditu. Ez da mugatuko ezagutzari lotutako testuetara, euskararen aldeko testu orokorrak kaleratuko baititu. Zentzu horretan, AEKren testuak bigarren garai historikoan aztertuak izan dira, baina hirugarren garai historikoan kokatzen den AEKren –eta zentzu berean HABEren testurik– ez da aztertu. Bi eragile horiek jada matrikulazio kanpainak edota Korrikaren bueltakoak eta abar egin izan dituztelako azken urteetan.

Laugarrenik, eta hirugarren irizpideari oso lotuta, testuen egiletzak ere garrantzia izan du modu sistematikoan zer testu aztertu erabakitzerakoan. Nolabait ere, tamaina bateko eragileen testuak hartu dira kontuan, eta euskalgintzaren historian pisu nabarmen bat izan dutenenak; horregatik, adibidez herrietako euskara elkarten testuak ez dira aztertu orokorrean; nahiz eta Lasarteko testu bat aztertu den. Bestetik, eragileen produkzioa ere kontuan hartu nahi izan da. Hau da, garai historiko bakoitzean, presentzia eta testu produkzio gehien izan duten eragileen kartelak aztertzea erabaki da; eta hori modu proportzionalen zaintzea.

Era horretan, testuaren sorkuntza data ere kontuan hartu nahi izan da. Hau da, garai historiko ezberdinak izan dira ikerlanaren ardatza, eta baita materiala aukeratzeko oinarria ere. Nolanahi ere, garai historikoaren barnean, urte ezberdinetako testuak aukeratu dira; esanahien eboluzio bat aztertu ahal izateko.

Eta, azkenik, kanpaina handienetako testuak aztertzea garrantzitsutzat jo da. Hau da, euskalgintzaren historian mugarri izan diren kanpaina batzuk egon dira, eta kanpaina horien dimentsioa eta jendearenganako irismena handia izan dela iritzita, kanpaina horiei dagozkien testuen analisi sistematikoa egitea erabaki da. Esaterako, 1979. urteko “Bai Euskarari” kanpainako testua; 1988. urteko “Bateginik” kanpainakoa; 1998. urteko “Bai Euskarari” kanpainakoa; 2005. urteko Lasarte-Orian egiten den Euskararen Maratoikoa –Euskararen Maratoia jotzen da Euskaraldiaren aintzindaria, eta horregatik erabaki da testu hau aztertzea–; HPSk 2006. urtean plazaratu zuen euskararen sinboloari dagokion testu bat –Euskararen birusa–; 2010. urteko “Euskaraz bizi nahi dut” Kontseiluak sortutako kanpainaren testua; 2015. urtean HPSk sortu zuen

euskararen sinbolo berriari dagokion testua –Euskararen txantxangorria– eta azkenik, 2018. urtean egin zen Euskaraldiko testu bat.

Hortaz, eta nahiz eta testu asko eskuratu ahal izan diren ikerlan honetarako, goian aipatutako irizpideen arabera, fitxa bidez modu sistematiko batean aztertuak 17 izan dira –nahiz eta beste lau testu ere ikerketan aipatzen diren eta kodifikatuak izan diren–.

Taula: Kodifikatuak izan diren testu multimodalak

KODEA: K01
IGORLE ENPIRIKOA:
 Donostiako Auzo Elkartea
URTEA: 1975
 (Lehenengo garai historikoa)



KODEA: K02

IGORLE ENPIRIKOA:

Asociaciones de familias/
Famili Elkarteak

URTEA: 1976

(Lehenengo garai historikoa)



KODEA: K03

IGORLE ENPIRIKOA:

Euskaltzaindia

URTEA: 1978

(Lehenengo garai historikoa)



KODEA: K04

IGORLE ENPIRIKOA:

Donostia eta Loiolako

Herri Irratiak

URTEA: 1976

(Lehenengo garai historikoa)




KODEA: K05

IGORLE ENPIRIKOA:

AEK

URTEA: 1985

(Bigarren garai historikoa)



KODEA: K06

IGORLE ENPIRIKOA:

EHE

URTEA: 1980-1987

(Bigarren garai historikoa)




KODEA: K07

IGORLE ENPIRIKOA:

EHE

URTEA: 1980-1992

(Bigarren garai historikoa)



KODEA: K08

IGORLE ENPIRIKOA:

EKB eta Ikastolen

Konfederazioa

URTEA: 1988

(Bigarren garai historikoa)



KODEA: K09

IGORLE ENPIRIKOA:

AEK

URTEA: 1998

(Bigarren garai historikoa)




KODEA: K10

IGORLE ENPIRIKOA:

Kontseilua

URTEA: 1998

(Bigarren garai historikoa)



KODEA: K11

IGORLE ENPIRIKOA:

Ttakun Kultur Elkartea eta

Lasarte-Oriako Udala

URTEA: 2005

(Hirugarren garai historikoa)



KODEA: K12**IGORLE ENPIRIKOA:**Eusko Jaurlaritza: HPS
-Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza-**URTEA:** 2006


(Hirugarren garai historikoa)

**KODEA:** K13**IGORLE ENPIRIKOA:**

EHE

URTEA: 2000-2009

(Hirugarren garai historikoa)




KODEA: K17

IGORLE ENPIRIKOA:

Eusko Jaurlaritza: HPS
–Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza–

URTEA: 2015

(Hirugarren garai historikoa)



KODEA: K18

IGORLE ENPIRIKOA:

Euskaltzaleen Topagunea

URTEA: 2018

(Hirugarren garai historikoa)



KODEA: K19

IGORLE ENPIRIKOA:

Herri Batasuna

URTEA: 1998

(Hirugarren garai historikoa)



KODEA: K20

IGORLE ENPIRIKOA:

Euskaltzaleen Topagunea

URTEA: 2019


(Hirugarren garai historikoa)



KODEA: K21
IGORLE ENPIRIKOA:
 EHE
URTEA: 2005-2015
 (Hirugarren garai historikoa)



KODEA: K22
IGORLE ENPIRIKOA:
 Eusko Jaurlaritzak: HPS
 –Hizkuntza Politikarako
 Sailburuordetza–
URTEA: 2014
 (Hirugarren garai historikoa)



Amaitzeko, komeni da argi uztea goiko taulan ageri diren testuen analisi multimodala –K04, K19, K20 eta K21 izan ezik–, modu sistematiko batean egin dela. Hau da, fitxa bat sortu da diskurtso multimodalaren analisiaren teoriar oinarrituta, eta berau erabili da analisi hau egiteko (Ikus: 7. Eranskinak). Bestek beste, fitxa horren bidez, lau kategoria aztertu nahi izan dira: igorle enpirikoa; parte hartzaile errepresentatua, diskurtsoa, eta hartzaile/behartzaile inplizitua.

2. EUSKALGINTZAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Marko teorikoa osatzen duen lehen atal honetan, euskalgintzaren bilakaera historikoa ezagutzea izango da helburua. Elementu, aldagai, edo gure kasuan, euskararen esanahia ulertzeko, euskalgintzaren nondik norakoak ezagutzea ezinbestekoa izango da. Horrela, datozen orrietan, euskal nazionalismo goiztiarretik hasi, eta gaur egunera arteko euskararen eta honen aldeko mugimenduaren ibilbidea ezagutu eta aztertuko da.

Euskalgintzaren bilakaera historikoa eta nolakotasuna aztertzen duten lan gutxi argitaratu dira egun arte. Imanol Agote historialariaren artikulu batean aurkitu dugunez, 1995. urtean bederen, euskararen aldeko mugimenduari buruz egindako ikerketa monografikorik ez zen existitzen. Hori horrela, gehienetan gainera, euskararen aldeko mugimenduaren gainean idatzitako lanek iritzi artikulatu edo datu bilketen itxura izan ohi zuten –dute–, eta mugimenduaren baitan kokatzen diren militanteek idatziak izan ohi ziren; eta ez ikerlariek (Agote, 1995: 83).

Hala nola literatura akademikoaren urritasun hori hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduen berariazko ezaugarri bat izan da. Hau da, hizkuntza indarberritzeko sortutako mugimendu ezberdinak ez dira izan zientzialari sozialen arreta gune (Fishman, 1991: 382).

Hori horrela, eta hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduen ikerkuntza ikerlari sozialen gairik gustokoena edota aberatsena ez izan arren, 90eko hamarkadan horren gerturapen eta azterketako lehen lanak aurki genitzake –nahiz eta, Agotek (1995) azpimarratzen duen moduan, oraindik ere hamarkada horretan ikerketa kualitatibo mardulik ez egon–. Adibidez, eta Euskal Herriko soziolinguistikari begiratu bat emanik, Bat soziolinguistika aldizkariko 6. zenbakia,

16.a eta 31. zenbakia izango genituzke³ garai horretan, euskararen aldeko mugimendua ikertu zuten ale monografikoak (Rodríguez, 2020: 68).

2000ko hamarkadatik aurrera, euskalgintzaren inguruko produkzio akademikoa moteldu egin da. Horrenbestez, eta aurrerago ikertuko den arren, euskalgintza bidegurutze moduko batean dago. Azken bi hamarkadetan batez ere euskalgintza hausnarketa etengabean ibili da; neurri batean hausnarketa estrategikoetan murgilduta ibili baitira berau osatzen duten talde eta eragileak (Amonarriz & Martínez de Lagos, 2017: 28). Hori horrela, azken urte hauetan, eta XXI. mende hasierako motelaldi hori atzean utzirik, nolabaiteko susperralditxo “akademiko” bat dator. Horren adibideetako bat da, besteak beste, 2019. urtean argitaratutako Bat aldizkariko 112. zenbakia –“Euskaltzaleen mugimendu berriua” izenburuduna–.

Beraz, azken hamarkada honetan, euskalgintzaren inguruko ikerketen susperraldi bat dago. Hala eta guztiz ere, eta Bat aldizkariko izenburuei erreparatzen badiegu, izenburuetan ez da “Euskalgintza” kontzeptua ageri. “Euskararen herri-mugimendua”, “Euskararen gizarte mugimendua”, “Euskararen aldeko gizarte mugimendua” edo “Euskaltzaleen mugimendu” gisara izendatu da euskararen biziberritzeaz arduratu eta borroka egin duen mugimendua. Lan honetan aldiz, “Euskalgintza” kontzeptua erabiliko da. Ane Larrinaga soziologoak honela definitzen du kontzeptu hau: “*Herri ekimenez elikaturiko mugimendu soziokulturala*” (Larrinaga, 2011). Iñaki Martínez de Lunak, aldiz, “*hizkuntza suspertu eta biziberritzeko ahaleginak gorpuzten dituen mugimendu*” gisara definitzen du euskalgintza (Amonarriz & Martínez de Lagos, 2017: 12).

Euskalgintzaren, edota hobeki esanda, euskalgintza garaikidearen –mugimendu sozial gisara ulertuko duguna– sorrera 60ko hamarkadan kokatzen da. Garai horretan sortuko dira “gizarte mugimendu berriak” txapelpean ezagutzen ditugunak. Mugimendu sozial berri horiek, zapalkuntza mota ezberdinak⁴

³ 6. zenbakia: “Euskararen herri-mugimendua” izenburuduna, eta 1992. urtean argitaratua.
16. zenbakia: “Euskararen gizarte mugimendua” izenburuduna, eta 1995. urtean argitaratua.
31. zenbakia: “Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB” izenburuduna, eta 1999. urtean argitaratua.

⁴ Mugimendu sozial “zahar” gisara, langile mugimendua identifikatzen da. Hala nola, eta nahiz eta feminismoa adibidez, mugimendu sozial berrien baitan kokatu hainbat ikerlarik,

identifikatu eta aurre egiteko sortu ziren. Klase zapalkuntza baino⁵, zapalkuntza askotarikoagoak existitzen zirela, eta haien aurka egiteko doitutako mugimenduak dira. Honela azaltzen du Boaventura de Sousa soziologoak:

“Al identificar nuevas formas de opresión que sobrepasan las relaciones de producción, y ni siquiera son específicas de ellas, como son la guerra, la polución, el machismo, el racismo o el productivismo; y al abogar por un nuevo paradigma social, menos basado en la riqueza y en el bienestar material del que, en la cultura y en la calidad de vida, denuncian los nuevos movimientos sociales, con una radicalidad sin precedentes”
(Boaventura de Sousa, 2001: 178).

Beraz, mugimendu sozial berri horien baitan kokatuko genuke euskalgintza. Hizkuntzagatiko zapalkuntzari aurre egingo liokeen mugimendua, alegia. Larrinagaren (2011) aburuz, beraz, herri ekimena izango du oinarrian mugimenduak, eta Martinez de Lunak (2017), aldiz, hizkuntza suspertzeari eta biziberritzearen gorpuzteari egiten dio erreferentzia. Goiko lerroetan aipatu den gisara, lan honetan euskalgintza kontzeptuaren alde egin da. Mugimendu sozial berrien markoan kokatu dugu berau, eta mugimendu sozial berri horiek zapalkuntzez eta horien gaineko irakurketez hitz egin izan dute. Hala, garrantzitsua da herri ekimenez hizkuntza suspertu eta biziberritzeko ahaleginetan dabilen mugimenduari, eta baita horrek euskararen eta euskal hiztunen zapalkuntzaren inguruan sortzen duen teoriari ere kontzeptu bakar bat esleitzea. Zapalkuntza bera, eta aurre egingo dion mugimendua, kontzeptu bakar batean elkarlotuz, alegia. Beste mugimendu sozial berrietan gertatzen den antzera; izan ekologismoa, antimilitarismoa edota feminismoa.

Baina euskalgintza mugimendu sozial bilakatu aurretik, euskararen aldeko mugimendu bat egon zen, nazionalismo gozitiarrarekin lotura zuzena izan zuena.

gogoratu behar dugu honen sorrera –Europako ikuspegi batetik– XVIII-XIX. mendean gertatzen dela.

⁵ Langile mugimendua edo klase zapalkuntza jotzen bada ere mugimendu sozial “zahar” horien baitako mugimendu behinena, autore batzuen arabera, Pedro Ibarra (2003: 177) politologoaren arabera esaterako, abertzaletasuna ere, mugimendu sozial zahar gisara identifikatu liteke.

2.1. NAZIONALISMO GOIZTIARRA ETA EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDUA

Euskal nazionalismoaren sorkuntzarekin batera atzeman da euskararen aldeko mugimendu antolatu baten lehen zantzua. Arestian aipatu den bezala, euskalgintza garaikideak 60ko hamarkadan du bere sorburua, baina mugimendu hau sortu aurretik, XIX. mende amaieran, eta XX. mende hasieran, aurkitzen da hizkuntzaren eta euskal kulturaren alde modu antolatuan jardun zuen mugimendu bat: Eusko Pizkundera. Ondorengo hitzekin deskribatzen du, Joan Mari Torrealdai (1997) mugimendu hori:

“1876an euskal foruak abolitzean sortzen den mugimendu abertzale eta euskaltzalea euskal nortasuna, euskal ezaugarriak definitzen eta defendatzen arituko da. Joera foruzalea eta autonomiazalea areagotu egiten dira eta, Euskal Herriaren historia, kultura, hizkuntza berreskuratzeko behar intelektual eta politikoa sentitzen da. Horrela, euskal izaera sustatzeari ekiten dio mugimendu berri horrek” (Torrealdai, 1997: 100).

Beraz, mugimendu horren muinean, hizkuntza berreskuratzeaz gaindi, euskal nortasuna eta identitatea areagotzea ere helburu bilakatuko ziren. Mugimendu horrek ekarri zuen Euskal Herrira horrelako alaitasun printzirik, eta horren lekuko da 1907. urtean Eusko Ikaskuntzen nazioarteko aldizkarian⁶ argitaratutako testu hau:

“Euskera galtzen zalako negarrez zeuden biotzak alaitu ditezela. Euskera maite dezuten euskaldunak, poztu zaitezte. Euskera piztuko da. Orain arte alperrik galdu ditugu gure indar geienak, euskaltzaleak banatuta, bakartasunean eta bakoitza gure aldeti ibilli geraldako. Baña batu gera, indar guztiekin bat egiteko, euskera beste itzkunzez goitik jartzeko aleginak, eta euskal erri guztia euskeraz mintzatzen ikusi arte, ez alda gure egitekoa bukatuko!” (Eusko Ikaskuntza, 1907: 213).

⁶ Aipagarria da, aldizkari hau urte horretantxe –1907. urtean– sortu zuela Julio Urquijok. Egitate honek adierazten du besteak beste, mende hasierako urte hauek mugituak izan zirela (Eusko Ikaskuntza, 2018).

Hala eta guztiz ere, mugimendu horren hastapenarekin batera, orduko Euskal Herriko egoera eta testuinguru politikoari ere erreparatu beharko genioke. Justuki, XIX. mende amaieran sortu baitzen euskal nazionalismo goiztiarra deiturikoa; nolabait ere, Eusko Pizkundearen sorrerarekin guztiz loturik egongo baita Euskal nazionalismoaren sorrera ere.

Sabino Arana Bilbotarra izan zen Euskal nazionalismo horren ideologo nagusia. Euskal nortasunari proiektio politiko berri bat ematen saiatu zen. Bere teoriaren arabera, euskal naziotasuna bost elementutan oinarritzen zen: arraza, hizkuntza, gobernu eta legeak, izaera eta ohiturak, eta nortasun historikoa. Hala nola guztiek ez dute izango garrantzi bera. Arraza izango da identitate nazionalaren erdigunean egongo dena. Hau da, euskal naziotasuna arrazaren bueltan eraikia izango da (Tejerina, 1999: 82).

Hala nola Aranarentzat (1965:1713) arraza izango da, Euskal nazioa eta euskaldungoa ezberdinduko dituen elementua. Hala ere, arrazak eskaintzen duen nagusitasun horretan irauteko modua hizkuntzaren berezitasuna gordetzea izango da: “*La utilización y conservación de la lengua será preservadora de la pureza racial*” (Arana, 1965: 404). Beraz, hizkuntza ere elementu garrantzitsu gisara ikusten zuen Aranak, baina ez zen kokatuko identitatearen erdigunean. Edo beste modu batera esanda, euskal identitatearen eraikuntzan, arrazak berebiziko zentralitatea izango du. Eta hizkuntza nahiz eta garrantzizkotzat jo, bigarren maila batean geldituko da. Aranak hizkuntzari ematen zion bigarren mailako izaera horrek, euskararen ezagutza eta erabilerara berreskuratzeko eta zabaltzeko hasitako lana baldintzatuko du (Tejerina, 1999: 83).

Bestalde, euskal nazionalismoaren ideologoak hizkuntza arrazaren bigarren mailako osagarri gisara kalifikatzeak izan zuen eraginik hizkuntzaren zaintza eta suspertzea noren esku geldituko zen erabakitzerakoan, arrazaren eta hizkuntzaren mantentze lanak, hein handi batean, emakumearen gain utzi baitzituen planteamendu honek (Acosta, 2013).

Arras ospetsu egin den bezala, XX. mende hasierako euskal nazionalismoaren “leloa” *Jaungoikoa eta Lagi Zaharra* izan zen. Modernitateak ezarritako eredu binarioarekin jarraiki, emakumeak esparru emozional eta sentimentalean kokatuko lirarteke. Hori horrela, eta abertzaletasunaren

zereginekin lotuz, emakumearen ekintza abertzalea bihotzarekin edo sentimenduekin lotu zen. Hau da, “Jaungoikoaren” esparruaren transmisioa emakumeen lantzat jo zen. “Lagi zaharra”, aldiz, esparru politikoarekin lotutako kontzeptua izan zen; arrazionalitatearekin, gizonezkoei egokitutako eremuarekin alegia. Baina kontzeptu horren baitan, badago elementu edo espazio bat, emakumeentzat egokia zirudiena: hizkuntzarena (Llona, 2002). Euskararen transmisioa, beraz –eta arestian aipatutako gisara–, emakumeek abertzaletasunaren baitan izango zuten egitekorik garrantzitsuenetako bat zen; balore eta doktrina erlijiosoaren transmisioarekin batera.

Teresa del Valle antropologoak “Mujer vasca” (1985) liburuan argi azaltzen digu, zein izan zen euskal nazionalismo goiztiarrenak emakumeari emandako papera:

“Podemos decir que el nacionalismo histórico presenta una imagen de mujer vasca asociada a su rol de madre y cuyo espacio fundamental es el familiar. Sus valores se concretan en ser buena educadora, capaz de crear futuros patriotas, mujer fuerte que en los momentos difíciles sea consuelo y alivio, buena organizadora de su casa e incansable trabajadora, atenta al mantenimiento de la cohesión familiar, así como de la moral cristiana y las buenas costumbres. Es la madre que mantiene la raza a través de su descendencia, pero también de ella depende la conciencia nacional y el mantenimiento de la lengua que actúa como símbolo de identidad nacional, mediante la actuación inmediata en la educación de los hijos” (Del Valle, 1985: 233).

Hala eta guztiz ere, emakumeen gain nazionalismoak eremu pribatuko transmisio lanak utzi baldin bazituen ere, 20ko hamarkadan aldaketa bat gertatu zen. Nazionalismoaren baitan, emakumeek izan beharko luketen rolaren inguruko hausnarketa ezberdinak aurrera eramanez baitziren euskal nazionalismoaren baitan. Irlandako Sinn Fein mugimenduko “Cumann nan Ban” emakume taldea ardatz harturik, eta Irlandako eredu horri jarraiki –mugimendu nazionalistaren baitan emakumeek euren taldea eduki eta haien lan espezifikokoak egitea alegia–, Emakume Abertzaleen Batza (EAB) sortuko da 1922. urtean Bilbon. Emakume Abertzaleen Batzak (EAB) bere Manifestoan hiru helburu aipatzen ditu espreski: euskal nazionalismoaren esana zabaltzea –arlu honetan agitazio eta propaganda lanak sartuko lirateke–, ongizate eta benefizientzia lanak garatzea,

eta kultur mailako ekintzak burutzea –hemen sartuko litzateke hizkuntzaren dimentsioa– (Acosta, 2013).

Aldaketa horrekin, emakumeek nazionalismoaren baitan, eta hizkuntzaren biziberritzeari dagokionez, ematen duten salto kualitatiboa honela azaltzen du Idoia Fernandez (1995) ikerlariak:

“Irlandako eredu honetan ardaztuta, aldaketa nabaria da. Lehenengo sozializazio-rako, familia sozializazio egile izatetik bigarren sozializazioan eskusartzerara pasatzen da, umeak eta gazteak mobilizatu eta hezitzearen ardura emango zaiolarik. Espazio pribatutik, ezin genezake esan modu honetan mundo publikora salto egin zutenik garai honetako emakumeek. Emakumeak euren etxetik familia nazionalista handiaren espaziora igaro ziren, nolabait publikoa eta kolektiboa zen espaziora. Dударik gabe, hortik politika eta poterearen mundura badago alde, baina urrats garrantzitsua izan zela aitortu beharra dago” (Fernández, 1995: 35).

Urte batzuk beranduago, Espainiako gerra zibilaren ostean⁷ eta Francoren diktadurapean, hasten dira sortzen “Etxeko eskola” deiturikoak⁸. Horiek ere emakumeek sortuak –gehienak gainera, EABn parte hartutako emakumeak izan ziren–, eta etxeko eskola hauetan eratu zen andereino sareari esker sortu ziren ondoren ikastolak ere, hein handi batean behintzat. Elvira Zipitria –Emakume Abertzaleen Batzako kidea– izango da lehen “etxeko eskola” sortuko duena Donostiako Fermin Calbeton kalean 1946. urtean. Euskarazko eskolak sortzea –funtsezko lana ezagutza areagotzeko eta hizkuntza biziberritzeko–, beraz, emakumeen lana izan zen. Fernandezek, honela deskribatzen du lehen “euskal hezkuntza sistema” honen baitan zegoen ideologia:

“Familiaren ideologia’ zen, nazionalismo tradizionalari jarraiki, eta horretan, emakumearen ama funtzioa, hizkuntzaren eta tradizioaren kontserbatze funtzioa eta elebitasunezko planteamenduak gorpuzten ziren” (Fernandez, 1995: 44).

⁷ Euskara arlo pribatuan galarazita ez baldin bazegoen ere, galera nabarmena egon zen arlo honetan ere. Azken finean, arlo publikoko debekuek, arlo pribatuan ere eragina izan baitzuten; batez ere, etxeko transmisioaren etenean.

⁸ Gerra aurretik ere, euskaraz ikasteko eskola antzeko batzuk existitu ziren. Nahiz eta gerra ondorengoan bezain egitura finkoa ez izan (Fernandez, 1995).

Beraz, nazionalismo goiztiarrenaren baitan, hizkuntza emakumeen eginkizuntzat hartu zen, eta hizkuntzaren biziberritzean emakumeek pisu nabarmena izan zuten; nahiz eta, “Eusko Pizkundera” deiturikoan adibidez, modu nabarmenean parte hartu, ondoren, haien lana ikusezin mantendu da. Euskararen aldeko mugimendu bat sortu zen nazionalismo goiztiarrarekin batera. Hau da, hasiera batetik, euskararen aldeko mugimendua eta euskal nazionalismoa eskutik helduta joan dira; nahiz eta, hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan, euskara eta abertzaletasuna bereizteko hainbat lan ere egin den.

2.2. 1960-1970EKO HAMARKADAK: EUSKALGINTZA GARAIKIDEAREN SORRERA

Aurreko atalean ikusi dugun gisara, euskara, honen aldeko mugimendua eta euskal nazionalismoa edota abertzaletasuna elkarri oso loturik egon dira historian zehar. Euskal identitatearen inguruan teorizatzen hasi zen unetik –nazionalismo goiztiarra sortu zen unetik, alegia–, euskarak izan du bere lekua nazionalismo eta identitate horren definizioan; nahiz eta orain arte ikusi dugun moduan, lehen nazionalismoaren arabera, euskal identitatearen eraikuntza arrazaren aldagaiaren bueltan ardaztu.

Hori horrela, aipagarria da XX. mende hasieran abertzaletasunak izan zuen aparraldi horrek –Euskal Pizkundearen garaia, EABrena...–, bere barealdia izan zuela 1936. urteaz geroztik. 1936ko gerraren ondoko urteak urte ilunak izan ziren, oro har, abertzaleentzat⁹. Hamarkada hauetan, Hego Euskal Herriko gizartea eta ekonomia izugarri aldatu ziren, neurri handi batean industrializazioaren eraginez, eta horrek ekarritako migrazioaren poderioz. Buruzagi abertzaleak gerra galdu ondoko etsipenak jota zeuden, eta nolabait ere, galduta sentitzen ziren gizartean gertatzen ari ziren aldaketa haien guztien aurrean, zehazki nola jokatu ez zekitela. Baina 50eko hamarkadan, bazegoen gazte be-

9 Goiko orrietan aipatu dugun bezala, 40ko hamarkadan, etxeko eskolekin lehen “Euskal Hezkuntza Sistema” bat sortzeko ahaleginak egongo dira. Baina, oro har, gerraosteko urteak, nahiko ilunak izango dira, abertzaletasunarentzat, euskararentzat eta ondorioz, honen aldeko mugimenduarentzat (Fernandez, 1994).

launaldi hiritartu, eta nolabait esateko, intelektual bat. Gazte horiek, mende hasierako buruzagi abertzaleen pasibotasuna eta etsipena ikusirik, eta Frankismo garaian Euskal Herriak eta euskarak bizi zuten egoera larria kontuan izanik, egoera hori iraultzeko moduez hausnartzen hasi ziren. Oro har, bi helburu nagusi finkatu zituzten. Batetik, mende hasierako abertzale haien etsipenari eta pasibotasunari erantzutea, eta bestetik, abertzaletasunaren oinarriak berriro eta aldatzea (Odriozola & Zabalo, 2014: 71).

Gutziz bereizitako bi helburu badirudite ere, elkarrengandik oso gertu eta zuztar berari loturik daude aurretik aipatutako bi helburuak. Hori horrela, mende hasierako buruzagi abertzaleen pasibotasunari aurre egiteko, eta abertzaletasuna berrasmatzeko asmoz, Ekin-ETAren¹⁰ baitan antolatu zen goian aipatutako gazte talde hori. Ekin-ETAk bere lehendabiziko idatzietan Aranaren arrazaren kontzeptu biologikoa baztertu, eta hizkuntzaren eta kulturaren garrantzia nabarmendu zuen; beste iturri batzuen eraginen artean Federiko Kruwtwigen (1963) teoriak eraginda. Hala nola euskara abertzaleen aldarrikapen nagusietako bat bilakatu zen 60-70eko hamarkadetan, diskurtso abertzalearen erdigunea hartu baitzuen (*Idem.*). Argi eta garbi azaltzen zaigu egitate hori Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegia” intelektualak idatzitako orduko testu batean:

(...) Horiek horrela hau esan dugu: euskerak hortaratu duela Euskal Herriaren oinarritzko izakera edo nazio-jite berezia. Baina hau, asko izanagatik ere, ez da dana. Ondoko lerroetan agertuko den bezala, hizkuntzak ematen baitu ere herritasun-giroa, herritar-kontzientzia, ahaidetasun-ustea, herri-kidetasuna, edo aberke-di-anaitasunik iraunkorrena” (Álvarez «Txillardegia», 1966: 84).

Hori horrela, eta goragoko orrietan jada aipatu den gisara, testuinguru horretan, 50eko hamarkada amaieran eta 60koaren hasieran, sortzen da euskalgintza garaikidea. Horren sorrera eman zedin, hainbat astro lerrokatu ziren Euskal Herrian –ikusten joango garen gisara, astro horiek guztiak elkarloturik egongo dira, sarri askotan, egitate bat beste baten ondorio izango delarik–.

¹⁰ Petxo Idoyaga ikerlariak honela deskribatzen du: “*El predecesor de ETA fue Ekin un grupo de jóvenes constituido en 1953 en torno a tareas de estudio y formación y en actividades en defensa del euskera*” (Idoyaga, 2009: 41).

Euskalgintza sortzeko, berebiziko garrantzia izango zuen euskal identitate “berriaren” agerpenak. Benjamin Tejerinaren arabera:

“El proceso de recuperación de la lengua sólo puede ser entendido si lo relacionamos con el proceso de construcción de la identidad colectiva vasca. En la cristalización de esta vinculación creciente entre lengua e identidad, el movimiento etnolingüístico ha desempeñado un papel central” (Tejerina, 1999: 75).

Beraz, 60ko hamarkadan identitate nazionalak nolabaiteko birkokatze eta birformulazio bat bizi izan zuen. Jada, euskal nazionalismoa ezin izango da arrazaren elementuaren inguruan ardaztu –elementu biologikoetan–. Hizkuntzaren aldagaia euskal identitatearen zutabetzat harturik, lehen arrazaren inguruan ardazten zen euskal identitate hori eskuratu ezin zuten pertsona batzuk, berau eskuratu ahal izango zuten. –Lehen euskaldun jaio behar zen eta hizkuntza identitatearen ardatztzat hartuz, euskaldun bilakatu zintezkeen jada. Hizkuntza eskuratu baikenezake, baina arraza ez–, eta egitate hori oso garrantzitsua izango da hamarkada hauetako euskalgintzaren kezka nagusiak garatu eta ulertzeko. Hamarkada honetan euskalgintzak, bere indarrak euskararen ezagutzan jarriko baititu (Amezaga, 2015: 41). Honela azaltzen du Tejerinak diskurtso nazionalistaren birformulazioak euskararen egoeran izan zuen eragina:

“La reformulación teórica del discurso nacionalista que se produce en la década de 1960 tiene una doble influencia sobre la situación de la lengua. Por un lado, la lengua se convertirá en el elemento de mayor significación social para la construcción de la diferencialidad de la identidad colectiva vasca, como correlato empírico de la existencia de una comunidad diferenciada; y la adhesión afectiva a la lengua refuerza su dimensión participativa, como símbolo de pertenencia a la comunidad. Por otro lado, esta adhesión afectiva a la lengua, como símbolo de pertenencia a un grupo social que posee una identidad colectiva diferenciada, mueve a los individuos que nunca la han poseído o que la han perdido a aprenderla, incrementando su utilización” (Tejerina, 2006: 100).

Hala nola XX. mende erdialdeko urte hauetan, hizkuntza –euskara– galtzen ari zenaren kontzientzia pizten da Euskal Herrian. Nortasun kolektibo eraiki berri

horren ardatza eta sinboloa den hizkuntza, galzorian dago. 60ko hamarkadako testuinguruan, Frankismoaren aurkako hainbat mugimendu eta talde sortzen da Espainiar Estatuan. Europan ere mugimendu sozial ezberdinen loraldia gertatzen ari da –68ko maiatzeko mugimendua esaterako–. Euskalgintzaren sorreran beraz, Euskal Herriko testuinguru partikularrak eraginik izango duen arren¹¹, Estatu Espainiar zein Frantseseko testuingurua, hala testuinguru internazionala ere, kontuan hartu beharko dira fenomeno hau ulertzeko momentuan (Larrinaga, 2017: 62).

Testuinguru horretan, interesgarria da oso adibidez, Ane Larrinaga soziologoak (2017) *Gogoia* aldizkarian argitaratutako artikulua. Larrinagak euskalgintzaren sorrera emozioen prismatik aztertzen du artikulua horretan. Egileak haserrea eta lotsa jotzen ditu euskalgintzaren sorrera ahalbidetu zuten bi sentipen nagusi gisara. Urteetan zehar, euskalduntasuna “trauskiltasun” edo ezjakintasunarekin lotu izan zen, eta horrek izugarritzko lotsa eta ukazio bat ekarri zuen euskal jendartera. Baina mugimendu sozial askorekin gertatzen den moduan –*queer* mugimendua, adibidez–, lotsa hori harrotasun bihurtu, eta urteetako haserrearen poderioz, sortu zen euskalgintza urte horietan, besteak beste (*Ibid.*: 63).

Sarreran aipatu dugun gisara, 60ko hamarkadan sortu zen euskalgintza garaikidea mugimendu sozial berrien multzoan kokatuko genuke. Pedro Ibarra (1999) ikerlariaren arabera, gizarte mugimendu bat ekintza kolektiboaren aldaera bat da, eta ekintza kolektibo bat izateak aurrez gatazka edo tentsio bat egotea dakar. Mugimendu sozial horren helburua gatazka edo tentsio hori ikusgarri egin, eta horri irtenbideak aurkitzea izango da.

Mugimendu sozialek, beraz, gizarte aldaketa bat bilatzen dute. Bestalde, gizarte mugimenduek errealitatea ulertzeko trena ezberdinak eskaintzen dituzte; ordura arte normatiboa zena ezbaian jarritz, eta sarri asko, beste arau sozial batzuk ezarriz (Larrinaga, 2018).

¹¹ Esaterako, Jesus Casquete (1995: 105) soziologoaren arabera, Euskal Herriaren kasuan, berau mugimendu-gizarte gisara identifika genezakeela adierazten du. Hau da, gizarte bat zeinean gizarte-mugimenduen eta oro har, gizarte erakundeen jokalekua aberatsagoa den, eta ondorioz, hauek bideratutako protesta jokabideek protagonismo berezia duten –Euskal Herrian urte luzez bizi izandako egoeraren ondorio izango da hau–.

Hori horrela, euskalgintzak gizarte mugimendu “berrien” ezaugarriak barnebiltzen ditu. Hala eta guztiz ere, aipagarria da gizarte mugimenduen teorizazioaren erdigunean gizarte mugimendu horren subjektu politikoa kokatzen dela. Mugimendu sozialen baitan, nahiko afera labainkorra eta eztabaidatua izaten da subjektu politikoa zein izango den zehaztea. Adibidez, gaur gaurkoz, feminismoaren baitan eztabaida interesgarriak aurki genitzake feminismoaren baitako subjektu politikoaren inguruan –feminismoaren subjektu politikoa emakumea izan behar al da?–. Euskalgintzan ere, esan liteke antzerako zerbait gertatu izan dela. Logikoki, euskalgintzaren subjektu politikoa euskal hiztunak izan beharko lirateke; baina errealitateak erakusten digu ez dela horrela izan. Mugimendua ez baitu –eta hasiera batetik, ez baitzuen– hiztun tipologia homogeen batek eratu. Euskalgintza garai-kidea sortu zen unetik, erdaldunak eta elebidun pasiboak –euskara ulertu bai, baina hitz egiten ez dutenak– euskalgintzaren parte izan baitziren (Odriozola, 1992: 26).

Hala eta guztiz ere, euskalgintzaren baitan subjektu ezberdinak batu baziren ere, oro har, gizarte mailan eman zen lehen aipatu dugun hizkuntzarekiko kontzientzia hartze bat –batez ere euskal hiztunengan, baina baita erdal hiztun batzuegan ere–. Egoeraren kontzientzia hartze hori, nagusiki bi ekintza nagusitan egikaritzen da: ikastolen sorreran eta helduen alfabetatze eta euskalduntzearen mugimenduaren sorreran (Tejerina, 1999: 87).

Hala nola, eta mugimenduaren sorrerako urte hauetan, euskararen aldeko mugimenduaren kezken muinean, hizkuntzaren ezagutzaren aldagaia aipatu beharko genuke derrigor. Hasierako urte hauetan, beraz, jendeak euskara ikas zezan jarri zen indar guztia. Orduko testuinguruan, nahiko ulergarritzat joenezake euskararen ezagutzan jarri izana mugimenduak indarra. Frankismoko errepresio eta debekuek, euskara ia galzorira eraman baitzuten. Hala ere, Iñaki Martínez de Luna –eta egungo perspektibatik egindako analisi batean– soziolinguistaren arabera, ezagutzan indar asko jarri zela nabarmentzen du, euskararen erabilera indar berbera jartzen ez zen bitartean:

“Gizartea zein euskaltzale gehienak —ez guztiak— erabateko ezjakintasun soziolinguistikoa murgilduta zeuden. Horrexegatik, hizkuntza-ezagutza eta hizkuntza-erabilera ez ziren analitikoki behar bezain ongi bereizten eta euskara-ikaste hutsa hizkuntza hori biziberritzeko nahikoa izango zela uste zabaldua zen” (Martínez de Luna, 2010: 54).

Hizkuntzaren biziberritzea ezagutzaren gainetik jarriz sortu ziren garai hartan, beraz, Ikastolak eta helduen alfabetatze eta euskalduntze eskolak. Hala ere, Idoia Fernandez ikerlariak aitortzen duen gisara, ikastolak –eta baita helduen alfabetatze eta euskalduntze eskolak ere– mugimendu gisara ikus eta aztertu beharko genituzke. Horien sorrerak ez bailuke zentzurik izango, nazio erai-kuntzaren parametroetan aztertzen ez baldin badugu:

“Nazioaren muinaren lekualdatze honek, arrazatik hizkuntzara, berebiziko garrantzia du, zeren nazionalismo tradizionalan euskalduna izatez eta odolez (euskaldun jai) baitzen, formulazio berriaren euskalduntasuna eskuratu daitekeen bitartean (euskaldundu). Hau funtsezkoa da ikastolen mugimendua ulertu ahal izateko, alegia, ikastola ez da soilik euskaraz egiten den eskola, baizik eta herri nortasuna eta nazioa oinarritzeko eta finkatzeko sortu egiten den baliabide bat; ikastolan parte hartzea, euskal eraikuntzan aritzearen sinonimoa da, eta argi daude honek dituen inplikazio politikoak” (Fernandez, 1995: 105).

Testuinguru horretan, hortaz, sortu zen 1957. urtean lehen gerraosteko ikastola. Izugarritzeko suspertzea izan zuten ikastolek herriz herri garai horretan, 1960-75 urteen bitartean 160 ikastola sortu baitziren Euskal Herrian (Tejerina, 2006: 104).

Ikastolen sorrerak, gazteenen euskalduntzea ziurtatzen zuen. Hala ere, eta ikastolen sorrerarekin batera, beste behar bat ere sortu zen: euskaraz hitz egiteko gai zirenen, baina idazteko edota irakurtzeko ezintasunak zeuzkaten helduen alfabetatzearena. Aipagarria da euskal helduen gehiengoak ez zekiela euskaraz irakurtzen, ezta idazten ere garai hartan –erdaraz eskolaratuak izan baitziren gehienak–. Horretaz gain, euskaraz ez zekitenek ere euskara ikasteko aukera izan zuten eskola horietan (Odriozola, 1992: 30). Hori horrela, Euskaltzaindiaren babesletzarekin, 1966. urtean sortu zen helduen alfabetatze eta euskalduntze inizatiba (Tejerina, 1999: 89).

Hala nola aurreko puntuan ikusi ahal izan dugu, nazionalismo goiztiarraren baitan, emakumeek “etxeko eskola” deiturikoetan esaterako, paper garrantzitsua izan zutela; eta nolabait ere, hizkuntzaren transmisio eta irakaskuntza beraien gain gelditu zela. Beraz, XX. mende hasiera arte, emakumeek hizkuntzaren transmisio naturalaren ardura izan zuten, hau da, etxeko transmisioarena. Etxeko eskolen

sorrerarekin lehenengo, baina modu nabarmenago eta masiboagoan ikastolen sorrerarekin –eta baita helduen alfabetatze eskolekin ere–, emakumeek hartuko dute hizkuntzaren transmisio kulturalaren ardura; hezkuntza formalean ematen den hizkuntza transmisioarena, alegia (Kasares, 2015: 20).

Beraz, garai honetan euskalgintzaren ardatz garrantzitsuenetakoa, hizkuntzaren ezagutzarena, emakumeek aurrera eraman zutela esan genezake. Aitzitik, aipagarria da hasierako andereino horiek lekuan lekuko aitortza bakan batzuk jaso badituzte ere –Ikastolen urteurrenetan, liburuetan...– ez dutela egun oraindik ere gizarte aitortzarik jaso (Garcia, 2016).

Emakumeek burututako lanaren gizarte aitortza ezarekin lotuta, zehaztasun osoz deskribatzen du fenomeno hori Teresa del Vallek 1987. urtean argitaratutako artikulu batean:

“Así, el interés y el trabajo que muchas mujeres vienen asumiendo en el desempeño de la escolarización en euskara, y que valorado objetivamente constituye una aportación significativa al desarrollo de la lengua, no recibe la misma valoración que el que realizan los hombres. Aún la creación de las ikastolas se ve unida a la responsabilidad de las mujeres en el cuidado de los hijos” (Del Valle, 1987: 14).

Euskalgintzaren sorrerako hamarkada horietan, emakumeek lehen lerroko lana egin baldin bazuten ere, modu aktiboan mugimenduan parte hartuz, eta mugimendu horretako trakzio lanak egin baldin bazituzten ere, beste behin, emakumeen euskararen transmisioan jarri zen fokua. Ume eta gazteen erdararen erabileraren erruduntzat jo izan ziren emakumeak. Hau da, ume eta gazteek euskara ikasi duten unean, emakumeen lanak ez du inongo aitortzarik jaso. Baina haurren artean erdara entzun izan den momentuan –gehien bat euskal tradizioko nekazal eremuetan–, emakumeen gain jarri da erdalduntze horren errua (Kasares, 2014: 78).

Hau da, emakumeak aktore aktiboak izan ziren euskalgintzaren lehen urteetan sortutako erakunde ezberdinetan, hala ere, haien gain jauzi izan da, sarri asko, euskararen galeraren errua (Hernández, 2004).

Kike Amonarriz soziolinguistak 1995. urteko artikulu batean azpimarratzen zuen bezala, bi izan dira historian zehar emakumearen paperaren inguruan su-

matu diren jarrerak: batetik, orain arte aipatu dugun euskararen berreskuperapen prozesuan emakumeek izandako paperarena; eta bestetik, 60ko hamarkadan emakumeek, eta batez ere nekazal eremuetan, euskarari uko egitearren, euskararen galeraren errua hauen gain jartzearena (Amonarriz, 1995: 89). Egia esan, transmisioaren zama emakumeen gain jarritz, haiek euskara erabiltzeari utzita, transmisio kate bat apurtuko litzateke. Hau da, erro berdina duten bi pentsamendu dira; euskara eta emakumea estuki lotzen dituen ideiatik eratorriak.

Joxe Azurmendik 1964. urtean idatzi zuen artikuluan adibidez, emakumearen izaera naturala omen den “ispilu-zaletasunarekin” lotzen zuen euskaraz ez hitz egitea. Idazlearen arabera, emakumearen pertsonalitate ahulagoak, kanpoko moda eta hizkuntza ohiturei atxikitzea dakar:

Denok kopiaetzen dugu, inork ez baitu personalidade erabatekoa, Ta neskatzak gei-ago, neskaxa direlako, alegia, erakarmena eurai dagokienez apaindu egin bear dutelako, ta apaindu naita. Neskatzak nai, ez dute euskera baztartu nai. Ezin diote eutsi, ordea (Azurmendi, 1964: 66).

Ezin ukatuzkoa da, 60ko hamarkada honetan, eta batez ere, landa edo nekazal eremuetako herrietan errealitate hau existitu izan zela. Hau da, hainbat emakume euskaldunek, erdarara egin zuten salto. Baina “2000-2010eko hamarkadak: Egungo euskalgintza” atalean xeheago jorratuko dugun gisara, orduko emakume horiek ez zuten prestigioa zuen hizkuntza eskuratu beraien pertsonalitate ahulagoagatik; botere faltagatik baizik.

Beraz, eta atal honetan ikusi dugun gisara, euskalgintzaren sorrerako garai hauetan ere, emakumeek paper garrantzitsua jokatu zuten. Mugimenduaren motor izanik, garaiko kezka nagusia zen ezagutzaren alorrean makina bat lan egin zuten; ikastolen eta helduen alfabetatze eta euskalduntzean parte hartu, eta erakunde ezberdinetan lan eginez.

Bestetik, ezin aipatu gabe utzi garai honetan sortu zela Euskara Batua. Euskararen batasuna edota estandarizazioa, Euskalgintzaren beste hanketako bat izan zen atal honetan aztertutako hamarkadetan. Euskaltzaindiaren VII. Biltzarra egin zen 1968. urtean Arantzazun –Oñatin–, eta orduan hasi zen lehenengo aldiz eta ofizialki euskara batuaren bidea. Bertan ezarri eta adostu baitziren idazteko lehen arauak esaterako (Zubimendi, 2001).

Urte oparoak izan ziren hortaz 60ko eta 70eko hamarkadetako urte haiek. Euskalgintza garaikidea bera sortu zen garaiak izan ziren ikusi dugun gisara, euskararen aldeko esfortzuak mugimendu bilakatu ziren garaiak, alegia. Klandestinitateak eta euskararen berreskuratzeak markatuko zituen urte haiek. Horretaz gain, euskara euskal identitatearen eraikuntzaren zentroan kokatuko da garai honetan, arrazaren elementua alde batera utziz, eta egitate horrek gaur arteko bidea markatuko duela esan liteke.

70eko hamarkada amaieran, eta batez ere 80ko hamarkada hasieran, aldaketa nabarmenak izango dira Hego Euskal Herrian. Frankismoaren amaiera, Transizioaren hasiera... eta nola ez, garai historiko honek euskalgintzan ere izan zuen eraginik. Hala nola esan genezake bigarren estadio batera igaro zela euskalgintza 80ko hamarkadan, hurrengo atalean aztertuko dugunez.

2.3. 1980-1990EKO HAMARKADAK: APARRALDITIK BAREALDIRA

Atal honetan 80ko hamarkadaz –eta baita 90ekoaz ere– jardungo dugun arren, komenigarria da garai hau 1975ean testuinguratzea. 1975. urtea urte garrantzitsua izan baitzen Hego Euskal Herrian. Urte horretan, Francoren heriotzarekin batera, diktadura frankistaren amaiera ere etorri zen. Hala eta guztiz ere, frankismoaren eta horren ideien behin betiko amaieraz ezin genezake hitz egin, frankismoko planteamenduek eta baita erregimeneko autoritate batzuek ere beraien lekuak izan baitzituzten demokraziako organo eta instituzioetan. 1975eko azaroaren 22an, Franco hil eta bi egunera, haren oinordekotza Juan Carlos I erregeak hartu zuen, monarkiaren garai hartako gobernuburu Carlos Arias Navarro izendatuz. Azken horrek, gobernuburu gisara, urtebete ere ez zuen iraun, 1976ko uztailaren 11an dimisioa aurkeztu baitzuen –garaiko egoera politiko nahasiaren ondorioz– (Gamboa, Garaio, & Ruiz, 2007: 1).

Garai aldakor eta mugitu gisara definitu genitzake 70eko hamarkada amaierako urteak. 1976. urtean, eta diktadura garaia osteko lehen hauteskundeak irabazita, Adolfo Suarez bilakatu zen Espainiar Estatuko presidente. Beraz, lehen hauteskunde hauekin bederen, ofizialki aro demokratikoaren eta Transizioaren garaia heldu zen Espainiar Estatura (*Idem.*).

Horrek, jakina, izango du eraginik Hego Euskal Herriko testuinguru eta egoera soziopolitikoan, eta, nola ez, euskararen egoera eta honen aldeko mugimenduaren nondik norakoak ere baldintzatu egingo ditu. Hala nola 1976. urtean, jada Euskararen Gizarte Mugimenduaren dinamika berria atzeman genezake euskal gizartean. Bizkaian esaterako, urte horretan bertan, euskalgintzako parte ziren hainbat erakunde eta lagunek “Euskarari buruzko agiria” sinatu zuten. Gainera, esan liteke agiri horretan bertan daudela euskararen ofizialtasuna eskatzeko lehen urrats edo premisak. Dokumentu horrek, besteak beste, euskararen ofizialtasuna eskatzen baitzuen irakaskuntzan, administrazio publikoan eta komunikabideetan (Agirrebaltzategi, 1999: 56).

76an hasitako ildo horretatik, hurrengo urtean –1977ko urtarrilaren 2an, hain zuzen ere– 711 elkarte eta erakundek euskararen ofizialtasuna eskatzen zuen “Euskararen ofizialtasunaren aldeko agiria” sinatu zuten. Agiri horretan ofizialtasunaren bidean hartu beharreko hainbat neurri zehatz islatzen dira (Amo-narriz, 1993: 6).

70eko hamarkada amaiera, beraz, mugimendu eta aldaketa handien garaia izan zen. Trantsizio garai honetan, Espainiako Estatuak nazio auziari heltzeko, besteak beste, 1978ko Konstituzioa baliatu zuen. Espainiako Estatuako arau “goren” horren bidetik, Autonomien Estatutua artikulatu zen. Hala, Estatuak barnebiltzen dituen lurralde ezberdinei autonomiarako eskubidea aitortu zitzaizkien. Euskal jendarteak Espainiar Konstituzioa onartu ez bazuen ere, ez zen berdina gertatu Autonomia Estatutuarekin –EAEko Autonomia Estatutuari buruz ari gara–. Estatutu hau, Gernikako Estatutu gisara ezaguna dena, 1979. urteko abenduan onartu baitzen (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2020).

Autonomia Estatutuaren onarpen edota gaitzespenak arrail sakonak sortu zituen euskalgintzaren oinarri soziala izan zen –den?– euskal nazionalismoaren baitan; autonomiaren aldeko nazionalismo kontserbadorearen, eta haren aurkako ezkerreko nazionalismoaren artean, hain zuzen ere. Aurreko garaietan ere sumatu ahal izan dugun arren –EKINen sorrerak esaterako, bi familia abertzale bereizi baitzituen–, hamarkada honetan emango da bi familia abertzaleen arteko lehia eta ezinikusi goren. Horrek nola ez, euskalgintzan, eta honen egiteko moduetan izugarritzko aldaketak eragingo zituen. Azpimarra genezake 80ko eta 90eko hamarkadetako euskalgintza, euskal nazionalismoaren baitako

gerra honek zeharkatu eta baldintzatuko zuela guztiz (Larrinaga, 2011: 547). Hala ere, ondorengo orrietan jorratuko dugu gai hau zehaztasun handiagoz.

Euskararen egoeran, eta honen aldeko mugimenduan eragina izan duen marko juridikoarekin jarraiki, 1982. urtean izango dugu hurrengo pausu eta egitate garrantzitsua. Urte horretan onartu baitzen Eusko Legebiltzarrean EAEko “Euskararen Erabilpena arautzeko Oinarrizko Legea”. Lege horri esker, herriarren hizkuntza-eskubideak zein Eusko Jaurlaritzaren eginkizunak finkatuta gelditu ziren, eta besteak beste, aurreko urteetan eskatzen zen ofizialtasuna eskuratu zen (Etxalar & Arregi, 1995: 59).

Lan honetan, etengabe gabilta Hego Euskal Herri osoaz, baina 80ko eta 90eko hamarkadak oso ezberdinak izan ziren EAEn eta Nafarroan. Nafarroan 1986an onartu zen “Euskarari buruzko Legea”. Bigarren artikulua argi utzi zituen legearen nondik norakoak, bertan argi aipatzen baita gaztelania izango dela Nafarroako hizkuntza ofiziala. Hala nola lege honek hiru hizkuntza eremutan banatzen du Nafarroa: *Euskalduna*, euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera; *mistoa*, euskarak estatus nahiko anbigua du, eta *ez-euskalduna*, gaztelania soilik da ofiziala¹² (Igartua & Zabaltza, 2012: 80).

Gauzak horrela, aurretik jorratu dugun aldia, hau da, 60-70eko hamarkadak barne biltzen dituen, euskalgintza garaikidearen sorrera une gisara kokatu dugu. Une horretan, eta arestian aipatu dugun eran, euskalgintza bera mugimendu sozial gisara egikaritu baitzen. 80ko eta 90eko hamarkadetan, aldiz, estrategiak eta erabilerarenganako kezkak ezaugarrituko du mugimendua, garai horretan hasiko baita euskalgintza modu estrategikoan pentsatzen:

(...) Aldi hau nabarmentzen duen beste ezaugarrietako bat da mugimendu gisa modu estrategikoan pentsatzen hastea. Euskalgintzaren Big Bang-aren ostean, izarren hautsa bizigai bilakaturik eta etengabe lanean, euskalgintzak bere burua eta euskara bera hurrengo fase batean kokatu zuen: gordetzetik normalizatzerara, corpusetik estatusera. Euskararen normalizazioa ikuspegi orokorrean eta nazio mailan

¹² Gaur gaurkoz oraindik ere, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan pairatzen du euskarak egoerarik larriena, ez baitauka inongo estatus legalik; hau da, hizkuntza ez da ofiziala (Igartua & Zabaltza, 2012: 80).

jorratzeari ekin zion, horretarako erakunde, elkarte eta bat egiteko guneak artikulatuz eta egituratuz” (Inda, 2019: 22).

Izpiritu hori islatu zuen, 1978. urtean Euskaltzaindiak bultzatuta, egin zen “Bai Euskarari” kanpainak. Hizkuntzaren biziberritzea ardatz hartuta egin zen lehen “makrokanpaina” izan zela esan genezake. Garai soziopolitiko nahasia izan bazen ere, hizkuntzaren gaineko kontzientzia pizteaz gain, kanpaina horrek ilusio handia ere sortu zuen. Horren adibide dira, kanpaina horren amaiera ekitaldian, Aita Villasante Euskaltzainburuak esandako hitzak:

“Euskararen aldeko kezka eta sua piztu nahi izan du kanpaina honek. Izan ere, euskara da gure herriak duen bereizgarririk agiriena, gure asabengandik datorkigun ondasun paregabea. Baina ondasun hau gordetzeko, bizirik eta osorik ateratzeko guztion lana, lehia eta abalegina behar ditugu” (Euskaltzaindia, 2018).

Handik urtebetera, ikuspegi orokor eta nazio mailakoa jorratzeko asmoz, sortu zen *Euskal Herrian Euskaraz* erakundea. Sortu berri ziren EAEko instituzio publikoen hizkuntz kudeaketarekin, oso kritiko azaldu zen taldea hasiera batetik. Horrekin batera, euskararen aldeko talde eragileak sortu behar zirela argi zeukaten, euskara espezifikoki diglosiatik eta heriotzatik salbatzeko; horrela jaso zuten bederen sorrerako testuan. Hala nola egiturari dagokionez, maila nazionalean euskararen problematika lantzea izango zuen xede taldeak, eta horren antolaketarako amnistiaren aldeko gestoren funtzionamendua izan zuten giltzarri (Odrizola, 1992: 32).

Horrekin batera, eta nazio ikuspegi hori xede harturik, 1983an EKB –Euskal Kulturaren Batzarreak– sortu zen. Koordinazio edota konfederazio gisara definitu izan du bere burua EKBk. Euskal kulturaren ziharduten sail ezberdinetako talde eta elkarte herritarren topagune eta elkargunea izateko sortu baitzen (Agirrebaltzategi, 1995: 18). Honela jasotzen zuten “Euskararen normalkuntzaren aldeko agiria” izeneko beraien lehendabiziko idatzian:

“Euskal Herri osoari eta herritar guztiei egiten diegu, bada, deia, norberaren ekintza zintzoaz eta jokabide zuzenaz gain, euskararen eta euskal kulturaren aldeko indar guztien elkartasuna eta koordinazioa lor ditzagun, Euskararen eta Euskal Kulturaren normalkuntzaren bideari ekiteko eta eusteko” (Idem.).

70eko hamarkada amaieran eta 80koaren hasieran sortutako Euskal Herri mailako erakunde hauek argi adierazten zuten beraien hasierako idatzietan, nazio mailako erakundeak sortu eta egotearen garrantzia. Hizkuntzaren auzia, nazio-aztiaren parametroetan ulertzen zuten. Hala eta guztiz ere, 80ko hamarkada honetan, euskalduntasunak, edota euskal identitateak, beste bira bat emango du, eta euskarari lehen aitortzen zitzaion nazio identitatearen erai-kuntzarako zentralitate hori galtzen joango da.

“50eko hamarkadan Euskal Herrian ematen hasi zen diskurtso abertzaleak, arrazaren orde, hizkuntza jo zuen naziotasunaren faktore nagusi. Testuinguruaren aldaketarekin, ordea, 80ko hamarkadan sektore abertzale batzuek zalantzan jarri zuten teorizazio hura: hartara, euskarak abertzaleak kohesionatzeko eta kide berriak erakartzeko duen gaitasuna kolokan jartzzen hasi ziren gero eta gehiago” (Odrizola & Zabalo, 2014: 67).

Euskarak identitatearen eraikuntzan izan zuen aldaketa horren lekuko litzateke 1992. urteko Bat aldizkariko 6. zenbakian argitaratu zen artikulu bat. Bertan, Euskal Herriko orduko hainbat politikariri euskararen inguruan galdegin zitzaion –konkretuki EKBk osatutako elkarrizketak izan ziren–. Politikari horien hitzei erreparatuz gero, ez dugu inondik inora euskara eta euskal identitatea zuzenki lotzen dituen aipurik aurkituko (EKB, 1992).

Honenbestez, aurreko ataletan ikusi dugu euskal identitatearen ardatza arrazatik hizkuntzara aldatuz zer nolako aldaketak suposatu zituen egitate honek euskararen aldeko mugimenduan ere. Beraz, 80eko hamarkadako aldaketak eta euskalgintzaren baitako joan-etorriak ulertzeko, ezinbestean kontuan izan behar dugu euskarak identitatearen ardazte horretan izan zuen aldaketa –edo galera– hau.

Hala ere, hamarkada hauetan sortutako erakunde ezberdinen orduko irakurketetan –batez ere EKB eta EHE–, euskara eta euskal identitatea guztiz loturik ageri zaizkigu euskalgintzan. Hona, Euskal Herrian Euskaraz-ek gaiaren inguruan egin zuen irakurketetako bat:

“Euskararen normalkuntza funtsean arazo politikoa denez, ez dago euskararen normalkuntza Euskal Herriaren etorkizunetik bereizterik. Euskararik gabe ez dago

Euskal Herririk, baina euskarak ez du etorkizunik Euskal Herriaren normalkuntzatik at. Gauzak horrela, apolitizismoan edota gai politiko orokorretatik at euskararen normalkuntza planteatzea okerra da. Euskara eta lurraldetasuna ezin dira bereizi” (Ezkerra & Fernández, 1995: 50).

Testuinguru honetan, eta euskarak Euskal Herri berri horretan bete behar zuen lekua zein zen erabaki nahian, politikagintzak zentroa hartu zuen, eta, honekin batera, euskararen normalkuntza –politikaren baitan bederen– gerorako utzi zen (Muniozguren, 1992: 44). Garai korapilatsuak izan ziren, eta jada goian aipatu dugun euskalgintzaren baitako zatiketek markatuko dute garai hau.

Orduko giro politiko eta konfrontazio egoera horren adibidetzat har genezake goian aipatu dugun 1992. urteko Bat aldizkarian –6. zenbakia alegia–, EKBko kideek, EAJko Luis Mari Brandesi –Euskadi Buru Batzarreko kideari– egindako elkarrizketa. Bertan, orduko politikari ezberdinei euskararen egoeraren eta honen gaineko kudeaketaren inguruko galderak egiten zaizkie. Hala eta guztiz ere, EAJko kideak galdera horiek erantzun beharrean, EAJk EKBren inguruan zeukan iritzia eman zuen:

“EAJ ez dator bat, Euskal Kulturaren Batzarreak euskalgintzaren inguruan dabilen zenbait kontzepturekin, eta hauetariko bakoitzari lotzen zaizkion ezaugarriekin. Izaera eta funtzioak gogoan izanik, euskararen normalizazioaren inguruan diren iniziatibak elkarrengandik ongi bereizi eta distantziak gorde beharraz EKB-k egiten duen ahalegina, hizkuntzaz kanpo diren ezkutuko arrazoien esanetara dagoen eritzizkoa da EAJ” (EKB, 1992: 73).

Hala nola EAJko kideak EKBri alderdiren baten morrontzarako lan egitea leporatzen zion; morrontza hori goiko aipuan aipatzen den “hizkuntzaz kanpo diren ezkutuko arrazoietakoa” bat izanik (*Ibid.*: 74). Argi eta garbi, ezker abertzaleari buruz ari zen. Beraz, egitate horrek argi islatzen du euskalgintza eta instituzioen artean –hauek EAJk dinamizatuak– zer nolako tentsioak bizi izan ziren urte haietan.

Tentsio eta konfrontazio honek, euskalgintzaren baitan ere, egiteko bi modu edota bi estrategia ekarri zituen: botere estrategia eta kultura estrategia. Botere estrategia politikoagoa zen, botere harremani eta zuzeneko errebindikazio ekintzei lotuta ulertzen zuen hizkuntzaren defentsa (Agote, 1995: 87).

Bestetik, kultura estrategia baliatzen zuten taldeak izango genituzke. Hauek hiztun komunitatea dute oinarri, hauen praktiketan eragitea, betiere, ekintzetan erabiliko zuten tonua positiboa izango zelarik (*Ibid.*:88).

Bi estrategia horiek, hizkuntzaren alde egiteko marko edota estrategia ezberdinak eraikitzeaz gain, instituzioekiko jokatzeko moduetan ere bazituzten ezberdintasunak. Botere strategiaren kasuan, harremanak gatazkatsuak eta konfrontaziozkoak izango ziren. Kultura strategiaren kasuan, aldiz, adostasuna eta lankidetzaz bilatzen zuten instituzio publikoekin (Anaut, 2013: 67). Hala nola bi estrategia horiek, elkarrekin zeuden euskalgintzan, baina, aldi berean, elkarren lehiakide ziren, bakoitzak bere ikuspegi eta estrategia gailentzea nahi baitzuen mugimenduaren baitan (Larrinaga, 2017: 67).

Botere estrategia garbia esaterako, Euskal Herrian Euskaraz erakundeak jarraitu zuen urteetan. Taldea sortu berritan adibidez, bere lehen ekintza itxialdi bat izan zen. Instituzio publikoetan euskarak jasaten zuen bazterketa egoera salatzeko, 45 lagun giltzapetu baitziren Euskal Kontseilu Nagusiko egoitzan (Amonarriz, 1993: 7).

Kultura strategiaren adibide lirarteke bestalde, Euskara Elkartek¹³. Hauek herrietan fokalizatu ziren, hizkuntz komunitate zehatz bat ardatz harturik. Bestetik, haien ezaugarri nagusienetakoa ideologia ezberdinetako pertsonak bildu nahi izango da, eta euskarari kutsu politiko eta alderdikoi oro kendu nahi izango diote (Agote, 1995).

Egoera horrek, instituzioekiko harremanak, abertzaleen arteko giro korapilatsuak... asko higatu zuen euskalgintzaren jarduna. 90eko hamarkadako artikulua ezberdinetan irakur genezake jada euskalgintzaren eragin ahalmena eta artikulazioaren jaitsieraren inguruan, esaterako. Hau da, mugimendu baitako eta kanpoko hainbat gatazkaren ondorioz, euskalgintzan desaktibazioaz hitz

¹³ Txepetxeren eredu teorikotik eratorrita sortuko dira lehen Euskara Elkartea hauek. Eta Txepetx bihurtu zen eredu teoriko. “90eko hamarkadan hizkuntzaren aktibismo sozialak erabat aldatzen ditu teoriak zein iraganeko strategiak, eta berriak hartzen ditu bere lekuan. Txepetxek hartzen du Txillardegiren lekua teorialari nagusi bezala eta hark pizten du hizkuntza aktibisten imajinazioa” (Rodríguez, 2020: 125). Txepetxeren eredu honi jarraiki, Euskal Herriko lehen euskara elkarteak “Arrasate Euskaldundu Dezagun” izango da, 1983an sortua (Amonarriz, 1993: 10).

egiten hasi zen hamarkada horretan, autore batzuek –Joxe Manuel Odriozola kasu– euskalgintzaren eta euskararen beraren desagertpenaz ere hitz egin zute-larik (Muniozguren, 1992; Odriozola, 1992).

Testuinguru malkartsu horretan, Eusko Jaurlaritzak jada herrigintzatik, eta zehazki euskalgintzatik sortutako hainbat mekanismo eta erakunde bikoizten hasi zen. Bikoizketa lan honetan lehenengo HABE –Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze Erakundea– sortu zuen, 1983. urtean¹⁴. Egitate horrek euskalgintzaren eta bereziki AEKren baitan ezinegon eta haserrearen eragin zituen –1995. urtera arteko “gerra” moduko bat sortuko zuelarik–:

“Las actividades de HABE, creando nuevos centros de enseñanza y financiando clases en euskera, son acciones interpretadas por AEK como una agresión contra el movimiento etnolingüístico con la pretensión de llegar a controlarlo. Esta confrontación inicial se incrementa en la segunda mitad de los años ochenta por el creciente distanciamiento ideológico entre los agentes que apoyan a HABE (Partido Nacionalista Vasco/Gobierno Vasco) y AEK (más cercano a un movimiento de masas tradicional y próximo al nacionalismo vasco radical)” (Tejerina, 1999: 99).

Bikoizketak bikoizketa eta konfrontazioak konfrontazio, hamarkada hauek hizkuntzaren inguruko lan akademiko, zientifiko eta sorkuntza garai gisara ere defini genitzake. Euskal soziolinguistikaren sorrera bera, 80ko hamarkadan kokatzen badugu ere, esan liteke 70eko hamarkadan heldu zirela Euskal Herrira garai hartan nazioartean garatzen ari ziren soziolinguistikaren inguruko teoria eta eztabaidak (Zarraga, 2010: 43). Hamarkada honetan, beraz, lan soziolinguistiko ezberdinak argitaratu ziren; esaterako, SIADECOn azterketa soziolinguistikoak –1975ean eta 1977an– (*Ibid.*: 44).

Horrekin batera, hau da, euskal soziolinguistikaren sorrerarekin batera, Jose María Sánchez Carrión “Txepetx” aipatu beharrean gaude. Ezin baikenezake ulertu euskal soziolinguistikaren sorrera eta garapena Txepetxek ekarpenik

¹⁴ Ondoren sortu ziren, EKBk antolatutako “Euskararen Eguna”, eta Gasteizko Legebiltzarretik bultzatu nahi izan zuten “Euskararen Egun instituzionala”, edota herrigintzatik sortu zen “Euskaldunon Egunkaria” eta Eusko Jaurlaritzak atera zuen beste egunkari bat... (Anaut, 2013: 669).

gabe. Bera izan zen nazioartean egozten zebilen soziolinguistika Euskal Herriara ekarri eta euskararen errealitatera egokitu zuena. Bere lehen ekarpena 1972an egin zuen; *“El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra 1970”* liburuarekin, alegia (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2013).

Dena dela, bere lanik ospetsuena *“Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas”* izan zen (Sánchez Carrión, 1987). Honek, euskal soziolinguistikaren hastapena markatzeaz gain, euskalgintzari ere egiteko modu eta marko teoriko bat eskaini zion. Euskara sustatzeko Txepetxek egindako lanak euskararen erabileraren garrantzia azpimarratuko du; berau erdigunera ekarriz, baita hizkuntz komunitatearen kontzeptua ere. Hala nola bi ideien baitan laburbil genezake honen lana:

“Lehen ideia da sustapen linguistikoaren subjektua etengabe eraikuntzan dagoen biztunen erkidegoa dela; ideia horretatik ondorioztatzen du euskararen aldeko mugimenduak biztunen komunitateak hartu behar duela euskararen aldeko ekintza kolektiboaren lidergoa, eta ez eragile politikoek. Bigarren ideia da euskararen aldeko ekintza ezin dela oinarritu bizkuntzaren ezagutzan, biztunek gauzatu beharreko erabileran baizik. Eta erabileraren eguneroko bizitzako esparruetan bezurmamitzen denez, harrezkeroztik mugimenduak esparru horietan eta biztunen jardunean jartzzen du arreta-gune nagusia” (Zarraga, 2010: 45).

Bi ideia horiek oinarritzat harturik sortuko dira, beraz, kultura estrategikoaren bidea jarraituko duten Euskara Elkartek (*Ibid.*: 70).

Bestalde, Jose Luis Alvarez “Txillardegik” ere izugarritzko ekarpena egin zuen soziolinguistika teorikoenaren alorrean. Soziolinguistika matematikoaren bidez, hizkuntzaren erabileraren hiru aldagaien arabera dela erakutsi zuen: elebidun-kopurua, mintzakide-kopurua eta hizkuntzarekiko leialtasuna (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2013).

Euskal Herrian –ere– soziolinguistikaren esparrua guztiz esparru maskulinizatu gisara sortu bazen ere, izan ziren garai horretan jakintza eta ezagutza teorikoa produzitu zuten emakumeak ere. Esaterako, Karmele Rotaetxe. Besteak beste, ikerlari honek jorrotutako “gaitasun komunikatibo” kontzeptua oso garrantzitsua izan zen euskalduntze eta alfabetatzean (Zarraga, 2010: 47).

Garai honetakoa ez den arren, komenigarria da Soziolinguistika Klusterra aipatzea; Euskal Herrian gaur gaurkoz dagoen soziolinguistikarekin lotutako eragile garrantzitsuenetakoa baita. Klusterra 2004. urtean sortu zen, ondorengo misioarekin:

“Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren erronka, interes eta beharrei erantzuteko. Hori lortzeko lanean diharduten bazkide, erakunde publiko, gizarte eragile, zientzia eragile eta bestelako eragileen soziolinguistika alorreko baliabide eta gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu. Horretarako elkarlanean ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuak garatzen ditu, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz” (Soziolinguistika Klusterra, 2020c).

Beraz, 80ko eta 90eko hamarkadak malkartsuak, baina emankorrak izan zirela esan genezake; urte horietako kimuetatik sortu baitzen esaterako, Klusterra bera ondorengo hamarkadan. Trantsizio garaiko marko juridiko eta soziopolitiko berria, Euskara elkarteen sorrera, nazio mailako hainbat erakunderena, euskal soziolinguistikarena... sorrera eta hastapen asko izan ziren garai hauetan. Hala eta guztiz ere, euskalgintza eta instituzio publikoen arteko giro korapilatsuak, eta horren ondorioz, euskalgintzaren baitan sortutako zatiketek, baldintzatuko zuten euskalgintzaren egitekoa eta nondik norakoa. Hala nola hamarkada hauetako euskalgintzaren kezka eta hizpide nagusietakoa euskalgintza beraren osasuna izango da. Baina, bestalde, beste alor eta mota batzuetako kezkak ere sortu ziren garai hauetan.

2.3.1. Euskalgintzaren kezka nagusiak

Jada aipatu dugun gisara, beraz, erabilerak hartuko du ezagutzaren tokia, eta urte hauetan batez ere erabileraren alorra izango da kezka nagusia euskalgintzaren baitan. Nahiz eta ondoren aipatuko dugun helduen alfabetatzean adibidez, izugarritzko aurrerapausoak eman ziren garai honetan (Zarraga, 2010: 48).

Behin baino gehiagotan azpimarratu dugun gisara, garai hau estrategikoki pentsatzen hasteko unea izango da euskalgintzarentzat. Hortaz, euskalgintzak mugimenduaren nondik norakoen eta helburuen gainean hainbat eztabaida

izan zituen. Elebitasuna, eleaniztasuna edota euskararen lehenitasuna, zein izan behar zuen mugimenduaren helburua. Bestetik, euskararen funtzioak zeintzuk izan behar zuten ere hausnartu behar izan zuten mugimenduko kideek; funtzio espezifikoak edota osotasunezkoak izan behar ote zituen... (Anaut, 2013: 670).

Hala ere, mugimenduak bere baitako, eta hartu beharreko norabideari lotutako hainbat hausnarpide izan bazituen ere, administrazioaren euskalduntzea esaterako, urte hauetako kezka gorenetakoa bat izango da. Hala nola 1984. urtean, tokiko administrazioek lehen euskara zerbitzuak martxan jarri zituztenean, profesionalizazioaren bideari ere ekin zion mugimenduak. Administrazioa euskalduntzea helburu zuten euskara teknikari horiek, gehienak bederen, euskalgintzako militanteak izango ziren. Euskara teknikariaren figurarekin, aldiz, militante eta profesional figura azaldu zen lehengo euskalgintzan, eta horrek, ondorengo urteetako ezaugarrietako baten hastapena markatuko zuen (Larriaga, 2011). Kike Amonarriek esaterako, 1986an argitaratutako *“Hizkuntza minorizatuen soziologia”* liburuan udaletan eragin beharra azpimarratzen du, baina argi zeukan tolosarrak, borondatek harago, plangintza ere beharko zela (Zarraga, 2010: 46).

Administrazioan ez ezik, lan munduan ere hizkuntza kudeatzeko beharra sortu zen, eta horrekin batera, lan munduko euskara planak sortu ziren. 2000ko hamarkadan emango den arren lan mundua euskalduntzeko aholkularitza ezberdinen loraldia, 1990eko hamarkada hasieran jarri ziren martxan lehen euskara planak enpresetan –Elhuyar aholkularitzaren eskutik–. Hala, urte batzuk beranduago, lan mundua euskalduntzeko hainbat aholkularitza sortu ziren; EMUN kooperatiba, Elhuyar bera, Artez, Ahize... Hala eta guztiz ere, lan munduaren euskalduntzea egungo euskalgintzaren gai izarretako –eta urgentziazko– bat ere bada. Horren adibide izan ziren 2020. urteko Udaltop Topaketak –Udaletako euskara teknikariaren topaketak, alegia–, *“Ireki leiho bat lan munduari”* izenburupean eginak (Udaltop, 2020).

Honenbestez, erabileraren garai gisara definitu ditugu urte hauek, baina ares-tian aipatu dugun moduan, honek ez du esan nahi hezkuntzak, eta oro har euskararen ezagutzak ez zuenik kezkarik sortzen. 1982an “Euskararen legearekin” batera, eskola publikoa hiru hizkuntz ereduren baitan banatuta gelditu zen. Hala, ereduaren banaketa horrek sortu zituen hainbat duda, hizkuntzaren gai-

neko eredu en banaketarekin, ez baitzen argi gelditzen ea EAEko haur guztiak euskaldunduko ziren edo ez.

Bestalde, alfabetatze kanpainak puri-purian zeuden laurogeiko hamarkada hasieran. Horren adibiderik garbiena Korrikaren sorrera da. 1980ko azaroaren 29tik abenduaren 7ra izan baitzen lehenengo Korrika; “Zuk ere esan bai euskarari” lelopean (AEK, 2020).

Ezagutzarekin jarraiki, azpimarragarria da 90ko hamarkadan euskalgintza instituzionalenean, eta baita herrigintzatik eratorritako euskalgintzan ere, transmisioaren inguruan sortu zen kezka. Euskararen inguruan, eta honen aldeko mugimenduaren historiaren inguruan daukagun iruditeria kolektiboaren baitan, badirudi transmisioaren gaia nazionalismo goiztiarrean eman zen kezka bat izan zela, baina Jone Miren Hernandezek maistraki azaltzen digun gisara, 90eko hamarkadan euskalgintzan eman zen kezketako bat izan zen. Alde batetik, nolabaiteko presio teoriko bat zegoen hizkuntzaren transmisioaren gainean:

“Joshua Fishmanek argi esana zuen: belaunaldien arteko transmisioa funtsezkoa zen hizkuntz gutxituen berreskurapenaren prozesuan. Bere ‘Reversing Language Shift’ izeneko teorian adierazi zuen moduan (Fishman, 1991), estrategia hori kontuan ez hartzeak porrota zekarren arriskuan egon zitekeen edozein hizkuntzentzat” (Hernández, 2015: 48).

Bestetik, eta Fishmanen teoriaren gain, testuinguruan presio sozial bat ere bazegoen. Arestian aipatutako hezkuntzako ereduak esker –B eta D-k bereziki–, gaztetxoak euskalduntzen ari ziren, eta horrek etenik izan ez zezan, etxe barruko transmisioa ezinbestekotzat jotzen zen (*Idem.*).

Garai honetan euskararen normalizazioa ikuspegi orokor batekin jorratzen hasi baldin bazen ere, egitasmo sektorialeak ere izan zuten lekurik. Batez ere euskara elkarrean eskutik, tokiko hedabide andana sortu ziren garai honetan, baita esaterako, “Euskaldunon Egunkaria” –1990. urtean– ere. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 1982. urtean sortu zuen Euskal Irrati telebista –EITB– ere (Inda, 2019: 23).

Hala nola, eta euskalgintzaren baitako giroa nahiko gaiztotuta baldin bazegoen ere, urte hauetan administrazioaren euskalduntzean jarri zen begia. Udaletako

euskara teknikariaren figurarekin, profesionalizazioari bide eman zitzaion. Hala ere, euskararen ezagutzan izan zuen pisurik garai honetan. Hezkuntza publikan euskara sartu zen lehen aldiz, eta euskaltegietako gelak ere jendez beteta egon ziren garai honetan.

2.3.2. Euskararen erabilera

Euskararen ezagutzaz zein erabileraren garrantziaz, eta euskalgintzak honi ematen zion lehentasunaz hitz egiten jardun dugu orain artean, baina horretaz gain, 80ko hamarkada amaieran, eta 90ekoan, aurki genitzake euskararen erabileraren inguruko lehen datu kuantitatiboak.

1991. urtekoa da I. inkesta soziolinguistikoa, –Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza eta Kultura Politika sailak aurrera daramana, alegia–. Bertan, Euskararekiko jarrerak, gaitasuna eta erabilera aitortua jasotzen dira, besteak beste. Hala nola 1991. urteko datuei erreparatuz gero, euskara erdara beste edo gehiago darabilteela aitortzen dutenak Euskal Herriarren %13.7 ziren. Bost urtetik behin egiten den inkesta da, beraz, inkesta soziolinguistikoa. 90eko hamarkadako datuekin jarraiki, 1996. urteko inkesta soziolinguistikoa izango genuke 91koaren ondoren. Urte honetan –96an, alegia–, euskararen erabilerak ia bi puntu egin zituen gora; Euskal Herriarren erabilera aitortua %15.5 izanik (Eusko Jaurlaritza *et al.*, 2016).

Bestetik, Soziolinguistika Klusterrak egiten dituen euskararen kale erabileraren neurketak izango genituzke¹⁵. Bertan, behaketaren teknikaren bidez herri ezberdinetako biztanleek izaten dituzten elkarrizketak entzun eta erregistrazten dira. Beraz, inkesta soziolinguistikoaren kasuan ez bezala, erabilera informala neurtzen da –eta ez aitortua– (Altuna, 2017).

1989. urtekoa da, beraz, lehen kale erabileraren neurketa; Euskal Herriarren %10.8k erabiliko zuelarik euskara kaleko elkarrizketetan. Hurrengo neurketa 1993. urtekoa da, eta bertan euskararen erabilera %11.8koa. Eta 90eko hamarkadako azken neurketa, 97an egin zen; erabilera datua %13koa zelararik (Soziolinguistika Klusterra, 2016).

¹⁵ Siadecoren eta Euskal Kultur Batzordearen –EKB– eskutik 1989an abiatu ziren Kale Erabileraren neurketak, eta 2001etik aurrera egiten ditu Soziolinguistika Klusterrak.

Erabilera aitortuaren eta behaketa bidez jasotako erabilera informaldaren arteko datuek guztiz bat egiten ez badute ere, nabaria da 90eko hamarkadan euskararen erabilera gora egin zuela Euskal Herrian.

Horrelako neurketetan adin tarte ezberdinetako datuak ageri zaizkigu. Hau da, hizkuntzaren erabilera neurtzeko adin tartearen hasiera batetik kontuan izan zuten neurketak egiteaz arduratu ziren eragile ezberdinek. Baina generoari lotutako datu espezifikorik ez daukagu. Hala ere, Txepetxek 80ko hamarkada hasierako lanetan aurki genezake generoa eta hizkuntzaren arteko uztarketa bat. Horren irakurketa aurretik aipatu dugun Azurmendirenaren (1964) ildo beretik joango delarik.

1981ean argitaratutako “La navarra Cantábrica” lanean, Txepetxek emakume eta gizonen arteko hizkuntza portaera ezberdinak haurtzarotik gertatzen direla nabarmentzen zuen: *“el comportamiento lingüístico de niños y niñas difiere entre sí desde la más tierna infancia”* (Sanchez Carrión, 1981: 62), baina ezberdintasunak, bereziki, gazteen artean ikusten zituen:

“Con respecto a los jóvenes la escapada hacia el castellano sigue ejerciendo un gran poder de atracción entre el elemento femenino como modo de evadir los condicionantes más inmediatos (tipo de trabajo, control social, etc.) de un entorno cuya limitaciones disatisfacen, los varones en cambio se acomodan preferentemente a la fidelidad lingüística como modo de hacer suyo tal entorno que, en general, es aceptado” (Ibid.: 40).

Sexuen arteko hizkuntza portaera ezberdin hauek azaltzeko, Sanchez Carriónnek sozializazio prozesu ezberdinduez hitz egiten digu. Neskek sozializazio hizkuntza gisara hautematen zuten gaztelaniara jotzen zuten. Mutilek, ordea, euskaraz gehiago mintzatzeko joera erakutsi ohi zuten, haien identitate eta nortasunaren parte gisa –amak erakutsitako hizkuntza bezala hartuz– hautematen zutelako (Sánchez Carrión, 1981: 64).

Beraz, soziolinguista honen arabera, komunitate euskaldunaren trinkotasuna eta neurri batean euskararen jarraikortasuna, gizezkoen arteko kideetasun harremanetan islaturik ikusi zuen: *“La cohesión de la sociedad rural vascofona de Navarra se mantiene y perpetua a través de la cohesión del sentido de grupo de sus varones”* (Ibid.: 68).

Baina esan liteke hein batean ikerketa hauek –Txepetxen hau zein garaiko beste hainbat– nahiko androzentrikoak izan zirela. Sánchez Carriónek eguneroko bizitzako bestelako elkartasun harremanak –gizonezkoenez gain– zaintzeari eta laguntzeari lotuak esaterako, eta sarri emakumeen gain egon ohi direnak, ez zituen taldearen trinkotasuna indartzen zuten elementutzat jo. Sánchez Carrióni bizitzaren oinarrian dauden emakumeen elkartasun gune eta bideak ikusezin gertatu zitzaizkion¹⁶ (Kasares, 2014b: 82).

Nolanahi ere, eta datorren atalean tentu handiagoz aztertuko dugun arren, 1995. urteko Amonarrizen artikulua batean euskararen erabileraren feminizazioaren fenomenoak mahaigaineratu zen (Amonarriz, 1995). 2006. urtetik aurrera dauzkagu jasota generoaren aldagaia barnebiltzen duten erabilera datuak, kale erabileraren neurketetan orduan sartu baitzen aldagai hau. Hala ere, soziolinguista tolosarraren aburuz, 90eko hamarkada amaieran, eta datu kuantitatiborik esku artean izan ez arren, euskararen erabileraren feminizazioaz hitz egin genezakeen. Hau da, 90eko hamarkada amaieran, bazegoen uste bat, ondoren datu eta ikerketa ezberdinekin baieztatuko dena, emakumeek euskara gehiago hitz egiten zutela gizonezkoek baino, nahiz eta alde handirik ez egon. Beraz, Txepetxen 80ko hamarkadako lanetan islatzen denaren kontrako prozesu baten lehen zantzuak jasoko dira 90eko hamarkadan.

90eko hamarkadaren amaieran, euskararen erabileraren feminizazioaz gain, euskalgintza etapaz edo garaiz aldaraziko duen hiru egitate nagusi gertatuko dira. Batetik, garrantzi berezia izango du euskalgintzaren norabidean 1995. urteko abenduaren 30ean Jaurilaritzak eta AEK-k sinatuko duten akordioak. Josune Ariztondok –orduko Hizkuntza Politikako sailburuordeak– 2020ko azaroaren 24an ETB1en eman zen “Ur Handitan” saioan, garai horretan Jaurilaritza eta euskalgintza sozialaren arteko harremana “*elkar ulertu ezinezko mundu bi*” bezala definitu zuen (EITB, 2020). Hala ere, eta negoziazio luze eta gatazkatsuen ostean, akordio bat sinatzea lortu zuten. Jaurilaritzak AEKri 765 miloi pezetako laguntza eman zion, eta elkarlanerako disposizioa erakutsi zu-

¹⁶ Bestalde, azpimarragarria da Txepetxen azterketak leku geografiko oso zehatz batean burutu zirela. Hau da, leku eta adin talde zehatz batzuetan, litekeena da, emakume batzuk euskaratik alde egitea, baina ez zen izan leku geografiko eta adin guztietan gertatu zen fenomeno bat.

ten bi eragileek (Argia, 2000). “Bake hitzarmen” hori modu sinboliko batean, 1997. urtean ospatu zen 10. Korrikan, Jauralaritzak Korrikaren amaierako azkenaurreko Kilometroa eramane zuen estreinakoz, AEK-k kilometro hori eramane eskainita.

Bestetik, 80ko hamarkada hasieran sortu baziren ere lehenengo euskara elkarteak, 1996. urtean sortu zen Euskaltzaleen Topagunea, hasiera horretan euskara elkartearen konfederazioa izango zena. 90eko hamarkadan, hortaz, euskara elkarteak mugimendu gisara eratu ziren. Horretaz gain, euskara elkarteek beste egiteko modu batzuk ekarri zituzten euskalgintzara, haien sortze prozesuetatik ideologia ezberdinetako pertsonak egon baitziren inplikaturik; eta botere-kotrabotere logika hori atzean utzi zuten. Nolabait ere, haiek izan ziren lehenengoetakoak euskararen despolitizazioa eta euskaldunen aniztasun politikoa modu praktikoa batean aurrera eramane. Hala, esan daiteke, euskara elkartearen diskurtsoa eta egiteko moduak –arestian aipatu dugun kultura estrategia–, poliki poliki gailentzen joan zirela euskalgintzan oro har (Rodríguez, 2020b: 110-111).

Eta azkenik, “Euskararen Unibertsoa Jardunaldiak” izango lirateke hirugarren mugaria. Euskalgintza barealdi batean murgilduta aurkitzen da 90eko hamarkadan, eta badu kontzientziarik honen inguruan. Honenbestez, egoeraren inguruko hainbat hausnarketaren ostean, 1997. urtean *“Euskararen Unibertsoa Jardunaldiak”* egin ziren. Hala nola Euskalgintzako talde, elkarte eta eragile gehienek bertan parte hartu zuten. Jardunaldi horietako ondorio eta egitate nagusia “Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren” sorrera izango da –EKB ordeztuko duena–. Horretaz gain, euskararen normalkuntzarako ikuspegi sozialeko plangintza orokorraren inguruan ere hainbat hausnarketa burutu ziren (Agirrebaltzategi, 1999).

Honela azaltzen du Amonarrizek aro edota etapa aldaketa hau: *“(...) Aurreko dinamikarekiko aldaketa nabia, dinamika berriak behar lituzkeen ezaugarriak ezagutzeak eta horren adibide bat izateak eragin du euskararen aldeko herri-ekimena aro berri baten atarian aurkitzea”* (Amonarriz, 1993:10).

Beraz, eta laburbilduz, mugimendua, konfrontazioa, sorkuntza eta barealdia. Milaka kontzeptu erabili genitzake orri hauetan jaso diren uneak deskribatzeko, baina lau hitz hauek josten eta definitzen dute egokien 80ko eta 90eko hamarkadetako euskalgintza. Hala ere, beste kontzeptu bat ere gehitu dakie-

ke arestian aipatutako lauri: despolitizazioa. Euskararen gaineko diskurtsoa despolitizatzen joango da poliki poliki garai honetan. Despolitizazio horretan, Topagunearen sorrerak zeresan handia izango du; neurri batean, horrek gidatuko baitu diskurtsiboki behintzat ondorengo hamarkadetako euskalgintzaren norabidea.

2.4. 2000-2010EKO HAMARKADAK: EGUNGO EUSKALGINTZA

2000ko hamarkadan kokatu dugun fase edo etapa berri hau, goiko atalaren amaieran aipatu dugun gisara, 1995. urtean hasiko da AEK-Jaurilaritza akordioarekin; Topagunearen sorrerarekin; eta azkenik, “Euskararen Unibertsoa Jardunaldiekin”. Jardunaldi horien ondorio edo egitate nagusia, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortzea izan zen. Hala ere, 1997ko Martxoaren 9ko “Euskaldunon Egunkariko” azalean, jardunaldietan erabakitako beste bi helburu edo ondorio nagusi ere aipatzen ziren. Batetik, euskararen unibertsoaren –hau da, euskalgintzaren– nolakotasunaren inguruan ondokoa jasotzen zen: “*Euskararen unibertsoa anitza eta desberdina da, eta garapen oso eta eutsigarria lortu behar du*”. Bestetik, “*Euskararen normalkuntzarako Plangintza Orokorren beharra aldarrikatzea*” ere helburu gisa jarri zen Jardunaldi horietan (Manterola, 1997).

Hala nola, eta XXI. mende hasierako euskalgintza “publikoenaren” osaera ikuste aldera, aipagarria da Jardunaldi hauek antolatzeke talde motor, edo talde eragile bat ibili zela; talde eragile horretako partaideek orduko euskalgintzako erakunde ezberdinetako ordezkari gisara jardun zuten: Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Jabier Iñigo, Jon Sarasua, Hasier Etxeberria, Juan Mari Mendizabal, Iñaki Uria, Iñigo Santxo eta Iñaki Zabaleta izan ziren talde hori osatu zuten pertsonak (Anaut, 2013: 668). Argi ikus genezake, beraz, emakumezkoek euskalgintza “publiko” eta “goi mailako” horretan –eta orduko euskalgintzaren norabidea markatuko zuenean– oso parte hartze urria zutela.

Euskalgintzako orduko profilak profil, oso esanguratsua da, 1997an sortu zenetik gaurdaino, Kontseiluak euskararen alde, eta batez ere, honen erabileraren

alde egin dituen kanpaina eta lanen kopurua. 1998an esaterako, “Bai Euskarari” kanpaina abiatu zuen¹⁷. “Bai Euskarari” kanpainak 98ko abenduan 3 une esanguratsu gauzatu zituen. Batetik, abenduaren 21ean Euskal Herriko hamar alderdi politikoetako ordezkariak *Euskararen Normalizaziorako Konpromiso Politikoa* izeneko agiria aurkeztu eta sinatu zuten Bilbon –Xabier Arzallus eta Arnaldo Otegi izan ziren bertan, besteak beste–. Jarraian, abenduaren 23an, hogeita bi gizarte-eragile nagusik Bai Euskarari Akordioaren lehen sinaketa egin zuten UNESCOren lekukotasunarekin. Hilabete batzuk geroago etorri zen sinaketa zabalagoa: 687 sinatzaile Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Eta kanpainari amaiera emateko, abenduaren 28an Euskal Herriko 5 estadio 125.000 lagunekin bete ziren, ekitaldi bakar baten parte eginez denak ere, nor bere tokitik (Kontseilua, 2020).

Hala ere, eta euskalgintzan eman diren beste egitate eta ekimen arrakastatsuekin pasa den gisara, “Bai Euskarari” kanpaina entzutetsua 90eko hamarkada bukaerako Euskal Herri hartan testuinguratu behar dugu. Giro soziopolitiko barea zen une hartan, baketsua esan liteke; 1998ko irailean, Lizarra-Garaziko akordioa sinatu baitzen (Inda, 2019: 25).

Testuinguru soziopolitiko horretan beraz, argi dago euskalgintzaren eta instituzio publikoen arteko harremanik gatazkatsuenak baretzen joan zirela. Talka eta tentsio gogorrenak arintzen joan ziren poliki-poliki, ezinikusi handienekin batera (*Idem.*).

Talka horien barealdian, testuinguru soziopolitikoak izan zuen eragina, baina baita euskalgintzaren diskurtso aldaketak ere. Ziur asko, diskurtso horren aldaketan izango zuen Euskal Herriko testuinguru soziopolitikoak eraginik, euskalgintzaren diskurtsoak despolitizaziora jo baitzuen:

“ (...) *Organikoki ez baina bai identitatez eta modu sinbolikoan euskal unibertso nazionalistarekin zituen lokarrien disoluzio diskurtsiboa ere gauzatu behar izan zuen mugimenduak. Izan ere, mugimenduaren eledunek ziotenez, euskarak gizarte osoaren ondare eta helburu komuna behar zuen izan, eta, horretarako, ideologia po-*

¹⁷ Euskaltzaindiak 1978an baliatutako lema berreskuratuz, eta mezua berrituz, egin zuen kanpaina 98an Kontseiluak.

litikoen eta alderdikeriaren gainetik eratutako adostasunak ebundu behar ziren” (Larrinaga, 2017: 70).

Agerikoa denez, interpretazio berriak bestelako esanahia ematen zion “auzi linguistiko” delakoari, auzi hori marko ez politiko –edo alderdikoi– batean kokatu ahal izateko. Euskarak, beraz, bere autonomia kulturala izango du; hau da, aurreko hamarkadetan erabili izan den euskal nazio eta euskararen arteko identifikazioari uko egingo dio diskurtso berri honek. Hala nola euskarak nazioaren ardatz garrantzitsu izatetik, euskara hiztun guztien ondare izatera igaro beharko du; edozein delarik ere hiztun hauen kokapen politikoa. Larrinagaren (*Ibid.*: 71) hitzetan: “*Hizkuntza partekatzeak sortzen baitu identitate sozial nagusia, zentrala, euskara-hiztunentzat beste identifikazio sozial eta politikoen gainetik dagoena, euskararen aldeko mugimenduen diskurtso eraberrituaren arabera*”.

Euskara, beraz, ez da izango euskal nazioaren muina edo ardatza. Hau da, euskal nazionalismoa ez da ardaztuko hemendik aurrera euskararen gainean, eta euskalgintzak hori bultzatuko du. Euskal nazionalisten elementutzat baino, euskal jendarte osoaren elementu kultural autonomotzat hauteman nahi baita euskara. Diskurtsoaren baitan, XX. mende hasiera honetan ematen den aldaketak azken bi hamarkadetako euskalgintzaren jarduna, eta honen nondik norakoak markatuko ditu.

Diskurtsoaz gaindi, eta euskarak nazionalismoaren baitan emango duen biraz gain, etapa hau asko markatuko duen beste elementu edo bereizgarri bat profesionalizazioa izango da. Aurreko atalean aipatu dugu 80-90eko hamarkadetan hasi zirela sortzen lehen udaletako euskara teknikariak. Baita lan mundua euskalduntzeko aholkularitzak ere: AHIZE-AEK, Artez, Elhuyar, EMUN eta Iberba, esaterako. Hau da, euskalgintza profesionalizatuz espezializatuz joan da, garai bakoitzeko beharretara egokitzeko. Profesionalizazioari esker, herri-gintzatik sortutako hainbat erakundek esaterako, lortu dute instituzioen nola-baiteko aitortza bat, hala ere, “*bisio estrategikoa ahuldu da; zerbitzu ematea nagusitu zaio euskara jendartean sustatzeari eta espezializazioa hobetsi da sinergiak bilatu ordez...*” (Topalabea, 2015: 6).

Honenbestez, eta aurreko hamarkadetako antzera, XXI. mendeko euskalgintzaren beraren osasuna ere kezka bizi da mugimenduan. Badago horrelako mamu bat, ea profesioak ez ote duen mugimendua bera jan. Hau da, euskal-

gintza mugimendu sozial gisara kalifikatzen dugu, baina egun kasik militante edo aktibistak baino, profesional gehiago aurki genitzake mugimenduaren baitan; eta horrek sortzen du egonezinik (Goikoetxea, 2016: 143).

Hala nola 2010eko hamarkada euskalgintzan hausnarketa garaia izan da. Euskaltzaleen Topaguneak esaterako, 2010. urtean bertan ekin zion bere hausnarketa estrategikoari, eta horren segidan etorriko dira Tokikom¹⁸, Euskal Herrian Euskaraz edota Euskaltzaindiaren hausnarketa estrategikoak (Amonariz & Martinez de Lajos, 2017: 28).

Hau da, azken bi hamarkada hauetan ere, euskalgintzaren egoera bera kezka iturri izango da mugimenduarentzat. Baina badira euskalgintzak bere gain hartzen dituen kezka edo hausnarketak, eta euskararen erabileraren aktibiziorako gako gisa ikusten dituenak ere.

2.4.1. Euskalgintzaren kezka nagusiak

XXI. mende hasiera, eta baita ondorengo urteak ere, inflexio puntu gisara definitu ahal izango genituzke. Badirudi, inflexio edota bidegurutze horretan, bi hamarkada pasa dituela euskalgintzak etorkizuneko bideak eraiki nahirik, eta datozkion erronkei egoki erantzun nahirik. Horren adibide litzateke esaterako, 2019. urtean Kike Amonarizek argitaratutako liburuaren izenburua: “Euskararen bidegurutzetik” (Amonariz, 2019).

Aipatu dugun gisara, euskalgintzaren beraren egoera kezka iturri izango da azken bi hamarkada hauetan. Baina kezka gorena, euskararen erabilerak sortuko du –aurreko hamarkadetako zantzuei jarraiki–. D ereduaren poderioz, ezagutzak gora egin du. Hau da, kuantitatiboki euskal hiztun kopurua azken urteetako altuena da. Hala ere, kualitatiboki esan liteke erabilerak ez duela modu proportzionalen gora egin: *“Hemen ondo bizitzeko euskara ikasi beharra erlatibizatu egin da; desiragarri izateari ez dio utzi, baina erlaxatu egin da giroa”* (Topalabea, 2015: 6).

¹⁸ TOKIKOM euskarazko 66 toki komunikabidek osatutako sarea da. Gehienak 1980ko hamarkadaren bukaera aldera sortu ziren, tokiko euskara elkartearen testuinguruan, euskara zabaldu eta normalizatzeko tresna gisa (Tokikom, 2015).

Eta datu kuantitatiboek ere jarrera edo egitate hori berresten dute. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egiten duen Inkesta Soziolinguistikoko datuen konparaketa bat eginez, argi ikus genezake ezagutzak eta euskararen erabilerak –aitortuak– ez dutela bide berdina jarraitu¹⁹:

INKESTAREN URTEA	EZAGUTZA	KALEKO ERABILERA: Euskara erdera baino gehiago edo berdin erabiltzen duten pertsonak (Aitortua)
2001	%25.4	% 14.6
2006	%25.7	% 15.6
2011	% 27	% 16.1
2016	%28.4	% 16.5

Iturria: *Inkesta Soziolinguistikoa (2016)*. Egileak egina

Euskararen erabilera informalarari –edo ez-aitortuari– begiratzen badiogu ere, hau da, Soziolinguistika Klusterrak egiten dituen kale erabilerako neurkete-tako datuei erreparatuz²⁰, konturatu gintezke erabilerak 15 urtean behera egin duela 0.5 PUNTU.

NEURKETAREN URTEA	ERABILERA: Behaketa bidez jasotakoa
2001	% 13.3
2006	% 13.7
2011	% 13.2
2016	% 12.6

Iturria: *Soziolinguistika Klusterra (2016: 5)*. Egileak egina

¹⁹ Datuak Euskal Herriko zazpi probintziei dagozkie, baina EAE soilik kontuan izanda ere, joera berdina antzeman genezake (Eusko Jaurlaritzak *et al.*, 2016).

²⁰ Euskararen kale erabilerari lotutako datu hauek ere Euskal Herriko zazpi probintzietakoak dira. Hala ere, erabilerari dagokionean, EAEko datuek ere joera berdina erakusten dute (Soziolinguistika Klusterra, 2016).

Iturri ezberdinetatik eratorritako datuak izan arren, eta zenbakietan bariazio txikiak egon arren, argi adierazten digute datuok euskararen erabilerak apalaldi bat bizi izan duela. Eta ez duela ezagutzaren bide berdina egin; nahiz eta eza-gutza orokorrak ere, oso gutxi egin duen gora.

Hala nola, eta datu hauek esku artean izanik, euskararen erabilera aktibatzeke eta suspertzeke hiru eragiteko bide²¹ aipa genitzake: migrazio edo gizartean bizi dugun aniztasunaren kudeaketa; eskolaz kanpoko aisialdia, eta lan mundua.

2000. urtetik landa, aldaketa soziopolitiko eta ekonomiko handiak bizi izan ditugu Euskal Herrian. Aldaketa horietako bat gure herri eta auzoetako biztanlegoaren profil aldaketa litzateke. Hau da, garai batean, XX. mende hasieran eta erdialdean –1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan–, Espainiar Estatutik zetorren migrazioa jaso genuen Hego Euskal Herrian. XXI. mendearekin, ordea, migrazio internazionala etorri da gurera. Horrek, herri eta auzoetako hizkuntza paisaia ere aldatu egin du, eta migratu hauek euskarara hurbiltzea, eta hauen seme-alabak euskaraz sozializatzea hamarkada hauetako erronka bilakatu dira (Amonarriz & Martinez de Lagos, 2017: 28).

Nolanahi ere, eta gaur gaurkoz, kezka edo erronka horrek mahai gainean jarraitzen badu ere, 2000ko hamarkada hasieran jada, suma genezakeen egitate horrek euskararentzat erronka berri bat ekarriko zuela:

“Migrazio berri hori dela-eta, kezkatzen hasiak dira euskararekin zerikusia duten gizarte agenteak: maisuak, helduei euskara irakasten dieten pertsonak, euskararen normalizazioaren alde jarduten duten elkarte eta pertsonak, euskaldunen portzentajea handia den eremuetan bizi direnak, udaletako euskara teknikariak eta abar. Jendea konturatzen hasi da gizarte eta giza erronka berri baten aurrean gaudela, erronka horren mugak zehaztea zaila dela, eta, oraindik ere kopuru erabilgarria bada ere, etorkizunean nabarmen handiagoa izan daitekeela” (Unzurrunzaga, 2004).

²¹ Hala eta guztiz ere, ezker independentistak 2021. urteko urtarrilaren 22 eta 29an antolatutako “Euskararen Plaza hutsa” jardunaldietan, Hizkuntza Politika berri baten beharraz, eta euskalgintzaren aktibazio baterako urgentziaz asko hitz egin zen. Planteatu zen Hizkuntza Politikaren berritze hau, euskalgintzaren birsortzea, arnaguneak eta herri kontakizuna birsortzeko bulkada kultural berriak, euskalgintzaren txapel ideologiko berri bat sortzeko ildo estrategiko gisara identifikatuak izan ziren (Euskararen plaza hutsa, 2021).

Beraz, argi ikus genezake Agustin Unzurrunzagaren 2004ko aipu horretan, migrazioak sortu zuela kezka bat euskalgintzaren baitako alor eta erakunde ezberdinetan. Hala ere, euskalgintzatik gai horren inguruan nahiko diskurtso eta praktika argiak egon direla esan daiteke. Hau da, asimilazioranzko bidea baino, elkarlanerako eta elkar-aberasteko bidea hartu dela esan liteke.

Horren lekuko litzateke “Auzoko” egitasmoa. Programa edo egitasmo horren muinean aniztasuna dago. Hau da, Euskal Herrian bizi dugun kultur aniztasuna oinarri hartuta, herritarrak harremanetan jartzeko gunea izan nahi du, kulturen arteko elkartrukeak bultzatu, eta euskara herritarren arteko komunikazio eta kohesio hizkuntza izan dadin ahalegintzen da (Ozaita, 2012: 132).

Hala eta guztiz ere, nahiz eta migrazio internazional horrek gure errealitatean aldaketarik eragin izan duen, egungo euskalgintzaren kezkarik behinenak aisialdia eta lan mundua dira (Topalabea, 2020). Horiek identifikatzen dira euskararen erabileraren apalaldi hori suspertzeko palanka edota gako gisara.

Aisialdiari buruz ari garenean, gazteen eta nerabeen aisialdiaren inguruan ari gara; eta ez helduen aisialdiaren inguruan. Hau da, euskalgintzak daukan aisialdiaren inguruko kezka gazteen euskararen erabilerarekin egongo da lotuta.

Gazteen aisialdia egungo euskalgintzaren eta euskararen aktibazioaren kezken artean aurkitu genezakeen arren, gazteen euskararen erabilera aspalditik egon da jo puntuan. 1993. urtekoa da euskara eta gaztetxoen inguruan egin zen lehen ikerketa edo azterlan sakona. EAEko gazteak izan zituen ikerketa “objektu” Javier Elzo ikerlariak, eta gaztetxoen arteko euskararen egoera –ezagutza, euskararekiko jarrerak edota erabilera– ezagutzea izan zuen helburu (Hernandez, 2005: 33).

93an hasitako tradizio soziolinguistiko horrek izan du jarraipenik. Nerabezaroan eta gazteen artean aldaketa nabarmenak ematen dira, eta ez da batere harrigarria euskalgintzak ere euskararen erabilera suspertzeko bizitzako garai honetan begia jarri izana. Azken urteetan egin izan diren ikerketen arabera, ezin ukatuzkoa da Euskal Herrian nerabezaroan hizkuntza-mudantza bat ematen dela: *“11 eta 13 urte bitartekoen artean gaztelania erabiltzen hasteko joera oso zabaldua dago, eta euskararen erabileran beherakadarik handiena haurren eta gazteen datuak konparatuz nabari da”* (Altuna, 2016: 103).

Ikerketa horien arabera, badira hainbat aldagai nerabezarora iritsi arte euskaraz hitz egiteko ohitura mantentzen laguntzen dutenak. Esaterako, eskola, etxea, aisialdia eta, neurri apalago batean, ikaskideak. Haurtzaroko hizkuntza guztiz lotuta egongo da haurtzaroari berari egozten zaizkion hainbat praktikarekin. Hala nola, eta nerabezarora iristean, haurtzaroko praktikak atzean utzi eta nerabeenak diren praktiketara igarotzen dira gazteak; horrekin batera, nerabezaroko praktika berri horiei hizkuntza praktika berriak atxikiko zaizkielarik. Nerabezaroko praktika aldaketa horien artean, pisu nabarmena aisialdiko praktika aldaketek –eta hauetan erabilitako hizkuntzek– izango dute (*Ibid.*: 109).

Mikel Zalbide soziolinguistak ere euskararen erabilera bultzatzeko gako gisara ikusten du gazteen aisialdia:

“Seme-alabei euskara erakustea ez da aski; D edo B ereduko eskola ere ez: etxean eta eskolan ikasten den hori etxetik eta eskolatik kanpora erabili egin behar du umeak, gazteak edota helduak, euskal familia eratu eta haurrak izan arte. [...] Eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun-eskema berria eratu behar dugu: herritarren eguneroko jardun arrunta eta belaunez belaunez jarraipena segurtatzea edo indartzea helburu nagusi duen eskema berria” (Zalbide, 2016: 34).

Euskal soziolinguistikan –eta baita hizkuntz antropologian ere–, beraz, azken urteetan bederen, dezente ikertu den gaia izan da gazteak, hauen aisialdia eta euskararen erabilerearen arteko lotura. Soziolinguistikako azterketa eta jakintza hauek oinarri harturik, euskalgintzatik aisialdiaren gaineko kezka horri erantzuteko asmoz sortu zen “Kuadrilategi egitasmoa” 2000. urtean Pasaian –urteen poderioz, beste herri batzuetara ere zabaldu izan den arren–. Egitasmo horren helburua argia da: gazte koadrila edo lagun-taldeak euskalduntzea; talde horien artean euskararen erabilera bultzatzea eta areagotzea, alegia (Arriola, 2019: 14).

Testuinguru horretan, eta gaiak duen garrantziari erreparatzeko asmoz, Topalabea taldeak²² argitaratutako txostenean ere, aisialdia edota eskolaz kanpoko eremu ez formala, estrategikotzat ageri zaigu euskararen erabilerearen sustape-

²² Topalabea taldea, Karmelo Aiesta, Kike Amonarriz, Xabier Erize, Mikel Irizar, Elena Laka, Iker Martinez de Lagos, Iñaki Martinez de Luna, Jasone Mendizabal eta Jon Sarasuak osatzen dute. Esan liteke, Euskaltzaleon Topagunearen baitan aurkitzen den hausnarketa taldea dela.

nerako. Horiek egiturazko aldaketak planteatu dituzte. Esaterako, EAEn eta Nafarroa iparraldean –hau da, haur eta gaztetxoek euskararen ezagutza bermatuta daukaten guneean–, aisialdi eskaintza defektuz euskarazkoa izatea planteatzen dute (Goikoetxea, 2020).

Aisialdia, gazteak eta euskararen erabilera, hiru aldagai horiekin dantzan gabiltzan bitartean, Jone Miren Hernandezek gazteen euskararen erabilerari buruz planteatzen duena etorri zait gogora: “Gazteek zergatik ez duten euskaraz egiten” galdetzea baino, galdera hau egin beharko genukeela: “Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei?” (Hernández, 2011: 603).

Ildo horretatik, interesgarria da Miren Artetxe ikerlari eta bertsolari hendaia-rrak 2019. urtean argitaratu zuen tesian planteatzen duen begirada. Ipar Euskal Herriko bertso eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak aztertu ditu doktorego tesian; eta argi islatzen da Hernandezek goian planteatzen duen galderaren erantzuna. Hau da, Artetxek gazte hauei euskarak zer eskaintzen dien aztertu du, eta euskara eta gazteen arteko harremana ulertzeko gako garrantzitsu batzuk eman ditu. Esaterako, eta aisialdiaren garrantzia nabarmenduz, euskara eta gazte identitatea guttiz loturik ikusten ditu Hendaiarrak, eta bertso eskolak Iparraldeko gazteen identitatea euskaraz garatzeko guneak lirarteke –honela dio, Argia astekarian eginiko elkarrizketa batean–:

“Kontua da gazte bezala mundura azaldu nahi dutenean, beste gazteen egiteko moduekin eta balioekin identifikatzeko beharra dutela, eta inguru batekin zeinak utziko dien modu interesgarrian beraien gazte identitatea garatzen, euskaraz. Bertso eskolak horretarako aitzakia ematen du” (Aldalur, 2020).

Argi dago aisialdiaren gaiak baduela mamia, horren lekuko lirarteke XXI. mendeko hasieratik sortu den literatura zientifikoa zein euskalgintzatik bultzatu diren hainbat egitasmo eta hausnarketa.

Dena den, eta jada aipatu dugun gisara, lan mundua litzateke 2000ko eta 2010eko hamarkadetako euskalgintzako beste kezka potoloetako bat.

Topalabeako taldeak esaterako, oso modu arrazoitu eta logikoan azaltzen du arlo sozioekonomikoaren euskalduntzea. Haien arabera, lan mundua euskaldundu beharko litzateke hezkuntza sisteman euskara biziberritzeko egindako ahaleginari segida naturala eman diezaion (Topalabea, 2020: 13).

Hala ere, eta lan munduaren konplexutasunari erantzuteko, ezinbestean bete beharreko baldintza batzuk ere ikusten dituzte:

“Bistakoa da ordu asko ematen ditugula lanean euskaldun askok; eta, bezero eta kontsumitzaile gisa, Euskal Herrian oso egoera soziolinguistiko ezberdinak ditugu, eta ez dugu pentsatu behar egoera guztietan lehentasun nagusia dela arlo sozioekonomikoan euskara sustatzea. Ezinbestekoak dira baldintza batzuk lan esparruan euskara sustatzeko; besteak beste, akordio politikoa eta gizartearen babesia. Borondate politikorik gabe, ezin da sektore publikoa euskaldundu, eta zaila da sektore pribaturara heltzea; gizartearen babesik gabe, entitateek ez dute motibazio nahikorik izango sakoneko aldaketak egiteko” (Ibid.: 14).

Horrenbestez, eta behin baino gehiagotan aipatu dugun gisara, lan munduaren edota arlo sozioekonomikoaren euskalduntzea egungo kezka nagusienetako bat baldin bada ere, XXI. mende hasieratik eraikitzen hasia dago lan horretarako egitura sendo bat. Hemen kokatuko genituzke hizkuntza aholkularitzak, edota euskalgintzak eremu sozioekonomikoa estrategikotasunez jorratzeko sortuta dituen tresnak: Bai Euskarari ziurtagiria –Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, Bikain ziurtagiria ere sortuta dauka–, Enpresarean edo Lansarean esaterako (Zumalde *et al.*, 2020: 4).

2000ko hamarkada eta 2010ekoa nahiko malkartsuak izan dira euskalgintzarentzat. Bidegurutze edota errotonda batean aurkituko da euskalgintza hamarkada hauetan. Errontonda diogu, mugimendua geldi ez delako egon, baina bai arazo edo problematika bertsuen inguruan bueltaka. Hori horrela, migrazioaren gaiak, baina batez ere lan munduaren euskalduntzeak, eta gazteen aisialdiaren eta hezkuntza ez-formalaren inguruko gogoeta, ikerketa eta ekintzek osatu dute azken hamarkada hauetako euskalgintzaren jarduna.

2.4.2. Euskaraldiaren aroa

Euskalgintzaren baitako kezkez, aktibaziorako²³ gakoetz, edota azken urteetan sortutako lan eta ikerketa zientifikoez aritu gara. Baina badago egitate bat,

²³ Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza-aktibazioa honela definitzen du: “Soziolinguistikan, hainbatetan, prozesu individual moduan ulertu izan da aktibazioa, hizkuntza-obiturak aldatze-

azken urte hauetako euskalgintzaren jarduna eta nondik norakoak markatuko dituen. Jakina da 2011. urtetik aurrera Euskal Herriko mapa soziopolitikoak guztiz aldatuko dela, urte horretan eman baitzuen ETak behin betiko su etena; ondorengo urteetan etorriko zirelarik honen armagabetze eta disoluzioa. Egitate horrek, eta baita eragile politiko berrien sorrerak ere, Nafarroan izan zen Gobernu aldaketak, Iparraldearen egitura administratibo berriak... euskalgintzaren joku-zelaia aldatu, eta zelabait aldeko ere bihurtuko du. Kike Amonarrizek eta Iker Martinez de Lagosek azpimarratzen zuten bezala: *“Inoizko egokierarik aldekoena dugu eta euskalgintzak aukera baliatzen asmatu behar du”* (Amonarriz & Martinez de Lagos, 2017: 28).

Eta badirudi 2018. urtean euskalgintzak asmatu zuela inoizko egoera behinen hori aprobetxatzen. Erabilera datuek nolabaiteko alarmak piztuta, eta egoera politiko berria baliatuz, euskalgintzako eragile ezberdinek eta instituzio publikoek elkarlanean, “Euskaraldia” ariketa soziala gauzatu zen (Arruti, 2018: 59).

Euskaraldia hiztunak aktibatzeke helburuarekin abiatu zen²⁴ (Topalabea, 2020: 19). Funtsean, Euskaraldiak hizkuntza-ohituretan eragitea nahi izan zuen, hizkuntza-ohitura batzuk aldatu, eta hauek arau sozial berri bihurtu zituzten. Horretarako, bi rol sortu ziren, parte hartzaile bakoitzak rol bakar bat

ko prozesu moduan, alegia, eta, horretarako, tailer ugari sortu eta liburuak argitaratu dira. Ikerketa-lan honetan, hizkuntza-aktibazioa prozesu individual gisa ulertzen dugu, baina ez gara mugatzen dimentsio pertsonalera, hau da, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskaraz jarduteko norberak egiten duen ibilbidera. Hizkuntza-aktibazioa prozesu kolektibotzat ere hartzen dugu, eta talde batek, baliu batzuk oinarri, praktika batzuk aurrera eramateko bategitean sortzen den prozesua izan dugu ikergai nagusi” (Soziolinguistika Klusterra, 2020: 5).

²⁴ 2020ko Abenduan hasita, bigarren edizio bat izan zuen Euskaraldiak. Gainera, 2020ko edizio honek hainbat berritasun ekarri zituen: *“2020an, banakoez gain, entitateak aktibatzerat dator; hau da, gizartea antolatzen duten egituretan eragin nahi du, zertarako eta hiztun banakoaren euskaraz egiteko hautua ahalbidetu, bermatu eta erraztu dezaketen espazioak –ariguneak– sor ditzaten. Arlo sozioekonomikoan egin behar den lan sistematiko eta jarraituaz gain, aisialdiko entitate askotan eragiteko aukera emango du ekimenak, euskararen lurralde guztietan, tokian tokiko moldeak eta neurriak erabiliz. Sekulako aukera izango da zuzenean hizkuntza ohituretan eragiteko, baina baita mikrodiagnosiak egiteko eta haien baturatik palanka berriak identifikatzeko ere”* (Topalabea, 2020: 19).

jokatuko zuelarik ariketa sozialak iraun zuen 11 egunetan²⁵. Batetik, “Ahobiziak” leudeke. Hauek, euskaraz zekien orori euskaraz egin behar izan zioten. Bestetik, “Belarriprestak”. Rol honetan kokatu ziren pertsonak ulermena behintzat bermatuta izan behar zuten, ez zuten hartu euskara hutsez hitz egiteko konpromisorik, baina izenak berak dioen bezala, euskararekiko prestutasuna erakustea zen xede, euskaldunek sarri asko bizi duten estres linguistikoa baretu asmoz (Illaro & Martinez de Lagos, 2018).

Parte hartze zabala eskuratu zuen Euskaraldiak. 225.154 lagunek parte hartu zuten 2018ko lehen edizio horretan. Parte hartzaileen %72,81ak “Ahobizi” rola aukeratu zuen ariketa egiteko (Gaindegia, 2018). Horren harira, aipagarria da ariketa sozialean bi rolek zer nolako hautemate ezberdina izan zuten jendartean:

(...) Antzeman daiteke ahobizi rola belarriprestarenak baino prestigio gehiago lortu duela jendartean. Euskaraldiko antolaketatik halako mezurik zabaldu ez bada ere, susma daiteke «euskaldun berri» eta «euskaldun zahar» kontzeptu dikotomikoe-kin lotu direla rolen esanahi eta funtzioak, besteak beste, azken horiek askoz ezagunagoak direlako gizartean. Irakurketa horretatik, ordea, belarriprest rola atera da kaltetuen eta horrek ekarri du parte hartzaileen balantza ahobizien alde iraultzea. Belarriprest gisa parte har zezaketen hainbat pertsonak zegokien rola ez dute gogoko izan eta ez dute ekimenean izenik eman. Beste batzuek, ordea, nahiago izan dute ahobizi gisa parte hartu, nahiz eta rol hori betetzeko baldintza egokiak ez eduki –euskaraz hitz egiten jakitea– (Anduaga & Jauregi, 2019: 51).

Modu guztiz dikotomikoan ulertu ziren rola. Eta dikotomiek dakartenez, batak bestea baino prestigio eta onarpen sozial gehiago irabazi zuen.

Dikotomiekin jarraiki, baina binomioa aldatuz, parte hartze datuek hainbat pista edo argibide ematen dizkigute generoaren inguruan. Aldagai horri erreparatuz gero, ikus genezake Euskaraldian parte hartzaileen artean emakumeak gehiago izan zirela gizonezkoak baino; parte hartzaileen %62,17 emakumea izan baitzen (Gaindegia, 2018). Datu horrek zehazki, hainbat pista eman diezakegu gure gizartean ematen diren hainbat fenomeno ulertzeko. Hala nola

²⁵ Ekimena 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen, eta 16 urtetik gorako persona orok parte hartu ahal izan zuen (Arriola, 2019).

hainbatetan aipatutako euskararen erabileraren feminizazioarekin ere lotu liteke parte hartze datu hori.

Aurreko orrietan euskararen erabileraren apalaldiaz jardun dugu, eta 2016. urteko euskararen kale erabileraren neurketak beste datu esanguratsu bat ere plazaratzen digu. Orain artean, euskararen erabileraren feminizazioaz mintzo izan garenean datu kuantitatiborik esku artean eduki gabe izan da. Baina 2016. urteko neurketa horrek, emakumezkoek gehiago hitz egiten dutela euskaraz gizonetzkoek baino plazaratzen digu. Joera hori adin talde guztietan ematen da, adinekoetan izan ezik. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian portaera hori lehen aldiz hauteman da neurketa honen bidez. Baina beste lurraldeetan, eta aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, joera hori azken hamar urtean zehar atzeman dela esan liteke (Soziolinguistika Klusterra, 2016: 13).

Jada aipatu dugun gisara, 1995. urtean plazaratu zuen fenomeno Kike Amonarriz soziolinguistak. Egun, euskararen erabileran dagoen feminizazio hau euskalgintzaren kezken barruan sartzen ez den arren –ez daukalako bere horretan eragin negatiborik–, euskal soziolinguistikaren eta antropologiaren baitan geroz eta gehiago ikertzen ari den egitatea da.

Amonarrizek, hiru hipotesi plazaratu zituen euskararen erabileraren feminizazioaren azalpen gisara. Lehenengo hipotesia transmisioarekin lotua egongo litzateke. Horren arabera, euskararen minorizatzeko prozesuan emakumeek familia giroan erdara transmititzeko hautua hartzen zuten. Baina euskararen normalizazio prozesuarekin, ordea, euskara da etxeetan transmititu beharreko hizkuntza. Beraz, heziketari eta transmisio lanari lotuta letorke emakumeen euskalduntzea. Bigarren hipotesi gisara, emakumeen errealitate profesionalari edota enpleguei egiten die erreferentzia Amonarrizek. Hau da, honen arabera, enplegu feminizatuetan euskararen eskaera eta erabilpena altuagoak dira; esaterako administrazio publikoari lotutako lanetan, edota hezkuntza sisteman. Eta azkenik, neska-mutil gaztetxoengan jartzen du begirada hizkuntzalari tolosarrak; gorago jorratu ditugun eskolaz kanpoko jardueri egiten baitie aipamena. Honen hitzetan, mutilen jarduerak kirolarekin lotuago egon ohi dira, eta kirol esparrua oso erdalduna dela azpimarratzen du (Amonarriz, 1995: 94).

Kirol munduan gaurdaino, oraindik ere, euskarak ez du presentzia nabarmenik, eta horrek mutilen hizkuntza praktketan eragin nabarmena izango luke.

Nesken aisialdiko praktikak ezberdinak dira. “Nesken” aisialdi praktika hauek sarri kulturarekin edota hezkuntzarekin lotuak izan ohi dira. Eta aisialdi praktika horietan euskarak presentzia nabarmenagoa dauka kirol munduan baino (Altuna, 2016:152).

Bestalde, Jone Miren Hernández antropologoak aurreko hamarkadetako euskara eta emakumearen gaia uztartzen dituzten ikerketa bakanen gaineko analisia eginez –ikusi ditugun Txepetx (1981) eta Azurmendiren (1964) gogoe-tak adibidez–, ondorengo ondorioztatzen du:

“Emakumearen eta euskararen arteko harremanak aztertu dituzten testu gehienek joera nabarmen bat plazaratu dute: emakumea gizartearen ispilu gisa aurkeztea. Emakumeek gizartean modan dauden joerak kopiatzen eta erreproduzitzen dituztenaren usteari jarraituz, nesken hizkuntz, jokaera gizarte osoarenaren termometro-tzat hartu izan da. Ildo antzekoa jarraitu izan dute euskararen feminizazioaz hitz egin edo idatzi dutenak” (Hernandez, 2004).

Emakumeen “ispilu zaletasunarekin” eta hizkuntza aldatzeko duten joeraren azalpen gisara “prestigioaren” teoria ageri zaigu. Hau da, gurean zein atzerrian sarri esan izan da emakumeek gizonezkoek baino errazago islatzen dituzte-la gizartean indarrean eta prestigioa duten baloreak. Baina Hernandezek eta Altunak (2017: 135) prestigioaren teoria horri sustraiak harrotu, eta praktika ezberdinen muinean dagoen arrazoiak ohartarazten gaituzte:

“Arreta gutxi jarri dugu dinamika honetan azaleratzen den beste fenomeno batean: emakumeak dira gehienetan mugitu, aldatu, mudatzera prest agertzen direnak. Hau, gure ustez, detaile inportantea litzateke. Izan ere egoera horretan topatu dezakegu prestigioaren teoria hauek funtsean ezkututzen dutena: boterearen banaketa desorekatua, hau da –Penelope Eckerten hitzetan–, botere eza”.

Beraz, gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza erabileran dagoen aldea azaltzeko unean, prestigioaren teoria baino haratago begiratu beharko dugu. Hau da, emakumezkoen kasuan hizkuntza erabilerak prestigioarekin nolabaiteko lotura bat izango du, baina jarrera horren arrazoa, muina, haien botere eza izango litzateke.

Bestalde, eta prestigioaren kontzeptuarekin jarraituz, aipatu beharra dago pertsonen –gizon eta emakumeek– prestigioa edo estatusa ingurune hurbilarekin lotzen dutela. Hau da, pertsona orok ingurune hurbilean uztartua egotea biltzen du. Modu horretan, prestigioa moldakorra eta aldakor gisa azter liteke (Hernández, 2005: 51).

Hala nola hizkuntzaren inguruan perspektiba feminista batekin egindako ikerketa askok nerabezaroan neska eta mutilek izaten dituzten hizkuntza portae-rak aztertu izan dituzte. Aisialdiaren gaia, edo euskalgintzak horrekiko duen kezka jardun dugunean, ikusi dugu nerabezaroan, haurtzaroan garatutako hizkuntz ereduak forma zehatzagoak hartzen joaten direla gaztetxoaren artean; hau da, adin tarte honetan finkatzen dira neska eta mutilen hizkuntza eredu ezberdinak. Prozesu horretan, gaztetxoek sexu bereko taldeetan biltzen dituzte erreferenteak. Penelope Eckert hizkuntzalariak AEBetako eskoletan egindako ikerketa baten arabera, mutilek indarra edota abilezia erabiliz neurtzen dute beraien arteko lehia, ezberdintasun objektiboetan oinarrituz. Neskek, aldiz, esanahi sinbolikoetan oinarritzen dute euren arteko jarduna. Horrela, itxura fisikoa edota hizkuntza erabilera nesken identitatearen parte garrantzitsu biltzen dira. Analisi hori eskuetan, Eckertek portaera horien muinean lehen aipatutako botere ezaren teoria kokatzen du. Hau horrela:

“Mutilek “zer egiteko” gai diren erakutsi behar dute. Neskek, aldiz, bere izaera “zertan datzan” adieraztea dute helburu, eta desio horretan hizkuntzak erabateko garrantzia izango luke, izan ere, hizkuntza pertsonaren aurkezpenari oso lotua dagoen elementua baita. Gauzak horrela, hizkuntzaren inguruan gertatzen diren izaera ezberdinetako aldaketak nabarmenagoak agertzen dira emakumeentzako, hizkuntzarekiko eta komunikazioarekiko arreta bereziagoa landu izan baitute” (Hernandez, 2002).

Bestalde, testuinguru historikoaz eta honen aldaketez hitz egin dugunean, ikusi dugu gaur egun hezkuntza sistemaren baitan –EAEn– euskaraz hitz egitea dela araua. Generoari erreparatuz gero, arau horren defentsan edota horren arbuioan izango genuke euskararen erabileraren feminizazioaren zergatietako bat. Horrela, neskek arau hori defendatu eta betetzen duten bitartean, mutilek, eta mutil gisa jokatzuz –maskulinitatea sendotuz–, araua apurtuko dute. Beraien genero identitatea arau apurketa horretan indartuz (Hernández & Altuna, 2017: 139).

Beraz, prestigioaren teoriak, horren muinean dagoen botere ezak, generoaren araberrako lan banaketak, aisialdi ereduak edota hezkuntza formalean euskarak daukan normatibitateak baldintzatuko dute, besteak beste, euskararen erabilaren feminizazioa. Euskara ere gizarteak ezartzen eta inosatzen dituen bi generoen arteko elkargune eta tentsioen erdigunean aurkitzen baita (Hernández & Altuna 2017: 146).

Antropologian –batez ere antropologia feministan– eta soziolinguistikan, beraz, generoaren gaia sartuko da aldagai gisara XXI. mende hasieratik, eta 2010eko hamarkadatik hona indar handiz.

Datu edo ikerketa zehatzik ez dugun arren, ziurrenik eta hipotesi gisara, generoaren aldagaia eta euskararen erabilera aztertzen eta erdigunean kokatzen dituzten ikerlan horiek izan dute eraginik euskalgintzan garatu den diskurtso berrian.

2010eko hamarkada amaiera aldera, euskararen aldeko, eta honen gaineko diskurtsoan, beste bira bat izango dugu. Euskararen gaia berdintasunaren parametroetatik, eta justizia sozialaren txapelpean kokatzen hasiko da. Hau da, aldarrikapena eskubide bihurtuko da, eta oinarrizko eskubideen bermatzea izango da helburu nagusi. Hala ere, diskurtso aldaketa horren zantzuak gaur gaurkoz ikusten baditugu ere, ez dira oraindik jendartearen eta ezta euskaltzaleen gehiengoaren diskurtsoetan txertatu. Esan genezake diskurtso hori oraindik ere prozesuan dagoela, eta eraikitzeke bidean (Topalabea, 2020: 19).

Diskurtso aldaketa horrek ere badauka egungo testuinguru sozialarekin zerikusia. Egungo Euskal Herrian, mugimendu sozial bat bizirik baldin badago, hori mugimendu feminista da. Esan liteke euskalgintzako diskurtso berriak dezente edan duela feminismoaren diskurtsotik. Horren adibide garbia litzateke 2020an Kontseiluak abiatu zuen kanpaina. Honela deskribatzen du Kontseiluak kanpainaren zergatia eta erakundeak euskararen egungo egoeraz eta errealtateaz egiten duen irakurketa:

“Kontseiluaren iritziz, euskarak herritarrak elkartzen eta saretzen ditu, eta gutxitua den perspektibatik, egoera zaurgarrian dauden gainontzeko talde zein norbanakoekiko errespetua, begirunea eta zaintza ahalbidetzen ditu. Hori horrela, eta herritar guztien eskubideak bermatuz, gizarte berdinzale eta demokratikoagoa eraikitzeke tresna izan liteke euskara” (Kontseilua, 2020a).

Diskurtsoak diskurtso, euskalgintza eta feminismoaren artean zubi bat eraiki dela esan liteke; zubi diskurtsibo eta teoriko bat. Soziolinguistikan eta hizkuntzaren antropologiako ikerlanetan generoaren aldagaia gehitu da. Hizkuntzaren errealitatea ulertzeko, generoaren aldagaiak nozio eta erralitatearen ertz interesgarriak eskaintzen dizkigula ulertu da. Are gehiago, kategoria analitikoek gain, esan liteke azken urteetan euskalgintza eta feminismoaren arteko harremana sakondu eta bien arteko zubi teorikoak eraiki direla.

Euskalgintza eta feminismoaren arteko igurtziak ez dira kasik existitu²⁶ 2014. urtera arte. 2014. urtean Arrasaten, euskalgintzako eta mugimendu feminista-tako taldeek bat egitea erabaki zuten, horiek antolatu zutelarik *“Izan zaitetzke feminista euskaltzale izan gabe?”* izenburu probokatzaile-dun mahaingurua. Hiru izan ziren mahainguru horretan parte hartu zuten hizlariak: Ainhoa Beola, eta ondoren, gai honen bueltan ibilbide oparoa eta hausnarketa interesgarriak utzi digun tandem: Idurre Eskisabel eta Lorea Agirrerena, alegia. Hala, esan liteke, arrasatearrek antolatutako mahaingurua euskalgintzaren eta feminismoaren balizko aliantzen inguruko gogoetaren abiapuntua izan zela nolabait (Irureta, 2016). Eskisabelek eta Agirrek aitortzen duten moduan, euskaltzaleen, euskalgintzaren eta euskal hiztunen diskurtso faltaz kezkatuta hasi ziren bi aldagai eta bi mugimenduen arteko irakurketa eta hausnarketak egiten (Eskisabel & Agirre, 2019: 18).

Modu laburrean, esan liteke bi direla Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelek feminisмотik euskalgintzara dakartzaten kontzeptu teorikoak: interseksionalitatea²⁷ eta naturalizazioa.

²⁶ Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago generoagatiko eta hizkuntzagatik zapalkuntzaren gaia intentsitate handiagoz azken hamarkada honetan landu baldin bada ere, Euskal Herrian 70eko hamarkadan jada, zapalkuntza hirukoitzaz hitz egiten zuten talde feministak existitzen zirela: *“70eko hamarkadan, hainbat emakume feminista zapalkuntza hirukoitzaz hitz egiten hasi ziren, eta klaseari eta nazioari beste bat erantsi zioten: emakume izateagatiko zapalkuntza, edo gaur egungo hizkerara ekarrita sexu-genero sistemaren araberakoa. Horrela sortu zen Ipar Euskal Herrian EEBA (Euskal Emakumeak Beren Askatasunaren Alde) talde feminista, feminismoa eta abertzaletasuna uztartuko zituen lehen taldea”* (Eskisabel & Agirre, 2016: 13).

²⁷ *“La interseccionalidad se presenta como categoría analítica para identificar de qué manera la intersección de las estructuras sociales (género, sexualidad, raza, nacionalidad, clase, discapacidad...) genera situaciones de discriminación complejas que se mantienen y reproducen tanto en el nivel estructural, como político y discursivo”* (La Barbera 2017: 91).

Bi autore horiek, beraz, beraien lan teorikoa garatzerakoan interseksionalitatearen kontzeptua ardatz hartuta egin dute irakurketa. Ikerlari horien arabera, hizkuntza eta generoa zapalkuntzaren adierazgarri baitira:

“Bi tasun horiek, menderakuntzaren adierazgarri dira, alegia, hizkuntza eta generoa, ez hegemoniko diren heinean dira ezagutuak, eta elkar indartzen dute. Batak bestean sakontzea ekar lezake eta ekartzen du. Eta horregatik, batak bestearen ahalduntzean lagun dezake, bai prozesu indibidualetan eta baita prozesu kolektiboetan ere” (2017:14).

Menderakuntzaren adierazgarriak ez ezik, batak bestearen ahalduntzean ere lagun dezake hortaz. Hau da, irakurketa horrek, zapalkuntza mekanismoak identifikatzeko balio lezake, baina ez hori soilik, interesgarria da oso ahalduntzearekin planteatzen dutena ere. Eta hortik ere izango du euskara eta generoaren arteko elkarriketak, batak bestearen boteretzerako estrategiak planteatu baititzake.

Hala eta guztiz ere, euskaltzaleen mugimenduak eta, beraz, euskaltzaleak, ez du sarri asko bere burua, bizitza zein gorputza zanpatuta ikusten edo hautematen euskaldun izate hutsagatik. Horregatik, interesgarria bezain nahitaezkoa da interseksionalitatearen paradigmatik egiten diren irakurketak barneratu eta horietan sakontzen jarraitzea.

Menderakuntzaz edota zapalkuntzaz ari gara etengabe orri hauetan; generoagatiko zapalkuntza, euskaragatiko menderakuntza... ikusi ahal izan dugu sistema berdinen bueltan mugitzen diren aldagaiak direla, boterea edota pribilegioak barreiatzen dituen sistema edo sare horren baitakoak, alegia. Menderakuntza sistema antzerakoa –edo bera– izateaz gain, menderakuntza estrategia berdina erabilia sortzen dira euskaldun eta emakume subalternoak; bazterreko gorputzak, alegia.

Menderakuntza estrategia hori naturalizazioa da; eta aipatu dugun gisara, sexu-genero sistemak eta hizkuntzarenak gailu berdina darabilte zapalkuntzarako:

“Naturalizazioaren bidez, azpiratutako norbanako eta jende taldeei sinetsarazten zaie badituztela ezaugarri batzuk beren berezkitasuna, natura defnitzen dutenak. Halaber, sinetsarazten zaie ezaugarri horiek dituztenez praktika batzuetarako dau-

dela gaituta –eta, berez, beste batzuetarako desgaituta–. Orobat, praktika horien bidez funtzio batzuk betetzen ditzuztela, eta haien gaitasuna funtzio horiek betetzera baino iristen ez denez, horregatik daudela menderatuta. Azken batean, haien ezau-garri eta gaitasunen arabera positioa dutela botere sarean” (Eskisabel & Agirre, 2019: 24-25).

Hau da, emakumeak naturaz edo biologikoki modu bateko jaioko lirateke, eta horrek, funtzio edo eginkizun batzuk betetzera emango lieke. Eskisabel eta Agirrek dioten bezala (2017: 25), kasualitatez ez dirurik, ez prestigiorik, ez botererik, ez publikotasunik ez duten eginkizunak. Eta hein handi batean, euskararen inguruan dagoen diskurtsoetako batek ere –diskurtso supremazistena– berdina diosku: euskara ez dela baliagarria ideia abstraktu eta konplexuak garatzeko; hortaz, txikia da, goxoa, txokokoa, umeentzako egokia... baina publikotasunik ez zaio aitortzen. Eta azken finean, botererik ere ez (*Ibid.*: 26).

Beraz, feminismoak tresna oso interesgarriak jartzen dizkigu mahaigainean, euskararen, euskalgintzaren eta euskaldun subjektuaren inguruko analisiak egin ahal izateko. Horretaz gain, euskalgintza bidegurutzean dagoen honetan, diskurtsoa eraiki eta iparra argi izaten ere lagun diezaguke feminismoak, honen kategoria analitikoek eta mundua interpretatzeko duen gaitasunak.

Hala nola azken bi hamarkadetan, eta orri hauetan aipatu dugun gisara, euskalgintza nolabaiteko bidegurutze edo errotonda batean aurkitzen da. Euskarak azken hamarkada hauetan despolitizazio bat jasan duela mahaigaineratu dugu; diskurtsiboki bederen, euskal nazionalismoarengandik urrundu nahirik. Hori horrela, euskalgintzaren azken “estadio” honetan, erro bereko bi gertakari historiko garrantzitsu izan ditugu, batetik, Lizarra-Garaziko akordioa –nolabait ere azken garai honi hasiera emango liokeena–, eta bestetik, ETAREN desegitea –neurri batean Euskaraldiaren bueltan erakutsi den adostasun politikoa ahalbidetu duena–.

Lan mundua eta aisialdia edo hezkuntza ez-formala jotzen dira geureganatu edota irabazi beharreko hurrengo bi alorrik nagusienak, betiere Topagunearen baitan markatu den estrategiaren arabera.

Hala ere, mugimenduari dagokionez, eta diskurtsoaren baitan, euskalgintza eta feminismoaren arteko uztarketak, eta feminismoaren teoria ardatz harturik

egin diren irakurketek, diskurtso berri baterazko bidea eraiki dute azken urteetan. Hala nola ikusteko dago oraindik ere uztarketa honek zer nolako fruituak utziko dituen datozen urteetan.

3. PUBLIZITATEA

Ibilbide historikoez aritu izan gara orain artean, euskaingintzak zein euskarak bereak izandako ibilbideez hain zuzen ere. Baina badago, eta aurretik ere aipatu izan da, lan honetan paper berezia jokatzeko duen bigarren hanka bat. Ezinbestean, euskarak honen erabilera kanpainetan izan duen errepresentazioa edo esanahia aztertzeko, publizitateaz eta berau aztertzeko baliagarriak diren semiotika eta “diskurso multimodalen analisia” bezalako tresna teorikoez hitz egin beharko dugu; eta gai horiez arituko gara datorren hirugarren atal honetan.

Hala ere, publizitateaz hitz egin aurretik, komunikazioaren gaia jorratu beharko da. Azken finean, euskararen erabilera bultzatzeko kanpainek, edozein produkturen gaineko kanpainen gisara, hartzailarekin, gure kasuan hiztunarekin edo hiztun potentzialarekin, konektatu nahi izango baitute. Bladimir Vega ikus entzunezko komunikazioan doktoreak honela definitzen du komunikazioa: “*Un acto social mediante el cual se efectúa un intercambio de información o se imparte ésta*” (Vega, 2012: 68). Ekintza sozial hau aurrera eramateko, eta zeinu ezberdinen komunikaziorako, zentzumen –entzumena, ikusmena, ukimena...– guztien beharra dago. Horretaz gain, ezinbestekoa izango da mezua igortzen duenaren kodeak, eta irakurlearen kodeak elementu multzo komunak osatzea; adibidez, irakurleak testua idatzita dagoen hizkuntza ulertzea funtsezkoa izango da (*Idem.*).

Hori horrela, komunikazioaren baitan, eta honen ardatz gisara, publizitatea izango genuke. Publizitateak gaurkotasan handiko gaia baldin badirudi ere –eta neurri batean hala da–, gaur egun ezagutzen den publizitate modernora iristerako, ikus genitzake historian zehar hainbat publizitatearen arrasto. Egungo publizitate moderno hau XIX. mendearen erdialdean sortua den arren, publizitate edo komunikazio komertzial gisara sailkatu genitzake Erromako inperioan zein Grezian ematen ziren praktika batzuk. Mende batzuk beranduago, inprentaren sorrerarekin, publizitateak izugarritzko hedapena izango du,

eta poliki poliki jendartearen egunerokotasunean txertatzen joango da (Curto *et al.*, 2008: 21).

Publizitatearen gaia jorratzen duten ikerlariei erreparatuz gero, ez da erraza definizio bakar bat ematea. Hala ere, eta ondoren xehetasunetan sartuko garenez, honela definitzen du Euskaltzaindiak publizitatea:

“Publizitatea gertaerak, pertsonak, gauzak jendaurrean ezagutaraztea eta zabaltzea da, hedabideen bitartez, jendearengan eragin jakin bat izateko eta bereziki jendeak produktu edo zerbitzu jakin bat ezagutu, irrikatu eta eros dezan. Iragarkien bidez egin obi da, batzuetan testu irakurgarri edo entzungarri hutsez, beste batzu tan irudien laguntzaz” (Euskaltzaindia, 2020a).

Definizio guztiz orokor eta zabala izango litzateke Euskaltzaindiaren hori. Baina gaian aditu diren autore ezberdinek publizitateari definizio horrek ezartzen dizkiona baino ertz eta ezaugarri gehiago esleitzen dizkiote.

Juan Rey (1992: 70) publizitate ikertzailearen arabera, publizitateak darabilen hizkuntzak hainbat nolakotasun izango ditu. Publizitate-hizkuntzak komunikazioari aportaziorik egiten ez dion elementu oro ezabatuko du. Hau da, sinplifikazioan oinarritutako hizkuntza bat da, apaingarri linguistikoak borratuko dituen.

Horretaz gain, publizitatearen beste nolakotasun edo ezaugarri bat bere helburua izango litzateke. Euskaltzaindiaren definizioan ere ageri den moduan, komunikazio modu honek jendearengan eragin bat bilatzen du. Zehazki:

“Las misiones del texto publicitario son persuadir, seducir, convencer, emocionar, informar a grupos muy numerosos sobre productos, marcas, servicios, ideas... , es decir, es un texto interesado que transmite la personalidad, los valores, los atributos del objeto comercial” (Curto *et al.*, 2008: 19).

Publizitatearen helburua hortaz, argia da. Sedukzioan eta pertsonen konbentzimenduan oinarritzen baita. Baina badago goiko aipu horretan azpimarragarria dirudien gako bat. Helburu hori lortzera bidean, eta modu paralelo batean, publizitateak –edo publizitate hori sortzen duen erakundeak– objektu komer-

tzial edo produktuaren pertsonalitatea, balioak eta honi esleitzen zaizkion ezaugarriak transmititzen ditu. Zio horrengatik jo da garrantzitsutzat euskararen errepresentazio edota kanpainetan igorritako irudia zein den aztertzeko publizitatearen talaiatik begiratzea. Modu horretan, euskara produktu gisara hauteman behar da, eta aurretik aipatu den bezala, ikerlan honen helburu nagusia produktu hori kanpaina ezberdinetan nola errepresentatu edo adierazten den ikertzea izango da –genero perspektiba batetik–.

Hala nola, eta publizitateak produktuari esleitzen dizkion pertsonalitate, balio eta ideiek, nolabait ere, produktu horren marka sortzen dute. Juan Benavides (2012: 75) ikerlariaren arabera, markaren definizio konbentzionalak edo klasikoak produktuaren zeinu bereizgarrian jarri izan du arreta. Hau da, definizio horren arabera, marka produktu batek daukan zeinu bereizgarria, edo beste antzerako produktu batzuetatik bereizten duena izan da.

Hala eta guztiz ere, produktuan fokalizatutako markaren definizio hori eraldatzen joan da urteetan zehar. Gaur egun, markaz hitz egiten dugunean ezin dugu soilik produktua buruan izan, horren atzean dauden errepresentazioak, usteak eta irudiak ere kontuan izan beharko ditugu. Hau da, kontsumitzailea produktuak erostetik, ukiezinak diren ezaugarri eta balioak erostera pasa dela esan liteke (Benavides, 2013).

Azken batean, kontsumitzaileek marka bera erosten amaitu dutela esan daiteke, markak produktua ordezkatu duela:

“Actualmente ya no se evalúan, como antaño, los atributos tangibles del producto. El público ahora se guía por los intangibles y en vez de obtener productos, compra símbolos, avalando el valor imprescindible de la marca” (Balta, 2008: 248).

Egungo publizitateak, baina zehatzago goiko lerroetan ageri den “markak”: *“Dota de significación a los productos”* (Caro, 1993: 75).

Produktuei atxikitzen zaizkion balioen eta kontsumitzaileen arteko loturari buruz, honela dio Aída Balta ikertzaileak:

“La dinámica publicitaria proyecta una serie de significados –valores de la marca– sobre el consumidor quien examina y afronta, con sus valores personales, el proceso de

identificación con la marca. En la actualidad las personas adquieren cada vez más la capacidad simbólica de los productos. La decisión de compra ya no tiene como fundamento la realidad del producto, sino lo que representa adquirirlo” (Balta, 2008: 254).

Hau da, produktuaren gaineko sinbolismoak, eta azken finean, horrek erreprezentatzen duenak, izugarritzko pisua izango dute produktu hori kontsumitzeko orduan. Nolabait esateko, kontsumitzaileak produktu bat bere egingo du, bere identitatearekin, edota izan nahi duen –edo izan nahi ez duen– horrekin bat egiten badu (*Ibid.*: 255).

Bestetik, markaren kategoria sakon ezagutzeko ezinbesteko kontzeptuak izango dira “Marka nortasuna” eta “Marka irudia”; kontzeptu horiek funtsezkoak baitira marka prozesua ulertzeko.

Marka nortasuna erakunde baten kontrolpean egongo diren elementuek osatzen dute, erakundeak berak zehaztuko du bere markaren nortasuna:

“Erakundeak prozesu estrategiko baten barruan markaren testuingurua, lehiakideen nortasuna, erakundearen balioak eta xede-taldeetan sortu ditzakeen pertzepzioak aztertuta diseinatuko du marka nortasuna eta oso elementu zehatz eta ukigarrietan hartuko du itxura: hitzezko eta irudizko nortasun korporatiboaren diseinuan (izena, logotipoa, eslogana...) produktuetan, eta publizitate eta babesgo ekintza guztietan (...). Proposamen estrategikoaren barruan sortu edo mantendu nahi diren asoziazioak dira marka nortasunaren bazka, eta asoziazio horien oinarrian promesa bat egongo da, erakundeak ezaugarri zehatzak eskaintzeko egiten duen promesa” (Garai, 2018: 33).

Marka irudia, aldiz, kontsumitzaileen esku dago, publikoaren baitan. Marka edo produktu horrek norbanakoengan sortzen duen sinesmena, emozioa edo balorazioa subjektiboa da. Uste subjektibo horrek iturri ezberdinetan izango du jatorria: zerbitzu edo produktu jakin batekin daukagun harremanean, publizitatetik edandako iturrian... Hala ere, marka irudia ez dago marka nortasunetik guztiz bereizita. Erakundearen esku ez dauden faktore batzuek bertan zeresana izango duten arren –publikoaren esperientziek eta beste hirugarren batzuen esperientziek ere osatuko baitute–, erakundeak ahal duen guztia egingo du marka nortasunaren bidez marka irudia bideratzeko (*Ibid.*: 34).

Hala nola marka nortasuna erakundearen igorlearen bueltan kokatuko litzateke, eta marka irudia, berriz, hartzailearen alorrean. Beraz, ikerlan honen analisisan marka nortasuna jorratuko dugu –euskalgintzak euskara nola eta zer balioen bitartez “saldu” duen ikertuko baitugu–. Hala ere, marka nortasun horrek zer nolako marka irudia sortu lezakeen ere ikertzen saiatuko gara; nahiz eta ikerketaren muina hori ez izan.

Bestalde, beste ideia interesgarri bat Benavides ikerlari Madrildarrak dakarki. Autore horren arabera, produktua kontsumitzen den lekuak, hau da, kontsumitzaileen praktikek eta praktika horiek garatzen diren gune fisikoek, izugarritzko garrantzia izango dute. Eta are gehiago, kontsumo praktika eta gune horietan produktu horren marka sortzen joango da:

“En la marca de producto el espacio social de la marca queda definido en sus ámbitos de consumo; es decir, es en el mismo proceso del consumo del objeto donde se determina el circuito real de esa marca. Porque, en efecto, la personalidad de la marca de producto se caracteriza por los atributos reales, imagen y diseño del objeto o del servicio que disfruta el consumidor” (Benavides, 2012: 74).

Beraz, eta atal honetan ageri den gisara, produktu batek, eta horren “salmentak” edota gizartean horri buruz sortu eta egiten den komunikazioak, sinbolismo bat sortzen dute. Produktua non kontsumitzen den, nork kontsumitzen duen, nola, zer praktikekin lotzen den produktua... Azken finean, produktuaren errepresentazioak hainbat gauza adierazten dizkigu produktu horren, eta baita produktuaren beraren kontsumitzaileen inguruan ere. Eta errepresentazio hori, edota “produktuaren”–gure kasuan euskararen– esanahi hori aztertzeko semiotika eta diskurtso multimodalaren analisisa erabiliko dira lan honetan.

3.1. SEMIOTIKA

Goiko atalean, publizitateaz hitz egin den atalean hain zuzen ere, hainbatean aipatu da produktu batek daukan edo izan lezakeen sinbolismoa. Produktuaren beraren sinbolismoaz haratago, oro har, eguneroko elementu gehienak

kodigo batzuen baitan ulertzen ditugu, baita hauek adierazi nahi dutena ere. Zeinuak²⁸, adierazleak eta horiek adierazi nahi dutena ulertu eta ikertzeko semiotika ezinbesteko tresna teorikoa da.

Baina zertaz ari gara semiotikaz hitz egiten dugunean? Semiotika, filosofiatik eratorritako zeinu sistemak aztertzen dituen teoria orokorra dela esan liteke (Ostalé, 2013). Hala nola publizitatearen gaineko analisi semiotiko baten helburua, publizitate horren baitan errepresentatuta ageri diren –edo ezkutuan dauden– zeinu eta kodigoen azterketa izango da:

“El objetivo del análisis semiótico de la publicidad es pues, identificar el desarrollo de los códigos de comunicación de la marca propia y de la competencia, de acuerdo a las tendencias que interactúan sincrónicamente en una sociedad” (Balta, 2008: 250).

Azken finean, gorputzak, jarrerak, jantziak, irudi ezberdinak... zeinu gisara hautematen ditugu; eta zentzua emateko eta zeinu gisara interpretatzeko, gure ohiko kodigoak baliatzen ditugu –kultura bakoitzak bereak ditu–. Hala, zeinu horien interpretazioa, eta interpretazio horren atzean dagoen prozesua aztertu eta ulertzeko nahia izango du semiotikak (Peñamarín, 2018b).

Zeinuak interpretatzeko prozesu horiek, edota zentzu emate prozesuek, interpretazio-praktika konplexuak barnebiltzen dituzte. Baina zentzua nola eraikitzen eta interpretatzen dugun ulertzeko, oinarritzko kontzeptu batzuk argitu beharko dira nahitaez. Oinarritzko kontzeptuen ulermenerako, batez ere, semiotika garaikidearen sortzaileen gogoetak hartuko dira aintzat; Ferdinand de Saussure eta Charles Sanders Peirce-erenak, hain zuzen ere (Peñamarín, 2015: 1).

Semiotika ulertzeko hortaz, nahitaezko kategoria bat “zeinu” kontzepua litza-teke. Zeinua elementu baten bi planoren arteko lotura da. Hau da, hizkuntza edo kode bat adierazlea²⁹ –hautematen dugun elementu ukigarria, edo entzun genezakeena– eta esanahiaren³⁰ –adierazi nahi dena, elementu bati dagokion

²⁸ “Zeinu” kontzeptua, gaztelaniazko “Signo”ren itzulpena da. Eta lan honetan, adiera hori erabiliko da.

²⁹ “Adierazle” kontzeptua ikerlan honetan, gaztelaniazko “Significante” kontzeptuaren itzulpen gisara erabiliko da

³⁰ Gaztelaniazko “significado” hitza itzultzeko, “adierazia” edo “esanahia” kontzeptuak erabili dira.

kontzeptua– arteko loturan datza. Bi plano hauek –adierazleak, eta esanahiak edo adieraziak– osatzen dute zeinua:

“Una lengua o un código consiste en la asociación entre dos planos –significante (pauta perceptible o imagen acústica) y significado (concepto)– y proporciona la regla o la clave que nos permite, al percibir algo, entender otra cosa y por ello también utilizar signos en lugar de cosas –diseñar la instalación de agua caliente y fría, en un plano, por ejemplo, o hablar de una caja sin tenerla delante, lo que constituye un potentísimo instrumento de conocimiento y comunicación” (Saussure, 1967: 64).

Beraz, zeinuaren bitartez gauza bat ikusten dugunean, beste bat ulertzeko ahalmena garatzen dugu. Esaterako:

“Podemos tener cuatro señales de tráfico que tienen notables diferencias entre sí, pero en nuestra relación habitual con el código de circulación no atendemos a esas diferencias, sino a lo que hace a cada una de esas figuras pintadas en paneles reconocible como la señal ‘paso de peatones’. Todas son para el usuario de la calle el mismo significante, porque reproducen, con sus variaciones, el mismo modelo, y vehiculan el mismo significado” (Peñamarín, 2015:5).

Hala nola, eta goiko aipuan ageri den adibideari helduz, zeinu bat ulertzeko, edo elementu bat adierazle gisara hautemateko –hau da, esanahi edo zerbait adieraztea nahi duen elementu gisara–, “kode” bat ezagutu beharra daukagu. Arestian aipatu den adibidean, trafiko seinale horiek barnebiltzen dituen sistemaren kodea, alegia. Hau da, kodeak berak, edo kodearen ezagutzak, egiten ditu ulergarri zeinuak. Beraz, zeinuen ulermena ere, guztiz soziala eta eraikia izango da; kultura, edo gizarteko kolektibo ezberdinetan, kode desberdinak erabiliko baitira gauzak adierazteko (*Idem.*). Hortaz, eta ikerketa honen kasuan ere, euskarari berau bultzatzeko egindako publizitatean eman zaizkion esanahiak, kulturalki eraikiak izango dira. Eta horretaz gain, hartzaileak ere, bere kode kultural eta sozialen baitan, irakurri eta esanahia emango die kartel ezberdinei.

Honenbestez, eta jada jorratu den gisara, semiotikak planteatzen dituen analisi-rako tresna eta kategoriak ez dira nolana hikoak. Orain artean Saussure autorearen adibide eta teoriak erabili baldin badira ere, Roland Barthes filosofo eta semiologo frantsesak ere, zeinua –adierazlea eta esanahi edo adierazia– ulertzeko adibide bikaina eskaintzen du honako testu honetan:

“Mientras el lenguaje común me dice simplemente que el significante expresa el significado, en cualquier sistema semiológico no nos encontramos con dos, sino con tres términos diferentes. Lo que se capta no es un término por separado, uno y luego el otro, sino la correlación que los une: tenemos entonces el significante, el significado y el signo, que constituye el total asociativo de los dos primeros términos. Tomemos como ejemplo un ramo de rosas: yo le hago significar mi pasión. ¿Se trata de un significante y un significado, las rosas y mi pasión? No, ni siquiera eso; en realidad, lo único que tengo son rosas 'pasionalizadas'. Pero, en el plano del análisis existen efectivamente tres términos; esas rosas cargadas de pasión se dejan descomponer perfectamente en rosas y en pasión; unas y otra existían antes de unirse y formar ese tercer objeto que es el signo” (Barthes, 1990: 110).

Esan liteke, beraz, Barthes-ek eskaintzen duen arrosen eta pasioaren adibide horrekin, nahiko argi ikusten direla zeinuaren, esanahiaren eta adierazlearen arteko plano ezberdin horiek.

Hortaz, Saussuren teoria, eta horrek eskaintzen dizkigun kontzeptuak ezagutzen jarraituz, autoreak mahaigaineratzen duen beste elementu interesgarri bat balioarena da. Hau da, elementu baten balioa bere sistemaren baitako beste elementuekin harremanetan jartzen denean agertzen da; hor izango du zentzua kontzeptu batek, eta baita balioa ere. “Etxe” kontzeptuak, “txabola” edota “kanping-denda” kontzeptuen alboan, hartzen du zentzua, eta baita balioa ere. Kontzeptuek, hortaz, konparazioan, sistema bereko elementuekin alderatzean zehazki, erdietsiko dute beraien balioa (Peñamarin, 2015:5).

Hala, orain arte, Saussureren teoria jorratu da goiko paragrafoetan, baina Charles Sanders Peirce ikerlari anglosaxoiak ere semiotikari ekarpen garrantzitsua egin zion.

Peircek testu³¹ bat analizatzeko orduan, hartzailearengan jarri zuen fokua, testuaren interpretazioan, alegia. Horren arabera, testu baten esanahia ez dago testuan bertan, baizik eta testuak norbaitengan sortzen dituen edo eragin litzakeen efektuen batuketan.

³¹ Testua diogunean, idatzizko zein irudizko elementuei egiten diegu erreferentzia, aurrerago kanpainetarako kartei buruz hitz egiten dugunean ere testuei buruz hitz egingo dugu.

“No hay una relación prefijada de un signo con un significado; la significación es el resultado de una interpretación por la cual se vincula el signo con un objeto” (Peñamarín, 2018a: 3).

Hortaz, Peircerentzat elementu batek zentzua izan dezan beti interpretazio ariketa bat egon beharko da tartean, eta interpretazio ariketa hori aurretik barneratuta dauzkagun ideia multzoetan, sentsazioetan... oinarrituta egongo da (*Idem.*).

Interpretazioan eta hartzailearengan arreta jartzeaz gain, Peircek semiotikari beste ekarpen garrantzitsu bat ere egin zion. Autore anglosaxoiak zeinu moten inguruan egiten duen sailkapena, eta horren inguruko ekarpenak ere oso argigarriak izan dira semiotikaren teoriaren garapenerako. Horrek, hiru mota ezberdinetan banatzen du zeinua.

Batetik, *ikonoa* egongo litzateke. Ikonoa bere objektuarekin antzekotasun-erlazioa duen zeinu bat da. Zeinu bat zerbaiten ikono gisa interpretatzen dugu objektu horren antzeko ezaugarriak dituela hautematen dugunean. Pertsona baten argazkia edo erretratua, elefante baten marrazkia, txorien kantua erreproduzitzen duen instrumentu baten soinua, pinuen lurrinaren antza duen lurringailu baten usaina, marrubi zaporeko gozokia... ikonikoak dira zentzu horretan (Peñamarín, 2018a: 6).

Bigarren zeinu mota *indizea* litzateke. Zeinu mota honek espazio-denbora erlazioa du objektuarekin, eta objektua zeinuarekin konektatuta egongo da. Kea, adibidez, sua dagoenaren indizea da; edota txakur oinatz bat animalia hori pasa denaren indize izango da. Hau da, zeinuak eta objektuak erlazio “erreal” bat daukate (*Ibid.*: 7).

Eta azkenik, *sinboloa* egongo litzateke. Sinboloa konbentzio, lege edo ohitura baten bidez lotzen da bere objektuarekin. Bere objektua zerbait orokorra da. Gurutzeta esaterako, kristautasunaren sinboloa litzateke; igitaia eta mailua komunismoarenak (Peñamarín, 2018a: 8).

Hala nola orain artean testuan esplizituki ageri diren elementuen inguruan jardun dugu; Peircek bereizten dituen zeinuaren hiru motak ere –ikonoa, indizea eta sinboloa–, esplizituak izango dira gehienetan bederen. Eta horiei, enuntziatu

edo testuan agerian dauden konexioei, sintagmak deritzegu. Eta konexioa egon arren, esplizituki ageri ez diren elementuek paradigmak osatzen dituzte:

“El enunciado 'mi madre quiere que vengas a cenar' introduce, con madre, un paradigma de roles familiares y con él, el de las situaciones o actividades comunes en esa relación. Cenar resulta bastante previsible en este campo. Podemos cambiarlo por comer o desayunar, del mismo paradigma, sin salirnos del campo (aunque desayunar puede contener cierta ambigüedad, porque sugiere situaciones como despertarse y, por tanto, dormir, y ésta puede introducir un paradigma sexual)” (Peñarín, 2015: 9).

Goiko adibide horri erreparatuta, ikus liteke adibide horrek familia harremanen, elikadura erritualen eta etxearen paradigmak barnebiltzen dituela adibidez. Hori horrela, garrantzitsua da, testu batean agertzen ez den arren, testu horretako elementuek zer paradigmarekin duten harremana aztertzea, eta hauek presente izatea. Hala, kultura determinatu bateko partaideek errealtatea eta honekin lotutako sistema sinbolikoa nola eraikitzen dituzten ulertu baikenezake (*Idem.*).

Honenbestez, aurreko lerroetan, Saussure eta Peirceren teoriak ezagutu izan dira. Ulertu ahal izan da bakoitzak non eta zergatik jartzen duen begia semiotika bera ulertzeko orduan. Baina Umberto Eco (1988) filosofo italiarrak oso ondo uztartzen ditu aurretik hizketagai izan diren bi autoreen lanak: “¿*Qué hay en el texto y en el intérprete, que haga que el primero produzca determinados efectos en el segundo?*”. Galdera horrekin ederki uztartzen ditu Saussuren testuaren gaineko kezkak, eta baita Peirceren interpretazioaren gainekoak ere. Lan honetan, kanpaina ezberdinen azterketa egiterakoan, Ecoren perspektiba horretatik abiatuta aztertuko dira kanpainak, testuak interpretean eta interpreteak testuan daukan eraginari so eginez, alegia.

Azken finean, ulermenaz eta komunikazioaz ari gara etengabe orri hauetan. Gauzak interpretatzeko dugun moduz, interpretazio prozesuaz, alegia. Lan honetarako interesgarritzat jo den azken kontzeptua –semiotikaren baitan kokatu genezakeena–, edo begirada teorikoa *marko interpretatiboarena* edo *framing-arena* da. Dorde Cuvardic ikerlariak dioen bezala:

“Varios conceptos nos permiten comprender el proceso cognitivo de construcción, de tipificación, de categorización, de las experiencias externas (establecidas en las rela-

ciones del yo con un más allá empírico) e internas (establecidas en las relaciones del yo con estados físicos y psíquicos propios o ajenos)” (Cuvardic, 2001: 2).

Eta kontzeptu horietako bat marko interpretatiboa da. Marko hori interpretatzeko, kategorizatze edota tipifikatzeko daukagun instrumentu kognitiboa da. Erwin Goffman (1974:101) soziologoaren arabera: “*Comprendemos las percepciones externas y las sensaciones internas a partir de la aplicación de uno o varios marcos interpretativos: a partir de las definiciones de las situaciones que obtengamos nos será posible nombrarlas*”.

Hortaz, interpretaziorako marko ezberdinak darabilzkigu errealitatea kategorizatu eta ulertzeko. Horretaz gain, testu ezberdinetan zeinu ezberdinak haiteman genitzake, adierazlez eta horien esanahiz edo adieraziz hornituak. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da interpretazioak prozesu honetan daukan indarra azpimarratzea. Esaldi edo irudi bati, hainbat paradigma ezberdin atxiki geniezaioke, baina hori beti testua interpretatzen duen pertsonaren bizi esperientzia, eta honen testuinguru soziokulturalaren baitakoa izango da.

Hala nola interpretazioak, zeinuak, adierazleak, adieraziak... kontzeptu eta kategoria teoriko andana bildu da semiotika landu den atal honetan. Hala ere, eta semiotikak marko teoriko eta kontzeptual mardula eskaintzen badu ere, horren baitan kokatuko genukeen “diskurtso multimodalen analisiak” lan honetarako beste hainbat pista dakarzkigu.

3.1.1. Diskurtso multimodalen analisisa

Aurreko atalean ikusi den gisara, semiotika teoria konplexu eta osoa da. Elementu ezberdinen zeinu eta esanahiak identifikatu eta aztertze ezinbesteko txapel teorikoa eskaintzen du. Hala ere, ikerlan honetako testuak hitzez, irudiz, kolorez... osatuta daude. Hau da, komunikaziorako “modalitate”³² bakarra bai-

³² Multimodalitate hitza “modo” kontzeptutik dator: “*Los ‘modos’ son los diferentes códigos o recursos semióticos a los que se recurren para producir un texto y un discurso, como, por ejemplo, el habla, la escritura, los gestos, las imágenes visuales. También la ropa, la música (los sonidos) y el olor son ejemplos de modos que sirven para la comunicación y que pueden formar parte de un texto. De hecho, muchos textos están constituidos por varios modos diferentes –son ‘textos multimodales’*” – (Kress &

no gehiago barnebiltzen dituzte lan honetan aztertuko diren testuek. Are gehiago, lan honetako ikergaia aztertzeko orduan –euskararen esanahia kanpaina ezberdinetako karteletan–, testuinguru soziopolitikoak izugarritzko pisua izango du. Hortaz, semiotika klasikoak gaira hurbiltzeko ezinbesteko ikuspegia eskaintzen du, esanahi eta zeinuen nondik norakoak dotore azaltzen eta ulertarazten baititu; azken finean, semiotika klasikoaren begiradarekin ikerlan honen analisia ulertzeko zimendu edo oinarria eskaintzen du. Hala nola, eta lan honetan aztertuko diren testuak “modalitate” anitzekoak –idatziz, irudiz...– osatuak izaki, diskurtso multimodalen teoriak eskainiko dizkigu analisirako tresna eta kontzeptu espezifikoak.

Diskurtso multimodalen analisia (DMA) edo diskurtso multimodalen teoria semiotika sozialaren³³ diziplinatik eratorria da. Hala nola DMA diskurtsoaren azterketen arloan sortzen ari den paradigma emergente bat da. Honek, lengoia bere horretan aztertu ordez, beste baliabide batzuekin batera aztertzen du –irudiak, keinuak, soinuak...– (O’Halloran, 2012: 76). Modalitate eta kodigo ezberdinek batera osatzen dute hortaz esanahia:

“Los estudios multimodales se reconoce que los discursos están constituidos por una diversidad de códigos (verbal, pictórico, kinésico, gráfico, sonoro, entre otros, esto es, los sistemas semióticos), y que además, estos diversos códigos se pueden combinar en formatos diferentes, que originan múltiples formas de significación” (Pardo, 2008: 78).

Urteetan zehar, kultura mendebaldarraren baitan monomodalitatea gainditu izan da prozesu komunikatiboetan:

“Los géneros de escritura más altamente valorados (novelas literarias, tratados académicos, documentos oficiales y reportes, etc.) no tenían ilustraciones y tenían densas páginas gráficamente uniformes. Casi todos los pintores usaban el mismo soporte

Van Leeuwen, 2001: 6).

³³ Semiotika sozialaren arabera, esanahiaik sortzerako eta komunikatzerako orduan testuinguru historiko eta politikoak izugarritzko indarra eta zeresana du: “*La semiótica social se diferencia de la semiótica corriente dominante en que pone más énfasis en que la semiosis, esto es, el proceso de producción, comunicación, interpretación y reproducción de significado, siempre ocurre dentro de determinados contextos sociales e históricos*” (Carcamo, 2018).

(lienzo) y el mismo medio (óleo), cualquiera fuera su estilo o tema. Durante los conciertos, todos los músicos se vestían de forma idéntica, y solamente el director y los solistas tenían permitido una mínima expresión corporal. Las disciplinas especializadas teóricas y críticas que se dedicaban a hablar de estas artes eran tan monomodales como ellas: un lenguaje para hablar del lenguaje (lingüística), otro para hablar sobre el arte (historia del arte), y otro de música (musicología), y así, cada uno con sus propios métodos, sus propias asunciones, su propio vocabulario técnico, sus propias fortalezas y puntos débiles” (Kress & Van Leeuwen, 2001: 1).

Hala eta guztiz ere, monomodalitatearen “dominazio” hori pixkanaka pixkanaka aldatzen doa. Horren adibide litzateke publizitatea esaterako; edota eguneroko mezu ezberdinen bidez jaso genitzakeen ikusentzunezko bideo ezberdinak; eta baita lan honetan aztertuko diren kartel ezberdinak ere –irudiz eta idatziz osatuta baitaude–. Beraz, esanahia sortzeko prozesua geroz eta multimodalagoa den heinean, berau aztertzeko ere multimodalitate hau bere gain hartzen duen teoria bat beharko da (*Idem.*).

Zentzu horretan, multimodalitatearen azterketan edota multimodalitatea aztertu ahal izateko teorien sorkuntzan aintzindariak Theo van Leeuwen eta Gunther Kress semiotikoak dira. Beste ikerlari batzuek ere multimodalitatearen gaia landu izan baldin badute ere, Van Leeuwen eta Kress dira DMAren sortzaileak.

Bi semiotiko horien arabera, hortaz, komunikazioak multimodala izan behar du ezinbestean. Autore horiek ez dute sinesten elementuen esanahiaik kodifikazio hutsetik datozenik. Haien arabera, esanahiaren sorkuntza aurrez diseinatutako prozesu baten emaitza da. Hau da, erabiltzaile ezberdinek eskura dituzten baliabide ezberdinak erabiliko dituzte esanahia sortu, eta berau interpretatzeko. Horrela, lengoia sistema semiotiko gisa ez ezik, esanahiak sortzeko baliabideak eskaintzen dituzten sistema guztiak baliozkotzen dituzte (Manghi, 2009: 27).

Diskurtsoaren analisi multimodal bat egiteko, Kress eta Van Leeuwenek *Esanahi errerepresentatzailean, Esanahi interaktiboan eta Esanahi konposizionalean* oinarritutako proposamena mahaigaineratzen dute (Cares, 2017: 158).

Esanahi errerepresentatzailearen baitan, parte hartzaileen eta ekintzen arteko harremanak aztertzen dira, eta hauek irudikatu edo errerepresentatzeko bi eratako

eraikuntzak aurkitu litezke: *Narratiboak eta kontzeptualak*. Lehenengo hauek ekintza eta aldaketetan zentratutako errepresentazioak dira, eta bisualki bektoreen³⁴ bidez egikaritzen dira –sari askotan lerro oblikuo eta diagonalen bidez errepresentatzen dira– (Cares, 2017:159). *Kontzeptualek*, aldiz, parte hartzaileen eta sailkapen-prozesuen artean sortzen diren eduki abstraktuen berri ematen dute (*Ibid.*: 160).

Esanahi interaktiboak irudia sortzen duenaren eta behatzen duenaren arteko elkarreragina du jomugan. Esanahi interaktibo horren baitan, bi kontzeptu edo kategoria nagusi barnebiltzen dira. Batetik, *distantzia*. Pertsonen arteko distantziak erlazio sozial ezberdinen inguruko hainbat informazio eman lezake. Bigarrenik, *perspektiba eta anguluak* egongo lirateke. Angulua zehiarra denean, banaketa adierazten du; angulua goitik denean, behatzen ari denaren boterea erakusten du; angulua altura berdinean dagoenean, berdintasuna eta angulua behekaldeetik denean, errepresentatuaren boterea (*Idem.*).

Eta esanahien proposamen honetan azkena *Esanahi konposizionala* litzateke. Horrek elementu ezberdinen kokapenari erreparatzen dio. Horretarako, hiru kontzeptu edo kategoria bereizten ditu. Batetik, *informazioaren balioa* delakoa egongo litzateke; hau da, elementu bat ezkerrean edo eskuinean dagoen –ezaguna edo berria–, goian edo behean –ideala edo erreal–, zentroan kokatzen den edo ertzetan –nabarmentzen den edo periferikoa–. Bigarrenik, *prominentziak* elementuak lehenengo edo bigarren planoan kokatzen ditu. Eta azkenik, *enkuadreak* irudian dauden elementu ezberdinen arteko kidetasun-erlazioak ezartzen ditu (Cares, 2017: 160).

Hala ere, Kress eta Van Leeuwenek esanahi ezberdinen gaineko proposamen zehatza lantzeaz gain, esanahi horren sorkuntzan eta testu baten zentzu ematea lau estratu ezberdinetan banatzen dute. Elementu ezberdinei zentzu ematearen prozesua: diskurtsoa, diseinua, produkzioa eta distribuzioaren bidez aurrera eramaten dela baieztatzen dute (Kress & Van Leeuwen, 2001: 5). Hala, lan honetako ikerketa objektua kontuan izanda, diskurtsoaren estratua soilik ekarriko da orrialde hauetara; beste hiru estratuak ez baitzaizkigu interesatzen analisirako.

³⁴ Bektore hitzaren definizio zehatza 3.1.1.1. *Diskurtso multimodalei lotutako hainbat kontzeptu* izenburupeko atalean.

Kress eta Van Leeuwenek porposatzen duten *Diskurtso* kontzeptuaren definizioak Michel Foulcaut soziologo frantsesaren perspektiba izango luke mui-nean. Foulcautentzat, diskurtsoa sozialki eraikitako jakintza bat litzateke; Kress eta Van Leeuwenen (2001: 4) arabera: “*Los discursos se pueden definir como conocimientos socialmente contruidos de (algún aspecto de) la realidad*”. Ezagutza horiek zerikusia dute errealitatea osatzen duten elementuekin –zer gertatzen den, non eta noiz, nork parte hartzen duen eta abar–. Hortaz, testu baten aurrean hainbat galdera eginez –nor, zer, non, noiz eta nola–, testuaren gaia, testuingurua eta bertan ageri diren parte hartzaileak identifikatu genitzake; hala nola testuko diskurtsoak eta horien interakzioa zehaztea ahalbidetzen duten alderdiak (Rodríguez & Velásquez, 2011: 43).

Horretaz gain, diskurtsoek gauza jakin bat zergatik egin behar den adierazteko hiru eratako ideiak artikulatzen dituzte: ebaluzioak, asmo edo intentzioak eta legitimazioak (Järlehed, 2008: 45). Esaterako, euskaraz zergatik hitz egin behar den galdegin genezake. Galdera horren erantzun ebaluatzailea “dibertigarria delako” izan liteke. Asmoa edo interntzioa isladatzen duena: “zu zeu izateko”. Eta legitimazioan oinarri duena: “alkateak esaten duelako”.

Testu ezberdinetako diskurtsoen analisiak, hortaz, hainbat informazio eman dakiguke euskararen inguruan eraiki diren esanahiei buruz. Horrekin loturik, *intertextualitatearen* kontzeptua izango genuke. Intertextualitatea ondoko ideia honetan egikaritzen da: “*Todo texto, hasta cierto punto, se basa en textos anteriores a la vez que influye en la constitución de textos nuevos*” (Chaya, 2014: 151). Hau da, testuak iraganeko testuetatik abiatuta eraikitzen dira, eta iraganeko testu horiei “erantzuten” diete, testu horiek eraldatuz, eta, aldi berean, etorkizuneko testuak osatuz. Horrela, testuek historia eta gizarte-aldaketak eraikitzen laguntzen dute (*Idem.*).

Lan honetan ez dira aztertu nahi izan corpusaren testu multimodaletan dauden erreferentzia intertextual guztiak, baizik eta lengoaiaren izaera soziala aitortzea nahi da, testuak berez historikoak direla eta beste garai batzuetako, iraganeko eta etorkizuneko beste testu batzuk aipatzen dituztela ikustea. Aztertzen diren testuinguru kultural eta historikoaren barruan, euskararen alde egiten den edozein enuntziatu edo testu irakurri eta interpretatzen da intertextualitatean oinarritutako esanahi zabal baten baitan.

3.1.1.1. *Diskurtso multimodalei lotutako hainbat kontzeptu*

Aurreko orrietan jada hainbat kontzeptu ezagutu ahal izan dira. Hala ere, orri hauetan diskurtso multimodalaren analisirako baliagarriak izan litezken beste bi kategoria jorratuko dira: bektoreak eta parte hartzaileak.

Irudien eta idatzizko formen arteko analogia bat eginez, testu idatzietan aditz bidez ekintzak errepresentatzen diren gisara, irudietan ekintza horiek bektoreen bidez errepresentatu litezke. Ekintzak bektoreengatik baldintzatuta daude:

“Las acciones estarían condicionadas a la existencia de un vector, generalmente representado por una línea de mirada, una flecha o una dirección en disposición vertical. Esta vertical indicaría la relación existente entre dos componentes y definiría el tipo de acción representada” (Cope & Kalantzis, 2010: 96-97).

Bektoreen bidez, hortaz, pertsona edo elementu ezberdinen arteko ekintzak irudikatzen dira. Hala ere, testuetako parte hartzaileak orrialde hauetan behin baino gehiagotan aipatu izan diren arren, ez dira espezifikoki aztertu. Honenbestez, Kress eta Leeuwenen arabera, irudi baten baitan bi eratako parte hartzaileak aurki litezke: *parte hartzaile errepresentatuak eta parte hartzaile interaktiboak*. Lehenengo hauek –parte hartzaile errepresentatuak– komunikazioko subjektuak dira. Hau da, testuan leku, objektu edota pertsona hauei buruz idatzi edo hitz egiten da: *“Refieren a personas, cosas y lugares que aparecen en las imágenes y que son objeto de representación”* (Cares, 2017: 161).

Bigarrenik, parte hartzaile interaktiboak egongo lirateke:

“Los participantes interactivos son aquellos que se comunican entre sí y a través de las imágenes con quien observa, y por tanto hablan, escuchan, leen, hacen imágenes, etc. Son personas reales porque esta relación se establece entre quien produce la imagen y quien la observa” (Idem.).

Testuan hortaz, eta betiere Kress eta Leeuwenen arabera, bi parte hartzaile mota hauek aurkitu genitzake. Hala ere, interesgarria da Johan Järlehed ikerlari suediarrek parte hartzaile, igorle, hartzaile eta abarren arten egiten duen bereizketa.

Järlehedeen arabera, *igorle enpirikoa* testuaren produkzio eta distribuzioan inplikaturako pertsona oro izan liteke –diseinatzailea, produktorea, distribuidorea...–. *Igorle implizitua*, aldiz, testuan ageri den igorlearen rolari deitzen dio. Testu multimodal bat aztertzean, lehenengoa diseinatzaile baten edo erakunde baten sinaduraren bidez identifika daiteke; bigarrena berriz, testuan hitz egiten duen ahotsak edo pertsonak ordezka lezake. Hirugarren kontzeptu gisara *irakurle* edo *behatzailea* legoke. Hau testua behatzen, irakurtzen eta ikusten duen pertsona erreala litzateke. Eta azkenik, *hartzailea* legoke. Hau behatzaile implizitua da; hau da, testuak eraikitzen duen kontsumitzailearen rolari egiten dio erreferentzia (Järlehed, 2008: 49).

Beraz, diskurtso multimodalen analisiak ikerlan honetan aurrera eramango den analisirako kontzeptu ugari eskaintzen dizkigu. Karteletako parte hartzaileak identifikatzea, hauen arteko harremanak, karteletan ageri diren elementu ezberdinak... ikertu ahal izateko kategoria zahatzak eskaintzen baitizkigu teoria horrek.

Hala nola euskalgintzaren testuinguru eta bilakaera historikoak ezagutu ditugu orrialde hauetan. Esan genezake euskararen aldeko mugimenduaren nolabaiteko genealogia bat egin dugula. Zinez garrantzitsua izango da gainera laneko atal hau, euskalgintzari erreferentzia egiten diona alegia, euskararen inguruko esanahia eta batez ere esanahi eta errepresentazio honen inguruko aldaketak aztertu ahal izateko. Semiotikari –eta baita diskurtso multimodalen teoriari– dagokion zatian ikusi ahal izan dugun gisara, testuinguruak berebiziko garrantzia izango baitu esanahia sortu eta berau interpretatzerakoan.

Nolabait esateko, euskalgintzak bere “produktuaren” –euskararen– inguruan sortu duen publizitatea aztertzea da lan honen funtsa; eta argi gelditu da orri hauetan, publizitatearen betaurrekoek –eta baita, semiotikarenek ere–, marko polita eskaintzen digutela euskara talaia horretatik ikertzeko. Batek baino gehiagok pentsatuko du euskara ez dela produktu bat, ez dela salgarria, eta ezin dela talaia horretatik aztertu. Baina semiotikak esaterako, tresna oso txukunak eskaintzen dizkigu produktu edo elementu bat osatzen duten ertz guztiak aztertzeko. Euskara produktu bat izan edo ez izan, hori ez da orri hauetako eztabaida, baina euskara balio, pentsamendu, sinismen... zehatz eta jakin batzuekin lotu izan da; eta euskalgintzako karteletan zer esanahi eman zaion aztertzeko

marko interesgarria eskaintzen digute publizitateak, eta baita semiotika zein diskurtso multimodalaren analisiak ere. Esanahia ez baita soilik hitzez sortzen; kolore, keinu, jantzi edota irudiek ere esanahia sortzen baitute etengabe.

Honenbestez, ondorengo orrietan euskararen esanahien bilakaera historikoa aztertuko dugu. Hau da, datozen orrietan, ikerlan honen analisisa aurki liteke. Batetik, eta diskurtso multimodalaren analisisa oinarritzat hartuta, garai historiko ezberdinetako testuen analisiak osatuko da. Eta bestetik, euskararen eta euskal hiztunaren esanahien transformazioa aztertu nahi izan da, modu orokorrago batean.

4. EUSKARAREN ESANAHIEN BILAKAERA HISTORIKOA

Atal honetan euskararen esanahien bilakaeraren analisia egingo da. Marko teorikoan euskalgintzaren ibilbidea ezagutu da. Eta semiotika eta diskurtso multimodalen analisiaren teoriaren kontzeptu nagusiak ere plazaratu dira. Hala, analisia bi zatitan banatua izan da. Batetik, lehen zatia euskalgintzatik sortutako testu multimodalen analisia izango da. Metodologiaren atalean aipatu den moduan, 17 izan dira fitxa³⁵ bidez eta modu sistematikoan aztertuak izan diren testuak. Hori horrela, garai historiko ezberdinak oinarritzat hartuta, testu multimodaletako euskararen esanahien analisia egingo da. Bestetik, eta analisiaren bigarren zatian, euskararen eta euskal hiztunen transformazioa modu orokorragoan aztertu nahi izan da. Hau da, bigarren atal honetan ere testu multimodalak izango dira analisiaren ardatza, baina begirada pixkat bat jaso, eta analisi orokor, eta globalago bat egitea izango da helburua.

4.1. EUSKARAREN ESANAHIEN ANALISIA GARAI HISTORIKO EZBERDINETAKO TESTU MULTIMODALETAN

Arestian aipatu den gisara hortaz, atal honetan marko teorikoan zizelkatu diren euskalgintzako garai historikoak hartu dira oinarritzat. Eta garai historiko horietan sortutako euskararen aldeko, edota honen erabilera bultzatzeko testu multimodalei erreparatuko zaie.

³⁵ Analisi fitxa guztiak eranskinetan aurki daitezke.

4.1.1. 1960-1970eko hamarkadak: tradiziotik abangoardiara

Hiru garai historikoen artetik, material, eta hortaz testu gutxien aurkitu den garaia, lehenengo hau izan da; 1960ko hamarkadatik 70eko hamarkadara luzatzen den hau, alegia. Denboran geroz eta atzerago joan, badirudi geroz eta gauza gutxiago daudela artxibatuta eta gordeta. Lazkaoko Beneditarren Fundazioko artxiboan esaterako, euskara gaitzat duten garai horretako hamar testu soilik aurkitu dira. Bestetik, garai hartako produkzioa ere ezin da gaur egungoarekin konparatu. Egun egiten den kartel edota bestelako euskarri multimodal kopurua askoz ere handiagoa baita.

Hala nola, eta neurria hartze aldera, garai historiko honetako hiru testu aztertu dira K01, K02 eta K03. Hiru kartel horien egiletzak oso ezberdinak dira. K01 Donostiako auzo elkarteek sortua da, 1975ean. K02, aldiz, Familien elkarteak sortua, 1976. urtean. Eta K03 Euskaltzaindiaren “Bai Euskarari” kanpaina famatuari dagokion testu bat da, beraz, 1978. urtean sortua. Urteetan elkarrengandik oso gertu baldin badaude ere, aldaketak edota eboluzioak aztertzeke balio digute hiru kartel hauek. K01 eta K02-ren oso antzekoak dira 1960tik 1975era bitarteko ia testu gehienak, eta bi hauek, nahiz eta hamarkada amaierakoak izan eta bien artean urte diferentzia handirik ez egon, hamarkada hauekako testuak egokien errepresentatzen dituztenak direla erabaki da.

Hala nola igorle enpirikoari (Järlehed, 2008:49) dagokionez, hamarkada amaierara arte ez da aurkitzen nazio mailako kanpainarik, eta ezta hau aurrera eramango lukeen erakunderik ere. Garai honetako testuetako igorle enpiriko gehienak –Lazkaoko Benediktarren Fundazioaren artxiboan aurkitutako denak zehazki–, eragile lokalak dira; herri, auzo edota hirietan kokatuta dauden elkarte ezberdinak. Gainera, garai honetako testu gehienak ikastolek sortuak dira. Eta ikastolek sortuak izan ezean, euskararekin berariaz loturarik ez duten elkarteek sortuak dira –izan auzo elkarteak, familia elkarteak...–. Hau da, Euskaltzaindiaren 1978. urteko “Bai Euskarari” kanpaina famatura arte, ez zen maila nazionaleko ezer egin. Are gehiago, ez da ez zela ezer egin, baizik eta euskararen alde edota honen normalizazio eta biziberritzearen alde jarduten zuten nazio mailako erakunderik ez zen existitzen³⁶ 70eko hamarkada amaie-

³⁶ 1960. urtetik 1968. urtera Euskal Herriko Ikastolak batzen zituen Ikastolen Batzorde bat

ra arte –betiere Euskaltzaindia salbu–. Hala, eta marko teorikoan ikusi digun gisara, orduan sortu baitziren Euskal Herrian Euskaraz –1979– (Odrizola, 1992: 32) edota Euskal Kulturaren Batzarrea –EKB, 1983an– (Agirrebaltzategi, 1995: 18) bezalako erakundeak. Hau da, lehen garai honetan, euskalgintza garaikidea sortu zela aipatu da (Odrizola eta Zabalo, 2014: 71), eta are gehiago, egia da Ekin-ETAren bueltan antolatu ziren gazteek 60eko hamarkadarako, Federico Krutwigen (1963) teorietatik abiatuta, euskal identitatea eta euskararen arteko zubia eraikita zutela; teorikoki. Baina teoriatik praktikarako saltoak denbora bat eskatzen du, eta kasu honetan ere aztertu genezake nazio mailako erakundeak sortu, euskararen aldeko kanpaina bateratuak martxan jarri... Azken finean, euskalgintza garaikidea benetan ekintzen bidez hezurramitu, eta mugimendu sozial gisara antolatzen hasi zen arte, denbora bat, urte batzuk, pasa behar izan zirela.

Testuetako parte hartzaile errepresentatuei (Cares, 2017: 160) dagokionez, aipagarria da ez dela kasik garai honetako testuetan pertsonen gorputzik islatzen. Ezta kanpo espazioei erreferentzia egiten dien ikonorik ere. Hala ere, aipagarria da K02 testuan agertzen direla gorputz batzuk. Gorputz edota pertsona horiek eskolari erreferentzia egiteko erabiltzen dira eta umeak dira –zehazki, mutikoak–. Hala nola testu bakarrean dauzkagu pertsonen errepresentazioak, kasu honetan umeenak. Esan liteke transmisioaren garrantzia, eta zehatzago aurrerago jorratuko den etorkizunaren ideia islatuko luketela ume horiek. Igorle enpirikoari erreparatzen badiogu, K02 testua Familien Elkartek sortua da, eta zentzuzkoa litzateke igorle honen testuetan transmisioarenganako kezka islatzea. Izan ere, euskararen jarraikortasunak, eta honen etorkizunak, presentzia nabarmena izan baitute euskalgintzak sortutako testu multimodaletan.

Hala ere, eta garaiko testuetan izaki bizidunak edota pertsonarik agertzen ez den moduan, objektuak sarri askotan ageri zaizkigu. Objektu edota testuetan agertzen diren elementuei erreparatuta –lauburuak, nekazal eremua irudikatzen duten korapilodun soka tenkatuak...–, lehen garai honetan, euskara tradizioarekin, autentikotasunarekin edota are gehiago, folklorearekin lotu, edota hauen bidez errepresentatu dela ondoriozta genezake. Gainera, euskara errerepresentatzen du-

eratu zen arren, 1987. urtera arte ez zen Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa sortu esaterako (Iza, 2010: 137).

ten elementu horiek daukaten kokapenagatik, esanahi iteratiboari (*Idem.*) dagokiona, zentroan kokatzen baitira, eta lehen plano batean garrantzia berezia hartzen dute testuetan. Badirudi hauen bueltan eraikitzen direla testuak.

Horrekin batera, eta goian aipatutako euskararen errepresentazio tradizional horri jarraiki, testuetan ageri diren koloreak izango genituzke. Aztertutako testu guztietan lau kolore ageri dira: zuria, beltza, gorria eta berdea. K03ren kasuan berderik ez da ageri, baina “Bai Euskarari” kanpaina horretako beste testu batzuetan aipatutako lau kolore horiek daukate protagonismoa (Järlehed, 2008: 197).

Aipatutako kolore horiek –batez ere zuriak, gorriak eta berdeak– Euskal Herriaren testuinguruan, eta are gehiago euskararen aldeko testuetan, ikurrina gogorarazten digute; kolore horiek ikurrinaren eta nazionalismoaren eremu sinbolikora garamatzatela esan genezake:

“En una sociedad dada y abarcando un período más o menos amplio, se puede analizar la suma de los usos de un color, suma que constituye su campo simbólico” (Sánchez, 1999: 322).

Hortaz, testuetan errepresentatutako elementuek eta testu hauen koloreek, euskara eta euskal identitatea lotzen dituztela esan liteke. Are gehiago, eta hipotesi gisara, euskararen ardatzen den identitate hori tradizioarekin lotzen dela azpimarratu genezake. Euskara ere tradizio eta autentikotasun batekin lotuz.

Hala ere, eta K03-ri erreparatuta, badirudi aldaketa bat ematen dela. Goian aipatu den gisara, kanpaina honetako kartel gehienek “ikurrinaren” koloreak barnebiltzen zituzten, baina kanpainako ikurra beste zerbaiti egiten dio erreferentzia, eta “euskal tradizioa” ez den beste eremu batzuetako paradigmeekin jartzen gaitu harremanetan.

Kanpaina honetako ikurra Nestor Basterretxea bermeotar eskultore, margolari eta zinemagileak diseinatu eta sortutakoa da. Basterretxeak uso edota txori batekin islatu edo errepresentatu zuen euskara. Txoriari esleitzen zaizkion goraldia, hegan egiteko nahia, askatasun egarria –frankismoaren amaierarekin bizi izan ziren sentimenduak, eta marko teorikoan aipatu direnak denak ere... ikus litezkeelarik honen baitan txertaturik (Ubeda, 1997: 249).

Basterretxeak eta bere ikurrak euskara orduko beste gertakari eta egitate batzuekin jarri zuen harremanetan. Nestor Basterretxea “Ez dok amairu” talde sortzailearen bueltakoa zen³⁷, besteak beste. Are gehiago, Remigio Mendi-buruk sortutako “Txalaparta” eskultura berak bilakatu zuen “Ez dok amairu” taldearen logotipo edota ikur (San Telmo Museoa, 2021).

Ez dok amairu berezia izan zen. Frankismo garai ilunenetan poza eta ilusioa piztu zuen taldeak, eta horretaz gain, arte-talde sortzaile eta abangoardista gisara definitu izan zituzten. Nolabait ere, Euskal Herriak izan nahi zuen hori errepresentatzen zuten:

“Euskal herriari diktadura frankistak azaltzen zion arazoaren arabera eta berezitasunez garaiko euskal kantagintza bezalako arte adierazpen modulu berrien sorkuntza helburu izanik 1965eko udagoienetik 1972ko udaberrira arteko garapena izan zuen abangoardiako arte-taldea dugu” (Añamendi Eusko Entziklopedia, 2018).

Basterretxea eskultorearen eta honek sortutako ikurraren bidez, badirudi euskara sinbolikoki abangoardiarekin lotzen hasi zela. “Bai Euskarari” kanpaina litzateke horren adibide garbiena. Baina garai berdintsukoa den K04 testuak ere abangoardia edota intelektualismo hori inspiratzen digu. “24 orduak euskaraz” jaialdia iragartzeko kartela “Ez dok amairu” taldetik oso gertu zegoen, Jose Luis Zumeta margolariak sortua baita.

Horretaz gain, euskalgintzan orduko apaizek izan zuten presentziak ere euskara abangoardia edota intelektualismo horretatik oso hurbil kokatuko du. Hau da, euskalgintza mugimendu gisara egikaritzen joateko, apaiz ezberdinek izan zuten zer esanik. Apaizak gizon jantziak izan ohi dira, edo hori errepresentatzen dute –zuten– behintzat. Hala, Aita Villasante bezalako figurekin, euskara edota euskalgintza intelektualismo horretatik gertu kokatu zen³⁸.

³⁷ Honetaz gain, Nestor Basterretxea Gaur taldeko kide ere izan zen: “*Gaur Taldeak talde-ekin-tzarako deia berpiztu zuen, proiektu kolektiboaren ideia aldarrikatu*” (Azparren, 2021). Talde hau Euskal Herriko hainbat artistak osatutako kolektiboa izan zen, eta 1965-1967 bitartean egon zen indarrean.

³⁸ Aurretik aipatu den bezala, aipagarria da esaterako, Euskara Batuaren sorkuntzan Arantzazuk izan zuen protagonismoa, eta baita sinbolismoa ere. Horretaz gain, ikastolek ere,

Bestalde, esan genezake garai honetan euskarak euskal identitatearen erdigunea hartzen duela; edo izugarritzko loturak behintzat ezartzen direla euskara eta euskal identitatearen artean. Lotura hori, modu ezberdinetan erreprezentatu izan da garai honetako testuetan; baina batez ere tradizioaren eta kulturegintzaren bidez egin izan dira hizkuntza eta identitatearen arteko loturak. Hau da, Benjamin Tejerinak ikertu eta azpimarratu duen moduan: *“El proceso de recuperación de la lengua sólo puede ser entendido si lo relacionamos con el proceso de construcción de la identidad colectiva vasca”* (Tejerina, 1999: 75). Hala ere, lurra edo territoria baino gehiago, identitatearen berezitasuna edo bereizgarria euskara izango da. Aita Villasantek “Bai Euskarari” kanpainaren amaierako jaialdian esan zuen moduan: *“Izan ere, euskara da gure herriak duen bereizgarri-rik agiriena, gure asabengandik datorrigun ondasun paregabea”* (Euskaltzaindia, 2018). Hau da, euskara da gure herriaren bereizgarria, eta horregatik zaindu behar da. Herriak berak ez du horrenbesteko pisurik hartzen. Ondorengo garai historikoan esaterako, “Herri bat, hizkuntza bat” leloa ardatz hartuta, kasik Euskal Herria bera bihurtuko baita subjektu politiko. Hortaz, lehenengo garai honetan euskararen inguruan hasiko da eraikitzen euskal nortasuna, eta herria eta hizkuntzaren arteko zubi bat sortuko da. Hala ere, euskara bera izango da protagonista; naziotasunak gerizperik egin gabe.

Horretaz gain, euskara testuetan zaugarri gisara agertzen dela esan genezake. Lotuta ageri da, hegan egiteko nahiarekin... Hala, eta ondoren erreparatuko diogun arren hitzezko diskurtsoari, euskara ez da hauskor gisara agertzen. Zaugarri bai, baina zaugarritasun horrek irtenbidea daukala esan genezake; kasik euskarak agentzia propioa erakusten duela ere ondoriozta liteke: K02-n agertzen diren “Euskara sar hadi” bezalako esaldiekin.

Denborazkotasanari erreparatuta, testu guztiek orainari egiten diote erreferentzia. Baina orain hori etorkizunarekin guztiz lotuta egongo da. Hau da, orain egin behar dira gauzak etorkizunean beste egoera batean bizi ahal izateko. Aztertutako testu guztietako esaldietan orainari egiten zaio erreferentzia, baina beti beti dago etorkizunaren presentzia bat; “orain egin, gero beste egoera batean egoteko”. Hori horrela, aipagarria da Teresa Del Valle antropologoak

1968an ezarri zen lege baten harira, eliza katolikoaren babesia jaso zuten. Gipuzkoako ikas-tolen %68ak esaterako, elizaren babesia jaso zuen garai horretan (Iza, 2010: 60-61).

“Korrika: Rituales de la lengua en el espacio” liburuan jasotzen duena: “*En esta introducción a la dinámica de Korrika hemos podido ver la importancia que se le concede a la continuidad del euskera: en la historia, a través de las generaciones, en la familia*” (Del valle, 1988: 70). Badago, hortaz, Korrikan ere denborari eta jarraikortasunari lotutako zerbait, erritual ezberdinen bidez aurrera eramaten dena. Badirudi, K01, K02 eta K03-k ere –eta azken finean, garai honetako kartelek– jarraikortasunaren ideia hori barnebiltzen dutela. Hau da, euskarari eta ekintzari gaurtik edo orainalditik egiten zaio erreferentzia, baina betiere etorkizuna oso presente izanda.

Hala, eta testu multimodaletan erabiltzen den diskursoari (Kress & Van Leeuwen, 2001: 4) dagokionez, goiko lerroetan aipatu den bezala, horrek inplizituki ekintzara edo mugimendura garamatza; aldaketarako deia egiten dute testuek. Mugimendurako dei hori hitzezkoa denean, askoz ere argiagoa edo esplizitua-goa da: *Euskara ez da bakarrik askatuko; zatoz eta lagundu; ez da nahikoa kartel hau begiratzerekin; euskara sar hadi...* baina irudien bidez ere mugimendurako dei hori egiten da. Txoriak goranzko joera daukate, eta igoera edo goraldia irudikatu lezakete, aldaketa eta askatasun nahia (Järlehed, 2008: 201). Tentsioan dagoen sokaren bidez ere askatu, korapiloa desegin... mugimendua, ekintza islatzen da testuetan.

Bestetik, eta testuetan erabiltzen den hizkuntzari erreparatuta –K01 eta K02 elebitan daude, eta K03, aldiz, gaztelaniaz–, esan liteke euskararen ezagutza bultzatzen dela testuen bidez. Hau da, ezagutza eta erabileraren binomio horretan, testuek ez dute berariaz, ez bata eta ezta bestea ere bilatzen. Baina hizkuntzari erreparatuta, argi dago testuak euskal hiztunengana ez ezik, erdal-dunen kolektiboari ere zuzentzen zaizkiola³⁹. Nolabait, euskararen ezagutza bultzatuz, edo modu horretara, kolektibo hori euskal mundura hurbil dadin dei eginez.

Hala ere, marko teorikoan ikusi ahal izan den moduan, publizitatera bideratutako testu batek hainbat misio barnebiltzen ditu. Testu mota hauek pertsona multzo bat konbentzitzeko, pertsuaditzeko, seduzitzeko, emozionatzeko edota

³⁹ Hala ere, kontuan izan behar dugu garai honetako euskal hiztun gehien gehienak ez zeudela euskaraz alfabetatuta. Hortaz, gaztelania erabiltzearen estrategia hortik ere ulertu genezake.

informatzeko helburua izango dute (Curto *et al.*, 2008: 19). Horretaz gain, testu publizitarioetako diskurtsoen bidez gauza jakin bat zergatik egin behar den adierazteko, hiru eratako ideiak edo argumentuak artikulatuko dituzte: ebaluazioak, asmo edo intentzioak eta legitimazioak (Järlehed, 2008: 45). Hala nola esku artean izan ditugun testu multimodalek ez dute esplizituki euskararen ezagutzarako edota erabilerarako argumenturik ematen. Implizituki, euskara askatu nahi bat; euskara eremu ezberdinetara sartzeko nahi bat, edota euskarak hegan egin dezan konbentzimendu bat adierazten dute. Baina ez dira jendea persudatu, eta euskararekin zer bait irabaziko dutela adierazteko modukoak. Esan liteke jendea konbentzitzea helburu dutela testuek, baina ez dute espezi-fikoki bere horretan argumenturik ematen.

Diskurtsoaren atalean aztertu den azken aldagaiari erreparatuta, hizkuntza zapalkuntza edota hizkuntza menderakuntzari⁴⁰ alegia, hizkuntza zapalkuntza hau bere horretan, eta modu esplizituan –ondorengo garaian emango zaion esanahiarekin eta esplizitatearekin– ez da azaltzen. Hau da, ez da zehazki euskara zanpatutako hizkuntza gisara islatzen eta zanpatzaile hori seinalatzen testuetan –ondorengo garaian islatuko den gisara–. Hala ere, gatazka, tentsioa, korapiloa, hegan egin nahi bat, euskara leku ezberdinetara sartzeko eskari bat eta berau “askatzeko” nahi bat... egon badago. Hau da, hizkuntza zapalkuntza, modu implizitu batean, eta sinboloen bidez adierazten da garai honetako testuetan.

Azkenik, hartzaile/behatzaile implizituaren (Järlehed, 2008: 49) kontzeptua aztertu da aukeratutako testu multimodalaren bidez. Hau da, nori zuzentzen zaio testua? Eta implizituki zuzentzen zaion horren zer irudi sortzen du testuak?

Hori horrela, eta testuak euskararen ezagutzarekin lotu direnean aipatu den gisara, hartzailea edo behatzaile implizitua euskal hiztuna zein karteletan irudikatzen den euskal komunitate horren partaide izan nahi duena izan liteke. Hau da, gaztelaniaz zein euskaraz idatzita daude kartelak, hortaz, euskal hiz-

⁴⁰ Interesgarria da Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelek (2019: 19) esaterako, hizkuntza zapalkuntza nola kokatzen duten teoria interseksionalaren txapelpean, beste menderakuntza batzuekin elkarlotuz: *“Argi baitugu gaur eta hemen menderakuntza posizio batean jartzen gaituela emakume izateak, eta, halaber, menderakuntza posizio batean jartzen gaituela euskaldun izateak – zure buruaren hautematea, eta, ondorioz, herritar eskubideen egikaritzea euskararen ardatzuta egiteko hautuak. Hala erakutsi digute gure bizipen propioek eta gure inguruko askorenek”*.

tunentzako, eta era berean euskal “mundura” hurbiltzea nahi duen orentzat diseinatutako eta pentsatutako kartelak dira garai honetakoak.

Hala ere, ez da batere erraza testuak nori zuzenduta dauden zehazki ondo-rioztatzea. Koloreek euskal nortasuna adierazten digute, identitate euskalduna, eta orduko garaiko karteletako “norma”. Hau da, batetik, ikurrinaren koloreek, eta batez ere gorriak, zuriak eta beltzak, ezkerreko mugimendu iraultzaileen⁴¹ bueltako beste kartel batzuetara garamatzate. Amnistiaren aldeko mugimen-
duak esaterako, kolore berdinsuak erabiltzen zituen (Ikus: Ubeda, 1997.1: 143; 205; 260). Hau da, kolore eta forma aldetik, eta orduko testuinguruari erreparatuta, normatiboak dira kartelak.

Kolore eta testuetan errepresentatutako objektuei jarraiki, aipatu dugu tradi-
zioa, edota gaurko ikuspuntutik begiratuta, testuetan folklorea ere hauteman
litekeela. Aldiz, eta errepresentatutako objektuei jarraiki, esaterako K03 eta
K04-ri erreparatuz gero, bertan ageri diren objektuek garaiko euskal abangoar-
diara garamatzate. Alfonso Pérez-Agote ikerlariak ere horixe azpimarratzen
du; garai honetan, euskara transgresio sozialaren sinbolo bihurtzen dela (Pé-
rez-Agote, 1984: 103).

Nolanahi ere, eta generoaren aldagaia txertatuz, esan liteke aztertu diren ma-
terialetan ez dagoela generoaren ia arrasto espliziturik, ez idatzizko esaldietan
ezta irudietan ere. Berariaz ez da ageri guztiz maskulinitatearekin edota femi-
nitatearekin lotu litekeen elementu edo hitzik. Hala ere, zenbait elementuk gi-
zonezkoen mundu batekin izan dezakete lotura: tradizio edota autentikotasun
bat errepresentatzen duten sokak, lauburuan ageri den fabrikak...-. Eta bestal-
de, orduko abangoardiak ere sortzailez –eta euskararen kasuan baita apaizez⁴²
ere– osatutako abangoardia hark mundu maskulino batekin du konexioa. Hala
nola, eta kulturgintzari edo abangoardia horri erreparatuz, esan liteke Lourdes
Iriondo kantaria zela Ez dok Amairu taldeko emakume bakarrenetarikoa –pu-
blikoki ezaguna zena bederen– (Añamendi Eusko Entziklopedia, 2018).

⁴¹ Ezker abertzaleari lotutako eragileek ez ezik, MK, LKI... eta antzerako talde komunisten
–eta ez bere horretan abertzaleen– testuek ere, estetika berbera baitzeukaten.

⁴² Aita Villasante aipatu da, baina euskalgintzan asko dira elizarekin hartu eman estua izan
duten pertsonak: Joxe Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi, Juan Mari Torrealdai...

Bestalde, eta modu inplizituan baldin bada ere, aztertutako testu multimodalek ekintza edo mugimendua islatzen dute. Mugimenduaren edota ekintzarako gaitasunaren ideia hori, tradizionalki eta genero rol tradizionalei erreparatuta, maskulinitatearekin lotu izan da. Agentziarako gaitasuna, mugimendua bera, gizonezkoekin edota hauen rolekin lotu izan baita historikoki (Rodó de Zarate & Estivill i Castany, 2016). Ekintza eta indarraren arteko lotura oso errotuta egon izan da euskal kulturaren ere. Honela azaltzen du Del Valle (1985: 182): *“Mientras culturalmente la ‘indarra’ masculina se expresa por medio de la acción, la ‘indarra’ femenina lo hace fundamentalmente en el estar, el contener, el apoyar”*.

Maskulinitatearekin lotura duten aldagaiez gain, aipagarria da, K02 testuan batez ere, historikoki femeninoak diren elementuak agertzen direla. Azoka edota transmisioarekin, eta aurretik aipatutako ama sozialen (Fernandez, 1995: 44) irudiarekin, lotu dezakegun eskola ere errepresentatuta baitaude lauburu barneko collagearen bidez.

Hortaz, 1960ko hamarkadan eta 1970eko hamarkadan sortu, eta lan honetarako aztertu diren testuek, alde batetik, tradizionaltasunarekin eta autentikotasunarekin lotu izan dute euskara. Eta bestetik, aldiz –70eko hamarkada amaieran batez ere–, abangoardiarekin eta mugimendu edo ekintzarekin lotu izan da hizkuntza; eta neurri batean euskal hiztuna ere bai. Hala nola, eta garaiko abertzaletasunaren, edo zehatzago esanda mugimendu iraultzaileen bueltako testuei erreparatuta –batez ere 70eko hamarkada amaierakoak–, aztertu ditugun testuak garaiko normarekin, edota normatibitatearekin bat egiten dutela azpimarratu liteke.

Generoaren aldagaia, hortaz, analisi honen muinera ekarriz, zaila da ondorio argi eta irmo bat plazaratzea. Badirudi, garai honetako testuak genero trantsizio moduko batean aurkitzen direla. Batetik, nazionalismo goiztiarrean emakumeek izan zuten transmisio paper hori presente dago oraindik ere testuetan –batez ere K02 testuan–. Baina bestetik, eta euskarak euskal identitatearen erdigunea hartzen duen heinean, esan genezake hizkuntza eta baita honen bidez errepresentatzen den euskal hiztuna ere maskulinizatzen doazela. Aztertutako testuen arabera, euskara zein euskal hiztuna mundu maskulinizatu batekin –eta baita orduko mugimendu iraultzaileetako normatibitatearekin ere– lotu izan diren heinean.

4.1.2. 1980-1990eko hamarkadak: gatazkatik despolitizaziora

Garai malkartsutzat, edo hamarkada mugitu gisara deskribatu ditugu 80ko eta 90eko hamarkadak. Hala nola bi familia abertzaleen arteko ezinikusiak eta gatazka euskalgintzan ere izango du islarik (Larrinaga, 2011: 547). Eta nola ez, aztertu diren testu multimodaletan ere gatazka eta tentsio hori ikusi ahal izan da.

Bestalde, eta testuen kopuruari erreparatuz, hamarkada hauetan aurreko urteetan baino askoz ere testu gehiago aztertu ahal izan direla azpimarratu liteke. Bi arrazoi egon litezke egitate horri lotuta. Batetik, gatazka garai honetan baliteke espazio publikoa hartzeko beharrez edo, testuen produkzioa nabarmen igotzea. Eta bestetik, aztertutako testu gehienek egileak nazio mailako erakundeak izan dira; hortaz, gordetzea edota artxibatzea ere errazagoa izan dela azpimarratu liteke; egiletzak askoz ere zentralizatuago egon izan baitira. Lan honetarako adibidez, Lazkaoko Benediktarren Fundazioan aurkitutako 49 testu ezberdin bildu eta aztertu dira. Hala ere, eta neurria hartzeko asmoz, K05, K06, K07, K08, K09 eta K10 izan dira tentuz eta fitxa bidez analizatutakoak.

Igorle enpirikoari (Järlehed, 2008:49) dagokionez, aztertutako testuak lau eragile ezberdinek sortutakoak dira, eta urte ezberdinetan ekoiztuak. K05 eta K09 esaterako, AEK-k sortuak dira; lehenengoa 1985. urtean, eta bigarrena 1998an. K06 eta K07, aldiz, Euskal Herrian Euskaraz taldearenak dira. Eta testuen data zehatzak jakitea ezinezkoa izan den arren, lehenengoa 1980-1987 urteen artekoa da. Eta bigarrena, aldiz, 1980 eta 1992 urteen bitartekoa. K08, aldiz, EKBren “Bateginik” kanpaina famatuaren pegatina bat da. Ikerlan honetan aztertu den pegatina bakarra da. Hala nola “Bateginik” kanpainak bere garaian izan zuen garrantziagatik –nolabait bi eragilek elkarlanean sortutako lehenengo kanpaina gisara definitu genezake–. Eta horretaz gain, kanpainak alderdi abertzaleen babesa izan zuen (Soziolinguistika Klusterra, 2020a), horri zego-kion materiala ezinbestean lanaren parte izan behar zela erabaki da. Hortaz, eta bere garaian EKBn lan egindako pertsona batekin kontrastatu ostean, K08 testua aztertzea erabaki da. Pegatina den arren, “Bateginik-erako” ateratako kartelen estetika antzerakoa baitauka. Eta azkenik, K10 izango genuke. Testu hau Kontseiluak sortua da 1998. urtean, eta “Bai Euskarari” kanpaina entzute-tsuaren baitan kokatzen da.

Hala nola, eta igorle enpirikoari erreparatuz gero, bi nabarmentzeko puntu izango lirateke. Batetik, aipagarria da 80ko eta 90eko hamarkadetan euskalgintza soziala edota euskararen aldeko mugimendua egituratzen hasi zela. Marko teorikoan ere azpimarratu den moduan, hamarkada hauek euskalgintzarentzat garrantzitsuak izango dira estrategikoki pentsatzen eta antolatzen hasi baitzen euskararen aldeko mugimendua (Inda, 2019). Estrategikotasun edota antolamendu horren adierazgarri, aztertutako testuen nolakotasuna izango litzateke. Hau da, analizatu diren testuen egileak nazio mailan antolatuta zeuden –eta batzuk oraindik ere egon badaude–. Bestalde, euskararen bueltan, eta honen biziberritzearen alde lan egiteko sortutako eragileak dira. Aurreko hamarkadetakako testuen igorle enpirikoak ez ziren espezifikoki euskararen aldeko taldeak. Horiek beste tematika batzuen bueltan egituratuta zeuden, eta beste gai horiek ardatz hartuta –izan auzo elkarteak edo familia elkarteak– egiten zuten euskararen alde.

Eta bigarrenik, igorle enpirikoaren kontuarekin amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako materialik ez dela aurkitu. Metodologiako atalean aipatu den moduan, nahiz eta 10/1982 Legeak, hau da, euskararen lege gisara ezaguna denak, laugarren kapituluan Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza –HPS– bezalako gune baten sorrera aurreikusi (Baxok, 2007: 1554), HPSk gordeta daukan material guztia hurrengo garai historikoan kokatzen da. Hau da, lortu diren testu multimodal guztiak 2000. urtetik aurrerakoak dira. Hala nola garai honetan aztertuko diren testuen igorle enpiriko guztiak euskalgintza sozialaren baitan kokatu genitzake.

Bestetik, eta bigarren analisi kategoriatan oinarritzat hartuta, parte hartzaile errepresentatuari (Cares, 2017: 160) dagokionez, esan liteke kanpo espazioen ikonizazio bat egon badagoela hamarkada honetako testuetan. Hala nola K05 eta K06 testuetan ageri zaizkigu zehazki kanpo espazioak. K05en kasuan, mendia, basoa eta baserri bat daude errepresentatuta. Eta K06ren kasuan, aldiz, kanpo espazioa bi eratara ageri da. Batetik, Espainiako gerra zibilarekin lotu litezkeen ikonoak agertzen dira –suntsitutako baserri bat, gudariak mendian, hildako pertsonak, gerra hegazkina...– eta bestetik, jendetza irudikatzen duten manifestazioetako irudiak ageri dira –azken kanpo espazio hau, aurrerago aztertuko da–. Hori horrela, esan liteke kanpo espazio horien erabilera iraganarekin lotzen dela, “herri zahar zapalduaren” paradigmarekin, alegia. Tradi-

ziora edota autentikotasunera garamatzate ikono horiek, baina aurreko garaian tradizioa eta autentikotasuna euskara errepresentatzeko erabiltzen baldin bazen ere, 80-90eko hamarkadetan, nazioa errepresentatzeko erabiltzen da. Eta zehatzago, nazioaren zapalkuntza errepresentatzeko. Kanpo espazioak bi testuetan ere ilunak dira. K05-en kasuan esaterako, bukolikoa izan behar lukeen paisaia, ilun bihurtzen da, behe-laino arteko irudi bat dirudi. Eta K06-ren kasuan aldiz, gerra irudien bidez errepresentatzen da Euskal Herriaren –aberriaren– iragana, eta baita zentzu batean zapalkuntza ere.

Kanpo espazioen bidez ez ezik, nazioaren gaia, Euskal Herriarena berarena, gai transbertsala da hamarkada hauetako testu multimodaletan; K10 testuan izan ezik. K05 testuan esaterako, goian aipatutako paisaia bukoliko baina ilun horren bitartez bakarrik ez, bertan agertzen den esaldiak ere argi uzten du nazioaren garrantzia: “Euskal Herria; herri bat, hizkuntza bat”. Paradigma horren gainean eraikita leudeke baita K06 eta K07 testuak ere. Garai honetako testuetan, aurrekoetan ez bezala, Euskal Herriko lurraldea errepresentatzen duen mapak izugarritzko presentzia dauka; K07, K08 eta K09 testuetan esaterako, presente dago mapa hori.

Hala nola lurraldea errepresentatzen duten mapek territorioaren kartografia bat osatzeaz gain, errealitatea bera sortzeko ere balio lezakete:

“El espacio representado a través del mapa, lejos de poseer un carácter objetivo y científico-técnico, constituye una imagen cargada de intencionalidad que actúa como metáfora visual de aquellos lugares que pretende representar” (Nuñez et al., 2016: 150).

Izan ere, K07, K08 edota K09 testuetan ageri diren lurraldearen errepresentazioek Euskal Herria esanahiz bete, eta berau sortzen laguntzen dutela esan liteke. Esanahia sortze horretan, argi eta garbi, Euskal Herriko lurraldea errepresentatzen duten mapa hauen bidez, Nazio-Estatuaren ideia indartu nahi da. Hau da, garai honetako testuetan zentralitatea –K09 eta K10en kasua bes-telakoa da–, hizkuntzak baino, territorioak edo lurraldeak berak izango du. Mapen bidez, gerrako errepresentazioen bidez, edota zelai eta baserri bidez errepresentatzen den Euskal Herriak izango dute garrantzia. Modernitateko Nazio-Estatuen sorrerako ideiarda garamatza garai honetako euskalgintzako testuetan Euskal Herriak edo nazioak daukan zentralitateak. Estatu bat, bes-

teak beste, hizkuntza bakarraren gainean eraikitzen dela dioskun ideia horretara, alegia (Sayad, 2008). Nolabait, eta garai honetako lehen hamarkadako testuetan, euskara badirudi desagertu egiten dela, eta indar guztia edota zentralitatea nazioak, honen zapalkuntzak, eta baita nazio honen eraikuntzak ere hartzen dutela. Esanahi iteratiboari (Cares, 2017: 160) erreparatzen baldin badiogu esaterako, zentralitatea nazioak dauka. Mapek hartzen baitute erdigunea, baita aberria errepresentatzen duten ikonoek ere. Eta era berean, K10 testua izan ezik, aztertutako beste testu guztiak elebakarrak dira. Hau da, euskara hutsez idatzita daude. Egitate hori ere, testuinguru honetan, eta “herri bat, hizkuntza bat” paradigma horren txapelpean ulertu genezake.

Hortaz, euskalgintzan pisu nabarmena hartuko du nazioaren eraikuntza horrek. Hala nola aztertutako testuen garai berdintsuan sortu zen Korrika egitasmoan ere nazioaren eraikuntza bat errepresentatzen dela esan liteke:

“Hay momentos en korrika en que el recorrido puede interpretarse no solo como reclamo de la totalidad del territorio, sino también como una acción encaminada a la recuperación simbólica del parte del mismo, incorporando por medio de acciones concretas las reivindicaciones más diversas a la delimitación geográfica de Euskal Herria”
(Del Valle, 1988: 169).

Del Vallek aipatzen duen Euskal Herriaren delimitazio lan hori, edota lurraldearen errekupeazio sinboliko hori, K07 eta K08 testuetan nolabait ageri dela esan liteke. Bi testu horietan, mugek eta hauen suntsipen edota ezabatzeak hartzen baitute garrantzia. Mugaren sinbolizazioa ezinbesteko tresna bihurtuko da garai honetako lehen hamarkadako testuetan; mugak edota honen suntsipenak, nazio eraikuntzaren ikuspuntutik izugarritzko pisua baitauka. Eta muga hori suntsitu, eta mugaz gaindiko elementu gisara, euskara bera errepresentatzen da. K07 testua esaterako, horren adibide garbia da. Testu horretan, Euskara herria edo nazioa eraikitzeke tresna gisara hautematen da. Hau da, euskara da ezarritako mugak apurtzen dituen, eta nolabait berriak ezarri nahi dituen. EAE eta Nafarroaren arteko muga zein Hegoaldea eta Iparraldea berezitzen dituen mugak suntsitzen ageri da euskara. Mugaz gaindiko hizkuntza gisara errepresentatzen da, “inposatutako” muga horien zentzua ezbaian jarzen duen elementua da. Hala ere, beste muga batzuk ezarri nahi ditu. Zazpi

probintzien Euskal Herria osatu nahi du euskarak, eta testuan ageri den Euskal Herrian euskara ez dago presente lurralde guztian. Hau da, euskara da nazioa sortzen duena, baina aldi berean, irudikatutako nazio horren baitan, euskarak lurraldeak ditu irabazteko, horregatik aldarri nagusia den “Euskal Herrian euskaraz” esaldia. Garrantzitsua da azpimarratzea, testu honetan euskarak baduela presentzia bat-ikurrinen bidez errepresentatzen da euskara-. Hala ere, euskarak ez die beste hizkuntzei aurre egiten, nazio bat eraikitzeke traba diren mugei baizik. Nazio eraikuntzaren helburua oso argi islatzen du testuak, hortaz.

K08 testuaren kasuan, muga hitzak bi zentzu izango ditu. Batetik, mugaren desagerpenak batasuna islatuko luke. Euskal Herriaren batasuna, eta baita mundu abertzalearena ere. Aurrerago aztertuko dugun arren, ezin baitugu ahaztu “Bateginik” kanpaina hau izan zela nolabait ere eragile ezberdinek –EKBk eta Ikastolen Konfederazioak, alderdi politiko abertzaleen babesarekin– elkarlanean sortu zuten lehen kanpaina. Hau da, euskara izango da Euskal Herria kohesionatzeko elementu behinena, muga guztien gaintetik, kohesioa, batasuna eta bakartasun hori lortuko duena; bakartasuna, izate bat eraikitzearen zentzu hertsian. Zentzu horretan ulertu genezake kanpainako ikurraren baitan kokatuta dagoen 1 zenbakia ere. Badirudi nazioari egiten diola erreferentzia; mugak gaintitzeari, eta bat izateari. Testu honetan, euskarak eraikiko du Euskal Herria, leloak dioen moduan: “Euskarak eta ikastolek ez baitute mugarik izango”.

Beraz, garai honetako euskalgintza sozialak –batez ere 1998. urte artekoak– euskara eta nazioaren eraikuntza ezin bereizizko bi egitate, edota elementuren gisara hauteman eta errepresentatu zituen. Errepresentazio horretan, mugak bere sinbolismo eta protagonismo berezia izango ditu. Laburbilduz, esan liteke garai honetako euskalgintza sozialaren ikuspuntutik, Euskal Herri baten eraikuntza euskararen “salbaziorako” ezinbesteko mugarri gisara hautematen zela, eta kasik nazio eraikuntza hori, euskararen biziberritzean nahitaezko egitate bilakatu zela (Ezkerra & Fernandez, 1995: 50).

Bestalde, naziotasunaren zentraltasunaz gain, garai honetako hiru testutan, K06, K07 eta K09 testuetan, gorputzak –eta hortaz, pertsonak– ere ageri dira. Errepresentatutako gorputzei kartel hauetan bi esanahi eman izan zaiela esan liteke. Batetik, K06 eta K07 testuetan ageri diren gorputz edota pertsonak izan-

go genituzke. Horiek jendetza irudikatzen dute. Guztiak aurrera begira daude, manifestazio baten bezala. Indarra eta mugimendua sinbolizatzen dutela esan liteke; baita manifestazioak berarekin dakarren protesta ere. 80ko hamarkadako testuetako gorputzek tentsioa dakarte beraiekin eta gorputz inbertsonalak dira. Hau da, gorputz hauen bidez garrantzitsuena, jendetzak dakarren indarra nolabait ere, “blokea” irudikatzea da; kolektibotasuna. Garaiko gizarte mugimenduetako borroka molde klasikoa irudikatzen du; baita horrekin batera garaiko gatazka eta tentsioa ere.

K09 testuan, aldiz, gorputzek bestelako esanahi bat hartzen dute. Hasteko, gorputzen aniztasun bat nabari da; nahiz eta lehen begiratu batean emakumezkoenak diren gehien ikusten diren gorputzak, eta kuantitatiboki hala da, 4 gizon heldu bakarrik baitaude testuan errepresentatuta. Gorputzek, eta bertan islatutako pertsonen—baita testuko koloreek ere—, izugarritzko alaitasuna transmititzen dute. Eta esanahi iteratiboari erreparaturaz, gorputz hauek eta “Euskaraz bagara.” esaldiak dute zentralitatea. Hala nola, eta bi elementu hauen bidez, *gu* bat islatzen du testuak. Euskarazko jendartearen *gu* bat markatzen du. Badirudi, *gu* hori inklusiboa dela. Hau da, *gu* hori ez da kontrajartzen “zu” batekin. Ez du bestetasunik erakusten. “Euskaraz bagara” esatea ez baita “Guk euskaraz, zuk zergatik ez?” esatearen berdina. Gainera, islatzen den *gu* hori alaia da, koloretsua, gozagarria dirudi. *Gu* horren eraikuntzan, zerikusi argia du Txepetxek testu hau argitaratu baino hamar bat urte lehenago argitaratutako teoriak. Horren arabera, sustapen linguistikoen subjektua etengabeko eraikuntzan dagoen hiztunek osatutako komunitatea izango da (Zarraga, 2010: 45). Horixe islatzen da testuan, euskararen hiztun komunitatea. Eta badirudi, euskararen bidez, edota euskaraz biziz, hiztun komunitate hori pozik eta aske bizi dela. Hala ere, eta gorago jorratu den nazio ikuspegiari jarraiki, aipagarria da hiztun komunitate hori, Euskal Herrian errotuta dagoela. Hau da, testu honetan ere nazioaren ikuspegia nolabait txertatuta dago, baina euskarak berak egingo du hiztuna, eta ez nazioak. Hau da, testu honetan euskarak dauka zentralitatea.

Hortaz, gorputzen errepresentazioari dagokionez ere, hamarkada amaierako testuetan, hiztun komunitatea ezberdin irudikatzen da. K06 eta K07-an gorputzek kontrakotasuna, edota protesta islatzen duten bitartean, 1998an gozagarritasuna, eta hiztun komunitatearen errepresentagarri dira gorputz eta pertsona ezberdinak.

Bestetik, eta denborazkotasunari erreparatuta, esan liteke garai honetan aztertutako testu guztiak *continuum* batean aurkitzen direla. Hala ere, eta beste aldagai batzuekin gertatu den moduan, garai honen amaierako testuak, eta 80ko hamarkada erdialdekoak bereizi behar dira. Hau da, hitzen bidezko esaldiei erreparatzen badiegu, testu guztiak oraina behintzat errepresentatzen dutela esan liteke –euskaraz bagara, bai euskarari, aberria euskaraz...–. Bestalde, etorkizuneko zantzuak ere garai honetako testu guztiak izango lituzkete. Aztertutako testuek ez dute aditzik islatzen bere horretan idatzizko esaldietan, baina oraina aldatzeko nahi bat atzematen zaie, etorkizunari begirako aldaketak liratekeenak. Eta horretaz gain, irudi bidez etorkizun bat islatzen da. Adibidez, K09n islatzen den Euskal Herri alai, edo baita K06-n protesten bidez errepresentatzen den aldaketa; edota K07-n euskararen zabalkundeak irudikatzen duen mugimenduak. Hiru adibideek etorkizuna errepresentatzeko nahi bat islatuko lukete.

Baina oraina eta etorkizuna garai honetako testuetan agertzeaz gain, 80ko hamarkadako testuetan iraganaren zantzuak ere ageri dira –ikurrinen bidez, zuri beltzeko gudari eta abarren bidez edota paisaia bukolikoen bitartez–. 80ko hamarkadako testuetan errepresentatzen den iragan hori nazioarekin dago lotuta. Badirudi nazioa eta hizkuntza lotzen dituen epika horretan, iraganaren osagaiak egon beharra daukatela; aberriak, gudariak, baserriak... eta baita 36ko gerrak eta honek sortutako sufrimenduak, iragan hori eta nazio hori osatzeko elementuak eskaintzen dituzte. Hala ere, eta “nazio zapalduaren” paradigma iraganetik eraikitzen baldin bada ere testuetan, kartelean iragan gisara errepresentatzen denak badirudi oraindik ere, nolabaiteko presentzia bat daukala. Hau da, iraganeko zapalkuntzen bidez, gaur egungo zapalkuntza irudikatzea izango lukete helburu testuek.

Hala nola, eta testu multimodaletan erabiltzen den diskurtsoari (Kress & Van Leeuwen, 2001: 4) dagokionez, trantsizio bat azpimarratu beharra dago. Hau da, jada nazioaren edota gorputz espresioen aldagaiekin ikusi ahal izan den moduan, 98. urtetik aurrerako testuen eta beste aztertutakoen artean ezberdintasun nabarmenak aurki litezke diskurtsoari dagokionean ere.

K05, K06, K07 eta K08 testuetan islatzen den diskurtsoari erreparatuz gero, Iñaki Martínez de Luna soziolinguistak 2013. urtean argitaratutako euskararen framingaren azterketa aipatzea ezinbestekoa da. Martínez de Lunak euska-

ra zerekin lotzen den, edo zer marko interpretatiboren txapelpean ulertzen den gizartean, aztertu zuen 2013ko ikerlan horretan. Hala, esan daiteke euskararen inguruko errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitibo ezberdinak daudela. Bi dira zehazki eta modu orokor batean, Martinez de Lunak aipatzen dituen euskararen inguruko errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboa edo framingak: framing aldarrikatzailea eta framing uzkurra⁴³ (Martinez de Luna, 2013: 18).

Framing aldarrikatzaileak abertzaletasuna izango du muinean. Framing horren arabera, euskara bertako berezko hizkuntza bakarra eta euskal identitatearen ardatza izango da; aldiz, gaztelania zein frantsesa hizkuntza arrotz eta inposatuak izango dira. Horrela, eta framing horren arabera euskara egoera gutxituan dagoenez, interbentzio eraginkorraren eta neurri babesgarrien premia du. Hau da, diskriminazio positiboaren premia izango du (*Idem.*).

Hala nola, argi eta garbi, Martinez de Lunaren azterketa garaiko testu multimodaletara ekarriz, framing aldarrikatzailearen baitan kokatu liteke 80ko hamarkadako testuek darabilten diskurtsoa. Hala ere, aipagarria da diskurtso hau aurrera eramateko elementu nagusienetako bat oldarkortasuna dela. Hau da, “Euskal Herrian euskaraz, eta kitto!” bezalako esaldiekin; edota, K05-eko eskuak islatzen duen larritasun eta agresibitate sentsazioarekin; gerrako argazkiekin edo mapetako mugen suntsipenarekin, hamarkada honetako testuek izugarritzko tentsio, gatazka eta agresibitatea errepresentatzen dute. Euskara, beste elementu batzuekin batera, baina euskal gatazkaren erdian kokatu zen, eta testu hauek horrexen isla dira. Goian aipatu dugun bezala, tentsioa, gatazka eta familia abertzaleen arteko ezinikusiak (Larrinaga, 2011: 547) islatzen dira testuetan. Horrela, garai honetako testuetan, eta oldarkortasun horren tonika berdinari jarraiki, etsaitasun bat ere errepresentatzen da. Hau da, euskararen “etsaiak” baino, Euskal Herriaren etsaiek daukate presentzia testuetan: K05en eskuaren larritasunak Euskal Herria islatzen du; K07ko Frantziaren eta Espainiako mugek Estatu horiek etsaitzat errepresentatzeko balio dute...

⁴³ Framing honek euskarak biziraun dezan interbentzioa eta neurriak hartzea beharrezkoa dela ez badu ukatzen ere, halakoak proposatzean edota aplikatzean berehala arbuatzen ditu inposiziotzat edo diskriminaziotzat joz eta erdaldunen hizkuntza-eskubideen kontrakoak direla argudiatuz (Martinez de Luna, 2013: 19).

80ko hamarkadako diskurtsoa framing aldarrikatzailearen baitan egituratzeaz gain, esan daiteke egiteko moduei erreparatuz gero, garai honetako euskalgintza -98. urte artekoa- botere estrategian oinarritu zela. Hau da, botere estrategia⁴⁴ politikoa zen, botere harremanei eta errebindikazio zuzeneko ekintzei lotuta ulertzen zuen hizkuntzaren defentsa (Agote, 1995: 87).

Zentzu horretan, garai honetako diskurtso eta errepresentazioak maskulinitatean oinarritutakoak direla esan liteke. Indarra, agresibitatea... azken finean, oldarkortasuna maskulinitatearen bereizgarririk garrantzitsuenetako bat dela esan liteke: *“Y uno de los signos constitutivos de la masculinidad es sin duda la violencia, la fuerza, el control, el dominio, la agresividad, la agresión. Todos estos parámetros se han configurado como exigencias de la virilidad”* (Alsina & Borrás, 2000: 85). Hala nola biolentzian, kontrakotasunean oinarritutako diskurtsoa izango da 80eko hamarkadako euskalgintzaren zutabe nagusia. Oldarkortasun hori, eta jada behin baino gehiagotan komentatu den moduan, egitate eta elementu ezberdinen bidez errepresentatu izan da: eskuaren bidez, “eta kitto!” esaldiarekin, gerrako irudiekin, manifestazioak errepresentatzen dituzten argazkiekin...

Hala ere, aipagarria da diskurtsoan eta baita estetikan ere trantsizio nabarmena sumatu genezakeela garai honetako bi hamarkaden artean. Hasteko, azpimarratu liteke akordioa edota batasuna irudikatzeko oldarkortasun eta gatazkaren estrategia horrek, ez duela balio izan. Hau da, eragile ezberdinek modu bateratuan zerbait egin ahal izateko diskurtso oldarkorra alde batera utzi behar izan dute. K08-ren kasuan ikus liteke hori lehendabiziko aldiz. Aipatu den gisara, “Bateginik” kanpaina, EKBk eta Ikastolek elkarlanean garatutako kanpaina bat izan zen; eta alderdi politiko abertzaleen babesa jaso zuen (Soziolinguistika Klusterra, 2020a). Kanpaina hori, diskurtso aldetik, framing aldarrikatzailearen baitan kokatu liteke. Testuan esaterako, Euskal Herriko lurraldea errepresentatzen duen mapa islatzen da, eta idatzizko esaldian “mugarik ez” ageri zaigu. Hala ere, eta ezezkoaren gainean eraikita egonik ere kanpaina, batasuna da gehien azpimarratzen dena; nazioaren batasuna, baina baita euskaldunen arte-

⁴⁴ Bestetik, kultura estrategia baliatzen zuten taldeak izango genituzke. Horiek hiztun komunitatea dute oinarri, hauen praktiketan eragitea. Betiere, ekintzetan erabiliko zuten tonua positiboa izango da (Agote, 1995:88). Kultura estrategia horri lotuta, euskara elkarleen egiteko moduak izango genituzke, hurrengo garaian aztertuko direnak.

koa ere. Akordioak edota elkarlanak, hortaz, oldarkortasun eta gatazka islatzen duen diskurtso hori albo batera uztea ekarriko luke.

Hala nola, eta XXI. mendeko akordio gisara, bere burua “Bai euskarari” kanpainak definitzen du. Kasualitatez bada ere, K08 eta K10 kolore oso antzerakoe-kin hornituta dauden testuak dira; horia/laranja eta urdin iluna dituzte testuek.

Era berean, eta akordioaren filosofiarekin lotuta, K10 testua soila da. Urdin ilun kolorearekin eta baita ertzak beltzez margotuta ere, badirudi euskarari inguruan izan ditzakeen tradizio zein gatazka usai guztiak kendu, eta berau doitu nahi dela. Ez dago naziorik, ez dago gorputz alternatiborik, ez eta gatazkarik ere. Enpresa industrial handien estetika daukala dirudi; horiek zer-bait sinatzeko neurria egindako estetika. Neutraltasuna adierazi nahiko balu bezala. Horretaz gain, teknikotasuna ere islatzen du; betiere neutraltasun hori bilatu nahian. Hau da, “Bai Euskarari” kanpainaren ondoren, “Bai Euskarari” ziurtagiria sortu zen esaterako. Ziurtagiri horren bidez, arlo sozioekonomikoa euskalduntzea izango da helburua, horretarako, plan estrategikoak, edota arlo teknikoagoa garatuz (Bai Euskarari, 2000) Horregatik aipa daiteke teknikotasun hori ere islatu nahi izan zela; betiere neutraltasunaren txapelpean.

Hala ere, soiltasun horrek, gatazka ez horrek, badu bakearekin eta euskararen despolitizazioarekin loturarik. Kontuan izan behar dugu Lizarra-Garazi garaia zela, ilusioa, batasuna, bake-nahia... zirela nagusi Euskal Herrian. Eta baita euskalgintzan ere (Inda, 2019). Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak bakerako nahi bat erakusten du Abenduaren 26an estadioetan egin zen kanpaina amaierako adierazpenetan: “*Duela 20 urte hegan abiatu zen San Mamesen euskararen uso zuria. Uso zuri honek, bat egin du bake eta askatasunaren usoarekin, eta elkarrekin doaz XXI. mendera hegan. Euskararen usoak bakea eta askatasuna behar baititu hegan egiteko*” (ARGIA aldizkaria, 2013). Garaiko testuinguru soziopolitikoa agertzen da hitz horietan. Euskalgintzak 80-90eko hamarkadetan barne gatazka eta tentsio nabarmenak bizi izan zituen, eta adierazpen horrek argi uzten du zein den etorkizunerako nahia, eta baita bidea ere; bakearena.

Goian aipatutakoaren beste adibide bat, kanpaina horrek berak hartu zuen leloa izan zen. Testua guztiz intertestuala da. Hau da, kanpainaren lelo nagusiak 1978. urtean Euskaltzaindiak egindako kanpainaren lelo nagusia dakarkigu.

Eta horixe da gainera, testu honek, eta oro har kanpaina honek bilatzen dutena. Nolabait ere, 1978ko izpiritu harekin konektatzea. Euskararen inguruan ilusioa, askatasun egarria, baikortasuna, grina... berriz ere piztea. “Bai Euskarari” mezu positiboa da, eraikitzailea nolabait, eta baita zabala ere. Bai esaten zaio euskarari, eta ez “ez” beste zerbaiti. Horrek garrantzi handia dauka garai honetan Euskal Herriko espazio publikoan, ezetzaren bidez errepresentatutako kontrakotasunak izugarritzko garrantzia hartuko baitu (Zulaika, 1988: 303). Baikortasun, edo positibotasun honek irekitasuna ematen dio euskarari.

K10-en urte bereko K09 testuak ere, modu oso ezberdinean, baina diskurtsoaren trantsizioa dakarkigu. K10-ean ageri den baikortasun, positibismo eta esperantza hori justuki kontrara errepresentatzen dela esan liteke. Hau da, testua oso koloretsua da, gorputz asko ageri dira errepresentatuta... baina argi eta garbi, baikortasuna, esperantza, eta batez ere, gatazka edota tentsiorik eza errepresentatu nahi ditu. K09 testua ere 1998. urte mugituan kokatzen da; Lizarra-Garazi, eta baita Euskararen Unibertsoaren jardunaldien urtean. Baina badago beste egitate bat, AEKren diskurtsoa aldatuko duena, eta hau, 1995. urtean AEK eta HABEren artean sinatu zen akordioa da. Urte horretan, AEK eta Jaurlearitzaren arteko aurrez aurreko enfrentamendua asko apaldu zen, eta AEKren diskurtsoan ere esan liteke izan zuela eraginik “bake-sinatze” horrek (EITB, 2020).

Beraz, diskurtsoari dagokionez ere, garai honetako hamarkada ezberdinetan euskararen alde egiteko diskurtso ezberdinak erabili izan dira. 80ko hamarkadan, presentzia nabarmena izango dute framing aldarrikatzailean, edota botere estrategian oinarritutako diskurtso maskulinizatuek. Oldarkortasuna, gatazka eta tentsioa oinarritzat daukaten diskurtsoek, alegia. Eta garai horren amaiera aldera, hau da, Lizarra-Garazi garaian, Euskararen Unibertsoaren Jardunaldiak aurrera eraman ziren urteen bueltan, Topagunearen sorrerarekin eta baita AEK eta Jaurlearitzaren arteko bakearekin ere, diskurtsoak beste norabide bat hartu zuen. Euskararen despolitizaziorako joera bat ematen hasten dela esan liteke. Nazioak, eta honen eraikuntzak zentralitatea galduko dute. Eta euskara alde batetik, neutraltasunarekin lotu nahi izango da –K10-ek islatzea nahi duen moduan–. Eta bestetik, gozagarritasun eta alaitasunarekin ere lotu nahi izango da –K09-k islatzen duen moduan–. 80ko hamarkadan diskurtsoa, eta baita praktikak ere maskulinizatuak baldin baziren, eta gatazka, tentsioa eta oldar-

kotasuna baldin bazeuden ere diskurtsoaren zentroan, etapa honen amaieran diskurtsoa genero aldetik ere trantsizio batean sartuko da. Ondorengo hamar-kadan joango delarik generikoki ere definitzen.

Azkenik, hartzaile/behatzaile inplizituaren (Järlehed, 2008: 49) kategoria ardatz hartuta, esan liteke, ez dela batere erraza testuak nori zuzenduta dauden ondorioztatzea. Hasteko, esan daiteke elebakarrak direla testu gehienak –K10 izan ezik–. Hortaz, euskaldunei zuzendutako testuak dira garai honetakoak; eta are gehiago, esan liteke jada kontzientzia lingusitikoa duten pertsonen zuzenduta daudela testuak. Hau da, publizitate testuek balio batzuk aldatzea edota praktika batzuk iraultzea lortzea dute helburu. Helburu hori lortzeko, hainbat balio edota pertsuazio modu erabiliko dituzte (Curto *et al.*, 2008:19). 80ko hamarkadako testuetan amorruren emozioa pizteko grina nabaritzen da. Hau da, horregatik esan liteke hipotesi gisara, jada kontzientzia linguistiko bat duten pertsonengana iristea dutela helburutzat testuek.

Etaparen amaierako testuek, aldiz, beste hartzaile/behatzaile inplizitu bat dute jopuntuan. K09-k adibidez, alaitasun eta gozagarritasunarekin lotzen du euskara. Dibertsioa da nagusi euskaraz. K10-ek, aldiz, euskara eta Euskal Herriko bi erdara ofizialak erabiltzen ditu hartzailearengana zuzentzeko. Horrekin pentsa liteke publiko anitzagoarengana iristea duela helburu K10-ek. Horretaz gain, publiko “anitz” izan lezake K10-ek helburutzat, testuak errepresentatzen duen soiltasun horrek nolabaiteko “identifikaziorik eza” bilatzen duela baitirudi. Hau da, neutraltasuna bilatzen du testuak, hartzaile askorengana iritsi ahal izateko. Azken finean, euskararen despolitizazioaren bidez urte luzez euskarak bereganatu ez dituen pertsonak tentatzea izango da testuaren helburuetako bat.

Hala ere, eta hartzaile/behatzaile inplizituaren kategoriarekin jarraiki, badago 80ko hamarkadako testuetan hartzailea izan litekeen figura moduko bat. Hau da, 80ko hamarkadako testuetan euskara islatzen den moduari badirudi “gudari” kategoriako hartzaile/behatzaile bat doakiola. Hau da, euskarak tentsioa eta gatazka errepresentatzen ditu; azken finean borroka. Euskal Herrian borrokari lotutako figurarik egon baldin badago, hau gudariarena izan da. Gudariaren figura hori gainera, oso maskulinizatua izan da urteetan zehar (Etxebarrieta & Rodriguez, 2016). Hala nola, eta batez ere 80eko hamarkadako testuei, be-

hatzaile/hartzaile maskulino bat dagokiela esan liteke. Hau da, testuan euskara gatazkaz eta agresibitatez beterik ageri da. Hala nola pentsa liteke gatazkaz eta agresibitatez beteta islatzen den euskara horren hiztunak gizona izan behar duela; eta zehatzago, “gudaria”.

Hori kontuan izanik, eta laburbilduz, esan liteke 80ko hamarkadan eta 90eko erdialdera arte, euskara nazio eraikuntzaren alboan egon dela. Hala nola testu batzuetan nazio eraikuntzak euskarak berak baino zentralitate handiagoa hartu izan duela ere esan daiteke. 80ko hamarkadako testuetan, hortaz, nazioak, eta honen eraikuntzak hartu izan du erdigunea; testu batzuetan, euskara bera desagertu egin dela ere aipatu daiteke. Nazio eraikuntza honekin batera, nazio eraikuntza horri lotu izan zaion gatazka eta tentsioa ere islatu izan dira euskalgintzako testuetan. Hala nola diskurtsoa nahiko maskulinoa izan dela esan liteke urte hauetan; euskara historiko maskulinoa izan den oldarkortasun eta gatazkarekin lotua izan baita. Euskararen errepresentazio maskulino honi, badirudi hartzaile/behatzaile inplizitu maskulinoa dagokiola. Izan ere, eta testuak aztertu ondoren, testuek egiten duten hartzaile/behatzailearen argazkiak badirudi “gudari” estiloko euskal hiztuna irudikatzen duela. Hau da, euskara gatazkan eta agresibitatez irudikatzen den neurrian, honen hiztuna ere modu horretan irudikatzen da. Horrexegatik diogu gudariaren figurarekin lotu litekeela testuetan egiten den euskal hiztunaren irudia.

Baina testuei erreparatuz gero, argi eta garbi ikusten da 90eko hamarkada erdialdean norabide aldaketa bat ematen dela. Testuetako euskararen errepresentazioan, eta baita euskararen aldeko diskurtsoan ere. Norabide aldaketa baten hasiera gisara identifikatu genezake testu honetan K09 eta K10 testuen bidez materializatzen den aldaketa hau. Gatazka eta oldarkortasuna alde batera utziko dira, eta despolitizazioaren estrategiari ekingo zaio. Horretaz gain, hiztun komunitateak hartuko du zentroa. Hala ere, K09-k eta K10ek aldaketaren bi aurpegiak erakusten dizkigute. K09-ren kasuan, alaitasuna, gozagarritasuna eta hiztunak dira zentroan jartzen direnak. Eta K10-en kasuan, aldiz, euskarari nolabaiteko seriotasun baten bidez prestigioa ezarri nahi izan zitzaion. Hurrengo garaian ikusi ahal izango da euskararen errepresentazioak zer bide hartuko duen. Hala ere, aipagarria da generoari erreparatuz gero 90eko hamarkada erdialdetik aurrera, euskara eta honen aldeko diskurtsoa trantsizio batean sartzen direla. Diskurtso eta errepresentazio oso maskulinoetatik leunagoetara pasatzen dira

testu multimodalak. Hala nola trantsizio horrek nora eramango gaituen 2000ko eta 2010eko hamarkadetako testu multimodaletan aztertu beharko da.

4.1.3. 2000-2010eko hamarkadak: despolitizaziotik infantilizaziora

Azken hamarkada hauetara iritsita, atal honetan 2000ko eta 2010eko hamarkadetan sortutako testuen analisi multimodala egin da –zehazki 2018. urte artekoa–. Hau da, atal honetan, azken urte hauetan euskara, hau bultzatzeko erabili den diskurtsoa zein euskal hiztuna testuetan nola errepresentatu izan diren aztertu da.

Aipagarria da garai honetako dela jaso den material kantitaterik handiena. Arestian azpimarratu bezala, 126 testu ezberdin jaso ahal izan dira; egiletza eta jite ezberdinekoak. Hala ere, eta garai honetako euskararen errepresentazioak aztertzeke asmoz, zortzi izan dira fitxa bidez analizatu diren testuak. Hala nola K11, K12, K13, K14, K15, K16, K17 eta K18 izan dira tentuz eta modu metodiko batean aztertu direnak.

K11 testua esaterako, 2005. urtekoa da, Lasarte-Oriako udalak eta Lasarteko Ttakun euskara eta kultur elkarteak sortua. Bertan, Euskararen IV. Maratoia⁴⁵ iragartzen da. K12 testua, aldiz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena da, 2007. urtekoa alegia. Testu honetan, urtebete lehenago –2006an–, euskararen sinbolo berri gisara errepresentatu zen “*Ukan*” birusa ikus liteke, besteak beste. K13 testua bestetik, Euskal Herrian Euskaraz taldearena da. Urte zehatza jakiterik izan ez den arren, 2000-2009 urteen artean kokatu daiteke. K14

⁴⁵ “*Euskararen Maratoia lasarteoriatar askok euskaldun izateko dugun nahia sinbolizatzen duen jai bat da. 1986an hasi eta lau urtez behin egiten, ospatzen, dugun jai bat. 40 ordu, etenik gabe, irauten duen jai bat. Eguneroko maratoia, benetakoa, elikatzen laguntzen digun jai. Euskararen Maratoia larunbatean goizeko 8:00etan hasten da eta igandean gaueko 12:00etan amaitu. Bitartean, maratoia 5 minutu baino handiagoko isilunerik ezin izan dezakeen etengabeko mikrofono bat da. 40 orduak herriko plazan hezurramitzen dira eta oholtza zortzikote batek dinamizatzen du, umorea ardatz duten ekitaldiak berariaz prestatuz eta herritarrek prestatuta dituzten emankizunei bide emanaz (parte hartzeke baldintza da Lasarte-Orian jai, bizi edo lan egitea). Maratoiarene ardatza euskara da eta bere baliorik kuttunenetakoa, berriz, herriko euskaltzaleak, beren tira-bira ideologikoen gainetik, jaiaren inguruan biltzea. Maratoia da, korritu gabe, oso ongi esplika ezin daitekeen zerbait*” (Euskararen Maratoia, 2016).

Kontseiluak 2010. urtean abian jarri zuen “Euskaraz Bizi Nahi Dut” kanpainan entzutetsuari dagokion testua litzateke. K15 testua Topaguneak martxan daukan Mintzapraktika programaren karteletako bat da. 2015. urtean, programaren kanpaina egiteko erabilitakoa hain zuzen ere. K16 berriz, HPSk sortutakoa da; Euskararen Nazioarteko egunaren harira, 2013. urtean. K17 ere, HPSk sortua da, 2015. urtean. Testu horrek, “*Ukan*” birusari testigua hartu, eta “*Euskararen txantxangorria*”, hau da, euskararen sinbolo berria irudikatuko du. Eta azkenik, K18 egongo litzateke. Testu hori, 2018. urtean estreinakoze egin zen Euskaraldiaren karteletako bat da. Horren egilea Topagunea izango litzateke; nahiz eta, euskal instituzioek ere parte hartu zuten Euskaraldian.

Igorle enpirikoari (Järlehed, 2008: 49) erreparatuz gero, bi berritasun nagusi sumatu genitzake garai honetan. Batetik, euskalgintza instituzionalaren presentzia; HPSk gidatu eta sortutako kanpainen eskutik. Eta bestetik, azken hamarkada hauetan euskalgintza sozialaren baitan presentzia handia izango duen Euskaltzaleen Topagunearena. Bai HPS eta baita Topagunea ere aurreko “garaian” sortuak direla azpimarratu behar da. Hala ere, 2000-2010. urteetako testu multimodalen produkzio handiena bi igorle enpiriko horien eskutik sortua dela esan liteke. Batez ere 2008. urtetik aurrera. Posible da beste euskalgintzako eragileek ere hamarkada hauetan testu multimodalen produkzio handia izatea, baina lan honetarako aurkitu eta aztertu diren testu gehienak –garai honi dagozkionak– HPS eta Topagunearenak izan dira.

Bestalde, eta igorle enpirikoaren adierazlearekin jarraiki, aipagarria da K11 testua izan ezik, beste igorle enpiriko guztiak Nazio mailakoak –edota HPSren kasuan EAE mailakoak– direla. Euskalgintza, hortaz, hamarkada honetan ere Nazio mailako –eta baita EAE mailako– erakundeen baitan antolatuta egongo da. Bestetik, erakunde hauen nolakotasunari begiratuz gero, profesionalizazio betetako erakundeak direla esan liteke. Hau da, garai honetan aurretik zetorren inertzia bati jarraiki, euskalgintzako erakunde ezberdinen profesionalizazio bat emango da. Hala nola, eta nahiz eta Euskaraldia bezalako ariketekin norabide aldaketa bat eman den, euskara zerbitzu hizkuntza bilakatu ote den ere pentsa liteke. Edota hobeto esanda, euskalgintza zerbitzuak eskaintzera murriztu den mugimendu bat bilakatu ote den susmatu daiteke (Topalabea, 2015: 6). Zerbitzu eskaintza hori, eta hortaz, euskara ere nolabait “zerbitzu-hizkuntza” bilakatze hori egokien Topaguneko testu multimodal ezberdinetan azter liteke –Mintzapraktika

programak, Irakurri gozatu eta oparitu programa, Auzoko, Harrapazank... izan litezke horren adibideetako batzuk-. Hala ere, eta aipatu moduan, hamarkada honetan ere bestelako kanpainak egin izan dituzte eragile ezberdinek.

Bestetik, eta igorle enpirikoaren kategoriarekin amaitzeko, aipagarria da, euskalgintza sozialaren eta euskalgintza instituzionalaren artean zelanbaiteko sintonia bat hauteman daitekeela. Ezin daiteke jakin norainoko sintonia den, baina K11 eta K15-en kasuan, instituzioen ikurrak ageri dira babesle gisara. Horretaz gain, K14-ren webgunean –euskarazbizinahidut.eus– ere Eusko Jaurlaritzaren babesletza ageri da. Hala nola, eta babesletzetatik haratago joanda, Euskaraldia esaterako, instituzio publikoekin elkarlanean garatu zuen Topaguneak. Hortaz, eta babesak eta abarrak ikusirik, beste ondorio edo hipotesi bat ere mahaigaineratu liteke. Hau da, azken urteetan instituzio publikoen eta euskalgintza sozialaren arteko harremana, joan zen garaitik esaterako, hobetu dela jakinekoa da. 2011. urtetik aurrera ere beste era batekoa izan da euskalgintza soziala eta instituzioen arteko harremana. Hala ere, instituzioen ikur horiek testuetan ikustean argi gelditzen da euskalgintzak dependentzia ekonomiko bat bederen badaukala euskal instituzio ezberdinekiko; bestelako dependentziarik ezin daiteke ondorioztatu, baina dependentzia ekonomiko bat egon badagoela mahaigaineratu liteke.

Parte hartzaile errepresentatua (Cares, 2017: 160) analisi kategoriatzat hartuta, pertsonen edota gorputzen errepresentazioak oso ekintza puntaletarako erabiltzen direla ondorioztatu liteke. Hau da, aztertutako testuei erreparatuta, K13 eta K15-ean erabiltzen dira “pertsona errealei” dagozkien gorputzak. K13-ren kasuan, errepresentatuta ageri diren pertsonen –Juan Jose Ibarretxe orduko lehendakaria, eta Gabriel Maria Inclan orduko Osasun sailburua– aurka protestatzeko erabiltzen dira Ibarretxe eta Inclani dagozkien ikonoak. Hala ere, eta salaketa oso pertsonala dela adierazten baldin badu ere testuak, bi pertsona horiek Eusko Jaurlaritzaren aurka egiteko erabiltzen dira. Hau da, K13-n “etsai” edota “errudun” gisara Eusko Jaurlaritza, eta honen hizkuntza politika jotzen dira. Hala ere, Ibarretxe eta Inclanen irudiak erabiltzen dira nolabait ere salaketa hori, edota erruduntasun hori hezur-mamitzeko.

Bigarrenik, pertsonak edota giza gorputzak hizkuntza-komunitatea errepresentatzeko erabili izan dira garai honetako testuetan. K15 testua izango litzate-

ke horren adibideetako bat. Hala ere, eta fitxaz modu sistematiko batean aztertu ez diren arren, 2008tik 2020ra arteko Mintzapraktika programei dagozkien testu ia⁴⁶ guztietan ageri dira pertsonak eta gorputzak errepresentatuta. Badi-rudi mintzapraktika saioetan, edota mintzalagunen⁴⁷ artean, komunitatearen ideia indartu nahi dela. Hala nola mintzapraktika saioak oso harremanetara bideratuta daudela iradoki lezake testuek. Hau da, hizkuntza-praktikek eta mintzalagunak erdigunea hartuko dute programa hauetan. Hortaz, hortik uler liteke pertsona edota gorputzen erabilera.

Hala nola, eta K15 testua aitzakiatzat hartuz, esan daiteke garai honetako testuetan badagoela fantasiarako nolabaiteko joera bat. Aipatutako testuan, lehen plano batean giza itsurako bi pertsona ageri dira –Aitziber Garmendia eta Kepa Errasti aktoreak–. Hala ere, pertsona horiek superheroi bilakatzen dira –dantzari itxurako bi superheroi–, “supermintzalagun”, testuaren izenburuaren arabera. Fantasiatzko mundu honen beste adibideetako batzuk, K11, K12 eta K17an ageri diren elementu antropomorfoak lirarteke. K11-ren kasuan, panpina antzeko batzuk ageri dira, baina badirudi hizketan dabilzala eta ahoa eta begiak ere badituztela. Bestetik, K12-ren kasuan, “Ukan” birusak hankak, ahoa, begiak eta beso bat izango ditu. Hau da, garai honetan pertsonifikazioaren figura erretorikoa erabiltzen da. Figura erretoriko hori marrazki bizidunetan oso erabilia izan da, eta elementu ezberdinei giza elementuak esleitzean datza (Cao, 1998). Hala nola, eta elementu antropomorfo bat bere horretan ez den arren, K17 testuko “Euskararen txantxangorria” ere fantasiatzko elementu gisara identifikatu liteke. Horrek ere marrazki bizidunen paradigma batera baika-ramatza.

Bestalde, fantasiatzko mundu hau kanpo espazioen errepresentazioarekin ere lotu nahi izan da garai honetako testuetan. Egia da kanpo espazioen erabilera oso urria dela garai honetan aztertutako testuetan, baina K15-en kasuan adibidez, fantasia eta errealtatearen tarteko kanpo espazio baten erabilera egiten

⁴⁶ 2017. urteko testuan ez da ageri pertsonarik errepresentatuta.

⁴⁷ Mintzalagunak mintzapraktika programetan parte hartzen duten kideak dira. Lehen mintzapraktika taldea 1993. urtean sortu zen Donostiako Bagera Euskara Elkartean, eta besteak beste: “*Euskaraz hitz egiteko obitura duten lagunak obiturarik ez dutenekin elkartzen dituzten egitasmoak dira*” (Topagunea, 2017).

da. Testu honetan Euskal Herriko hiri ezberdinetako eraikin ezagunak daude errepresentatuta; Donostiako udaletxeko eraikina, Bilboko Iberdrola dorrea, Gasteizko Andra Mari zuriaren plazako estatua... Leku ezberdinen bidez fantasiatzko edo existitzen ez den “skyline” moduko bat sortu nahi izan da testuan. Hala nola fantasiatzko “skyline” horren bidez euskara hiriarekin, eta azken finean, modernitate eta garapenarekin lotu nahi bat hauteman liteke.

Euskara modernitate, hiritartasun eta mundura zabaltze nahi horrekin lotuta, K16 testua izango litzateke adibide garbientako bat. Testu honetan, sare digitalak gogorarazten dituen ikono baten bidez errepresentatzen da euskara, eta lehen plano batean hizkuntzaren nolakotasuna adierazi nahian, traola bat ageri da: #mundiala traola, hain zuzen ere. Hau da, testu honek argi eta garbi modernitatearekin, hiriaren dimentsioarekin eta kosmopolitanismo batekin lotu nahi izan du euskara. Bere horretan, sare digital moduko hori osatzen duten puntuetako batean espezifikoki adierazten dira “moderno” edota “gaztea” bezalako hitzak.

Bestetik, bada garai honetan aztertutako testu batzuek daukaten kategoria adierazgarri bat: kolorea. K11, K14, K15 eta K18 –testuan errepresentatuta dauden puntuetan– testuetan kolore oso biziak erabiltzen dira. Badirudi kolore bizi hauen bidez eta testu koloretsuak sortuz, alaitasuna, dibertigarritasuna eta gozagarritasuna esleitu nahi zaizkiola euskarari. Hala nola, eta aurretik ere aipatu den gisara, kolore bakoitzak, edota hauen nahasketek, esanahi ezberdinak izan ditzakete testuinguruaren arabera:

“Ningún color carece de significado. El efecto de cada color está determinado por su contexto, es decir, por la conexión de significados en la cual percibimos el color” (Gonzalez & Sueiro, 2017: 1).

Hori horrela, eskuartean dauzkagun testuei erreparatu, kolore bizi hauek eta beraien arteko konbinazioek, haurren jostailu edota haur-parkeen eremu simbolikora garamatzate. Hau da, testuetan errepresentatuta dauden kolore bizi horiek, nolabait ere haurtzaroarekin, edota haurtzaroko etapa horren paradigmarekin izan lezakete lotura.

Izan ere, kolore biziak haurtzaroarekin lotura bat egiteko beta eskaintzen duten moduan, testuetan gaztetasuna, seriotasuna edota hiritartasunaren esana-

hiak errepresentatu nahi direnean testuak soildu egiten dira. Soiltasun hori, kolore hotzagoen bidez lortzen da. Horren adibide lirateke K16 testua, eta baita aurreko garaian aztertutako K10 testua ere.

Hala nola, eta K13-an kolore biziak erabiltzen baldin badira ere, esanahia oso ezberdina da. Hau da, garai honetan ere Euskal Herrian Euskaraz taldeak aurreko hamarkadetako botere estrategiarekin (Agote, 1995: 87) jarraituko luke. Hau da, EHE taldeak ekintza zuzenen bidez jarraituko du euskararen egoera salatzen. Eta euskararen egoera lurraldetasunarekin eta honen zapalkuntza egoerarekin lotuko ditu. K13 esaterako, hori kolorez eta turkesaz margotua egonagatik, oso zuzena da eta salaketa pertsonalizatuak burutzen ditu gainera; instituzio publikoei erantzukizunak eskatuz. Hala ere, aipagarria da garai honetan sektorekako eskakizunetan zentratu zela Euskal Herrian Euskaraz –Justiziaren euskalduntzea, hezkuntzarena...–. Eta K13 testuak islatzen duen gisara, osasungintza euskalduntzean indar handia jarri zuela –2005. urtean esaterako, osasungintza euskalduntzeko herriz herriko kanpaina bat egin zen–.

Bestetik, eta Euskal Herrian Euskaraz taldearekin jarraituz, talde honek ere diskurtso aldaketa bat izan zuen garai honetan. Ikusi ahal izan da aurreko garaian kasik nazio eraikuntzak, eta nazioaren subjektuak berak, euskara bigarren plano batera ekarria zeukala. Hala, garai honetan, eta K21 testuan ikus litekeen moduan, euskarak egingo du Euskal Herria. Eta ez hori bakarrik, testuan ageri den esaldia irakurrita –Euskararik gabe, Euskal Herririk ez–, badirudi euskara gabe Euskal Herriaren independentzia ere alferrikakotzat jotzen dela. Hau da, argi eta garbi, euskara berriz ere diskurtsoaren zentrora etorriko da.

Hortaz, eta diskurtsoaren (Kress & Van Leeuwen, 2001: 4) kategoriarekin jarraituz, argi eta garbi esan liteke garai edota etapa historiko honetan zentralitatea euskararen erabilerak izango duela; K11, K12, K13, K14, K15 eta K18 testuek esaterako, euskararen erabilera areagotzea baitaukatete jopuntuan.

Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta erabileran zentratuko diren testuak, hiztun berriak interpelatzeko joera bat egongo da. K12 testuan esaterako, “Zuk uste duzuna baino gehiago dakizu. Hitz egin lasai” esaldia ageri da. Hau da, esaldi hau ez dago ezagutzarekin lotuta, baina esaldiak hizkuntza guztiz menderatzen ez denaren sentsazioa islatzen du. Bestalde, K15-ean ere transformazio bat ageri da. Hau da, bertan ageri diren Garmendia eta Errasti superhero bi-

hurtu egiten dira. Lehen planoan ageri den irudian ez dira superheroi gisara islatzen, bigarren plano batean kokatuta dagoen irudian aldiz, superheroi gisara errepresentatuta ageri dira. Badirudi mintzalagun izateak, eta hortaz, euskarak berak, superbote bat emango liokeela hitzunari. Hala nola, eta mintzalaguna hitzun zaharra ere izan litekeen neurrian, honek ere transformazio bat bizi lezake mintzapraktikara joanda. Baina superheroi bihurtze horrek, hau da, botea errerepresentatzeko modu horrek, hitzun berriengana garamatza. Hau da, esan liteke K15 testua hitzun berriei zuzenduta dagoela espezifikoki.

Bestalde, eta jada marko teorikoan eta analisi honetan ere aipatu izan dugun moduan, jendartea edozein gauza egitera bultzatzeko, adibidez produktu espezifikoki bat erostera, produktu horri balio batzuk atxiki beharko zaizkio (Curto *et al.*, 2008: 19). Hala nola garai honetan euskarari dibertigarritasuna, gozagarritasuna eta hiritartasuna bezalako balioak esleitu nahi izan zaizkio euskalgintzatik. Figura antropomorfoen erabilera, kolore biziak, ingurune digitala edota fantasiako “skyline” bat... asko dira euskarari balio horrek eransteko erabilitako teknika eta elementuak. Hala ere, badago egitate azpimarragarri bat. Diskurtsoa eta baita estetika ere, oro har, leundu egingo dira. Leuntze horrekin batera, euskararen despolitizazio bat emango da. Ez da jada gudaririk, naziorik, eta are gutxiago nazio zapalkuntzarik agertuko garai honetako testuetan –betiere orokorrean hitz eginez. EHEren tonika nahiko antzerakoa izango baita–. Neutraltasuna bilatuko da etengabe. Euskara euskaldun guztien hizkuntza izateko nahi bat ageri da, aurreko garaietako K09 eta K10 testuetan hasita zegoen nahi bat, alegia. Diskurtsiboki eta modu sinbolikoan, euskal nazionalismoarekin zituen hartu eman eta loturak eten behar izan zituen euskalgintzak; ideologia politikoen eta alderdikarien gainetik eratutako adostasunak ehundu behar zirela uste baitzuten mugimenduko euskaltzaleek (Larrinaga, 2017: 70). Horretarako, testu multimodalak ere tresna ezin hobeak bilakatu zirela ikus liteke. Leuntze diskurtsibo hori, antropomorfismoz, kolore biziz, fantasiako munduz... hezurmamitu baitzen garai honetako testuetan.

Hala eta guztiz ere, bi norabidetan eman zen aldaketa izan zela esan liteke. Hau da, Herri Batasunak ere, eta 1998. urteko “Bai euskarari” kanpaina aprobetxatuz, K19-an ageri den “euskararen ikurra” atera zuen. Ondoreneko urte luzeetan ere erabiliko zuena. Hala, ikur hori ume batek irudikatzen du. Hau da, euskara txupete batekin errerepresentatuta dagoen ume batek irudikatu izan du urte luzez

ezker abertzalearen bueltan. Hargatik, goian aipatzen den bezala, euskararen despolitizazioaren –eta azken finean infantilizazioaren– fenomenoa euskaingintzatik batik batik, baina ezker abertzaletik ere etorri den kontu bat izan dela azpimarratu daiteke. Nolanahi ere, despolitizatze nahi horrek, eta azken finean, neutraltasuna lortzeko grin horrek, diskurtsoa eta baita errepresentazioa ere infantilizatu, leundu eta neurri berean feminizatu egingo dituela azpimarratu genezake.

Izan ere, garai honetan neutraltasun eta leuntze hori aurrera eramateko euskara moderno eta hiritar gisara “saldu” nahi da. Baina aldi berean, eta euskara sinpatikoena errepresentatzeko asmoz, aurreko garaietako autentikotasunaren paradigmatara jo izan da. K15 testuan adibidez, supermintzalagunak poxpolin eta baserritar dantzarien jantzi batekin bilakatzen dira superheroi. Edota K16 testuan ere, bertan ageri den hitz-jokoaren bidez euskararen berezitasun, bakartasun hori islatu dezake. Hau da, #mundiala traolarekin argi dago munduko hizkuntza moderno gisara errepresentatu nahi izan dela euskara. Baina “mundiala” kontzeptuak aldi berean “bikaintasun” batekin, bakartasun edota berezitasun batekin ere izan lezake lotura.

Horretaz gain, dibertigarritasun, gozagarritasun eta leuntasunarekin batera, aukeraren gaia sartzen da diskurtsoan. Hau da, euskaraz hitz egitearen argumentu nagusiak ez dira “eta kितto!” bezalako esaldiak izango. Desiraren, nahia-
ren eta azken finean, aukeraren kontua barneratuko da diskurtsoan. Aldaketa hori egokien K14 testuak islatzen du. Diskurtso aldaketa honekin lotuta, badi-
rudi “inposizioaren diskurtsoari” ere ihes egin nahi zaiola. Hau da: *“Erreparatzen badiogu, hizkuntzaren auzian horixe leporatzen zaio euskarari –eta, horrenbestez, euskaldunen eta euskaltzaleen komunitateari–: inposatzailea izatea”* (Eskisabel & Agirre, 2019: 66).

Inposizioaren diskurtso horretatik ihes egite horretan, hortaz, eta baita gozagarritasun eta leuntasun bat eskuratu nahian, aukera edota nahia-
ren kontua sartzen da diskurtsoan esan bezala. Une honetantxe, eta garai honetako tes-
tuetan ikus litekeen bezala, diskurtsoaren ardatza subjektu indibiduala izatera
igarotzen da. Hau da, K12 testuan esaterako, “Zuk uste duzuna baino gehiago
dakizu” esaldiarekin hartzaile indibiduala iradokitzen du testuak. K14-an bes-
talde, “euskaraz bizi nahi dut” aditz singularrarekin euskaraz bizi nahi duena-
ren subjektibitate indibiduala islatzen da. K16 testuan ere sarea osatzen duten

puntu batzuetan hitz batzuk daude idatzita; ezin liteke esan kasualitatez edota marketing estrategia baten bidez, baina kanpoko puntuetan, hau da, egoki irakurri litezkeen puntuen hitzak: nirea eta zurea dira, besteak beste. Eta boro-bilaren barrualdean dauden hiru hitzetatik bi, denona eta geurea dira. Bestalde, K18-ren kasuan ere Euskaraldiko ariketa indibidual moduan planteatu zen –rol aukeraketa norberak egin beharreko kontua baitzen–, nahiz eta testuinguruak eta ariketaren kolektibizazioak ere garrantzia nabarmena izango zituen. Hau da, hiztun komunitateak garrantzia handia izatetik, badirudi indibiduoak edota bakarkako subjektuak ikaragarriko zentralitatea hartu dutela.

Azkenik, aipagarria da hizkuntza zapalkuntza edota menderakuntzaren nozio-rik ez dela ageri garai honetako testuetan –EHerenetan izan ezik–. Hala ere, eta batez ere Euskaraldiko testuan –K18– hizkuntza zapalkuntza bere horretan agian ez, baina hizkuntza gutxiagotu baten aurrean gaudela ondoriozta liteke. “Hizkuntza-ohiturak aldatzen ari gara” esaldiarekin argi uzten baitu adibidez, bestelako hizkuntza-ohiturak ere existitzen direla, eta haiek hauek baino indar gehiago izan dezaketela. Hala nola feminismoaren presentzia bat ere haute-man daiteke Euskaraldiaren baitan, eta honen testuetan. Rol aukeraketaren kontuarekin –ahobizi eta belarriprest rolak–, badirudi genero rolen perfomancean (Butler, 2013) oinarrituta dagoela ariketaren egitate hau. “Aukeratu rola” zioen 2018. urteko Euskaraldia promozionatzeko kantak.

Ildo beretik, eta Euskaraldian planteatzen diren rolei erreparatuta, badirudi modu dikotomiko batean ulertu direla. Ahobizi rolak belarripresta baino prestigio gehiago lortu du (Anduaga & Jauregi, 2019: 51). Hala, bikote hori hortaz, dikotomia moduan ulertua izan da. Hau da, bata bestea baino prestigio gehiagorekin irakurria izan da gizartean. Hala nola, eta hipotesi gisara eta baita K18 testuko ikurrak ikusita ere pentsa daiteke ahobizia “egin”-ekin lotua izan dela. Eta “belarripresta” bestetik, “egon”-ekin. Hau da, zentzu batean ahobizia egitearekin, mugimenduarekin, ekintzarekin lotu izan da, hau da, rol maskulinaztuei lotutako elementuekin. Eta belarripresta aldiz, egotearekin, entzutearekin zehazki. Eta jakina da, entzutea rol feminizatuenetan feminizatuena dela (Lakoff, 1981). Rol horiek, hortaz, modu generizatuan irakurriak izan direla azpimarratu liteke.

Amaitzeko, eta nahiz eta lan honetan 2018. urteko Euskaraldiak markatuko duen testuen azterketaren amaiera, aipagarria da esaterako 2019. urteko Min-

tzapraktika programako K20 testuan zer nolako aldaketa sumatzen den. Parte hartzaile errepresentatuei dagokienez, denetariko pertsonak ikus genitzake. Eskuz margotutako marrazki baten bidez errepresentatzen dira pertsonak, baina aldi berean ez gaitu fantasiatzko mundu batera eramaten. Eta horretaz gain, hizkuntza komunitatea izango da ardatza irudiz, eta baita idatziz ere, “Tu-tik/Gu-ra” baita esaldia.

Beraz, badirudi beste diskurtso batzuen influentziak ere nabaritzen hasiak direla euskalgintzan ere, esaterako feminismoarenak.

Azkenik, hartzaile/behatzaile inplizituari (Järlehed, 2008: 49) dagokionez, eta erabilera testuen zentroan dagoen heinean, garai honetako testuen hartzailea euskal hiztuna dela esan liteke.

Hala nola testuen produkzioari erreparatuta, HPS eta Topaguneak markatuko lukete diferentzia. Hau da, bi eragile horienak dira testu gehienak, hortaz, esaterako EHEren testuek bestelako hartzaile bat izan balezakete ere –aurreko hamarkadetako hartzailearengandik gertuago egongo litzatekeena–, hartzaile/behatzaile inplizitu orokorra, neurri batean, bi eragile horien testuen bidez definitu liteke.

Aipatu den gisara, euskarari gozagarritasuna, dibertigarritasuna eta baita leuntasuna atxikitzeko asmoz, hizkuntza infantilizatu dela esan liteke. Hala nola testuek errepresentatzen duten hartzaile/behatzaile inplizitua ere neurri batean infantilizatu egingo da. Infantilizazio hori, bi erataratu lotu liteke hartzaile/behatzaile inplizituaren feminizazioarekin. Batetik, azpimarratu liteke emakumeen infantilizazioa praktika orokortu bat dela gizartean. Hala nola feminitatearen adierazleetakoa bat litzateke hauskortasuna; babes behar bat azken finean, edota jarrera paternalistekin norbaitek “salbatu” behar bat. Hauskortasun, babesgabetasun... azken finean, infantilizazio honek, zuzenean lotzen du emakumea, edo hobe esanda feminitatea, nolabait ere, haurtzaroko paradigmeekin (Vega *et al.*, 2019: 164-165).

Eta bestetik, transmisioaren kontua egongo litzateke. Hizkuntzaren transmisioak heldu eta haurren arteko lotura bat sortzen du⁴⁸; edota, kontzeptuak

⁴⁸ Hala ere, puntu honetan komenigarria da Paula Kasares hizkuntzalariak transmisio kontzeptuaren inguruan egiten duen gogoeta bat ere presente izatea: “*Kontzeptuak bere bai-*

bederen, lotura hori berarekin dakar. Hala nola, eta aurretik ere ikusi dugun gisara, XX. mende hasierara arte, emakumeek hizkuntzaren transmisio naturalaren ardura izan zuten, hau da, etxeko transmisioarena. Ikastolen sorrerarekin, aldiz, emakumeek hartuko dute hizkuntzaren transmisio kulturalaren ardura; hezkuntza formalean ematen den hizkuntza transmisioarena, alegia (Kasares, 2015: 20). Hau da, emakumeak, hizkuntza eta haurrak hirukoa lotuta egon izan dira beti. Hargatik esan liteke, garai honetako testuek dakarten infantilizazioak transmisioaren bidez ere feminitatearekin baduela loturarik.

Honenbestez, beste garai batzuetan baino askoz ere argiago aztertu liteke 2000-2010eko hamarkadetan hartzaile/behatzaile implizituaren figurak nolabaiteko feminizazio bat jasan izana. Hartzaile/behatzaile implizituaren kategoriak ez ezik, aztertu ditugun beste kategorien bidez ere, esaterako diskurtsoaren despolitizazio, infantilizazio eta, neurri batean leuntasunak ere, euskararen errepresentazioa feminitatearekin lotzea ekarriko luke.

4.2. EUSKARAREN ETA EUSKAL HIZTUNEN TRANSFORMAZIOA

Ikerlan honetako analisisiko lehen puntuan, hau da, aurreko atalean, garai historiko ezberdinak ardatz harturik euskarari testu multimodaletan eman zaion esanahia aztertzea izan da helburua. Hala nola, eta fitxetako analisiak oinarri izanda, hamarkada ezberdinetan zentratu gara lehen analisi horretan. Garai historiko bakoitzetik, eta bertan aztertutako testuetatik, esan liteke ez dugula begirada jaso; hau da, ez dugu irakurketa global edota diakroniko bat egin garai historiko ezberdinetako testuak erkatuz, eta gizarte zientzietako kontzeptu ezberdinen optikatik irakurketak eginez. Hortaz, irakurketa orokor eta diakroniko bat egiteko asmoz, eta oro har, euskarak eta euskal hiztunak bizi izan dituzten transformazioak aztertzeke helburua izango du analisiaren bigarren atal honek. Horretarako, analisi honetako lehen puntuan euskalgintzako

tan duen ideia goitik behetikoa eta noranzko bakarrekoa, gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana doana, ez da egun euskal hiztun berriak hazten diren testuinguru guztiak biltzeko gai” (Kasares, 2014: 27).

testu multimodaletako diskurtsoaren hizkuntza ideologiak aztertu nahi izan dira, alde batetik. Eta bestetik, euskara eta identitatearen arteko lotura eta binomio honen aldaketak analizatu nahi izan dira.

4.2.1. Hizkuntza ideologiaren bilakaera

Aztertutako testu ezberdinetan zehar, argi eta garbi ikusi ahal izan da euskararen esanahiak bilakaera bat izan duela. Hau da, 1960-1970eko hamarkadetan, euskara testuetan parte hartzaile errepresentatu batzuen bidez irudikatua izan zen; 1980-1990ekoetan, beste elementu batzuen bidez; eta XXI. mendean, beste ezberdin batzuen bitartez.

Euskarari, eta parte hartzaile errepresentatu zein testuetako diskurtsoaren bidez, balio eta ideia konkretu batzuk esleitu izan zaizkio. Hau da, testuak hizkuntza ideologia bat ardatz hartuta sortuak izan dira; eta aldi berean, hizkuntza ideologia bat transmititu dute jendartean.

Hizkuntza ideologia gisara uler genezake, jendarte batek hizkuntza bati erantsen dizkion balio, ideia eta sinesmenen multzoa:

“Hizkuntza ideologia batez ere, hizkuntza antropologian eta soziolinguistikan erabiltzen den kontzeptua da, hizkuntzari, hizkuntzei, hizkerari edo hauen erabilerei buruzko edozein sinesmen edo ideia sortari erreferentzia egiteko” (Artetxe, 2019: 229).

Hala nola hizkuntza ideologiak ez dira soilik hitzen bidez adierazten diren eraikuntza mentalak, hauek praktika eta disposizio ezberdinen bidez gorpuztu egiten dira, eta materializatu ere egin litezke errepresentazio bisualen bidez (Woolard, 2021: 2).

Hau da, 1960 eta 1970eko hamarkadetan, euskara errerepresentatzeko nekazal eremuko paradigmeekin lotu genitzakeen soka lodiak, lauburuak, ikurrinaren koloreak... erabili zirela aipatu dugu. Hala nola garai honetan, euskara eta euskal identitatea lotzen joan zirelarik. Eta euskaran ardatzen den identitate hori, tradizioarekin, autentikotasun batekin lotua izan zela esan liteke. Hala ere, “Bai

Euskarari” kanpaina entzutetsuko testuarekin (K03), euskara abangoardia batekin lotua izan zen. Baina garai honetan, euskarak tradizio zein abangoardia-rekin lotura izanik ere, beti herri batekin, leku batekin lotura duen antzinako hizkuntza gisara errepresentatua izan zen. Aurretik aipatu dugun, “Bai Euskararari” kanpaina amaierako testuan Aita Villasantek (1978) zioen moduan: “...*Euskara da gure herriak duen bereizgarririk agiriena, gure asabegandik dator-kigun ondasun paregabea*”.

Hala ere, hurrengo hamarkadetan izango du tokikotasunak, edota euskara lurralde espezifiko jakin bateko hizkuntza gisara ordezkatzek bere erre-presentazio gorena. 1980-1990eko hamarkadetan oro har, nazioa eta baita hizkuntza errepresentatzeko ere, iraganarekin lotu litezkeen elementuak erabiliko dira: mendiak, baserriak, gerra argazkiak, gudariak... Eta bestalde, eta neurri handi batean, lurraldetasuna adierazten duten mapek presentzia nabarmena izango dute; euskara eta Euskal Herria ezin banatuzko binomio gisara errepresentatuz.

Hurrengo hamarkadetan, aldiz, hau da, XXI. mendearen etorrerarekin, despolitizazio eta diskurtsoaren leuntze bat eman nahi izan da. Horretarako, euskara fantasiako elementuekin –superheroiak, elementu antropomorfoak, kolore biziak...– lotu da. Eta baita modernitatea eta hiritartasuna errepresentatzen duten elementuekin ere –skylineak, sare sozialekin lotu genitzakeen ikurrak...–.

Hala nola euskarari autoritatea, edota balioa elementu ezberdinen bidez eman nahi izan zaio euskalgintzako testuetan. Elementu horiek, testu ezberdinetan aztertuak izan diren objektu eta diskurtsoek alegia, hizkuntza ideologia bat izango dute muinean; hizkuntza ideologia batetik sortuak izango dira, eta ber-rau errepresentatu edota barreiatu nahi izango dute.

Hizkuntza ideologiei buruzko kasu-azterketak aztertuz gero, esan liteke mendealdeko gizarte modernoetan hizkuntzen autoritatea bi konplexu ideologikok sostengatzen dutela. Hau da, hizkuntza bati ematen zaion autoritate edota legitimitateak bi sistema ideologiko izango ditu oinarritzat, eta horien araberakoa izango da gizartean hizkuntza horrek duen balioa. Bata *autentikotasunaren* ideologia –benetakotasuna, tokikotasuna... izango dituelarik ardatz–. Eta bestea, *anonimotasunaren* ideologia –hau neutraltasunaren parametroetan eraiki, eta hor lortuko du autoritatea– (Woolard & Gal, 2001).

Bi konplexu ideologiko horien muinean, bi familia ideologiko handi aurki genitzake. Hau da, autentikotasunaren hizkuntza ideologia ideologia erromantikoaren balio sistematan du oinarria. Eta, aldiz, anonimotasunaren hizkuntza ideologiaren bidez autoritatea daukaten hizkuntzek, arrazionalismoaren ideologian, edota balio sistematan izango lukete erroa (Woolard, 2005).

Izan ere, autentikotasunaren ideologiaren arabera, hizkuntza edo hizkuntza aldaera baten balioa komunitate jakin batekiko duen harremanean datza. Autentiko edo benetakotzat joko da komunitate horren adierazpide propioa den hizkuntza, berezkoa, komunitate horren esentziaren adierazpidea, alegia. Toki-kotasunak emango dio autoritatea hizkuntzari:

“La ideologia de l'autenticitat ara s'associa característicament amb llengües minoritàries i varietats no estàndards, les quals tenen un valor altament local. En contrast amb la veu pública i anònima, la veu autèntica és sentida com a profundament arrelada, ja sigui en els redutes muntanyosos on es troba la puresa rural o en els carrers plens de sentiment del gueto urbà, on la gent autèntica està ocupada vivint amb autenticitat, keepin' it real, com diuen als Estats Units. En contrast amb la koiné anònima o estàndard, els parlants són ben conscients que les varietats minoritàries són –d'algun lloc. Si no es pot identificar com a arrelada en un territori social i geogràfic, li manca valor” (Woolard, 2008: 183).

Hortaz, hizkuntza gutxituei autoritatea konplexu ideologiko honen bidez eman izan zaie. Eta Miren Artetxe ikerlari lapurtarrak dioen moduan, ez da kasualitatea:

“Europako XIX. mendeko modernizazio proiektuek hizkuntza gutxituetako hiztunak botere ekonomiko eta politikotik bazterturik, mugikortasun soziala eta hizkuntza mudantza (eta ondorioz, belaunaldi arteko transmisioaren etena) eskutik joan izan dira pare bat mendez hizkuntza gutxituei dagokienez. Eta nazio-estatu nazionalismoek nola, hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduek ere Europan hegemonikoak ziren etnonazionalismoari loturiko ideologia izan zituzten oinarrian: biztun komunitate ezberdinek naziotasun ezberdinak ordezkatzen dituztela defendatuko zuten” (Artetxe, 2019: 232).

Jada arestian aipatu den gisara, argi eta garbi ikus liteke lehenengo bi etapetako –1960, 70, 80, 90eko hamarkadetako– testuetan autentikotasunaren ideo-

logiatik sortuak direla testuak. Lehenengo bi hamarkadetan eta euskalgintza garaikidearen sorreran, nekazal eremuko elementuek eta ikurrinaren koloreek emango diote esanahia euskarari. Hala, esan liteke, batez ere 60ko hamarkadan, euskara nolabait ere folkloreatrengandik gertu egon zitezkeen balioen bidez errepresentatua izan zela. Erromantikoa zen euskara neurri batean, eta lauburu zein nekazal eremuko elementuen bidez errepresentatua izan zen.

Era berean, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan euskarari ematen zaizkion esanahiak ere autentikotasunaren eraikuntza ideologiko honen baitan kokatu litezke. Edota berau oinarritzat harturik sortuak izan zirela esan daiteke. Baina lehen hamarkadetako erromantizismoa atzean utzita, oldarkortasunaren bide-tik, nazioaren errepresentazioak hartuko du “lauburuaren” lekua. Hau da, aurreko hamarkadetako kutsu erromantikodun elementuak jarraituko dute egoten testuetan –mendi paisaia bukolikoak, baserriak, ikurrinak...–, baina batez ere euskara naziogintzaren baitan kokatuko da. Euskal Herria errepresentatzen duten mapek hartuko dute erdigunea, eta diskurtsoa ere oldarkorrago bihurtuko da: “Euskal Herrian Euskaraz eta kitto!”, “Aberria euskaraz”... Neurri batean, 80ko hamarkadako Euskal Herriko testuinguru soziopolitikoaren isla lirateke garai honetako testuok, garai gatazkatsuak izan baitziren urte hauek Euskal Herrian.

Hala nola, lehen bi etapetako euskararen errepresentazio edota esanahia autentikotasunaren ideologiaren baitan kokatu liteke, partikularitasunen bidez adierazi izan baita euskara; euskal nortasunarekin –tokikotasun zehatz batekin– guztiz lotuz.

Baina generoari erreparatuz gero, bilakaera bat atzeman daiteke lehen bi etapa hauetan. Lehen etapako testuetan euskara generikoki ere trantsizio batean aurkituko da. Hau da, lehen nazionalismoaren baitan –eta gai hau aurrerago jorratuko dugun arren– euskara eta honen transmisioa emakumeen esku gelditu zen. Hau da, garai honetan emakumeek izango zuten euskararen transmisioa bermatu beharra; familia bidezko hizkuntzaren transmisioaren bidez, eta aurrerago, baita hezkuntza formalaren baitan ematen zen transmisioaren bidez ere, adibidez, ikastoletan (Llona, 2002). Hala nola 60ko hamarkadako testuetan oraindik ere transmisio eta “emakumetasun” horren arrastorik aurki liteke. Adibidez, eskolako umeen irudiak ageri zaizkigu testu batean (K02). Hala ere, euskal identitatea

euskararen ardatzen doan heinean, euskara maskulinizatzen joan zela esan liteke. Lehen etapa honetako bilakaeran ikus genezake euskara lehendabizi nekazal eremu nahiko maskulinizatu batekin errepresentatua izan zela; eta ondoren, aldiz, abangoardiarekin ere izango du lotura. Goian aipatu gisara, hortaz, lehen garai honetako testuek, nahiz eta generikoki trantsizio batean aurkituko diren, maskulinizatorako joera bat izango dute. Ume eta eskolak atzean utzi, eta nolabait ere oldartzen joango baita diskurtsoa. Hau da, 80ko eta 90eko hamarkadetako testuetan, eta bi familia abertzaleen arteko gatazka egoera tarteko, euskalgintza “gogortzen” edota oldartzen joan zela esan baitaiteke. Hala nola gatazka egoera honetan sortutako testuetan, oldarkortasuna eta neurri batean biolentzia izango dira nagusi; eta euskarari ere esanahi horiexek esleituko zaizkio. Euskalgintzako testuek ezkerreko mugimendu iraultzaileen testuen antz handia hartuko dute; batez ere Amnistiaren aldeko mugimenduaren bueltan sortutakoena. Hau da, euskalgintzako testuak normatiboak izango dira; eta neurri batean oldarkortasunaren ardatzutako maskulinitatea errepresentatuko dute.

Laburbilduz hortaz, lehen garai honetan, eta autentikotasunaren ideologia oinarritzat harturik eraikiko den arren euskararen esanahia generoa aintzat hartuta, nolabait ere, trantsizioan edo aldaketan dagoen genero batetik maskulinitaterako saltoa emango du euskararen esanahiak.

Hala ere, eta autentikotasunaren ideologian oinarritutako testuak atzean utzi nahirik, euskalgintzatik orokorrean, eta batez ere euskalgintza instituzionaletik, anonimotasunaren ideologiaren bidea hartu nahi izan da XXI. mendean. Jada behin baino gehiagotan aipatu izan da 1995. urtetik aurrera Eusko Jaurlaritza eta AEKren “bake-sinatzearekin”; Topagunearen eratzearekin eta Kontseiluen sorrerarekin, euskalgintzak estrategia aldaketa bat markatu zuela mende berriarekin batera.

Hala nola testuetan ere ikusi ahal izan dugu aldaketa hori. 1998. urtean Kontseiluak aurrera eraman zuen “Bai Euskarari” kanpaina entzutetsuarekin batera, euskarari bestelako esanahiak eman nahi izan zaizkio. Kanpaina horretako testuak (K10) hortaz, inflexio puntu bat irekiko du. XXI. mendearekin batera, euskara despolitizatu nahi izango da. Euskara denontzako tresna “neutroa” bilakatzea izango dute nolabait ere helburu garai honetan euskalgintzatik sortutako testu eta diskurtsoek.

Neutraltasun eta nolabaiteko unibertsaltasun hori lortzeko asmoz, euskarari autoritatea anonimotasunaren ideologiaren bidez eman nahi izan zaiola esan liteke. Honela definitzen du Kathryn Woolard antropologo Estatu Batuarrak anonimotasunaren ideologia hau:

“Dins una ideologia de l’anonimat, l’autoritat lingüística d’una llengua estàndard comuna no és localitzada, sinó desarrelada i universalista. D’acord amb aquest raonament, les llengües públiques poden representar tothom i ser usades igualment per tothom, precisament perquè no pertanyen a ningú en particular. Les llengües públiques es posicionen com a universalment obertes i disponibles per a tothom” (Woolard, 2008: 180).

Euskararen esanahia, hortaz, edota honen autoritatea, autentikotasunaren ideologian oinarritzetik, anonimotasunean oinarritu nahi izatera igaroko da. XXI. mendeko testuetan, tokikotasun, lurraldetasun eta partikularitasun oro ezabatu nahi izango da. Lauburu, ikurrin, gudarien edota Euskal Herria errepresentatzen duten objektuen lekua, skylinek, elementu antropomorfoek, sare sozialetako elementuek edota superheroiek hartuko dute. Anonimotasunaren ideologiak bere baitan daraman neutraltasun eta unibertsaltasun bat errepresentatu nahi izango da horrela. Euskarari modernitatearen, edota arrazionalitatearen esanahiak atxiki nahi izango baitzaizkio.

Hala nola, eta neutraltasunerako, despolitizaziorako edota “sinpatikotasunerako” saltoan, badirudi euskarak infantilizazio, eta neurri batean feminizazio prozesu bat bizi izan duela. Egitate hau aztertzeko, oso interesgarria da Simon May filosofo ingelesak “El poder de lo cuqui” liburuan egiten duen irakurketa. Ikerlari horren arabera, Bigarren Mundu Gerraren ostean, nolabaiteko mundu ikuskeraren eta bizitza ulertzeko modu berri baten sorrera eman zen; “kukismorako” joera bat, alegia. Kukismoa ingelesezko *cute* hitzetik dator eta adjektibo bat da: “*Los elementos u objetos cuquis son inocentes, atractivos y cautivadores, en especial como lo son los niños pequeños*” (May, 2019: 38). Hala, kuki gisara identifikatzen ditu May-k gaur egun horren ezagunak diren “Hello Kitty”, “Pikachu” edota “Mickey Mouse” bezalako fikziozko pertsonaiak.

Bestalde, hartzaileari kukismoa transmititzeko prozesuak indarra kentzen die bere objektuei, eta egoera barregarrietan jartzera behartzen ditu, benetan dire-

na baino ezjakin eta ahulago sentiaraziz. Kukismo hori transmititzeko prozesu horretan, objektuek izate propio bat eta itxura fisiko jakin bat hartzen dute: gorputz forma borobila hartzen dute; gorputza baino buru handiagoa; begi handiak; masaila puztuak; gorputz-adar motz eta lodiak... Ezaugarri horien bidez, hortaz, goxotasunarekin eta otzantasunarekin lotzen ditugu elementu edota objektu ezberdinak:

“Esas cualidades cautivadoras que invocan una existencia de perfecta inconciencia, docilidad y dependencia, libre de toda contradicción y complejidad, constituyen lo que cabría llamar “dulce”(…) También aquí, encontramos mininos que juegan con ovillos de lana, bebés con rodillas regordetas y caras de pan con ojos muy abiertos y brillantes y una piel inmaculada, y el cachorrillo de ojitos bondadosos, orejas caídas y pelo suave” (Ibid.: 28).

Definizio hori kontuan izanda, *kuki* gisara ezaugarritu genitzake esaterako euskararen ikur izan diren *Ukan* birusa edota *Euskararen Txantxangorria*. Ukan birusaren kasuan, kukismoak erabili izan ohi duen beste tresna bat ere erabili izan da; bizirik ez duten objektuei bizia ematerena, alegia. Aurretik behin baino gehiagotan aipatu den, antropomorfismo hori.

Interesgarria da bestetik, filosofo eta ikertzaile anglosaxoiak Mickey Mouse pertsonaiaren inguruan egiten duen gogoeta. Disney ekoiztetxeak pertsonaia hau sortu zuenean, 1928. urtean, Mickey ez zen gaur bezain gozoa; ez fisikoki, ezta bere jarrerari dagokionez ere:

“En sus primeros años de carrera, su cabeza, frente y ojos eran más adultos, es decir: más proporcionados con respecto al resto de su cuerpo; sus orejas estaban más adelantadas, y sus piernas, brazos y nariz eran más rectos y afilados. En cuanto a la conducta, solía ser en esos primeros tiempos un busca vidas sin escrúpulos, un individuo revoltoso, incluso ligeramente sádico. Caminaba en actitud altiva, en lugar de con torpeza, y se buscaba problemas en lugar de evitarlos. Lejos de ser un santurrón que rescata a desvalidos, respeta a sus semejantes y se ventila a criaturas de mala voluntad, Mickey putea a los débiles, les toca las partes y no carece de malas intenciones” (May, 2019: 46).

Baina Bigarren Mundu Gerraren ostean, Mickey antipatiko eta ezatsegin hau samurtzen eta goxatzen joango da, baita fisikoki ere: gorputza borobilduz,

burua handituz, traketsago ibiliz... eta May-ren arabera, ez da kasualitatea justuki Bigarren Mundu Gerraren ostean Disneyko sagurik famatuenak nolabaiteko trantsizio eta *kukitze* bat bizi izatea:

“Lo nuevo eran los horrores sin paragon de las dos guerras mundiales; o, en todo caso, la negativa de la poblacion a seguir tolerando los desastres de la guerra: su firme decision de crear finalmente un mundo a salvo de la letal enemistad entre paises, un mundo seguro para los instintos mas nobles de la humanidad. La Primera Guerra Mundial, aun habiendo sido terrible, todavia no habia logrado suscitar esa nueva voluntad. Hubo que esperar a la segunda para que estadounidenses, europeos y lo que es crucial, los japoneses, se vieran dominados por el rechazo a la violencia y la crueldad; por el deseo arrollador de vivir en un mundo de inocencia, buenos sentimientos y cooperacion, en aquellos terribles padecimientos quedaran abolidos y la agresividad humana fuese finalmente aplacada (...) Al termino de la guerra, Estados Unidos se habia convertido en el pais mas poderoso del mundo, y tal vez, de toda la historia de la humanidad, pero tampoco fue inmune a ese anhelo de cooperacion pacifica, de una seguridad y orden logrados no a traves de una actitud amenazante, sino precisamente de lo contrario. En efecto, Estados Unidos desempeñó un papel señero en la creacion, desarrollo y fomento de las grandes instituciones de cooperacion internacional surgidas a partir de aquella guerra –FMI, Banco Mundial, la Comunidad Europea, la Naciones Unidas y –, todas ellas inspiradas en muchos aspectos por los mismos sentimientos que el nuevo y mas dócil Mickey Mouse” (May, 2019: 49).

Mickeyren transformazioa, eta kukismoarekiko nolabaiteko gorazarrea, bake nahi batekin, eta gerran parte aktibo izan ziren herrialdeen itxuraldaketa batekin lotzen du May-k. Gerrak utzitako sarraskiaren ondoren, eta oldarkortasun guztiaren erdian, munduko lehen potentzia gisara gelditu zen herrialdearen ikurra ezin baitzuen izan sagu maltzur batek (*Ibid.*: 51).

Hala nola, eta Mickeyren transformazioa aitzakiatzat hartuta, paralelismo bat egin liteke euskarari eman zaion esanahiarekin eta honek izan duen eraldaketarekin. Hau da, 80-90eko hamarkadetan, euskara guztiz politizatu zen, nolabait ere oldartu. Era berean, euskararen gaiak berak euskaltzaleen artean ere gatazka eragiten zuen; bi familia abertzaleen gatazken erdian, garaiko horren errepresentatiboa zen biolentziaren bidez, edota elementu horren baitan, irudikatu baitzen euskara. XXI. mendearekin batera ordea, eta euskalgintzaren

hirugarren garai historikorako saltoa ahalbidentu zuten egitate historikoak⁴⁹ kontuan izanda, euskararen despolitizazio bat eman nahi izan zen; neutraltasun bat; anonimotasun bat, azken finean.

Haatik, eta euskararen esanahia leuntze eta despolitizatzeko aldera, Euskal Herria errepresentatzen duten mapen ordez, edota “gudarien” ordez, fantasiako munduarekin eta kukismoaren horren errepresentagarri diren figura antropomorfoekin irudikatuko da euskara. Ez da kasualitatea hortaz, garai gatazkatsu horri amaiera eman, eta euskararen esanahia aldatze aldera, leuntze aldera, euskarak ere –Mickey bezala– kukismoa baliatzea, sinbolikoki bederen, euskarari beste esanahi bat aitortu eta esleitzeko. Esaterako eta adibide gisara, nolabaiteko kukismo prozesu hori ondo errepresentatzen dutela esan liteke Zumetaren “Bai Euskarari” kanpainako usoak, eta handik hamarkada batzuetara sortutako Euskararen Txantxangorriak. Biak dituzte kolore berdinak –gorria, zuria eta beltza–, biak dira txoriak... Baina lehenengoa artelan abstraktu baten gisara definienezake edo baita, askatasunaren ikurtzat ere; eta bigarrenean aldiz, May-k kukismoaren ezaugarri gisara definitutako borobiltasuna, trakes-tasuna... ikus genitzake.

Hortaz, eta jada aurreko atalean ere aipatu den gisara, euskararen esanahia, neurri batean anonimotasuna bilatze horretan, eta aipatutako kukismoa sortzeko teknika ezberdinak erabilita, infantilizatu egingo da. Infantilizazioa eta feminitatea zentzu batean txanpon beraren bi aurpegi izango lirateke. Batetik, azpimarratu liteke emakumeen infantilizazioa praktika orokortu bat dela gizartean. Hala nola feminitatearen adierazleetako bat litzateke hauskortasuna; babes behar bat azken finean, edota jarrera paternalistekin norbaitek “salbatu” behar bat. Hauskortasun, babesgabetasun... azken finean, infantilizazio honen zuzenean lotzen du emakumea, edo hobe esanda feminitatea, nolabait ere haurtzaroko paradigmeekin (Vega *et al.*, 2019: 164-165).

Eta bestetik, transmisioaren kontua egongo litzateke. Hizkuntzaren transmisioak heldu eta haurren arteko lotura bat sortzen du⁵⁰; edota kontzeptuak be-

⁴⁹ 1995. urtean hasiko da hirugarren etapa historiko hau: AEK-Jaurilaritza akordioarekin; Topagunearen sorrerarekin; eta azkenik, “Euskararen Unibertsoa Jardunaldiekin”.

⁵⁰ Hala ere, puntu honetan komenigarria da Paula Kasares hizkuntzalariak transmisio kontzeptuaren inguruan egiten duen gogoeta bat ere presente izatea: “Kontzeptuak bere bai-

deren, lotura hori berarekin dakar. Hala nola, eta aurretik ere ikusi dugun gisara, XX. mende hasiera arte, emakumeek hizkuntzaren transmisio naturalaren ardura izan zuten, hau da, etxeko transmisioarena. Ikastolen sorrerarekin, aldiz, emakumeek hartuko dute hizkuntzaren transmisio kulturalaren ardura; hezkuntza formalean ematen den hizkuntza transmisioarena alegia (Kasares, 2015: 20). Hau da, emakumeak hizkuntza eta haurrak hirukoa, lotuta egon izan dira beti.

Hargatik eta anonimotasuna bilatu nahi horretan, esan daiteke euskararen esanahia infantilizatu, eta neurri batean feminizatua izan dela.

Etengabe aipatu da orri hauetan anonimotasuna lortu nahi bat; nahia. Baina anonimotasunaren ideologian sustengatzen diren hizkuntzak, hizkuntza nagusiak izan ohi dira. Hau da, euskarak, edota euskararen gisako hizkuntza gutxituek, autoritatea partikulartasunen bidez –autentikotasunaren bidez, azken finean– lortzen dute: euskara Euskal Herritarren hizkuntza; ergatiboduna; Europako hizkuntzarik zaharrena; euskalkiduna... Hizkuntza nagusiak, aldiz, “denenak” dira, unibertsalak, eta munduko edozein pertsona komunikatzeko balio lezaketenak; ingelesa kasu.

Hortaz, eta euskarari politizazio eta gatazka kutsu oro kentze aldera anonimotasunerako salto bat eman nahi izan den arren, esan liteke ez dela guztiz lortu. Anonimotasunaren ideologiaren sistematik hizkuntza bat hauteman ahal izateko, gizarteko instituzio sozial boteretsuenen babes eta proiektu politiko oso bat beharko bailuke: *“Sota el poder persuasiu d’escoles i mitjans de comunicació, la gent arriba a aprovar el poder d’una llengua com a naturalment inherent a la llengua mateixa —una llengua “d’enlloc”* (Woolard, 2008: 182).

Hau da, anonimotasunerako saltoa emateko proiektu politiko oso baten beharra egongo litzateke; EITB bezalako hedabideek apostu potoloa egin beharko lukete; hizkuntza politika indartsu baten beharra ere egongo litzateke... Zentzu horretan, eta Donostiako Bagera euskara elkarteak 2020ko urriaren 28an antolatutako “Euskararen diskurtsoak: Zaharrak berri?” izenburupeko jardunaldian Miren Artetxek aipatzen zuen moduan, badirudi autentikotasunaren

tan duen ideia goitik behetikoa eta noranzko bakarrekoa, gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana doana, ez da egun euskal hiztun berriak hazten diren testuinguru guztiak biltzeko gai” (Kasares, 2014: 27).

ideologiatik euskara biziberritu nahiak kale itsu batera garamatzala. Baina bestetik, anonimotasunean oinarritutako diskurtsoa ere nahiko arriskutsua litzateke. Hau da, paradoxikoa da nola eman nahi izan den anonimotasunerako saltoa. Azken finean, euskara markatua izan ez dadin egindako ahalegin markatua baita. Eta Lapurtarrak azpimarratzen zuen moduan: *“Ez dakit gainera, anonimotasunaren ideologiara pasatzen bagara, zenbateraino irabazi dezakegun. Alegia, anonimotasunaren ideologiaren arabera, besteak beti izango baitira normalagoak”* (Artetxe, 2020b).

Bestalde, euskararen esanahiak bizi izan duen trantsizio, eta eraldaketa berbera bizi ahal izan du euskalgintzatik errepresentatu izan den euskal hiztunak. Hau da, Woolard (2021: 3) antropologo Estatu Batuarrek mahaigaineratzen duen moduan, hizkuntza ideologiaren bidez hizkuntzari esleitzen zaizkion atributu edo ezaugarri bertsuak esleitzen baitzaizkio hiztunari ere.

Hau da, lehen bi garaietako testuetan eta autentikotasunaren ideologiapean, euskal hiztunak, euskara bezala, trantsizio bat bizi izango du. Lehen nazionalismotik gertuago zeuden testuen bidez –batez ere K02–, euskal hiztunaren generoa ez da izango batere argia. 196ko. eta 1970eko hamarkadetako testuek ez dute izango genero marka espezifikorik. Badaude jada aipatu den gisara elementu batzuk errerepresentatutako euskal hiztuna ere maskulinizatzen joango dela adierazten digutenak –arestian aipatutako nekazal eremuko elementuak; edota gizon intelektuaren munduarekin lotzen gaituzten ikurrak...–. Hala ere, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, eta euskara oldarkortasun eta gatazkaren paradigma batetik errerepresentatuz, euskal hiztunak ere oldarkortasun, eta azken finean, biolentzia horri dagokion maskulinizazio prozesu bat bizi izango du. Euskal hiztuna “gudari” gisara errerepresentatua izango da hamarkada haue-tako testuetan. Eta azkenik, eta anonimotasunaren ideologia batetik, euskararen esanahia eta errerepresentazioa aldatu nahi izan denean –XXI. mendean sartzearekin bat–, euskararekin batera euskal hiztunaren esanahia eta honen errerepresentazioa ere infantilizatu eta neurri batean feminizatu egingo dira.

Hala ere, eta nahiz eta euskalgintzak euskaren eta euskal hiztunen esanahietan autentikotasunetik anonimotasunerako salto bat eman nahi izan duen, euskararen jendartearen dauden pertzepzioei begiratzen baldin badiegu, denetik aurki genezake.

Euskararen Aholku Batzordeak⁵¹ 2016. urtean euskararen gaineko diskurtsoen azterketa bat egin zuen. Gizartean euskararen inguruan dauden diskurtso ezberdinak ezagutzeko asmoz, beste hainbat ikerketa tekniken artean eztabaida taldeak egin ziren. Eztabaida taldeen dinamikaren baitan, partaideei euskarari erantsi zaizkion esanahiei buruz galdetu zitzairen, eta ondoko kontzeptuekin lotu zuten partaideek euskara: “*Mugatua, infantilizatua, herrikoa, casero e incultos, basarritarrei eta analfabetoei lotuta, lotsa, vergüenza, separatismoa, oztopoa, klitxe, estereotipo, atzeratuta gaude, dificultad, esfuerzo, en desuso...*” (Euskararen aholku batzordea, 2016: 58).

Kontzeptu horiei erreparatuz gero, ikus liteke anonimotasunaren ideologiatik eratorritako *infantilizatua* bezalako kategoriekin lotzen dela euskara jendar-tean. Baina gaur gaurkoz oraindik ere, autentikotasunari lotzen zaizkion ideiek izango dute pisu edota presentzia gehien; baseritarrei eta analfabetoei lotu-tako hizkuntzatzat jotzen baita oraindik ere euskara leku askotan.

Autentikotasunari lotuak dira, era berean, Euskal Herriko gazteek dituzten euskararenganako iritziak ere. Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean egindako ikerketa batean, gazteek euskara Euskal Herriko hizkuntza gisara hautematen baitute; baita Euskal Herriko altxor gisara definitu ere. Hala ere, aipagarria da gazteek hizkuntzari lotutako diskurtso oso mugatua dutela; aurreiritziak eta egindako esaldiak baitituzte nolabait ere helduleku –ikerketan parte hartutako gazteek, bederen– (Soziolinguistika Klusterra, 2020b).

Hala ere, eta euskalgintzak anonimotasunaren bidez despolitizaziorako bide bat zabaldu nahi izan baldin badu ere, Euskararen Aholku batzordeak (2016) egindako, eta arestian aipatu den ikerketan euskarari atxikitako ideia edo pen-

⁵¹ “Euskararen Aholku Batzordea (EAB) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita dago Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, baina bere egitura organikoan txertatu gabe. Euskararen Erabilpena Arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 29. artikuluan aurreikusi zen harreman-organoa da EAB: Jaurlaritzak, euskararen erabileraren normalizazioa ahalbideratzeko, Lege hau gauzatu eta garatze aldera erakunde guztien lanak eta ahaleginak aztertu, bideratu eta bateratzea helburu izango duen topagune bat sortuko du. Hortaz, EABren helburua da hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nabiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzea, bideratzea eta koordinatzea dira” (Eusko Jaurlaritza, 2019).

tsamoldeen artean politizazioaren gaia ageri da. Hau da, euskara jarrera edo ideologia konkretu batekin lotura duten pertsona batzuen kontutzat hartzen dute gizarteko hainbat sektorek. Are gehiago, euskara arma politiko gisara erabilia izan dela ere azpimarratzen da.

Hala nola, eta euskalgintzak azken hamarkadetan euskarari modernizazioa eta hiritartasuna bezalako balioak esleitzeko lan handia egin duen arren, badirudi jendearen pertzepzioak aldatzea ez dela horren erraza; eta neurri batean behintzat, ez dela lortu euskararenganako pertzepzio edota ideia batzuk aldatzea.

Laburbilduz, eta atal honetan ikusi dugun moduan, euskararen esanahiak, eta baita euskal hiztunarenak ere, bilakaera bat izan dute. Euskalgintzatik lehen bigaraietako testuetan, autentikotasunaren ideologiatik saiatu da euskararen alde egiten; euskara eta euskal nortasuna hertsiki lotuz. Hau da, euskararen partikulartasunean, tokikotasunean edota lokaltasunean azpimarra eginez. Hala ere, eta batez ere 1980-1990eko hamarkadetan euskarak bizi izandako oldarkortze eta politizazio prozesua eteteko asmoz, anonimotasunaren ideologian ardaztutako estrategia baterako saltoa eman nahi izan da. Hala nola, eta generoari erreparaturik, esan liteke maskulinitatek feminizazio baterako trantsizioa egin duela euskararen esanahiak; *kukitze* bat ere bizi izan duelarik.

Hala eta guztiz ere, gaur gaurkoz euskarari ez zaio balio bakar bat esleitzen. Hau da, Artetxek (2020a) aipatzen duen moduan: *“Euskalduna eta euskara umeeekin eta eskolarekin lotzen da, baina, boronokeriarekin ere bai”*.

4.2.2. Euskararen lekua euskal identitatearen eraikuntzan

Euskara, euskal identitatea edota nortasuna, euskalgintza, honen politizazioa... behin eta berriz aipatuak izan dira ikerlan honetan. Izan marko teorikoan, nahiz testu multimodalen analisiaren atalean, ikusi eta aztertu ahal izan da euskarak leku nabarmena izan duela euskal identitatearen eraikuntzan. Eta esan liteke, euskal identitateak ere zeresanik izan duela euskararen aldeko mugimenduan. Hori horrela, atal honetan euskal identitatea edo nortasuna, eta euskara bera, parez pare jarri nahi izan dira; Tejerinak (1999: 75) azpimarratzen duen moduan: *“Lo que sucede hoy en el País Vasco con el proceso de recuperación*

de la lengua sólo puede ser entendido si lo relacionamos con el proceso de construcción de la identidad colectiva vasca”.

Hala nola, eta arestian aipatu den gisara, euskal nazionalismoa –beste edozein nazionalismoren gisara– nortasun ardatz ezberdinen baitan eraikia izango da garai historiko ezberdinetan. Nazionalismoak berau eraiki, eta bere nazioki-deen nortasunak ardazteko sinbolo ezberdinak balia baititzake:

“Edozein erataria, naziokide dituen herritarrak hainbat ideiarengatik biltzen abalegintzen da, oro har, nazionalismoa; horretarako, bitarteko politikoak eta arrazionalak erabil ditzake, edo identitatearen eta sinboloen eremuak jo dezake gehiago” (Odriozola & Zabalo, 2014: 68).

Izan ere, eta 2.1. atalean ikusi dugun gisara, euskal nazionalismo goiztiarra arrazan ardaztua izan zen. Hau da, Sabino Arana Bilbotarra izan zen euskal nazionalismo horren ideologo nagusia. Euskal nortasunari proiektio politiko berri bat ematen saiatu zen. Horren teoriaren arabera, euskal naziotasuna bost elementutan oinarritzen zen: arraza, hizkuntza, gobernu eta legeak, izaera eta ohiturak eta nortasun historikoa. Hala nola guztiek ez dute izango garrantzi bera. Arraza izango da identitate nazionalaren erdigunean egongo dena. Hau da, euskal naziotasuna arrazaren bueltan eraikia izango da XIX. mende amaieran (Tejerina, 1999: 82). Hala nola Aranarentzat (1965:1713) arraza izango da euskal nazioa eta euskaldungoa ezberdinduko dituen elementua.

Hala ere, Hego Euskal Herriko panorama asko aldatu zen Espainiako Gerraren ondoren. 1936ko gerraren ondoko urteak urte ilunak izan ziren abertzaleentzat, oro har. Hamarkada horietan, Hego Euskal Herriko gizartea eta ekonomia izugarri aldatu ziren, neurri handi batean industrializazioaren eraginez, eta horrek ekarritako migrazioaren poderioz. Buruzagi abertzaleak gerra galdu ondoko etsipenak jota zeuden, eta nolabait ere galduta sentitzen ziren gizartean gertatzen ari ziren aldaketa haien guztien aurrean, zehazki nola jokatu ez zekitela. Baina 50eko hamarkadan, bazegoen gazte belaunaldi hiriritartu eta nolabait esateko, intelektual bat. Gazte horiek, mende hasierako buruzagi abertzaleen pasibotasuna eta etsipena ikusirik, eta Frankismo garaian Euskal Herriak eta euskarak bizi zuten egoera larria kontuan izanik, egoera hori iraultzeko moduez hausnartzen hasi ziren. Oro har, gazte horien hausnar-

ketetatik bi helburu nagusi finkatu zituzten. Batetik, mende hasierako abertzale haien etsipenari eta pasibotasunari erantzutea, eta bestetik, abertzaletasunaren oinarriak berriro eta aldatzea (Odriozola & Zabalo, 2014: 71).

Guztiz bereizitako bi helburu badirudite ere, elkarrengandik oso gertu, eta zuztar berari loturik leudeke aurretik aipatutako bi helburuak. Hori horrela, mende hasierako buruzagi abertzaleen pasibotasunari aurre egiteko, eta abertzaletasuna berrasmatzeko asmoz, Ekin-ETAren baitan antolatu zen goian aipatutako gazte talde hori. Ekin-ETAk bere lehendabiziko idatzietan Arana-aren arrazaren kontzeptu biologikoa baztertu, eta hizkuntzaren eta kulturaren garrantzia nabarmendu zuen; beste iturri batzuen eraginaren artean Krutwigen (1963) teoriak eraginda. Hala nola euskara abertzaleen aldarrikapen nagusietako bat bilakatu zen 60-70eko hamarkadetan, diskurtso abertzalearen erdigunea hartu baitzuen (*Idem.*).

Beraz, 60ko hamarkadan identitate nazionalak nolabaiteko birkokatze eta birformulazio bat bizi izan zuen. Jada, euskal nazionalismoa ezin izango da arrazaren elementuaren inguruan ardaztu –elementu biologikoetan–. Hizkuntzaren aldagaia euskal identitatearen zutabetzat harturik, lehen arrazaren inguruan ardazten zen euskal identitate hori eskuratu ezin zuten pertsona batzuk berau eskuratu ahal izango zuten; lehen euskaldun jaio behar zen eta hizkuntza identitatearen ardaztat hartuz, euskaldun bilakatu zintezkeen jada.

Hala nola, eta euskal nazionalismoaren ardatza euskarak hartuz, garai honetan nolabaiteko helduen euskalduntze eta alfabetatzearen “boom” moduko bat bizi izan zen. Hau da, euskal identitatea eskuragarri zegoen, eta jendeak, euskararen bidez, euskaldun izan nahi zuen (Tejerina, 1999).

Ikerlan honetan aztertutako testu multimodaletan ere, euskara eta euskal identitatearen ardazte hau aztertu eta analizatu ahal izan da. 1960ko eta 1970eko hamarkadetako testuetan (K01; K02, eta K03) euskara eta euskal identitatea lotzen hasiko dira. Euskararen, eta zentzu batean euskal identitatearen erai-kuntza garai honetan, nekazal eremuko tradizio batekin, edota autentikotasun batekin lotzen dela aipa liteke.

Hala ere, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako testuetan (batez ere K05; K06, eta K07), euskara eta euskal identitatearen arteko lotura inoiz baino estuago

islatzen da. Hau da, kasik, garai honetako testuetan nazioak berak garrantzia handiagoa hartuko du hizkuntzak baino.

Bestalde, aipagarria da eta jada testu multimodalen azterketako atalean islatu den gisara, testuetan euskararen eta euskal identitatearen arteko lotura hori maskulinitatek eraikitzen dela. Hau da, euskarari esanahia emango dioten elementuak –eta aldi berean euskal identitatearen bereizgarri edo ardatzak izango direnak– oldarkortasunarekin, “gudari” estiloko hiztunarekin–hartzai-learekin... izango baitute lotura.

Euskal identitatea eta euskara maskulinitatek lotzen diren bitartean, batez ere 1980ko hamarkadatik 90eko hamarkada erdialdera arte, aipagarria da euskalgintzako testu multimodaleatik euskal identitatea ezabatzeko den momentuan –anonimotasunaren ideologiaren paradigmara igaro nahian–, maskulinitate zantzuak ere, horrekin batera lausotzen direla. Hau da, 2000ko eta 2010eko hamarkadetako testuetan, eta euskararen despolitizazio –zentzu batean euskal identitatearen ardatza izatea utzi nahirik– eta diskurtsoaren leuntze bat eman zedin, testu multimodalei erreparatuz gero, euskara batetik infantilizatu, eta bestetik –edo zentzu batean horren ondorioz–, feminizazio prozesu baten baitan kokatu genezake.

Era berean, 1990eko hamarkada amaieran, ez da soilik euskararen nazionalismoarekiko aldentze bat emango, abertzaletasunaren nortasun ardatza ere mugitzen joango da, eta euskarak nolabait, zentrotik periferiarako saltoa emango du. Hau da, nahiz eta euskara gaur gaurkoz eta modu sinboliko batean euskal identitatearen faktore edota elementu garrantzitsua izan, 90eko hamarkada amaieratik honantz, euskal nazionalismoaren birformulatze moduko bat eman dela esan liteke. Hala nola poliki-poliki lurraldetasunak edota borondatearen faktoreak indartuz joango dira euskal nazionalismoan. Eta motel bada ere, bi egitate horiek euskarari lehen zeukan leku pribilegiatua ostuko diote (Odrizola & Iraola, 2017)

Zentzu horretan, eta euskal identitatearen ardazte berri horren adierazgarri, hainbat ikerlariren artean 2006. urtean burututako “Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran” (Baxok *et al.*, 2007) izenburupeko ikerketaren emaitzak leudeke.

Ikerketa horretan, pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintzarik garrantzitsuenak zeintzuk ziren galdetu zitzaien parte hartzaileei; herritarrek euskal identitatea zer nolako elementuetan oinarritzen zuten jakiteko asmoz. Hala nola bi elementu nabarmentzen dira. Batetik, pertsonak berak euskal herritarra izateko nahia legoke (%42k lehen aukeratzat hautatua). Eta bestetik, Euskal Herrian bizi eta lan egitea (%41). Laugarren aukeratuena litzateke euskaraz hitz egitea (%17).

Horrek erakusten digu, diskurtsiboki edota teorikoki ez ezik, euskal nortasuna euskaldunek beste era batera bizi dutela, eta euskararen ardatza, gaur gaurkoz oraindik ere euskal identitatearen eraikuntzan garrantzitsua baldin bada ere, nolabait alboan edota periferian gelditu dela.

Egitate horrekin batera, hau da, euskal nortasunaren ardatza euskara izatea nolabait ere lagatzearekin batera, euskararen erabileraren feminizazio bat eman da. Hala, aipatu dugu jada ikerlanean zehar euskalgintzako testu multimodaltan euskararen esanahiak feminizaziorako joera bat izan duela. Eta ez hori bakarrik, esaterako K19 testua aztertuz gero, ikus genezake nola ezker abertzalearen baitan ere euskararen esanahiak infantilizaziorako joera bat jasan zuen. Euskara, ume baten bidez errepresentatuko baita. Horrekin batera, erabilerak berak ere, feminizazio bat jasan du.

Arestian aztertutako erabilera datuei erreparatuz gero, 2016. urteko euskararen kale erabilerako neurketetan argi plazaratzen da, emakumezkoek gehiago hitz egiten dutela euskaraz gionezkoek baino. Joera hori, adin talde guztietan ematen da adinekoetan izan ezik. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian portaera hori lehen aldiz hauteman da neurketa honen bidez. Baina beste lurraldeetan, eta aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, joera hau azken hamar urtean zehar atzeman dela esan liteke (Soziolinguistika Klusterra, 2016: 13).

Asko izan litezke joera horren zergatiak. Baina beste autore batzuei erreparatuz gero, erabileraren feminizazio honek transmisioarekin izan lezake lotura. Hau da, emakumeen euskalduntzeak haurren heziketarekin, edota emakumeek jarduera honetan hartzen duten pisuarekin dauka lotura. Bestetik, lanbide edota sektore baten feminizazioak ere euskararen erabileran izango du eraginik. Adibidez, administrazio publikoan lan egiteko euskara eskatzen da, eta administrazio publikoari lotutako lan asko eta asko –adibidez hezkuntza edota osasungintzari lotu-

takoak– guztiz feminizatuta leudeke. Bestalde, gaztetxoekin eta hauen hezkuntza sistema eta aisialdi praktikekin ere izango du lotura feminizazioak. Neskak kulturarekin lotutako aisialdia praktikatzen baitute gehiago, eta mutilek, aldiz, kirola. Eta kirol mundua gaur gaurkoz, gaztelaniaduna da. Hezkuntzari dagokionean azkenik, gaur egun EAEko ikastetxeetan bederen, araua –eta sarri askotan arau esplizitua– euskaraz hitz egitea da, eta arau horren defentsan edo horren arbuioan egongo litzateke euskararen feminizazioaren argudioetako bat. Mutilek, eta beraien maskulinitatea normaren kontra eraikiz, gaztelerara joko lukete; eta neskek aldiz, arauari jarraituz horren femeninoa den men eginez, euskaraz gehiago egingo lukete (Amonarriz, 1995; Altuna, 2016; Hernandez & Altuna, 2017).

Baina erabileraren feminizazioaz gain, euskararen beraren feminizazio bat ere aztertu ahal izan dugu ikerlan honetan. Hala nola testu multimodaletan euskararen esanahiak edota errepresentazioak jasan duen feminizazioaz gain, euskalgintzako ekitaldi ezberdinetan ere emakumeen parte hartzea altuagoa dela azpimarratu liteke. 2018. urteko Euskaraldian esaterako, parte hartzaileen %62,17 emakumezkoak izan ziren. Hau da, erabilera edota ezagutzaren datuekin alderatuz, askoz ere alde handiagoa ikus liteke Euskaraldiko partaidetzako datu horretan.

Hala nola, eta datu horiekin esku artean, bi hipotesi planteatu litezke. Argi eta garbi dago hainbat faktore eman direla azken hamarkadetan euskararen erabilera feminizatzeke. Baina hipotesi gisara, aipagarria izan liteke euskara eta euskal nortasunaren arteko zubia nolabait etete euskararen erabilerak ere feminizazio bat bizi izatea. Hau da, euskal identitatearen nortasun elementua sekula ez da emakumeen esku egon –lehenik arraza eta ondoren euskara–. Lehen nazionalismoan eta euskara nortasun elementu zentrala ez zenean, emakumeen eskuduntzan gelditu zen (Llona, 2002; Del Valle, 1985). Baina euskal identitatearen elementu zentralizat euskara hartu zenean, honen maskulinizazio prozesu bat eman zen. Hori, besteak beste, testu multimodaletan ere ikusi ahal izan dugu, nola euskal identitatea eta euskara maskulinitatearen bidez ezkontzen diren. Egitate hori gaur gaurkoz euskara hegemonikoa den arnaguneetan ere gertatzen da:

*“Hipotesia, beraz, euskalduntasunaren eraikuntza maskulinoaren gainean hone-
la formula liteke: mutil eta gizonezkoen euskal identitatea hizkuntza-maskulini-*

tate normatiboaren binomioa banagaitz gisa eraikitzen dela, bereziki euskararen arnasguneetan, hor delako euskara hegemoniko antzeko” (Agirre & Eskisabel, 2019: 62).

Hala ere, eta gaurko euskal nortasunaren elementu zentralena euskara ez den honetan, pentsa liteke euskal identitatearen zentrotik euskara irtetea honek feminizazio prozesu bat bizi izan duela. Hala nola euskararen zentrotik periferiarako mugimenduak, eta honen erabileraren maskulinitateetik feminitate-rako saltoak lotura izan lezaketela pentsa liteke. Hala ere, azpimarratu behar da identitatearen gaia, eta baita hizkuntzaren erabilerarena ere oso gai konplexuak direla, eta hainbat faktorek izaten dutela eragina horien aldaketa prozesuetan.

Bestalde, eta euskararen erabileraren feminizazioarekin jarraituz, beste hipotesi bat ere mahaigaineratu liteke. Badirudi eta euskararen errepresentazio eta euskalgintzan eman zaion esanahien artean, eta honen erabileraren feminizazioaren artean nolabaiteko lotura bat egotea. Hau da, goian aipatutako erabileraren feminizazioaren kausa ezberdinekin batera, feminizazio honen zioetako bat euskarak sinbolikoki jasan duen feminizazioa izan liteke. Nahiz eta jakin badakigun euskara infantilismoarekin eta feminitatearekin lotzen den gisara, boronokeriarekin ere lotzen dela, gaur gaurkoz.

Laburbilduz, euskara eta euskal identitatea estuki lotuta egon diren –eta gaur gaurkoz oraindik ere zentzu batean dauden– bi elementu dira. Hala ere, euskal identitatearen eraikuntza euskarak duen lekuak zerikusit nabarmena izan lezake honi ematen zaion garrantziarekin, eta baita hizkuntza honen erabilerarekin ere. Hau da, identitatearen eraikuntza prozesuak, eta euskararen generizazioak zerikusia izan lezaketela mahaigaineratu liteke.

Azkenik, eta identitate horren eraikuntza ere zerikusia izan lezakeen beste elementu bat, euskaren subjektua bera litzateke. Hau da, testu multimodaletan aztertu ahal izan dugu gu-tasun batetik ni-tasun batera igaro dela diskurtsoa, eta baita euskararen beraren errepresentazioa ere.

Hala nola, eta subjektuaren errepresentazioari erreparatzeko, ezinbestean gorputzei, testu multimodaletan ageri diren gorputz errepresentatuei, erraparatu beharko diegu: *“Gorputzez hitz egin behar da, gorputzean egiten dugulako geure bizitza politikoa”* (Eskisabel & Agirre, 2017: 16).

1980ko eta 1990eko hamarkadetako testuetan errepresentatuta dauden gorputzak bi eratarra, edota bi esanahiren baitan eraikiak izan direla esan liteke. Batetik, K06 eta K07 testuetan ageri diren gorputz edota pertsonak izango genituzke. Horiek, jendetza irudikatzen dute. Guztiak aurrera begira daude, manifestazio baten bezala. Indarra eta mugimendua sinbolizatzen dutela esan liteke; baita manifestazioak berarekin dakarren protesta ere. 80ko hamarkadako testuetako gorputzek tentsioa dakarte beraiekin, eta gorputz inpertsonalak dira. Hau da, gorputz hauen bidez garrantzitsuena jendetzak dakarren indarra, nolabait ere “blokea” irudikatzea da; kolektibotasuna.

K09 testuan, aldiz, gorputzek bestelako esanahi bat hartzen dute. Hasteko, gorputzen aniztasun bat nabari da. Bestetik, gorputz horien errepresentazioak poza eta alaitasuna islatzen dute. Hala ere, eta gorputzen jarrerak protesta edota tentsioa islatu beharrean alaitasuna islatzen baldin badu ere, gutasun bat, kolektibotasun bat errepresentatzen dute gorputzek. Hau da, euskara eta euskal hiztuna kolektibo edota komunitate baten parte gisara irudikatzen dira 1980ko eta 1990eko hamarkadetako testuetan.

2000-2010eko urteetako testuei erreparatuta, aldiz, K13 eta K15-ean erabiltzen dira “pertsona errealei” dagozkien gorputzak. Orokorrean, azpimarratu liteke gorputzen edota pertsona irudien erabilera urria dela garai honetako testuetan. K13-ren kasuan, errepresentatuta ageri diren pertsonen –Juan Jose Ibarretxe orduko lehendakaria, eta Gabriel Maria Inclan orduko Osasun sailburua– aurka protestatzeko erabiltzen dira Ibarretxe eta Inclani dagozkien ikonoak. Hau da, pertsona horiek ageri diren arren testuetan errepresentatuta, Eusko Jaurlaritzaren aurka protesta egiteko erabiltzen dira bi pertsona hauen argazkiak. Bestalde, aipagarria da aurreko garai historikoko antzera, pertsonak edota giza gorputzak hizkuntza-komunitatea errepresentatzeko ere erabili izan direla; K15 testua kasu. Hala ere, aipatu behar da komunitatearen, edota kolektibotasunaren zantzu hau soilik Mintzalagunen programari lotutako testuetan ageri dela.

Horretaz gain, 2000ko eta 2010eko hamarkadetako testuetako diskurtsoan zentratuz, azpimarragarria da euskara gozagarritasun, edota leuntasun batekin lotu nahian aukera edota nahiaren kontua sartzan dela diskurtsoan. Une horretantxe, eta garai honetako testuetan ikus litekeen bezala, diskurtsoaren ardatza

subjektu indibiduala izatera igarotzen da. Hau da, K12 testuan esaterako, “Zuk uste duzuna baino gehiago dakizu” esaldiarekin, hartzaile indibiduala iradokitzen du testuak. K14-an bestalde, “euskaraz bizi nahi dut” aditz singularrarekin euskaraz bizi nahi duenaren subjektibitate indibiduala islatzen da. K16 testuan ere sarea osatzen duten puntu batzuetan hitz batzuk daude idatzita; ezin liteke esan kasualitatez edota marketing estrategia baten bidez, baina kanpoko puntuetan, hau da, egoki irakurri litezkeen puntuen hitzak: nirea eta zurea dira, besteak beste. Bestalde, K18-ren kasuan ere Euskaraldiko ariketa indibidual moduan planteatu zen –rol aukeraketa norberak egin beharreko kontua baitzen–, nahiz eta testuinguruak eta ariketaren kolektibizazioak ere garrantzia nabarmena izango zituen.

Hortaz, euskararen esanahia, eta baita honen subjektua ere, kolektibotasun, edota gutasun batetik nitasun edota indibidualizazio batera igarotzen da. Errepresentazioak edota euskararen esanahiak testuetan jasaten duen indibidualizazio prozesu horretaz gain, Eduardo Apodaka eta Jordi Morales ikerlarien arabera, EAEko hizkuntza politikak, eta euskararen aldeko mugimenduak oro har –sozialak eta instituzionalak– logika edota arrazionalitate neoliberal baten baitan funtzionatzen duela azpimarratzen du. Are gehiago, autore horien arabera, arrazionalitate neoliberal hori bi modutara adierazten dela mahaigaineratzen dute:

“La racionalidad neoliberal⁵² se presenta en las políticas e iniciativas lingüísticas y su gobernanza de manera doble: en tanto que administración y en tanto que actividad sobre un común. Por un lado, da sentido y legitima las políticas lingüísticas en términos de administración de servicios; una administración bajo la “forma empresa”, según la lógica económica del capitalismo neoliberal y con el conocimiento gerencial experto que la convierte en moderna, eficaz, eficiente o de calidad. Por otro lado, no solo las políticas institucionales, sino también la acción colectiva socio-comunitaria e incluso la vida lingüística cotidiana, adoptan buena parte del sentido y la legitimidad de la racionalidad neoliberal. Se convierte en la racionalidad de la actividad

⁵² “Más que una política económica o una fase del capitalismo, es la racionalidad hegemónica, 'la nueva razón del mundo' o el conjunto de discursos, prácticas y dispositivos que establecen la competencia como principio universal y forma natural de las relaciones humanas” (Apodaka & Morales, 2021: 5).

y la gobernanza sobre un común –la vida social de las lenguas–. En este caso, la racionalidad neoliberal básicamente individualiza y abstrae de las situaciones sociales las competencias y disposiciones psicosociales, de modo que se entienden y viven como disposiciones privadas, cuestión de cálculo económico, de opción personal, pero también de regulación indirecta y de gobernanza. En consecuencia, la vida social de las lenguas es significada como un campo económico, un mercado, entre capitales en competencia por su maximización” (Apodaka & Morales, 2021: 20).

Hala nola, eta Apodakak eta Moralesek aipatzen duten arrazionaltasun neoliberal horren zantzuak ikerlan honetako testu multimodalekin lotuz, esan liteke beste adibide bat *Pozikitivity* kanpaina (K22) dela. HPSk sustatutako euskararen aldeko kanpaina horren izenburua euskarazko hitz batek, eta ingelerazko bik osatutako hitz-jokoa da: Pozik+Positivity+Activity (Eusko Jaurlaritza, 2014). Baikortasunari eta aktibitateari egiten zaio gorazarre hortaz, euskararen aldeko kanpaina honetan.

Hala nola, eta testuetako irudi zein hitzezko esaldiei erreparatzen baldin badiegu, “Mr Wonderful⁵³” papergintzako marka Espainiarra dakarkite gogora Pozikitivity kanpainako irudiek: “Gaur zorionaren bila ateratzeko eguna da”, edota “Nahi dugun bezain urruti iritsi gaitezke” bezalako esaldiek, baikortasuna ez ezik indibidualismo kutsu bat ere badaukate. Era horretako esaldi eta irudiek baikortasunera garamatzate; kasik, esan liteke baikortasunerako aginduak direla, oso sotilak, baina aginduak. Eta bestetik, badirudi norberak ez duela mugarik, izaki sozialak garela ahaztu egiten dute tankera horretako testuek; “Nahi dugun bezain urruti iritsi baikaitzke”. Hizkuntza baten erabilera, guztiz hautu sozila dela alde batera utzita.

Era horretan, hainbat autorek kapitalismoarekin –eta era berean neoliberalismoarekin– lotzen dute diskurtso mota hori; kolektibotasun zentzu oro, botere-harreman oro, edota haserrerako eskubide guztiak ezabatzen baititu:

⁵³ Honela definitzen dute beraien burua: “*Nuestras famosas tazas con mensaje tuvieron el honor de ser el primer producto de la historia de Mr. Wonderful. A ellas le han seguido, año tras año, miles de productos bonitos que, con la misma chispa y esencia buenrollera, están presentes en clases, oficinas, bodas, viajes, planes anuales, cumpleaños y todos los rincones especiales de los hogares*” (Mr. Wonderful, 2012).

“El mensaje que transmiten, enfocado al ideal de felicidad que propone la Psicología Positiva, empuja al individuo a tener que ser optimista y vital a toda costa para seguir el camino que le conduce a la felicidad, y que encaja además con el sistema económico y social imperante en la actualidad: el capitalismo (...) Mostrando así el individualismo que propone el capitalismo: seres plenos a través de los objetos. En los cuáles se encuentran nuevos estándares de felicidad, basados en la falsa percepción de la libertad de elección, y la libertad de acción” (Sanchez, 2018: 94).

Beraz, azpimarratu genezake euskalgintzako diskurtsoak eta horrekin batera euskararen esanahiak indibidualismorako joera bat hartu duela; eta neurri batean neoliberalismoaren paradigma hartu duela oinarritzat; hizkuntza bat edota beste bat aukeratzeko arrazoi sozialak, ezkutatu egiten baitira tankera honetako diskurtsoetan. Hala ere, aipagarria da azken urte hauetan nolabaiteko aldaketa bat eman dela. K20 testuan esaterako, kolektibotasuna, edota komunitatea dago islatuta, eta esaldiak ere hori errepresentatzen du: “Tu-tik Gu-ra”. Hala nola, eta aurretik ere Euskaraldia aipatu dugun arren, esan beharra dago Euskaraldiaren bigarren edizioa berritasunekin etorri dela. Berritasun horien artean Ariguneak leudeke; euskaraz lasai jarduteko gune gisara identifikatuak izan direnak, alegia. Ariguneen sorrerarekin, eta nahiz eta oraindik ere ariketa rol indibidualen performance-ean oinarritzen den; ariketari beste era bateko kolektibotasun bat eman nahi izan zaiola pentsa liteke. Bi rol horiez gain, hainbat pertsonak, eta hauen praktikak osatzen duten guneek ere protagonismo nabarmena izan dutelako. Hizkuntza, gure kasuan euskara, praktika sozial gisara ulertuz.

Beraz, ikerlan honetako analisi materiala osatzen duten testu multimodalei erreparatuz gero, identitatea eta euskararen gaiarekin bi gai izango genituzke esku artean. Batetik, euskal nortasuna eta euskara, urte luzez estuki lotuta egon baldin badira ere –eta neurri handi batean, oraindik ere lotuta jarraitzen dute–, badirudi bien arteko lotura lausotzen ari dela. Hau da, euskarak jada ez luke osatuko euskal identitatearen ardatza. Nolabait esateko, euskara euskal nortasunaren zentrotik periferiara mugitu dela azpimarratu liteke. Era berean, egitate horrek, eta hipotesi gisara, euskararen erabileraren feminizazioarekin –eta euskararen beraren esanahiaren feminizazioarekin– lotura izan lezakeela azpimarratu liteke.

Bestalde, eta testu multimodaletatik auzi linguistikoa ezabatu den heinean, euskararen subjektuak indibidualizazio prozesu bat jasan duela ere esan genezake. Neurri batean, indibidualizazio horren eraginez, diskurtsua ere neoliberalismoaren paradigmatikaren baitan lerrokatuz.

5. ONDORIOAK

Hizkuntza bat hizkuntza soilik dela sarri askotan entzun ahal izan dugu. Komunikazio tresna gisara, eta soilik komunikaziorako tresna bailitzan saiatu gara askotan ikusten hizkuntza. Baina hizkuntza bat hori baino askoz ere gehiago da, eta hizkuntza batek hainbat esanahi barnebildu, eta aldi berean barreiatu ditzake jendartean zehar.

Horixe izan da justuki ikerlan honen xedea, euskalgintzatik sortutako, eta euskararen erabilera bultzatzea helburu duten testuek hizkuntzari berari zer nolako esanahia eman izan dioten aztertzea, alegia. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da azpimarratzea ikerketa hau zentzu batean behintzat, ez dela neutrala –zerbait neutralik existitzen bada, bederen–. Hau da, txapel teoriko konkretu batetik begiratu zaio ikerketa objektuari; genero perspektiba erabili baita ikerlan hau aurrera eramateko. Mundu dikotomiko eta generizatu batean bizi gara. Hizkuntza bera ere pertsonen arteko harremanetan eraikitzen da, eta hitzen, koloreen zein irudien bidez esanahi edota errepresentazio generizatuak barreiatu ditzake. Eta era berean, modu dikotomiko batean interpretatzen du esanahi hori hartzaileak. Horregatik, generoaren aldagaia erdigunera ekarrita aztertu nahi izan dira testuak.

Izan ere, elementu edota kontzeptu ezberdinen esanahia –esanahi horren sorrera, interpretazioa...– beti egongo da testuinguru sozial eta politiko jakin batekin harremanetan. Hau da, esanahien sorrera eta interpretazioak testuinguru soziopolitiko eta historiko determinatuetan izango dira eraikiak. Horrela, eta semiotika eta diskurtso multimodalen analisiak zerbait erakusten badute, horixe da; elementu ezberdinen sorreran eta interpretazioan espazioek, garaiek, garai horretako harremanek, egitate ezberdinek... garrantzia berezia izango dutela. Azken finean, esanahiak kulturalak izango dira, eta hemen eta orain gauza bat errepresentatzen duen elementuak agian urte batzuk barru ez du esanahi berbera izango; edota interpretatzen duen pertsonak ez dio esanahi berdina esleituko.

Hargatik, ezinbestekoa da testu multimodalen analisia egiterako orduan euskalgintzaren ibilbide historikoa aintzat hartzea, eta baita neurri batean, berau oinarritzat izatea ere.

1960ko hamarkadan, edota zehazkiago esanda 1950eko hamarkada amaieran, sortu zen gaur gaurkoz, euskalgintza garaikide gisara ezagutzen dugun mugimendu soziala. Nahiz eta ikerlan honetan 60ko hamarkada baino atzeragoko testurik ez den aztertu, ikusi ahal izan da nazionalismo goiztiarrean euskarari eman zitzaion lekuak eta esanahiak eragina izan duela, batez ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan euskarari eman izan zaion esanahian; eta baita euskal hiztunari eman izan zaionean ere.

XIX. mende amaieran, euskal nazionalismoaren sorrerarekin, euskararen errepresentazioak aldaketa bat bizi izango du. Hau da, euskal nortasunari proiektzio politiko berri bat emango zaio garai horretan, eta berau bost elementuren baitan ardatzuko da: arraza; hizkuntza; gobernu eta legeak; izaera eta ohiturak; eta nortasun historikoa. Hala ere, nortasun ardatza, edota euskaldungoaren bereizgarri behinena, arrazak osatuko du. Hau da, arraza egongo da nazionalismo goiztiar honen erdigunean kokatuta, eta beste elementuekin batera hizkuntza bigarren mailako elementu gisara definitu zuen Sabino Aranak; arraza osagarritzera letorkeen elementutzat, alegia.

Horrek, izugarrizko lotura izango du garai horretan emango den euskara eta emakumeen arteko lotura ulertzeko momentuan. Izan ere, hizkuntzaren zaintza eta suspertzea emakumeen esku gelditu zen. Hala nola hizkuntzaren transmisioa emakumeen eskumenen artean kokatu zuen nazionalismo horrek. Batetik, eremu pribatuko euskararen transmisioaz arduratu beharra izan zuten emakumeek; eta bestetik, EAB, etxeko eskola, eta ondoren, ikastolen sorrerarekin, bigarren mailako sozializazioaren bidezko transmisioa ere beraien esku gelditu zen. Garrantzia berezia du egitate horrek, lan honen baitan ikusi den gisara, garai historiko ezberdinetan, emakumeak, haurrak, transmisioa eta euskara lotzeko joera bat egongo baita; eta horren sorburua nazionalismo goiztiararen baitan eraiki zen emakumea-hizkuntza binomioa izango da.

1960-1970eko hamarkadetara igarota, arestian aipatu den moduan, euskalgintza garaikidearen sorrera hamarkada horietan kokatu liteke. Gainera, euskararen aldeko mugimenduaren egituratzea, eta nolabait mugimendu sozial gi-

sara egikaritzen joatea, ezin da egitate isolatu baten moduan ulertu. 60-70eko hamarkadak, urte mugituak izan ziren alboko herrialdeetan; izan Espainiako Estatuan, eta baita mundu mailan ezaguna den 68ko Maiatzaren haritik Frantziako Estatuan ere. Hala nola Euskal Herrian ere –batez ere Hego Euskal Herrian– ez soilik hizkuntzaren aldeko mugimendua, baizik eta frankismoaren kontrako herri mugimendu handia sortu zen. Izan mugimendu abertzalearen bueltan, feminismoaren inguruan, sozialismoaren baitan...

Horrela, eta konbultsio sozial horren erdian, euskal nazionalismoaren birdefinizio, edo birformulazio teoriko bat gauzatu zen. Hau da, arrazaren lekua euskarak hartu zuen. Jada ez zen izango arraza nortasunaren erdigunea osatuko zuen elementua. Euskalduntasunaren, eta euskal nortasunaren adierazgarri behinena euskarak osatuko baitu. Hau da, euskara izango da definizio honen arabera euskaldun egingo gaituena.

Egitate horrek, hau da, euskal abertzaletasunaren birkokatze horrek, izugarriko eragina izango du euskararen aldeko mugimenduan, eta baita hizkuntzaren beraren ezagutzan ere. Hamarkada hauetan, jende mordoxka batek ikasi zuen euskaraz, euskal nortasun edota identitate hori jada –lehen ez bezala– eskuragarria baitzen. Hau da, arraza ezin zen eskuratu, baina hizkuntza ikasiz eskuratu zitekeen.

Kontzientzia hartze bat eman zen hortaz garai honetan, urteetako lotsari buelta emanez –euskara beti lotu izan baita traukiltasunarekin esaterako–, eta haserrearen poderioz, indar handia hartu zuen euskalgintzak.

Hala eta guztiz ere, eta garai honetako testu multimodalei erreparaturik, urte hauetan mugimendua nazio mailan egikaritzen eta antolatzen hasi baldin bazen ere, oraindik ere praktikan ez da horrela izango. Hau da, garai honetan euskararen alde egingo duen nazio mailako erakunde edo eragile bakarra Euskaltzaindia izango da; beste testuen egileak herri, auzo edota hirietan kokatutako elkarteak baitira, eta ez espreski euskararen biziberritzea ardatz dutenak. Nolanahi ere, egitate hori nahiko arrunta dela ondorioztatu liteke, bi hamarkada hauetan zehar euskara debekatuta baitzegoen Hego Euskal Herrian; hortaz, honen aldeko jarduna ere klandestinitatetik egin zen, eta modu horretan, ez zen hurrengo garai historikora arte berariaz euskararen alde egingo zuen talderik sortu.

Bestalde, garai honetako testu multimodaletan euskarari eman izan zaion esanahiari erreparatuz gero, testu hauek nazionalismo goiztiarraren eta euskara ardatz duen nazionalismoaren arteko trantsizioan aurkitzen direla azpimarratu daiteke. Hau da, garai honetako testuetan euskara nazionalismo goiztiarreko hainbat paradigmeekin lotzeko joera bat egongo da: lauburuak, nekazal eremuko sokak, eskolako haurrak, ikurrinaren koloreak... Baina bestetik, eta batez ere “Bai Euskarari” kanpainako testuari dagokionean –eta baita “24 orduak euskaraz” jaialdikoa ere–, euskara goian aipatu dugun 60ko eta 70eko giro politiko aurrerakoi horrekin lotua nabari da. Hau da, 70eko hamarkadan Hego Euskal Herrian ezkerreko mugimendu indartsu bat egituratzen joango da, eta mugimendu sozial anitzen loratzea ekarriko du honek. Kanpaina honetako testuak abangoardiaren baitan kokatzen du euskara; nolabait ere, euskara transgresio sozialaren sinbolotzat irudikatzen du. Kolore aldetik ere, testu hau, garai honetako beste mugimendu batzuk sortutako testu batzuen oso antzerakoa izango da; zentzu batean testuak garaiko normatibitatearekin bat egiten duela azpimarratu liteke.

Bestetik, diskurtsoari dagokionez, euskalgintzaren garai honetako kezka nagusia izan zen ezagutzaren gaia modu esplizituan ez da azaltzen, baina beste garai batzuetan ez bezala, testuak ele bietan daude idatzirik. Hau da, euskal hitzunei zein euskal komunitate horren partaide izan nahi duten pertsonei egongo lirarteke zuzenduta.

Testuetako diskurtsoarekin jarraiki, testuek ekintzaren eta mugimenduaren ideiak barnebiltzen dituztela azpimarratu daiteke. Hau da, testuek ekintzarako dei bat egiten dute. Hala nola, eta egitate horrekin estuki loturik, hizkuntza zapalkuntzaren edota menderakuntzaren errepresentazioa egongo litzateke. Testuetan badago askatzeko nahi bat, euskara leku ezberdinetara sartzekoa... hau da, modu esplizituan eta hitzezkoan, hizkuntzaren zapalkuntza egoera ageri ez baldin bada ere, modu inplizitu batean, eta irudi bidez, hizkuntza menderakuntza hau errepresentatzen da testuetan; eta oro har, ekintza eta mugimenduaren bidez euskararen askatzea eskatzen da.

Hala nola, eta testuei genero perspektiba batetik ere begiratzuz, azpimarratu liteke testuak bere horretan generikoki ere trantsizio batean aurkitzen direla. Batetik, testuetan badira hainbat aldagai edota elementu mundu maskulino batekin lotu genitzakeenak: tradizioa edota nezakal mundua errepresentatzen

duten sokak, kolore normatiboak, abangoardia maskulinizatu batekin lotu genitzakeen sinboloak, historikoki maskulinitatearekin lotu izan den ekintza eta mugimendurako deia... Baina bestetik, eskola eta haurren gorputz errepresentatuak ere ageri dira testuetan. Hau da, transmisioaren eta jarraikortasunaren ideia ere barnebiltzen dute testuek. Eta ikerlanean ikusi ahal izan dugun bezala, transmisioaren eta hizkuntzaren jarraikortasunaren gaiak emakumeak eta euskara bete betean lotu izan ditu. Beraz, euskarari feminitatearekin lotu litezkeen esanahiak ere eman izan zaizkio garai honetan.

Horrenbestez, garai honetako testuetan euskarari eta baita euskal hiztunari ere ematen zaion esanahia genero trantsizio baten baitan kokatu behar ditugu. Hau da, garai honetako testuetan, presente egongo da euskal nazionalismo goiztiarraren baitan euskara eta feminitateak izan zuten lotura. Baina euskal nortasuna euskararen ardazten doan heinean, euskara eta baita honen hiztunaren errepresentazioak ere, maskulinizaziorako joera bat izango dute.

Bestalde, eta bigarren garai historikoari erreparatuz gero –1980/1990–, badira euskalgintzaren norabidea markatuko duten hanbait mugarri historiko. 1979. urtean, EAEko Autonomia Estatutua onartu zen –Gernikako Estatutu gisara ere ezaguna–. Horrek bi familia abertzaleen arteko banantzean giltzarri garrantzitsua markatuko du. Aurretik ere, eta Ekin-ETAren gaineko iritzi ezberdinengatik, bi familia abertzaleak banantzen hasita zeuden, baina Estatutuaren aferak nolabaiteko bi abertzaletasunen arteko etsaitasun bat ekarri zuen. Horretaz gain, sortu berria zen Eusko Jaurlaritza eta instituzio publikoak EAJren eskuetan gelditu ziren Trantsizio garaiko lehen hauteskunde haietan. Horrekin batera, 1982. urtean, Euskararen Lege gisara ezaguna den legea onartu zen, eta euskarak EAEn erregimen juridikoari dagokionean, ofizialtasuna eskuratu zuen.

Hau da, egitate historiko horiek euskalgintzaren norabidea guztiz markatuko dute. Euskara gordetzetik, honen erabilera bultzatzera, eta azken finean, normalizatzen igaroko da mugimendua.

Hala ere, gatazka, tentsioa, konfrontazioa... bezalako kontzeptuekin definitu daiteke etapa historiko hau, eta aztertutako testuetan ere antzeman ahal izan da familia abertzaleen arteko tentsioa, eta konfrontazioa.

Lehenik eta behin, garai honetako testuetatik zerbait azpimarragarria baldin badago, hori nazioaren eraikuntza eta nazio horrek hartzen duen zentralitatea

dira. Hasteko, eta aurreko garaietan ez bezala, euskalgintza praktikan, mugimendu sozial baten modura, antolatzen hasiko da; eta nazio mailako erakundeak sortuko ditu. Garai honetan aztertutako testu multimodalen egiletzak nazio mailako erakundeenak dira: AEK, EHE, EKB eta Kontseilua.

Bestalde, garai honetako testu multimodaletan nazioa eta euskararen arteko lotura hamaika elementu edota aldagaien bidez errepresentatua izan da. Esaterako, “herri zahar zapalduaren” paradigma eraikitzeke –nazioaren zapalkuntza, eta haatik, baita euskararena ere– kanpo espazioen ikonizazioa beste garaietan baino gehiago erabili izan da garai honetan. Zapalkuntza hori, tradizioari edota autentikotasunari lotutako elementuekin errepresentatua izango delarik; guztiak ere, elementu ilunak: mendiak, baserriak, gerra zibila... Iluntasun eta zurruntasunez betetako testuak dira hamarkada hauei dagozkienak.

Hala nola nazioa errerepresentatzeko gehien erabilitako elementua Euskal Herriko lurraldea errerepresentatzen duen mapa izango da, eta horrekin batera mugek zentzu berezia izango dute garai honetan. Nazioaren eraikuntzan euskara ezinbesteko elementu gisara errerepresentatzen da, honen bidez suntsitzen baitira muga batzuk, eta beste batzuk ezarri.

Euskara eta nazioa, hortaz, ezinbanatuzko bi elementu bilakatuko dira garai honetan. Naziotasunaren, eta baita protesta garai honetako beste adierazgarri bat, testu hauetan errerepresentatuta dauden gorputzek osatzen dute. Hau da, naziotasunak zerbait behar badu, kolektibo bat behar du, naziokideak izango direnak. Garai honetan –1998. urtera arte–, pertsonen gorputzak erabiliko dira kolektibitatea eta baita, komunitatearen adierazgarri gisara. Errepresentatutako gorputzak gorputz bakar gisara interpretatu litezke. Hau da, gorputzak ez dira inorenak, “bloke” edota “masa” efektua sortzeko soilik erabiltzen dira. Hala ere, eta nazioaren errerepresentazioaren antzera, gorputzek, ekintza, mugimendua eta neurri batean oldarkortasuna ere errerepresentatzen dituzte.

Diskurtsoari erreparatuz gero, “Euskal Herria; herri bat, hizkuntza bat” esaldiaren baitan kokatu genezake garai honetako testuetan islatzen den irudi zein idatzizko diskurtsoa. Framing aldarrikatzailea eta botere estrategia oinarritzat hartuta, “Euskaraz eta kitto!” bezalako esaldiekin, euskararen esanahia oldarkortasunean eraikiko da.

Tentsioak, gatazkak zein nazioaren eta euskararen zapalkuntza errepresentatzeko erabiltzen den agresibitateak euskararen esanahia oldarkortasunez betetzen du, eta biolentzian ezaugarritutako maskulinitate baten bidez ematen zaio zentzua eta esanahia euskarari. Hau da, aurreko garaian euskara generiko-ki trantsizioan aurkitzen zen moduan, 1980tik 1998. urtera arteko euskararen esanahia maskulinoa izango da. Nazioaren eraikuntzan oinarritutako euskara hori maskulinitatearekin lotura zuzena duten oldarkortasun eta gatazka batean oinarrituko baita.

Hala nola, eta garai honetako testuek errepresentatzen duten euskal hiztunari erreparatuz, aipagarria da euskararen esanahia horren markatua –eta maskulinoa– den heinean, euskal hiztunari ematen zaion esanahia ere borrokalari maskulino batena dela. Hau da, “gudari” gisara kalifikatu liteke garai honetako testuek errepresentatzen duten euskal hiztuna. Euskara nazio eraikuntzaren baitan kokatzen da guztiz, eta nazio eraikuntza hori, eta baita horretarako ezinbestekoa den euskara ere, maskulinizatu eta maskulinitatetik errepresentatzen dira. Hori horrela, eta nazio eraikuntzaren aferan, eta oldarkortasunetik eraikitako figurarik egon baldin badago Euskal Herrian, hori gudariarena da. Hargatik, ondorioztatu liteke euskal hiztunaren esanahia maskulinizatzen joango dela euskararekin batera; eta “gudari” figura batekin lotu litekeela.

Bestalde, garai historiko honetako testuen analisisian, gabezia nabarmen bat nabaritu ahal izan da. Oso interesgarria zitekeen aztertzea gatazka, tentsio eta konfrontazio giro honen baitan HPS bezalako instituzio publikoek garai honetan zer nolako esanahia eman zioten euskarari beraiek sortutako testu multimodaletan. Hala, euskalgintza sozialaren eta euskalgintza instituzionalaren errepresentazioetan dauden aldeak egoki azter zitezkeen, eta baita euskalgintza instituzionalak euskara bere erabilera kanpainetan nola irudikatu duen iker-tzea ere posible izango litzateke. Baina artxiboko arazoak medio, ondorengo garai historikoari dagozkion materialak soilik eskuratu ahal izan dira. Hortaz, euskalgintza instituzionalaren ibilbidea bere osotasunean ezin izan da aztertu ikerlan honen baitan.

Hala ere, eta 90eko hamarkada amaierako testu multimodaletara itzuliz, 1998. urtetik aurrerako testuetan diskurtso eta estrategia aldaketa bat hauteman daiteke. Hau da, 90eko hamarkada amaieran, hainbat aldaketa eta gertakari

soziopolitiko gertatu ziren. Euskara elkarteen sorrera 80ko hamarkadan kokatu behar baldin badugu ere, 90eko hamarkada amaieran sortu zen Topagunea; euskara elkarteak batu eta horiek mugimendu gisara egikarituko zituen erakundea, alegia. Euskara elkarteen sorrera diskurtso aldaketaren gako gisara identifikatu liteke. Modu praktikoan, hauek esan baitzuten lehen aldiz euskara despolitizatu, eta autonomia kulturala behar zuela. Bestetik, AEK-HABEren arteko “bake sinatzea” izango genuke. Horrek euskalgintza sozialaren eta instituzioen arteko hartu emanak asko baretu zituen. Hirugarrenik, 1998. urtean, Lizarra-Garaziko akordioa sinatu zen, eta horrek Euskal Herrira ilusio nabarmena ekarri zuen. Eta azkenik, eta kasik aurretik aipatutako guztiaren ondorio gisara, “Euskararen Unibertsoa” jardunaldiak burutu ziren. Eta besteak beste, Jardunaldi horretan erabaki zen Kontseilua sortzea.

Gertakari historiko horiek, isla izango dute bigarren garai historiko honetako testuetan; eta testu horiek euskarari emandako esanahian. 90eko hamarkada amaieratik aurrera, euskalgintza despolitizatzen joango da. Hau da, euskalgintzak diskurtsiboki, euskal unibertso nazionalistarekin zituen lokarriak hautsi behar izan zituen, euskara gizarte osoaren ondare eta helburu komun bilakatu zedin. Hala nola, auzi linguistikoa marko ez politiko –alderdikoi– batean kokatu nahi izan zen.

Hortaz, 90eko hamarkadako testuetan euskararen errepresentazio eta esanahiak bilakaera bat jasan zuen. Ez da euskararen esanahi bakarra eraikiko hamarkada amaierako testuetan. Testu hauetan, batetik, euskara soiltasan, teknikotasun eta neutraltasun batekin errepresentatua izango da. Baina bestetik, gozagarritasun eta koloreak ere izango dute lekua.

Hala ere, aipagarria eta azpimarragarria da euskararen despolitizazioarekin batera, euskara gatazkatik atera nahi izatearekin batera, oldarkortasunean erakitako diskurtso eta errepresentazio maskulinoak ere desagertu egingo direla. Betiere modu orokor batean hitz eginez, 2000-2010eko hamarkadetako testuetan oraindik ere 80ko hamarkadako estrategia jarraitzen duen testuren bat aztertu ahal izan baita. Nolanahi ere, abertzaletasunetik urrundu nahi horrekin maskulinitatean oinarrituta eraikitako euskararen esanahia ere trantsizio batean sartuko da. Hau da, euskara oldarkortasun, gatazka eta maskulinitate horretan jada ez da eraikiko. Hala, 90eko hamarkada amaierako testuen inguruan

ondorio garbi bat ateratzea oso nekeza da, baina aipatu liteke maskulinitate oldarkor horretatik irten, eta beste bide bat abiatuko duela euskararen esanahiak; eta, hortaz, baita euskal hiztunarenak ere.

90eko hamarkadan hasitako euskararen esanahiaren trantsizio horrek zer nolako jarraipena izan zuen ebazteko, 2000-2010eko hamarkadei begira jarri beharko dugu; azpimarragarria baita hamarkada hauetan aurretik jarraitutako despolitizazioaren bidea guztiz egikaritutako dela. Hau da, urte hauetako testuetan ez dago euskara eta euskal nazionalismoaren inguruko ia aipamenik edo errepresentaziorik; eta euskararen esanahia ez da nazio eraikuntzaren parametroetan eraikiko. Garai hau zerbait bada, profesionalizazioaren garaia da. Euskara teknikariaren figura aurreko garaian sortu baldin bazen ere, 2000ko hamarkada hasieretan egonkortu zela aipatu daiteke. Are gehiago, nahiz eta ikerlan honetan ez den berariaz gai hau aztertu, badirudi azken urte hauetan profesioak mugimendua bera jan duela. Hau da, teknikari gehiago dago euskalgintzan militanteak baino, edo behintzat horixe da inpresioa. Hori horrela, garai honetako kezketako bat euskalgintzaren egoera eta honen apaldia izango dira.

Profesionalizazioaz eta mugimenduaren egoeraz gain, euskararen erabilera da garai honetako kezka nagusia. Euskararen ezagutzak gora egiten duen bitartean, azken urteetan euskararen erabilerak berdin jarraitzen du; eta azken neurketaren arabera, beharrezko joera bat ere badauka. Hala nola euskararen erabilerari lotutakoak izango dira euskalgintzaren kezka behinenak garai honetan: gizarteko aniztasunari lotutakoak. Hau da, migrazio prozesu bat bizi izan duten pertsonengana nola hurbildu eta hauek euskarara nola erakarri, kezkaz bizi den kontu bat da. Bigarren kezka, gazteen aisialdiari lotutako erabilera litzateke. Eta hirugarrenik, lan munduaren euskalduntzea. Bestalde, bada garai honetako beste egitate bat bere horretan negatiboa ez dena, eta, hortaz, euskalgintzaren kezkatzat ezin dena hartu: euskararen erabileraren feminizazioaren fenomeno. Azken hamarkadetako erabilera datuei erreparatuta, emakumezkoek adin tarte guztietan –adineko pertsonetan izan ezik– eta Euskal Herriko lurralde guztietan gizonetzkoek baino euskara gehiago erabiliko lukete. Egitate hori bere horretan, beraz, ez da negatiboa, baina azken urteetan fenomeno honen inguruan ere egin izan dira hainbat ikerlan.

Bestetik, eta azken hamarkada hauetako testuei erreparatuz gero, euskalgintza instituzionalaren eta euskalgintza sozialaren nolabaiteko sintonia bat sumatu genezake. Euskalgintza sozialeko testuetan, HPS babesle gisara ageri da. Testuen nolakotasunari erreparatuta, batez ere, Topaguneari dagozkion testuak zerbitzu ezberdinen ingurukoak dira. Hau da, euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina arruntez gain, erabilera hau bultzatzeko zerbitzu ezberdinak eskainiko ditu Topaguneak, besteak beste. Horrenbestez, ondorioztatu liteke euskalgintza sozialak zerbitzu horrek eman ahal izateko, eta baita bizirik irauteko ere, instituzioekiko nolabaiteko dependentzia ekonomiko bat izan dezakeela. Horretaz gain, 2018. urtean aurrera eraman zen Euskaraldia bezalako ekimenetan ere instituzioen eta euskalgintza sozialen arteko sintonia bat sumatu liteke. Ekimen hori izan baitzen euskalgintza sozialak eta euskalgintza instituzionalak elkarlanean osatutako lehenengo ekimen nazionala.

Hortaz, instituzio eta euskalgintza sozialaren arteko harremani dagokienez bederen, aurreko hamarkadetako gatazka egoera hori ez dela ageri azpimarratu liteke. Modu publikoan behintzat, nolabaiteko sintonia –eta neurri batean baita dependentzia bat ere– badagoela ondorioztatu bailiteke.

Hala nola garai honetako testuetan oro har, aurreko garaiarekin apurtzea, eta aurreko garaiko euskararen esanahiaekin puskatzea izango dela helburua azpimarratu daiteke.

Hau da, 2000-2010eko hamarkadetako testuetan kasik ez da pertsonen gorputzik errepresentatuko. Hau da, euskararen neutraltasuna, unibertsalizazioa eta despolitizazioa bilatze aldera, pertsonen gorputzen erabilera ere desagertu egingo da. Ikusi ahal izan da aurreko garaiko testuetan kolektibotasuna eta komunitatearen batasuna –indarra– erakusteko, gorputz inpersonalen erabilera bat egin izan dela. Garai honetan aldiz, ez da erabiliko pertsona gorputzik –bi testutan izan ezik–. Pentsa liteke neutraltasun hori bilatzeko asmoz, “errealitatearekin” eta “norbanakoekin”, hau da, euskararen irudi pertsonalizatu batekin lotura daukan guztia ezabatu egin dela. Euskara unibertsala izatea baita garai honetako helburua, ez kolektibo zehatzekin lotura izatea; guztion hizkuntza gisara errepresentatu nahi izan da, eta horretarako ez dira egokiak pertsonen gorputzak. Pertsonen gorputzen bidez kolektibo zehatzekin identifikatu eta lotu bailiteke euskara.

Hala nola, eta pertsona gorputzei kontrajarririk, fantasiako mundu batekin lotua izan da euskara, eta fantasiako mundu honek eman nahi izan dio –eta eman dio neurri batean– esanahia euskarari. Superheroiak, elementu antropomorfoak, hizketan dabiltzan panpinak... ageri dira garai honetako testuetako elementu zentral gisara. Baita kolorea ere umeen jolas parkeetara –“Txikiparkeetara”– garamatzaten kolore biziak.

Fantasiako elementuekin lotura izateaz gain, eta fantasiako elementuekin euskarari neutraltasuna eta despolitizazioa esleitu nahi izateaz aparte, modernitate edota hiritartasun kutsu bat ere eman nahi izan zaio euskarari garai honetako testuetan. Skylinen bidez, sare sozialetako ikonografiaren erabilera rekin...

Hala ere, fantasiarako, hiritartasun eta modernitaterako joera hau, garai honetako euskalgintza sozial zein instituzionalaren joera orokortzat jo baldin badaiteke ere, aipatu beharra dago aurreko garaietako eragile aktiboenetakoaren, hau da, EHEren diskurtsoa bestelakoa izan dela etapa honetan. EHEk auzi linguistikoa jarriko du erdigunean, eta gatazkaren parametroetan kokatuko du. Hala nola nazio eraikuntzak garai honetan ere eragile honen diskurtsoan garrantzia handia hartuko duen arren, euskara izango da ardatza. Hau da, aurreko garaian, kasik nazioak euskarari lekua kendu zion; eta garai honetan aldiz, erdigunea euskarak hartuko du. Eragile honen garai honetako lema nagusienetakoa: “Euskararik gabe, Euskal Herririk ez!” izango delarik.

Hortaz, garai honetako joera orokorra euskara fantasiako elementuekin lotzea izan dela azpimarratu daiteke. Euskararen unibertsaltasuna, hau da, euskara euskaldun guztien hizkuntza izan nahi batetik abiatuta, eta diskurtsoaren, eta honekin batera euskararen esanahiaren despolitizazioa eta neultraltasuna bilatu nahian, diskurtsoan aukeraren gaia sartuko da. Hau da, euskaraz hitz egiteko aukera erdigunean kokatuko da; inposizioaren diskurtsoari ihesi, leku ezberdinetan euskaraz hitz egiteko, norbera zerbitzu ezberdinetan euskaraz hartatze ko... aukera, izango da eskatuko dena.

Izan ere, eta euskarari garai honetan eman zaion esanahiaren inguruan, azpimarratu liteke diskurtsoaren leuntze, despolitizatze, neutralizatze eta unibertsalizatze horretan –azken finean, despertsonalizatu nahian–, euskararen esanahaia infantilizatu egin dela. Hau da, euskara fantasiako mundu batekin

lotzean, euskararen esanahiak, eta baita euskal hiztunarenak ere, infantilizazioerako joera nabarmena izan du. Hori horrela, infantilizazio prozesu bat ez ezik, feminizazio prozesu bat ere bizi izan du euskarak. Feminitatea eta infantilizazioa estuki lotuta dauden bi egitate baitira. Emakumeen infantilizazioa izango da feminitatea egikaritzeko tresna garrantzitsuenetako bat. Hau da, emakumeak femenino izango badira, hauskor, otzan, salbatu beharreko izaki gisara, ez horren jakintsu... agertu beharko dira gizartean. Betiere feminitate hegemonikoaren parametroetan sartu ahal izateko. Eta bestetik, euskara, emakumeak eta haurrak lotzen dituen elementurik egon baldin badago, berau transmisioaren gaia da. Hau da, ikusi ahal izan da ikerlanean zehar, transmisioaren gaiak emakumeak eta haurrak estuki lotu izan dituela. Kasik banatu ezinezko hirukoa osatuz.

Beraz, garai historiko honetako euskararen esanahiaz hitz egiten dugunean, honek feminizazio prozesu bat bizi izan duela ondorioztatu genezake. Euskarak berak, eta baita testuetan errepresentatuta ageri den euskara horri dagokion euskal hiztunak ere. Zentzu batean, garai historiko honetan, euskara otzandu nahi izan da –aurreko garaietako oldarkortasun hori ezabatuz– eta otzantasan horrek feminizazio prozesu bati bide eman dio. Eta era berean, baita alderantziz ere. Hau da, feminizazio prozesu baten bidez, euskararen esanahia otzandu ahal izan da.

Baina beste garai historiko batzuetan gertatu den moduan, azken hamarkada hauetan ere, amaiera aldera, diskurtsoan, euskararen errepresentazioetan... aldaketa batzuk eman dira.

Batez ere diskurtso mailan, euskara justizia sozialaren eta demokraziaren parametroetan kokatu nahi izan da. Hau da, hizkuntza eskubideak, edota euskararen egoera normalizatzea gizarte justu baten eraikuntzarako ezinbesteko egitate gisara eraiki nahi izan da. Bestetik, feminismoaren eta euskalgintzaren arteko gerturapen teoriko bat ere eman da. Interseksionalitatea kategoria analitiko gisara hartuz, hizkuntzaren aldagaia ere beste menderakuntza batzuekin gurutzatzen den aldagai gisara irakurri bailiteke.

Hala nola, eta maila diskurtsibo-teorikoan gehiago landu baldin badira ere aldaketa horiek, testu multimodaletan ere ikusi eta aztertu ahal izan da diskurtso aldaketa hori. Euskaraldirako sortutako bi rolen sorrerarekin, edota “aukera-

tu rola” bezalako esaldiekin, feminismoko hainbat gogoeta datorzkigu burura; genero rolen eraketa, esaterako. Mintzapraktikako testuetan ere nabaritzen da nolabaiteko aldaketa bat; pertsonak ageri dira, komunitatea, kolektibitatea, aniztasuna... hitzezko zein irudizko diskurtsoan. Baina aipagarria da oraindik ere, eta nolabaiteko diskurtso aldaketa bat nabari baldin bada ere, hizkuntza menderakuntzaz edota zapalkuntzaz bere horretan ez dela hitzik egiten testuetan.

Beraz, euskararen esanahien, eta baita euskal hiztunen irakurketa diakroniko bat eginez, esan daiteke trantsizioan zegoen genero batetik, maskulinitaterako saltoa egin zuela, eta ondoren, aldiz, maskulinitatetik feminitaterakoa. Hau da, testuen bidez esanahia barreiatu da, eta esanahi hori sortzeko euskarari autoritatea eta balioa elementu ezberdinen bidez eman nahi izan zaio. Ikerlanean ikusi ahal izan dugun moduan, hizkuntza bati ematen zaion autoritateak eta legitimitateak bi sistema ideologiko izango ditu oinarrian: autentikotasunaren sistema ideologikoa eta anonimotasunarena.

1960ko hamarkadatik 1990eko hamarkadara arte, euskara oso lokalizatua egon da. Hau da, euskara jende oso zehatz baten hizkuntza izan da, eta Euskal Herriaren –leku zehatz batekin lotura– hizkuntzantzat hauteman ahal izan da. Hau da, autentikotasunaren ideologiaren arabera, eman nahi izan zaio balioa eta legitimitatea hizkuntzari lehen hamarkada horietan. Toki eta pertsona zehatz batzuekin lotura izateko, hainbat elementu erabili izan dira testuetan zehar: nekazal eremuko sokak, lauburuak, ikurrinaren koloreak, mendiak, baserriak, mapak, argazki ilunak, oldarkorrak... Lehenengo etapa honetan, eta hizkuntz ideologia autentiko hau, trantsizioan dagoen genero batetik eraikia izango da hasiera batean; erromantikoa izango da euskara, bere osagai maskulino zein femeninoekin –izan nekazal eremuko elementuak, edota hurrei eta transmisioari lotuak–. Baina ondoren, autoritatea eta legitimitatea maskulinitatearekin lotura duten elementuek emango liokete euskarari: oldarkortasunak, gatazkak, ekintzak...

2000. urtetik aurrera ordea, anonimotasunaren hizkuntza ideologian oinarritu nahi izan da euskararen balio eta autoritatea. Anonimotasunaren hizkuntza ideologian oinarrituta balioa daukaten hizkuntzak hizkuntza unibertsalak dira, mundu guztiarenak, baina aldi berean inor konkretuarenak ez. Hortaz, eta eus-

kara despolitizatzeko aldera, neutralizatzeko asmoz, tokikotasun eta lurraldetasun oro –nazioaren eraikuntzan aurreko garaian izan zuen papera– ezabatzeko asmoz, anonimotasunaren ideologia batetatik abiatuta eraiki nahi izan da euskararen esanahia.

Leuntze, otzantze eta unibertsalizazio hori emateko, elementu antropomorfoak, fantasiakoak, hiritarrak... erabili izan dira. Hala nola teknika *kukien* bidez euskara kukismoaren paradigmaman kokatu da. Euskararen esanahia eta errepresentazioa kuki bihurtu dira; infantilizatu egin dira, eta neurri berean baita feminizatu ere.

Euskara neutralizatzeko horretan eramandako estrategian ez dela asmatu esango nuke. Batetik, uste dut autentikotasunaren ideologiak kale itsu batera baldin bagaramatza ere, anonimotasunaren ideologian jotzea ere ez dela gure “liga”. Hau da, euskara ez da izango normatiboa edota normala; alboko hizkuntza handiak beti izango baitira normalagoak. Zentzu horretan normalitatetik at dago euskara, baina hori bera izan liteke bere punturik erakargarriena. Betiere, profil determinatu batentzat.

Bestetik, azpimarratu nahiko nuke, euskarak bizi izan duen despolitizazio, *kukitze* eta feminizazio estrategia neurri batean oso ulergarriak egiten zaizkidala. Hau da, anonimotasunerako joera garbi bat egon da, eta horrek euskararen esanahia, eta baita neurri batean hiztunaren, feminizazioa ekarri du. Hala ere, 80-90eko hamarkadako tentsio eta gatazka egoerak atzean uzteko; historikoki euskarari esleitu zaizkion traukiltasun edo baserritartasun esanahiak ezabatzeko; eta baita aldi berean, euskara beste estadio batera eraman ahal izateko –euskaldun guztien hizkuntza bilakatzeko–, segur aski modu bakarra izan da anonimotasunaren estrategia feminizatu hau. Euskarak asko izan du autentikotasunetik, eta gaur egun ere badauka. Gaur gaurkoz, euskara traukiltasun, boronokeria edo baserritartasunarekin lotzen da oraindik ere. Eta baita autentikotasunaren beste aurpegiarekin ere, hau da, abertzaleen kontutzat ere hartzen da euskara; eta sarri asko, gatazka sortzen dituen kontutzat ere hautematen da. Oso errotuta daude uste hauek, eta horiek iraultzeko modu bakarra, edota aurkitu den egokiena, anonimotasunarena izan da. Baina gaur gaurkoz, konturatu behar gara, eta nik esango nuke jada konturatu garela, bide hori ere antzua dela. Euskararen esanahia feminizazioak bere horretan ez du ezer

txarrik suposatzen. Baina feminizazio hori infantilizazioaren bidez eman da, eta euskara umeen kontu gisara errepresentatzeak ez luke zentzurik izango. Gaur egun horrenbeste kezka eragiten duen gazteen erabilerak adibidez, bide horretatik oso irtenbide zaila izango luke. Gazteek, eta gazte izan nahi horretan haurtzaroko paradigmeekin, eta berau errepresentatzen duen ororekin apurtu nahi izango baitute. Helduek modu berean ez lukete beraien hizkuntza gisara hautemango, umeen hizkuntza baita...

Bestalde, eta hizkuntza ideologiekin batera, ikerlan honetan ia modu transbertsalean agertu izan zaigun elementu bat euskal identitatearena da. Euskal identitatearen eraikuntza eta euskara hertsiki lotuta egon izan diren bi egitate dira. Eta are gehiago, euskarak euskal nortasunaren eraikuntzan izan duen lekuak hizkuntzaren garapena baldintzatu duela ere esan liteke. Ikerketan ikusi ahal izan den moduan, nazionalismo goiztiarrean, euskal nortasunaren ardatza arrazak osatu zuen. Euskara elementu garrantzitsua zen arren, bigarren mailako elementu gisara kokatu zen; eta emakumeen eskumenen artean gelditu zen berau. 60ko hamarkadan, eta euskal nazionalismoaren birformulazioarekin batera, euskara bilakatu zen euskal nortasunaren ardatza. Eta ikerketa honetako emaitzen arabera, euskararen ardatzutako euskal identitate horrek, eta baita euskal identitate hori ardatzten zuen euskararen esanahiak ere, maskulinizaziorako joera bat izan zuten.

Gaur gaurkoz, euskal identitatea badirudi trantsizio moduko batean dagoela, lurraldetasunak eta borondateak osatuko dutelarik egun nortasunaren muina. Hala nola euskararen esanahia despolitizatu eta nazionalismotik urrundu den era berean, nazionalismoak berak ere –neurri batean, gaur egun oraindik ere euskara garrantzizko elementua den arren euskal nazionalismoan–, euskara erdigune horretatik atera du. Eta egitate horrekin batera, euskararen esanahiaren feminizazio bat eman da.

Horrenbestez, hipotesi gisara esan liteke euskarak euskal identitatearen baitan daukan garrantziak eta pisuak generikoki ere baduela bere isla. Hau da, euskara euskal identitatearen zentroan egon izan denean, honen esanahia maskulinoa izan da –eta neurri batean baita garrantzitsua ere gizartean, eta nazionalismoaren eraikuntzan–. Euskal identitatearen erdigune hori utzi, eta periferiarako saltoa ematen duenean, feminizatu egiten da honen esanahia; nazionalismo goiztiarraren baitan identitatea arrazan ardatzten zenean. Edota

baita 90eko hamarkada amaieratik aurrera ere, lurraldetasunak eta borodateak euskararen lekua hartu dutenean.

Hori horrela, eta azken urteetako fenomeno bat mahaigainean jarritz, euskararen erabileraren feminizazioarena, bi hipotesi planteatu litezke ikerlan honetatik abiatuta. Batetik, erabileraren feminizazioak identitatearen eraikuntzarekin izango lukeela lotura ondorioztatu liteke. Hau da, pentsa genezake euskal nortasunaren ardatza izateari uzten dionean euskarak, eta honen esanahiaren feminizazio bat, eta garrantzia galtze bat ematen denean, euskararen erabilerak ere bide berdina jarraitzen duela, eta hiztunengan ere badaukala eraginik. Hau da, euskal identitateak euskararen ardatzeari uzten dionean, emakumeek gehiago hitz egingo dute euskaraz gizonezkoek baino.

Bestetik, bigarren hipotesiak, euskarak berak jasan izan duen feminizazio simbolikoarekin izango luke lotura. Hau da, testu multimodalen bidez aztertu ahal izan dugu euskararen esanahiak azken urteetan feminizaziorako joera bat izan duela, eta horrek hartzaile potentzialengan ere eragin bat izan lezakeela uste da. Publizitatearen atalean ikusi dugun gisara, gaur egun produktu bat erosten denean produktua bera edukitzeak baino berau eskuratzeak dakarren balioak eta horrek errepresentatzen duenak izango du garrantzia. Horrela, euskararekin ere berdina esan daiteke. Produktu femenino bat eskuratzeak norberaren feminitatea garatzen, eta hori performatzen laguntzen duela esan daiteke, eta baita kontrakoa ere. Feminitateari lotutako esnahia daukan euskarak nekez lagunduko du maskulinitatea garatzen. Bada, euskararen errepresentazio eta esanahi femeninoak euskararen hiztunak emakumeak izatea ekarriko luke. Euskararen esanahia femeninoa den neurrian, badirudi euskara hobeto “doakiela” emakumeei; eta hori ere, erabileraren feminizazioaren zioetako bat izatea.

Hala ere, ondorio baino, ikerketa gehiago beharko luketen bi hipotesi soilik lirarteke goian planteatutakoak. Ikerlan honetako helburu espezifikotako bat horixe izan da: “Kanpainetako euskararen errepresentazioek euskararen erabileran azken urteetan sumatu izan den feminizazioarekin ea loturarik izan duten ikertzea”. Jakin badakigu, eta beste autore batzuek aztertu dutenaren arabera, euskararen erabileraren feminizazio bat eman dadin, hainbat faktorek eragina izan dutela. Baina euskararen esanahiak feminizazio bat bizi izan duen neurrian, pentsa daiteke hiztunak ere feminizazio bat bizi izatea nahiko

logikoa dela. Hala nola egitate hori, eta euskarak euskal identitatearekin izan dezakeen loturak zer nolako eragina daukan erabileran, sakonago ikertu beharreko gaiak lirateke, benetan ondorio irmo batzuk atera ahal izateko.

Azkenik, eta nahiz eta generoarekin edota euskarak genero perspektiba batetik bizi izan dituen aldaketekin loturarik ez izan, aipagarria da euskarak diskurtiboki eta errepresentatiboki izan duen indibidualtasunerako joera. Testu multimodaletan gorputzen erabileraren bidez aztertu ahal izan da joera hori. 80-90eko hamarkadako testuetan, gorputzen erabileraren bidez kolektibotasuna, edota komunitatea islatu nahi izan dira. Euskarari esanahi kolektiboa eman nahi izan zitzaion hamarkada horietan. Azken hamarkadetako testuetan, aldiz, kolektibotasun hori ez da errepresentatu –nahiz eta lehen aipatu dugun gisara, hau ere aldatzen doan–. Euskararen subjektua indibidualizatu egin da, eta hori gorputz errepresentatuetan ez ezik, testuetan ageri diren hitzezko espresioen bidez ere aztertu ahal izan da: Euskaraz bizi nahi dut; euskara nirea...

Hizkuntza bat, eta pertsona batek hizkuntza horrekin dituen harremanak intimoak dira; norberak gorputzen baititu. Baina hizkuntza beti izango da kolektiboa, harremanezkoa... anonimotasunaren hizkuntza ideologiatik euskarari balioa eman ahal izateko, indibidualizazio prozesu hau bizi izan du euskarak. Hala, indibidualizazio, eta zentzu batean diskurtsoaren joera neoliberalarekin, kontuz ibili beharko gara. Hizkuntzen merkatuan ezin izango baitugu lehiatu.

Laburbilduz, esan liteke, beraz, euskararen erabilera bultzatzeko kanpainetan euskarari esanahi ezberdinak eman izan zaizkiola. Lehendabiziko garaian, eta nazionalismo goiztiarraren kerizpea tarteko, euskararen esanahia trantsizio batean aurkitzen zen genero perspektiba batetik. 80-90eko hamarkadetan aldiz, euskararen esanahia oldarkortasunean ezaugarritu zen, eta maskulinizazio prozesu bat bizi izan zuen. Eta azken hamarkadetan aldiz, euskararen esanahia euskalgintza sozialetik –EHE izan ezik–, eta baita, euskalgintza instituzionaletik ere feminizatu egin dela ondorioztatu liteke. Horrekin batera, eta marko teorikoan ikusi ahal izan den gisara, hizkuntzaren errepresentazio horri hiztun bat dagokio, hiztun potentzial, edota hiztun karikatuzatu bat. Hortaz, euskal hiztunaren esanahiak zentzu horretan euskararen esanahiaren ibilibide berbera egin duela azpimarratu daiteke; trantsizio batetik maskulinitatera. Eta maskulinitatetik feminitaterako bidea, alegia.

Bestalde, euskarari emandako esanahia oro har euskalgintza instituzionalean eta euskalgintza sozialean azken urteetan antzerakoa izan dela ondorioztatu daiteke. Ikerketa honetarako ezin izan da 1980-1990eko hamarkadetako euskalgintza instituzionalaren materialik eskuratu, eta euskalgintzaren ibilbide historikoaren analisi bibliografikoa egin ondotik, pentsa liteke euskalgintza instituzionalak bigarren etapa horretan ez zuela euskalgintza sozialak barreiatzen zuen euskararen esanahi berdina berreiatuko. Hala ere, eta gai hori hizpide harturik, mugimenduaren osasunerako, eta baita euskararen esanahi ezberdinak sortu eta jendartean gizarteratzeko, uste dut komenigarria dela, euskalgintza instituzional eta euskalgintza sozialaren arteko deslotura bat ematea. Gai batzuetan marra gorriak ezarri beharko dira, eta ezinbesteko akordioak lortu, baina euskararen “markari” dagokionez, edota horri eman nahi zaion esanahiari dagokionean, estrategia ezberdinak jarraitu beharko liriateke.

Hau da, euskalgintza sozialak errebeldia puntu bat, “desmelene” bat behar duela esango nuke; euskarari bestelako esanahi bat eman ahal izateko, eta baita mugimenduaren beraren osasunerako ere, euskalgintza instituzional eta sozialaren arteko banaketa eman beharko da. Eta horrek ez du zertan esan nahi 80-90eko hamarkadetako markoan eta gatazka egoeran kokatu beharko denik berriz ere mugimendua. Gaur egun, mugimendu feministak, edota LGTBIQ+ mugimenduak ere, instituzioetako borroka eta kalekoa oso berezita dauzkate; eta esaterako, Emakunde eta mugimendu feminista kalekoenaren artean ez dago etsaitasunik.

Hala nola, eta ildo beretik, euskararen beste esanahi bat eraiki nahi baldin badugu –esanahi berri bat eman nahi baldin bazaio bederen–, kalean horren bizirik dagoen “berdintasun pertzepzioa”-rekin apurtu beharko dugu, eta horretarako esango nuke “aukeraren” bidea hanka motza dela. Euskalgintzatik euskaraz hitz egiteko aukera eskatzen baldin bada, batek baino gehiagok esango dute aukera hori existitzen dela jada, euskara ez dagoela debekatuta, eta abar. Hortaz, auzi linguistikoaz hitz egiten hasi beharko dugu, horrek sortzen dituen minez, eta gure gorputzek horren aurrean sentitzen dutenez. Zentzu horretan, interseksionalitatearen kategoria oso kategoria indartsua dela iruditzen zait, menderakuntza mekanismo ezberdinak oso egoki azaltzen baititu. Hala, eta arestian aipatutako indibidualizazioranzko eta neoliberalizazioranzko bideak utzi, eta menderakuntza hoiek modu kolektiboan ulertzen hasi behar-

ko dugu; aspaldi ikasi baikenuen “pertsonala politikoa dela”. Baita hizkuntzari dagokionean ere. Eta bestetik, menderakuntza estrategiak estrukturalak diren heinean, ahalduntzeko estrategiak ere kolektiboak izan beharko dute –ahalduntzea prozesu kolektiboa baita–. Beraz, nahitaez, auzi linguistikoaren auzia kolektibizatu egin beharko da, kolektiboki ulertu, eta ez indibiduo baten samin gisara, euskal hiztunek benetako ahalduntze prozesu bat bizi izatea nahi baldin badugu, bederen.

Euskaraz bizitzea, subalternoa dela erakutsi beharra daukagu. Normatibitatek at dagoela. Euskarari, honek izan dezakeen esanahi errebeldea ateratzen utzi beharko genioke. Eta jakina, euskararen esanahi hori guztiz lotuta egongo da euskalgintza sozialaren zati batek izan dezakeen estrategiarekin. Hala ere, eta lan mundua, administrazioa, hedabideak... euskaldundu nahi baldin baditugu, espazio ezberdinetan euskarari esanahi ezberdinak esleituko dizkiogu. Leku bakoitzean funtzionatu dezaketenak. Euskararen esanahi errebeldeak, leku batzuetan zentzua izango baitu. Baina horrek ez du esan nahi esanahi hori esleitu beharko diogunik euskarari espazio guztietan. Bazterreko, periferiako, normatibitatek kanpoko euskararen esanahia bat izango da, baina ez bakarra. Zentroa eta norma ere konkistatzeko baititugu oraindik.

Euskarari esanahi ezberdinak leku ezberdinetatik esleituko zaizkio, eta zentzu horretan, garrantzitsua izan liteke lerratuta egotea zenbait kontutan. Hau da, EITB, HPS, euskalgintza soziala... parez pare jarri, eta proiektu estrategiko indartsu bat eraiki beharko dute, hizkuntza politika eraginkor bat; eta euskarari esanahi ezberdinak esleituko dizkiona, besteak beste.

Horrenbestez, badakigu euskararen esanahiak ez direla soilik euskalgintzatik sortu, beste eremu batzuek ere, nahita edota nahigabe, baina sortuko dituzte euskararen esanahiak. Gure eguneroko praktikek ere sortuko dituzten moduan. Hortaz, eta euskararen esanahien sorrera eta interpretazioa kanpo eragileen esku ere egongo den arren, euskalgintzak behintzat horren inguruan hausnartu, eta euskarari zer esanahi esleitu nahiko lizkiokeen pentsatu beharko luke.

6. BIBLIOGRAFIA

- Álvarez, J. L. «Txilardegi» (1966). Hizkuntza eta Herri-kidetasuna. *Branka*, 2, 2–15.
- Acosta, A. (2013). El rol de las mujeres vascas en la transmisión del euskera: El idioma en las dinámicas de género e identidad. 2020ko martxoaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.euskonews.com/0655zbk/kosmo65501es.html>
- AEK. (2020). Korrikaren historia. 2021eko urtarrilaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.korrika.eus/ezagutu-korrika/historia.html#1>
- Agirrebaltzategi, P. (1995). Euskararen aldeko gizarte mugimendua: Zeregina eta artikulazioa. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 16, 17–30.
- Agirrebaltzategi, P. (1999). Euskararen aldeko gizarte mugimenduaren 25 urteok: EKBren ekarpena. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 31, 55–73.
- Aldalur, M. (2020). Helduen kulturarekiko haustura bera da hizkuntzaren jarraikortasuna bermatzen duena. 2020ko maiatzaren 25ean berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2687/miren-artetxe-bertsolaria>
- Alsina, C., & Borrás, L. (2000). Masculinidad y violencia. In *Nuevas masculinidades* (or. 83–103). Vilassar de Dalt: Icaria.
- Altuna, J. (2016). Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean. 2021eko apirilaren 28an berreskuratua. Kontsultatu: <http://hdl.handle.net/10810/19898>
- Altuna, O. (2017). Euskararen ahozko kale-erabilera: Erronkak. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2(61), 407–438.
- Alvarez, N. (2015). La moral, los roles, los estereotipos femeninos y la violencia simbólica. *Revista Humanidades*, 1(6), 1–32.
- Amezaga, A. (2015). *Harritik herrira. Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean, 1954–2014*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Amonariz, K. (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Donostia: Elkar.
- Amonariz, K., & Martinez de Lagos, I. (2017). Bidegurutzetik ateratzeko palankak. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(103), 27–38.
- Amonariz, K. (1993). Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun. *Jazten aldizkaria*, 8, 5–11.
- Amonariz, K. (1995). Euskararen erabilpenaren feminizazioa. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 15, 89–96.

- Anaut, D. (2013). *Euskararen kate hautsiak: Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Andoain: Euskal memoria fundazioa.
- Anduaga, U., & Jauregi, P. (2019). *Euskaraldia I: Emaitzen azterketa. Euskararen eremu osoa 2018-2019*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Apodaka, E., & Morales, J. (2021). La gobernanza lingüística en la Comunidad Autónoma Vasca: Racionalidad neoliberal y demandas comunitarias. *Athenea Digital*, 1(21), 1-26.
- Arana, S. (1965). *Obras Completas*. Buenos Aires: Sabindar Batza.
- ARGIA aldizkaria. (2013). 1998ko Bai Euskarari ekitaldia. 2021eko otsailaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.youtube.com/watch?v=hcdWjHXuHU8>
- ARGIA aldizkaria. (2000). HABEk eta AEK-k 1995ean sinatutako hitzarmen markoaren baitan. 2020ko azaroaren 2an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.argia.eus/albiste/habek-eta-aek-k-1995ean-sinatutako-hitzarmen-markoaren-baitan>
- Arriola, U. (2019). *Euskararen aldeko ekimenen eragina. Euskaraldia helburu*. HIZNET-Hizkuntza Plangintza Graduondokoa: Sakontze Egitasmoa.
- Arruti, I. (2018). Ahobizi, belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin ateratzeko esperientzia bat. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(107), 45-63.
- Artetxe, M. (2019). *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak: Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Artetxe, M. (2020a). Bertsolaritzak baditu tresnak gazteen identitatea garatu ahal izateko. 2021eko otsailaren 2an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.kazeta.eus/eu/info_kz/20201130/miren-artetxe-bertsolaritzak-baditu-tresnak-gazteen-identitatea-garatu-ahal-izateko
- Artetxe, M. (2020b). “Bertsolaritzatik hiztun berrietara, hiztun berrietatik hizkuntzara”. Euskararen diskurtsoak: Zaharrak berri?, Donostia.
- Auñamendi Eusko Entziklopedia. (2013). Euskal soziolinguistika. 2020ko azaroaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskal-soziolinguistika/ar-152178/>
- Auñamendi Eusko Entziklopedia. (2018). Ez Dok Amairu. 2021eko urtarrilaren 4an berreskuratua. Kontsultatu: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ez-dok-amairu/ar-43522/>
- Auñamendi Eusko Entziklopedia. (2020). Autonomia Estatutua. 2020ko urriaren 4an berreskuratua. Kontsultatu: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/autonomia-estatutua/ar-29857/>
- Azparren, I. (2021). Gaur Taldearen eredu eraldatzaile eta kolektiboa liburu batean aztergai. 2021eko apirilaren 4an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210320/gaur-taldearen-eredu-eraldatzaile-eta-kolektiboa-liburu-batean-aztergai>

- Azurmendi, J. (1964). Neskatzak ez dute euskeraz itzegin nai. *JAKIN aldizkaria*, 16, 62–68.
- Bai Euskarari. (2000). Bai Euskarari Elkarte. 2021eko maiatzaren 1ean berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.baieuskarari.eus/eu/komunitatea/bai-euskarari-ziurtagiria/zer-da-bai-euskarari-ziurtagiria>
- Balta, A. (2008). Importanciadel analisis semiotico de los anuncios publicitarios. *CULTURA*, 22, 247–258.
- Barthes, R. (1990). *La aventura semiológica*. Barcelona: Paidós.
- Baxok, E. (2007). Euskararen legea: 1982ko oinarritzko legea, euskeraren erabilpena arakotzekoa Ipar Euskal Herriko ikuspegi bat. *Euskera*, 3, 1554–1571.
- Baxok, E., Etxegoin, P., Lekunberri, T., Martinez de Luna, I., Mendizabal, L., Ahedo, I., Itzaina, X., & Jimeno, R. (2007). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearren hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Benavides, J. (2012). La investigación en comunicación y publicidad: Nuevos temas y problemas. *Questiones publicitarias*, 1(7), 71–93.
- Benavides, J. (2013). ¿De dónde vienen los valores de las marcas? 2020ko abenduaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.managementociety.net/2013/05/22/de-donde-vienen-los-valores-de-las-marcas/>
- Boaventura de Sousa, S. (2001). Los nuevos movimientos sociales. *Osal*, 4, 177–188.
- Butler, J. (2013). Gender Trouble (Generoa ezbaian). In I. Castillo & I. Retolaza, *Genero ariketak* (or. 221–249). Donostia: Edo!
- Cao, M. (1998). La Retórica visual como análisis posible en la didáctica del arte y de la imagen. *Arte, Individuo y Sociedad*, 10, 39–62.
- Cares, C. (2017). *Arte, género y discurso: Representaciones sociales en el Chile reciente*. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- Caro, A. (1993). *La publicidad de la significación: Marco, concepto y taxionomia*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid.
- Chaya, J. L. (2014). Glosario. In *Términos fundamentales de semiótica*. Barbera del Valles: Manuales Humanitas.
- Cope, B., & Kalantzis, M. (2010). Gramática de la multimodalidad. *Boletín de la Asociación Andaluza de Bibliotecarios*, 98–99, 93–152.
- Curto, V., Rey, J., & Sabaté, J. (2008). *Redacción publicitaria*. Barcelona: UOC.
- Cuvaric, D. (2001). Los marcos interpretativos en las ciencias sociales. *Reflexiones*, 80(1), 1–16.
- Del Valle, T. (1985). *Mujer vasca: Imagen y realidad*. Barcelona: Anthropos.
- Eco, U. (1988). *Tratado de semiótica general*. Barcelona: Lumen.
- EITB. (2020). Akordioa lortzeko ezkutuko bilerak izan ziren Durangon eta Urkiolako jatetxe batean. 2020ko abenduaren 25ean berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ur-handitan/bideoak/osoak/7656935/bideoa-josune-ariztondo-aek-eta-jaurilaritzaren-akordioaz/>

- EKB. (1992). Politikariak euskararen herri mugimenduaz mintzo. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 6, 69–93.
- Eskisabel, I., & Agirre, L. (2016). Euskalgintza eta feminismoa: Identitateak berre-raiki, demokrazia sendotu, boteretze kolektiboa bultzatu eta subalternitate eraldatzaile unibertsalak eraikitzeke proposamen bat. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(98), 11–22.
- Eskisabel, I., & Agirre, L. (2017). Gorputzen elkargunea, bizi dugun lurraldea. *JAKIN aldizkaria*, 221–222, 13–37.
- Eskisabel, I., & Agirre, L. (2019). *Trikua esnatu da: Euskaratik feminismora eta feminis-motik euskarara*. Zarautz: Lisipe.
- Esteban, M. L. (2013). *Antropología del cuerpo: Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Barcelona: Bellaterra.
- Ettxalar, E., & Arregi, M. (1995). Euskararen aldeko mugimendu sozialaren zeregina eta artikulazioa etorkizunean: Edukiak eta egiturak. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 16, 57–66.
- Etxebarrieta, O., & Rodriguez, Z. (2016). *Borroka armatua eta kartzela*. Zarautz: Lisipe.
- Euskaltzaindia. (1978). Bai Euskarari kanpainaren aldeko jaialdia: Euskaltzaindiaren adierazpena. 2021eko apirilaren 13an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1398&task=adierazpenak&view=adierazpenak&lang=eu&kodea=2
- Euskaltzaindia. (2018). *Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018): Bai Euskarari kanpainaren aldeko jaialdia*. 2021eko apirilaren 20an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1398&task=adierazpenak&view=adierazpenak&lang=eu&kodea=2
- Euskaltzaindia. (2020a). Publizitate—Literatura Terminoen Hiztegia. 2020ko abenduaren 6an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=publizitate
- Euskaltzaindia. (2020b). UKAN- Euskara Batuaren Eskuliburua. 2021eko maiatzaren 2an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=1347
- Euskaltzaindia. (2021). Aberri. 2021eko apirilaren 29an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ecoeda&task=bilaketa&Itemid=469&lang=es&query=Aberria&mota=izenak
- Euskaraldia. (2018). Sustatzaileak | Euskaraldia. 2021eko apirilaren 4an berreskuratua. Kontsultatu: <https://euskaraldia.eus/sustatzaileak/>
- Euskararen Aholku Batzordea. (2016). *Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanke-ta*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Euskararen Maratoia. (2016). Euskararen Maratoia: Zer da ? 2021eko apirilaren 8an berreskuratua. Kontsultatu: <https://euskararenmaratoia.eus/zerda/>
- Eusko Ikaskuntza. (1907). Euskararen Pizkundea. *RIEV: Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*, 1(2), 213–214.
- Eusko Ikaskuntza. (2018). RIEV: Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria. 2020ko maiatzaren 13an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenak/eusko-ikaskuntzen-nazioarteko-aldizkaria-riev/bi-128/>
- Eusko Jaurlaritza. (2006). «*Pixka bat es mucho*», *beldurrak alde batera uzteko kanpaina*. 2021eko apirilaren 30ean berreskuratua. Kontsultatu: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza//contenidos/noticia/albis2_3_pixkabat_07_12/eu_pixkabat/albis2_3_pixkabat_07_12.html
- Eusko Jaurlaritza. (2012). 67/2003 DEKRETUA, martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko. 2021eko martxoaren 25ean berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-v/d/2003/03/18/67/dof/eus/html/x59-contfich/eu/>
- Eusko Jaurlaritza. (2019). Euskararen Aholku Batzordea (EAB). 2020ko ekainaren 2an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.euskadi.eus/euskararen-aholku-batzordea-eab/web01-a2ahobat/eu/>
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, & Euskararen Erakunde Publikoa. (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskararen eremu osoa*. Gasteiz: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- Ezkerra, M., & Fernández, I. (1995). Euskararen gizarte mugimendua eta euskararen normalkuntza. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 16, 49–55.
- Fernández, I. (1995). *Oroimenaren hitza: Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: UEU. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Gaindegia. (2018). Parte-hartzea: Euskaraldia. 2020ko apirilaren 25ean berreskuratua. Kontsultatu: <https://euskaraldia.eus/parte-hartzea/>
- Gamboa, O., Garaio, G., & Ruiz, M. (2007). Trantsizioa Euskal Herrian: Zapalkuntza frankistatik, Estatuaren onarpenera (1975-1979). *Kondaira*, 7, 1–27.
- Garai, E. (2018). Hau da marka. Markagintzaren oinarri teoriko eta praktikoak. In N. Jauregizuria (Arg.), *Nazio-markagintza: Nola transmititu gure balioa* (or. 31–39). Bilbo: UEU. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Garcia, O. (2016). Hizkuntza-transmisioaren kate-begi isilak. 2021eko otsailaren 7an berreskuratua. Kontsultatu: <http://komunitatea.elhuyar.eus/eraldaketa-elhuyar-da/2016/02/22/hizkuntza-transmisioaren-kate-begi-isilak>
- Goikoetxea, G. (2016). *Euskara irabazteko bidean*. Donostia: Aleka.
- Goikoetxea, G. (2020). D ereduko aisialdia eta lantokia. 2020ko martxoaren 4an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.berria.eus/paperekoa/1877/016/001/2020-05-22/d-ereduko-aisialdia-eta-lantokia.htm>

- Gonzalez, D., & Sueiro, E. (2017). Uso del color en la infancia. *Revista de estudios e investigación en psicología y educación*, 4, 1–4.
- Hernández, J. (2011). Baina gu ere gazteak izan ginen. Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur. *Euskera*, 2(55), 579–607.
- Hernández, J. (2015). Familia hizkuntz politika: Transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(94), 47–62.
- Hernández, J., & Altuna, J. (2017). %2,7- Euskara, geneoaz mintzo? *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(103), 121–150.
- Hernandez, J. M. (2002). Kale Neurketa: Sexuaren Araberako Erabileraren Emaitzak Eta Horien Inguruan Sortutako Galderak. 2020ko maiatzaren 17an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.soziolinguistika.eus/node/940>
- Hernandez, J. M. (2004). Euskara dela eta... neskek zer diote? *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 53, 79–95.
- Hernandez, J. M. (2005). *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Eusko Jaurlaritzza: Soziologiako Euskal Kuadernoak 16.
- Ibarra, P. (1999). *¿Que son los movimientos sociales?*
- Ibarra, P. (2003). Movimientos nacionalistas el nacionalismo radical vasco: Epílogo. In *Nuevos escenarios, nuevos retos en la red: Anuario de movimientos sociales* (or. 177–191). Barcelona: Icaria Editorial.
- Idoyaga, P. (2009). ETA (1959–2009): Anotaciones históricas. *Viento sur*, 106, 44–56.
- Igartua, I., & Zabaltza, X. (2012). *Euskararen historia laburra*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Illaro, A., & Martinez de Lagos, I. (2018). Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(107), 65–78.
- Inda, M. (2019). *Euskalgintzaren bilakaera eta kultura aktibista: Begirada bat Nafarroatik*. HIZNET- Hizkuntza Plangintza Graduondokoa: Sakontze Egitasmoa.
- Iza, I. (2010). *Ikastola mugimendua. Dabilen herria: Ikastola eredia 1960-2010*. Bilbo: Jagon Saila, Euskaltzaindia.
- Järlehed, J. (2008). *Euskaraz: Lengua e identidad en los textos multimodales de promoción del euskara, 1970-2001*. Gothoburg: Acta Universitatis Gothoburgensis.
- Kasares, P. (2014a). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunex belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2014b). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunex belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Jagon saila, Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2015). Euskararen belaunex belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(94), 13–45.
- Kontseilua. (2010). Euskaraz Bizi Nahi Dut dinamika. 2020ko urriaren 4an berreskuratua. Kotsultatu: <https://kontseilua.eus/egitasmoak/euskaraz-bizi-nahi-dut-dinamika/>

- Kontseilua. (2020a). Geroa Euskaratik. 2020ko maiatzaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: <https://kontseilua.eus/geroa-euskaratik/>
- Kontseilua. (2020b). Kontseiluaren historia. 2020ko otsailaren 5ean berreskuratua. Kontsultatu: <https://kontseilua.eus/kontseilua/>
- Kress, G., & Van Leeuwen, T. (2001). *Multimodal discourse. The modes and media of contemporary communication*. Londres: Arnold.
- La Barbera, M. C. (2017). Interseccionalidad. *Eunomía. Revista en Cultura de la Legalidad*, 12, 191–198.
- Lagarde, M. (1996). *Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia*. Madrid: Horas y Horas.
- Lakoff, R. (1981). *El lenguaje y el lugar de la mujer*. Barcelona: Hacer.
- Larrinaga, A. (2011). *Kulturgintzako esparruko eragileen tradizio intelektualak: Kultur-gileak gizarte mugimenduetan*. Gasteiz: Tesiker.
- Larrinaga, A. (2017). Emozioak ekintza kolektiboan: Emoziozko testuinguruaren bilakaera euskararen aldeko mugimenduan. *Gogoia: Euskal Herriko Unibertateko hizkuntza, ezagutza, komunikazio eta ekintzari buruzko aldizkaria*, 16, 57–84.
- Larrinaga, A. (2018). *Movimientos sociales y feminismo*. Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra (Genero y sociedad ikasgaiko apunteak) EHU.
- Llona, M. (2002). *Entre señorita y garçonne. Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Malaga: Universidad de Malaga.
- Lozano, I. (1995). *Lenguaje Femenino, Lenguaje Masculino: ¿Condiciona nuestro sexo la forma de hablar?* Madrid: Minerva.
- Manghi, D. (2009). *Co- utilización de recursos semióticos para la regulación del conocimiento disciplinar. Multimodalidad e intersemiosis en el Discurso Pedagógico de Matemática en 1º año de Enseñanza Media*. Valparaiso: Pontificia Universidad católica de Valparaiso.
- Marterola, J. (1997ko Martxoaren 9a). Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortzea erabaki dute. *Euskaldunon Egunkaria*.
- Martinez de Luna, I. (2010). Framing: Komunikazio-teorietatik euskararen beharri-zanetara. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 3(76), 53–67.
- Martinez de Luna, I. (2013). Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(86), 1383.
- May, S. (2019). *El poder de lo cuqui*. Barcelona: Alpha Decay.
- Mr. Wonderful. (2012). Sobre nosotros—Mr. Wonderful. 2021eko maiatzaren 14an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.mrwonderfulshop.es/es/quienes-somos>
- Núñez, A., Zambra, A., & Aliste, E. (2016). El poder de los mapas: La construcción del saber geográfico de Patagonia-Aysén. *Universum: Revista de humanidades y ciencias sociales*, 32(2), 149–162.
- O'Halloran, Kay. L. (2012). Análisis del discurso multimodal. *ALED*, 1(12), 75–97.

- Odrizola, J. M. (1992). Euskararen aldeko herri-mugimenduak: Praktika eta teoriaren arteko uztardura. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 6, 25–41.
- Odrizola, O., & Iraola, I. (2017). lengua e inmigración en la definición de la nación: El caso vasco. *Spagna contemporanea*, 51, 35–55.
- Odrizola, O., & Zabalo, J. (2014). Euskararen garrantzia diskurtso abertzalean: Ardatz ala osagarri? *Uztaro: Giza eta Gizarte-zientzien aldizkaria*, 91, 67–82.
- Ostalé, J. (2013). ¿Semiótica o Semiología? Algo más que una cuestión terminológica. 2021eko urtarrilaren 7an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.academia.edu/3154826/_Semi%C3%B3tica_o_Semiolog%C3%ADa_Algo_m%C3%A1s_que_una_cuesti%C3%B3n_terminol%C3%B3gica
- Ozaita, M. (2012). Auzoko Egitasmoa, gerturapen bat. Euskara eta aniztasuna abiapuntu dituzen egitasmo pilotuen gaineko azterketa. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(82), 131–147.
- Pardo, N. G. (2008). El discurso multimodal en Youtube. *ALED*, 1(8), 77–107.
- Peñamarín, C. (2015). Creatividad y transformación cultural. El dinamismo de los sistemas de significación. *VS. Versus. Quaderni di studi semiotici*, 121, 1–14.
- Peñamarín, C. (2018a). *La fundación moderna de la semiótica. Estructuralismo y pragmatismo*. Curso de doctorado: Investigación y análisis cualitativo en comunicación. La metodología semiótica, UCM: Madrid.
- Peñamarín, C. (2018b). *Prágmatica*. Curso de doctorado: Investigación y análisis cualitativo en comunicación. La metodología semiótica, UCM: Madrid.
- Pérez-Agote, A. (1984). *La reproducción social del nacionalismo. El caso vasco*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS).
- Rey, J. (1992). *La significación publicitaria*. Sevilla: Alfar.
- Rodó de Zárata, M., & Estivill i Cantany, J. (2016). ¿La calle es mía? Poder, miedo y estrategias de empoderamiento de mujeres jóvenes en un espacio público hostil. Gasteiz: EMAKUNDE.
- Rodríguez, D. P., & Velásquez, A. M. (2011). Análisis crítico del discurso multimodal en la caricatura internacional del periódico The Washington Post. *Cuadernos de Linguística Hispánica*, 17, 39–52.
- Rodríguez, T. (2020a). *30 urte mihigintzan: Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina 1987-2017*. Derio: Euskal Heriko Unibertsitatea.
- Rodríguez, T. (2020b). *30 urte mihigintzan: Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina 1987-2017*. Bilbo: UEU. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Rubin, G. (1986). Tráfico de mujeres. Notas sobre la «economía política» del sexo. *Nueva Antropología*, 8(30), 95–145.
- San Telmo Museoa. (2021). El Museo San Telmo incorpora a su colección la escultura “Txalaparta” (1965) de Remigio Mendiburu. 2021eko apirilaren 29an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.santelmomuseoa.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=119&Itemid=30&lang=es&idn=98263

- Sánchez, A. (1999). El color: Símbolo de poder y orden social. Apuntes para una historia de las apariencias en Europa. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie IV, Historia Moderna*, 12, 321–354.
- Sanchez Carrión, J. M. (1981). La Navarra Cantábrica. *Fontes Linguae Vasconum*, 37, 19–99.
- Sanchez, M. (2018). *La semiótica de los objetos de Mr. Wonderful*. Castelló: Universidad Jaume I.
- Saussure, F. (1967). *Curso de lingüística general*. Buenos Aires: Losada.
- Sayad, A. (2008). Estado, nación e inmigración: El orden nacional ante el desafío de la inmigración. *Apuntes de investigación*, 13, 101–116.
- Soziolingüistika Klusterra. (2016). Hizkuntzen erabileraren VII. kale neurketa.
- Soziolingüistika Klusterra. (2020a). EKBren 16 urteko lanaren memoria. 2021eko martxoaren 18an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.soziolingüistika.eus/es/node/801>
- Soziolingüistika Klusterra. (2020b). *Gazteak euskararen eszenatokian: Erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*. Andoain: Soziolingüistika Klusterra.
- Soziolingüistika Klusterra. (2020c). Nortasuna | Soziolingüistika Klusterra. 2021eko maiatzaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.soziolingüistika.eus/aurkezpena/nortasuna>
- Tejerina, B. (1999). El poder de los símbolos: Identidad colectiva y movimiento etnolingüístico en el País Vasco. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 88, 75–106.
- Tejerina, B. (2006). Los procesos de cambio lingüístico y sus agentes. Un balance de la política lingüística de promoción del euskera en la Comunidad Autónoma Vasca. In *Las Lenguas de España: Política lingüística, sociología del lenguaje e ideología desde la transición a la actualidad*. Madrid: Iberoamericana.
- Tokikom. (2015). Zer da TOKIKOM? 2020ko ekainaren 2an berreskuratua. Kontsultatu: <https://tokikom.eus/zer-da-tokikom/>
- Topagunea. (2017). Zer da mintzalaguna? 2020ko maiatzaren 27an berreskuratua. Kontsultatu: <https://mintzalaguna.topagunea.eus/zer-da/>
- Topalabea. (2015). Berrikasi eta berrikusi. *Topaberri*, 66, 1–20.
- Topalabea. (2020). Berrindartu eta jauzi. *Topaberri*, 67, 1–20.
- Torrealdai, J. M. (1997). *Euskal kultura gaur*. Donostia: Jakin.
- Ttakun. (2019). Ttakun Kultur Elkarte. 2021eko martxoaren 27an berreskuratua. Kontsultatu: <https://ttakun.eus/>
- Ubeda, J. (1997). *Euskal Herriko kartelak: Askatasunaren irudiak*. Tafalla: Txalaparta.
- Udaltop. (2020). Udaltop. 2020ko maiatzaren 3an bereskuratua. Kontsultatu: <http://www.udaltop.eus/eu/>

- Unzurrunzaga, A. (2004). Euskara eta etorkinak. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 52, 28–34.
- Vega, B. (2012). *Lenguaje visual publicitario como sistema de comunicación en el street art: Creación y difusión*. Madrid: UAM. Universitat Autònoma de Madrid.
- Vega, S. M., Barredo, D., & Merchán, A. (2019). Percepción de los comportamientos y patrones corporales asignados a la mujer en publicidad. *Ámbitos. Revista Internacional de Comunicación*, 44, 162–180.
- Woolard, K. (2005). Language and Identity Choice in Catalonia: The Interplay of Contrasting Ideologies of Linguistic Authority. *California Digital Library*, 1–35.
- Woolard, K. (2008). Les ideologies lingüístiques: Una visió general d'un camp des de l'antropologia lingüística. *Revista de Llengua i Dret*, 49, 179–199.
- Woolard, K. (2021). Language Ideology. *The International Encyclopedia of Linguistic Anthropology*, 1–21.
- Woolard, K., & Gal, S. (2001). *Languages and Publics: The Making of Authority*. Routledge.
- Zalbide, M. (2016). Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 3(100), 11–190.
- Zarraga, A. (2010). Soziolinguistikari sarrera. In *Soziolinguistika eskuliburua* (or. 21–85). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Zubimendi, J. R. (2001). *Euskara batuaren sorrera*. 2020ko apirilaren 4an berreskuratua. Kontsultatu: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_jagonet&view=galdere&Itemid=423&lang=eu&id=477
- Zulaika, J. (1988). *Basque Violence: Metaphor and Sacrament*. Carson City: University of Nevada Press.

7. ERANSKINAK

7.1. TESTU MULTIMODALEN ANALISI FITXAK

KO1



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Donostiako hauzo elkarte

Urtea: 1975

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik, fondo zuri baten gainean eraikita baitago testua. Hitzeko elementuak dira gehien ageri direnak. Hitzeko elementuetan aurrerago sartuko baldin bagara ere, irudiaren behealdean orduko "Lan kide aurrezki" kutzako logoa ageri da. Horrekin ondoriozta genezake, aurrezki kutxa horrek, kartel hau edota Donostiako auzo elkarteak diruz laguntzen zituela. Hala nola badago elementu ez bizidun bat, bakarra. Hau soka bat da, zehatzago, soka baten korapilo bat ageri da irudiaren erdi erdian. Irudiari erreparatuta esan liteke soka nahiko sendoa dela. Hau da, sokatira herri kirola egiteko erabiltzen den soka gogorarazten du. Batzuk alde batetik tiraka, eta beste batzuk beste batetik tiraka egongo balira bezala. Tentsioan baitago soka. Soka ez dago ahul, testuan ageri den soka guztiz tenkatuta dago.

Praktikak edo ekintzak: Elementu bizidunik ageri ez den arren testuan, eta hortaz, praktika edota ekintza zuzenik ere ez, sokaren tentsioak badirudi askatu nahi bat errepresentatu nahi duela. Hitzeko testua aurrerago aztertuko den arren, "Euskara ez da bakarrik askatuko" esaldiak ere, ekintza edo praktika du bere baitan. Hala ere, hizkuntza-praktikekin lotutako ekintza edota praktikarik ez zaigu ageri bere horretan. Baina hizkuntzarenganako jarrera aktibo edo ekintza esaldi batek ere errepresentatzen du: "Ez da nahikoa kartel hau begiratzea". Hau da, begiratzetik, egotetik, egiterako saltoa eskatzen ari da esaldia, akzioa. Hori islatzen du gainera, sokaren azpian berdez idatzita dagoen esaldiak: "Zatof eta lagundu". Hau da, ekintzarako jauzia eskatzen du kartelak.

Koloreak: Gorria, zuria, berdea eta beltza dira testuan ageri diren koloreak. Beltzez soka ageri da, eta baita gaztelaniaz idatzitako hitzak ere. Gorria badirudi, gauzak azpimarratzeko erabiltzen dela. Testuari izenburua eskaintzen dion esaldia gorritz, eta letra lodiz idatzita baitago. Horretaz gain, "Donostiako hauzo elkarteak" kartelaren egileen izena ere -euskaraz- gorritz dago, eta gaztelerazko izena, aldiz, berdez. Kartelaren bigarren mezua ere, berdez ageri da.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartealeko hartzailearengandik gertuen, soka eta horren korapiloa dauzkagu. Lehen plano batean daudela esan genezake.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testuaren ezkerrean, ezagun gisara, euskarazko "Denok dugu zer egin, ez da nahiko kartel hau begiratzea" idatzizko esaldia daukagu. Eskuinean eta berrietasuna errepresentatuz, gaztelaniazko itzulpena; kartel guztiko hitzak bertan jasotzen dituen: "El euskara no se va a liberar solo, entre todos lo tendremos que hacerlo, y no es suficiente con mirar este cartel. Ven y colabora". Kartelaren goiko partean, aldiz, hizki lodiz eta gorritz "Euskara ez da bakarrik askatuko" ideala errepresentatuz. Eta behean, erreala errepresentatuz, kartelaren egileak, eta finantziazio iturria -Donostiako auzo elkarteak, Lan kide aurrezki kutxa-. Zentroan, eta jada aipatua izan den gisara, soka eta bere korapiloa ageri dira.
 - **Prominentzia:** Lehen plano argi batean, soka eta bere korapiloa, eta "Euskara ez da bakarrik askatuko" esaldia ageri zaizkigu. Bigarren planoan, aldiz, gaztelerazko testua ageri da, bigarren planoan, beltzez, eta nabarmen txikiago.

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek hainbat idatzizko esaldi dakartzkigu. Lehenik eta behin, goialdean, gorrix eta letra lodiz idatzita: "Euskara ez da bakarrik askatuko". Bestetik, eta bigarren lerro batean berdez: "Denok dugu zer egin. Ez da nahikoa kartel hau begiratzea" esaldia izango genuke. Esaldi horren eskuintetara, askoz ere hizki txikiagoz, eta beltzez: "El euskera no se va a liberar solo. Entre todos tendremos que hacerlo y no es suficiente con irar este cartel. Ven y colabora". Sokaren azpialdean, "Zatoz eta lagundu" dioskun esaldia ageri zaigu. Eta azkenik, kartelaren egileen eta finantziatzaileen izenak: "Donostiako auzo elkarte/ Asociación vecinos S. Sebastian" eta "Caja Laboral Popular/Lan kide aurrekia".

Temporalidadea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia. Orain mugitu behar da, euskara ez baita bakarrik askatuko, eta ez baita nahikoa kartel hau begiratzearekin. Hala ere, etorkizuneko zertzeladak ere baditu. Badirudi mezuak orainari egiten diola erreferentzia, baina etorkizuna aldatzeko.

DISKURTSOA:

Kartel honek diskurtso mailan, bi elementu nabarmen dakartza. Batetik, korapiloaren ideia, zerbait preso dagoenaren ideia, alegia: "Euskara ez da bakarrik askatuko". Hizkuntza gatazka edo menderakuntza planteatzen du esaldiak, korapilo bat dago, askatu behar-koa. Eta horrekin batera, ekintzarako deia egiten du: "Ez da nahikoa kartel hau begiratzea". Ezagutzarako (kartela bi hizkuntzetan baitago) eta erabilerarako saltoa emateko, hortaz, bi argudio hauek –ebaluaziozkoak edota legitimaziozkoak– erabiltzen dira. Honetaz gain, kartel hau behatzen dagoen pertsonarengan ekintza bat, edota praktikarako salto bat bilatzen du. Esan bailiteke tentsioa transmititzen duela kartelak. Tenkatuta dagoen soka horren bidez, eta hitzeko esaldiek lagunduta gatazka edota indarren arteko lehia bat errepresentatzen du testuak.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Euskal hiztunei zein erdal hiztunei zuzenduta dago testua, nahiz eta hizkien tamainari erreparatuz gero, esan litekeen gehienbat euskaldunenentzako mezua dela.

Koloreek euskal nortasuna adierazten digute, identitate euskalduna, eta orduko garaiko karteletako "norma". Horretaz gain, ekintzarako deia, eta sokak islatzen duen tentsioaren bidez, ondoriozta genezake kartela bere horretan nahiko maskulinoa dela.

Hau da, kartel honi dagokion hartzailea, eta hortaz, kartel honek irudikatzen duen hiztuna, nahiko tradizional edo autentikoa dela dirudi (beraz, gizona?). Nahiz eta kartela Donostiako elkarte batek egina izan landa eremura baikaramatza, sokaren irudiaren bitartez, batez ere.

K02

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea: Asociaciones de familias/ Famili elkarteak

Urtea: 1976

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Testu honetan ez da kanpo edota barne espaziorik irudikatzen. Hau da, kartela hondo edo azal gorri baten gainean dago eraikita, ez du espazio "errealik" errepresentatzen.

Hala ere, testuan nabarmentzen den objektu bat daukagu: lauburu irudikatzen duen irudi bat. Lauburu hori gainera, lodi samarra da, eta barruak irudiz beteta dauzka. Idatzizko testuari erreparatuta, lauburuaren punta bakoitzak auzoari, merkatuari, lantegiari eta eskolari erreferentzia egiten diotela esan genezake; berran, lau gunehorietan irudikatzen dituzten zuri-beltzeko argazkiekin osatutako "

Lauburuaren goialdeko puntan, azoka errepresentatzen duten irudiak ageri dira. Hala ere, argazkiak horren dira txikiak, eta zuri beltzean daudenez, oso zaila egiten da zeri erreferentzia egiten dioten asmatzea. Hau da, ez da garbi ikusten merkatua errepresentatu nahi duen collage zatia, nolabait ere, zaila egiten da berau deszifratzea. Lauburuaren eskui-neko puntan aldiz, lantegiari erreferentzia egiten dion collage-a ageri da. Bi argazki osatzen dute collage-a, eta lantegi industrialak dakartza gogora irudiak. Batetik, Bilbo edota ezker aldeko garai bateko ontziolak gogora dakartzan lantegi bat ageri da. Eta bestetik, lantegi industrialak dirudien bat. Lauburuaren behealdeko puntan aldiz, eskolari erreferentzia egiten dion collage-a izango genuke. Collage hori hiru argazki osatzen dute. Batetik, arbelean klariona batekin idazten dagoen esku bat nabarmentzen da; ume esku bat dirudiena. Bigarrenik, ikasgela bat dirudien argazki bat daukagu ikasleez -mutilez- beteta. Ikasle horiek aurrera begira -kamarari begira- ageri dira, eta hiru pertsonak eskua altxatuta daukate, zerbait esateko baimena eskatzen egongo balira bezala. Azkenik, eta nahiz eta behealdeko punta horretan kokatuta egon, lauburuaren "gorputza" edo erdiko zatia osatzen egongo balitz bezala, pertsona asko ageri den argazki bat dago. Ez da erraza bereizten, pertsona helduak edota umeak diren, baina esan liteke jende masa bat osatzen dutela. Azkenik, eta lauburuaren ezker aldeko puntan, auzoa irudikatzen duen collage-a dago. Hiri-auzo bat dela ondorioztatu liteke, nolabait ere ageri diren etxe blokeek, hiriko etxeei egiten baitie erreferentzia. Hala nola esan liteke ez direla luxuzko etxeak, langile auzune bateko etxe blokeak baitirudite.

Bestetik, eta lauburuaren azpian berdez, "Asociaciones de familias/ Famili elkarteak" izena agertzen da. Kartelaren "jabea" litzateke elkarte hau. Ezin izan da jakin famili elkarte horiek non kokatzen diren, informazio hori ezin izan baita eskuratu. Hala ere, aipagarria da gaztelaniazko idatzizko testuaren eta euskarazkoaren erdian, berdez irudi bat dagoela. Irudia argazki bat da. Eta argazki horretan jende "masa" bat ageri da. Argi ez baldin badago ere, badirudi gehiengo emakumeak direla, aurpegi batzuetan erraz ikus bailiteke emakumezkoen aurpegi eta gorputzak azaltzen direla. Irudia kokatuta dagoen lekuagatik ondorioztatu liteke "famili elkarten" logoa dela; edota hauek errepresentatzeko, irudi hau erabili dutela kartel honetan behintzat.

Praktikak edo ekintzak: Praktika edota ekintzak testu honetan hitzen bidez jaso edo hauteman genitzake. Ekintzarako, edota mugimendurako deia egiten digu goialdean eta letra larriz ageri den leloak: "Euskara sar hadi/Entra". Eta are gehiago, kartelean euskara nora sartu behar den ere islatzen da: merkatura, lantegira, hauzategira (auzora) eta eskolara. Esan liteke, hortaz, erabilerarako saltoa islatzen duela nolabait kartel honek, nahiz eta eskolaren kasuan, ezagutzari erreferentzia egiten diola ere pentsa litekeen.

Hala, eta objektu ezberdinak baldin badaude ere kartelean, eskolako argazki bidezko collage horretan soilik ageri zaizkigun pertsonak, kasu honetan umeak -mutilak- direlarik. Testu hau ikustean, pentsa genezake euskara bere "bizi propioz" edo, sartu behar dela lau gune horietara. Ekintza edo praktika hori ez baita pertsonen gorputzetan hezurramitzen. Hau da, praktika edo ekintza ageri zaigu, baina ekintza hori gauzatuko duen, edo hizkuntza-praktikekin lotuko duen gorputzik ez da ageri; eskolako umeak -mutikoak- izan ezik. Horretaz gain, lauburuaren "gorputzean" edo erdialdean kokatuta dagoen argazkia ere izango genuke. Jende multzo bat errepresentatzen du argazkiak, eta nolabait mugimendua ere adierazi lezake. Baina mugimendua garbier adierazten duen irudia behealdean eta berdez ageri dena izango litzateke; hau da, gorago aipatu den Famili elkarten "logoa" izan zitekeena. Bertan jendetza ageri da, eta esan liteke jendetza hori emakumeek osatzen

dutela. Hau da, familien paradigmatari loturik, argazkian ageri direnak amak direla ondorioztatuz geroz. *Transmisioarekin lotura?*

Koloreak: Gorria, zuria eta beltza dira testuan ageri diren koloreak. Testu edo kartelaren hondoa edo azala gorri kolorekoa da. Zuriz, aldiz, idatzitako hitzak, eta lauburuak ageri dira. Lelo nagusiari dagokionez, hizkiak marra ezberdinekin eraikita daude. Horretaz gain, euskarazko eta gaztelaniazko hitzak, bi hizkuntzetan daudenak alegia, tamaina berekoak dira, eta bi hizkuntzetan zuriz idatzita daude. Kolore berdez, kartelaren igozteko enpirikoa ageri zaigu, hau da, "Asociaciones de familias/ Familia elkarteak" eta bi hitz hauen erdian ageri den argazkia. Lauburuaren barruan dauden argazkiak, aldiz, zuri beltzez osatutakoak dira.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta behatzailearen edota karteleko hartzailearengandik gertuen, edota hurbiltasun inpresio hori emanez, lauburuak egongo litzateke.
 - **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Esanahi iteratiboarekin lotuta, zentroan eta nabarmentzen den elementu gisara, lauburuak bera daukagu. Lauburuak lau punta dituen arren, esanenez geroz lauburuak bere osotasunean hartzen duela zentroa. Testuaren goialdean, "Euskara sar hadi/ Entra" leloa izango genuke, ideala errepresentatuz. Eta behealdean, aldiz, "Asociaciones de familias/ famili elkarteak" igozteko enpirikoaren izena, erreala errepresentatuz.
 - **Prominentzia:** Aurreko adierazle edota kategoriekin lotuta, lehenengo plano batean lauburuak daukagu. Esan liteke gainera, lauburuaren lehen plano horrek "Euskara sar hadi/ Entra" lelo nagusiaren protagonismoa "jaten" duela.
-

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan beste kategorien baitan aipatu diren arren, testu honek hainbat idatzizko esaldi barnebiltzen ditu. Lehenik eta behin, "Euskara sar hadi/ Entra" lelo nagusia egongo litzateke. Horrekin batera, eta lauburuak zati bakoitzak erreferentzia egiten diona hitzetara ekarriz: "Merkatura/ Al mercado"; "Lantegira/ A la fábrica"; "Eskolara/ A la escuela"; "Hauzategira/ Al barrio" noranzkoa markatzen dituzten hitzak izango genituzke. Eta azkenik, "Asociaciones de familias/ Famili elkarteak" igozteko enpirikoaren izena izango genuke, behealdean kokatuta.

Tenporalitatea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia. Orain mugitu behar da, euskara ez baita bakarrik askatuko, eta ez baita nahikoa kartel hau begiratzearekin. Hala ere, etorkizuneko zertzeladak ere baditu. Badirudi mezuak orainari egiten diola erreferentzia, baina etorkizuna aldatzeko.

DISKURTSOA:

Kartel honek diskurtso mailan, hainbat elementu errepresentatibo dauzka. Batetik, leloari erreparatuta "Euskara, sar hadi" horrek, ekintzara, praktikara, mugimendura garamatza. Mugimendua adierazten du. Horretaz gain, intertextualitatearekin ere jolasten duela esan liteke. Euskara sar hadi horrek, Bernart Etxeparearen kontrapasa dakarkigu burura, "Euskara jalgi hadi plazara" zioen hura. Testu honetan, aldiz, plaza hori espezifikatu egiten da, lantegira, auzora, merkatura eta eskolara sartu behar dela zehaztuz. Hau da, plaza publikoranzko saltoa exijitzen zaio euskarari. Hori bai, honek bizi propioa baldin baleuka bezala.

Erabilerarako jauzia emateko argudiorik bere horretan ez da ematen, soilik euskarak sartu behar duela diosku, baina ez dakigu zergatik.

Testuaren balio nagusietako bat, euskal identitatearekin lotura litzateke. Badirudi, eta lauburuaren bidez hori iradokitzen da, euskara lekuetan sartzeaz bat leku horiek nolabaiteko euskal identitate baten bueltan eraikiko liratekeela.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Euskal hiztunei, zein erdal hiztunei zuzenduta dago testua, mezu guztiak elebitan ageri baitira. Gainera, bi hizkuntzetan ageri diren idatzizko mezuak hizki mota, lodiera edota tamaina berdinarekin daude errepresentatuta testuan.

Koloreek euskal nortasuna adierazten digute, identitate euskalduna, eta orduko garaiko karteletako "norma". Hala ere, lauburuan batez ere, lantegiko edota auzoko ikonografiak, hau da, lauburuaren barnean ageri diren argazkiek, hiriarri egiten diote erreferentzia. Karteleko koloreek, Euskal Herri tradizional eta folklorikoenari –hortaz, bertako hiztunari– egiten badiote ere erreferentzia, euskara nora sartu behar den adierazteko erabiltzen diren argazkiek hirira garamatzate.

Pertsonak testuan ume eta emakume gorputzekin irudikatzen dira. Hau da, eskolari dago-kion irudian soilik islatzen dira pertsonak –lauburu barnean kokatutako argazkietan– eta horiek umeak –zehazki mutikoak– dira. Horretaz gain, famili elkarteen "logo" gisara agertzen zaigun argazkian aipatu genezake emakumeak nabarmendu edo bereizten direla gehienbat.

Hortaz, hartzailea nahiko lausoa da. Hau da, kartel honi dagokion hartzailea, eta hortaz, kartel honek irudikatzen duen hiztuna, nahiko tradizional edo autentikoa dela dirudi (beraz, gizona?). Koloreek eta lauburuak hori pentsatzera garamatzate. Hala ere, lantegia eta auzoa, hirigunean kokatu genitzake, horiek errepresentatzeko ikonoen bidez. Horretaz gain, ume eta emakumeak ere ageri dira, nolabait transmisioaren ideia errepresentatuz. Beraz, testu hau tradizionala eta autentikoa dela ondoriozta genezake, baina hartzailea nola marrazten duen zehatz-mehatz ezin genezake esan.

K03

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea: Euskaltzaindia

Urtea: 1978

Hegoaldean 1978. urtean, eta Iparraldean 1979an egin zen Euskaltzaindiak bultzatutako kanpaina hau. Lehen kanpaina masibo gisara definitu genezake "Bai Euskarari" kanpaina. Bi izan ziren Euskaltzaindiak kanpaina horrekin finkatu edota lortu nahi izan zituen helburuak. Alde batetik, euskararen egoeraz ohartaraztea, eta euskal kulturarentzat eta nortasunarentzat duen garrantzia gogoraraztea. Eta bestalde, Euskaltzaindiarentzat dirua biltzea (Iparragirre, 1978: 15).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kartela hondo edo azal gris baten gainean eraikita dago, eta hiru elementu azpimarratu litezke bertan. Batetik, eta lehen plano batean, kanpaina honetako logoa izango genuke. Euskalgintza sozialak sortutako logo, edota irudirik ospetsuenetakoa dela ere esan genezake. Logoa bera, lau elementu ezberdinek osatzen dute. Batetik, sinboloa bera eta idatzizko letrak barnebiltzen dituen borobila izango genuke. Eta borobil horren barruan,

beste hiru elementuak aurkitzen dira. Goian –ideala errepresentatuz– eta zuri kolorez, “Bai” hitza ageri da. Behean –erreala edo jakinekoa errepresentatuz–, “Euskarari” hitza ageri da, gorri kolorez. Eta borobilaren erdian nabarmentzen den figura gisara, Nestor Basterretxeak sortutako txoria edo usoa legoke. Txoria edo usoa sinbolo gisara erabili izan da, eta kanpaina honen kasuan ere, sinbolo abstraktu bat osatzen du txoriak. Sinbolo horren bidez, igoera edota goraldia irudikatu nahi izan zen; eta askatasuna, txoriak hegan egiten baitute aske (Järlehed, 2008: 201).

Bestetik, hitzekoak soilik diren elementu edota objektuak izango genituzke. Logoaren, edota euskararen sinbolo horren azpian, kanpaina nork bultzatu duen, eta zertarako edo zeren alde egiten den azaltzen duen esaldiak aurkituko genituzke: “Campaña promovida por Euskaltzaindia, en favor de la cultura y la lengua vasca”. Beraz, argi gelditzen da bigarren esaldi horrekin, euskararen alde ez ezik, euskal kulturaren aldeko kanpaina ere izan zela. Eta nolabait, euskara eta kultura, batera ikusten dituela kanpaina honek.

Azkenik, hartzaileari zuzentzen zaion mezua ageri da: “Tu también di SÍ al euskera”. “Bai” hori gorritz, eta beste letra guztiak baino tamaina handiagoan dago irudikatuta.

Praktikak edo ekintzak: Elementu bizidunik ageri ez den arren testuan, eta hortaz, praktika edota ekintza zuzenik ere ez, kanpaina honetako leloan bertan mugimendurako edota ekintzarako deia hauteman genezake. “Bai euskarari” da kanpainaren leloa, eta gaztelaniazko itzulpenean ageri den moduan, “Tu también di sí al euskera” esaldian, baietz esateari buruz ari da, “Bai euskarari” esaldia. Hala ere, eta nolabaiteko mugimendua adierazten baldin badu ere, erabilerarako saltoa ez du islatzen testuak. Hau da, euskararen alde egotearen aldarria egiten duela dirudi kartelak, erabilerarako saltoari erreferentzia baino gehiago.

Koloreak: Gorria, zuria, grisa eta beltza dira testuan ageri diren koloreak. Hala ere, aipagarria da, kanpaina honetako testu gehienetan, gorria, zuria eta berdea –ikurrinaren koloreak–, hiruak izan direla erabiliak. Grisez, kartelaren hondoa edo azala dago. Gorritz, txoriaren “itzalak” izan litezkeenak ageri dira, eta baita “Euskarari” eta “sí” hitzak. Hitzen kasuan, argi eta garbi, gorri kolorea garrantzia azpimarratzeko erabiltzen da. Zuriz, usoaren edo txoriaren gorputza, burua eta hegoak errepresentatu dira. Eta beltzez, aldiz, txoria eta “Bai euskarari” leloak barnebiltzen dituen borobila, eta sinboloaren azpialdean ageri diren hitzak: “Campaña promovida por Euskaltzaindia. En favor de la cultura y la lengua vasca” eta “Tu también di sí al euskera” esaldiak egongo lirateke.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelean hartzailearengandik gertuen, kanpainako logoa egongo litzateke. Kartelaren erdia hartzen du logoak, beraz, tamainaz ere handia da.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, goialdean, baina era berean zentroa hartuz, “Bai euskarari” eta bi hitz horien erdian kokatzen den txoria izango genituzke. Logoa nabarmentzen da hortaz kartelean, eta aldi berean ideala edo ideia-helburuen plano hori ere errepresentatzen du. Behealdean aldiz, eta erreala errepresentatuz, kanpaina

hau norik egin duen argitzen duen esaldia izango genuke, eta baita, zertarako egin den azaltzen duen esaldia ere: "Campaña promovida por Euskaltzaindia. En favor de la cultura y la lengua vasca". Beherago aldiz, "Tu también di sí al euskara". Sí, edo baiezeko hori gailentzen zaiolarik esaldiari. Gorriz, eta tamaina handiagoan baitago idatzita.

- **Prominentzia:** Lehen plano argi batean, logoa aurkitzen da. Espazioaren erdia, edo gehiago ere hartzen duelarik. Bestetik, eta nahiz eta behealdean kokatuta egon, "Sí" horrek ere hartzen du indarra. Hala ere, bigarren plano batean kokatuta dagoela esan beharko genuke.

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek hainbat idatzizko esaldi dakartzkigu. Batetik, "Bai euskarari" kanpaina honetako lelo nagusia –Euskaraz–. Eta bestetik, bi gaztelaniazko esaldi: "Campaña promovida por Euskaltzaindia. En favor de la cultura y la lengua vasca". Eta: "Tú también di sí al euskara".

Tenporalitatea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia. Testuan dagoen aditz bakarrak, "di" –eman– aditza jasotzen du, eta berau orainaldian dago idatzita. Hala ere, uso edota txoriaren sinboloarekin badago aldaketa, igoera bat errepresentatzen du txoriak, euskara etorkizunean beste era batera egongo denaren esperantza. Beraz, txoriaren sinboloaren bidez, etorkizuna ere hauteman genezake testuan.

DISKURTSOA:

Testu honen baitan, hainbat diskurtso edo elementu diskurtsibo berezi genitzake. Hasteko, "Bai Euskarari" kanpainaren lelo nagusia egongo litzateke. Argi eta garbi, mezu positiboa da, eraikitzailea nolabait, eta baita zabala ere. Bai esaten zaio euskarari, eta ez "ez" beste zerbaiti. Horrek garrantzia handia dauka garai horretan –eta baita ondorengo hamarkadetan ere– Euskal Herriko espazio publikoan, ezetzaren bidez errepresentatutako kontraktasunak izugarriko garrantzia hartuko baitu (Zulaika, 1988: 303). Baikortasun, edo positibotasun horrek, irekitasuna ematen dio euskarari. Hau da, testuan ageri den beste esaldi bat: "Tú también di sí al euskara" da. Esaldi horrek, "zu" bestetasun bati egiten dio dei. Zu hori gu batekin kontrajarririk eraikitzen baita, baina gu hori inklusiboa izango da; "Tu también di sí" horrek hori iradokitzen baitu.

Bestetik, eta euskara ezagutzeko edo erabiltzeko argudiorik ematen ez den arren, esan liteke logook berak hizkuntza zapalkuntza edo menderakuntza barnebiltzen duela. Hau da, txoriak edo usoak, hegan egin nahi du, gora igo, aske izan. Hori horrela, ondorioztatuz liteke txori hori ez dela izan nahi lukeen bezain askea.

Eta azkenik, aipagarria da euskara eta euskal kultura edo identitatea nola lotzen dituen testuak. Argi uzten du "En favor de la cultura y la lengua vasca" esaldiak, hizkuntza kulturaren, eta hortaz, identitatearen baitan kokatzen dela, eta kanpaina hau, hizkuntzaren alde ez ezik, euskal kulturaren alde ere badela. Hori horrela, eta Aita Villasantek, orduko euskaltzainburuak, San Mamesen egin zen kanpaina amaierako jaialdian irakurri zuen idatzian argi ikus liteke hori: "*Euskararen aldeko kezka eta sua piztu nahi izan du kanpaina honek. Izan ere, euskara da gure herriak duen bereizgarri agiriarena, gure asabengandik datorkigun ondasun paregabea*" (Euskaltzaindia, 1978). Euskara, hortaz, identitate berezi eta bakarra izateko gure herrian bereizgarria da. Eta are gehiago, gure aurrekoek utzitako altxorraren ideia ere ekartzen du Villasantek lerro hauetara. Iragana ere, diskurtsoan eta identitatearen eraikuntza horretara ekarriz.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Hala ere, esan genezake, kartel hau bederen, nagusiki erdal hitzunei zuzenduta dagoela; testuaren gehiengoa -leloa izan ezik- gaztelaniaz idatzita baitago. Hala, eta ikerlan honetarako bildu diren kanpaina honetako testu ezberdinei erreparatuz, kanpaina honen ezaugarrietako bat izan zen hizkuntzen erabileraren kontua. Hau da, kartel batzuk euskara hutsez atera zituzten, beste batzuk elebitan, eta hirugarren batzuk erdaraz -izan frantsesez zein gaztelaniaz-. Hortaz, euskararen subjektua zabaltzeko nahi bat sumatzen zaio kanpaina honi, eta hartzaile ezberdinengana iristeko ahalegin bat.

Horretaz gain, eta kolore eta kartelaren estetikari erreparatzen baldin badiogu kartela normaren barruan sartzen dela ondorioztatu genezake. Hau da, garai honetako kartelekin konkordantzia dago testua. Orduko abertzaletasuna, eta baita Euskal Herriko ezkerreko mugimenduak ere, ikurrinaren hiru koloreak -edo zuria, gorria eta beltza- erabiltzen baitzituen sarri asko beraien kartelak osatzeko. Hortaz, kartela zentzu horretan normatiboa da.

Eta bestetik, badago arrazoi bat kartel hau maskulinoa dela iradokitzeko. Batetik, bere iluntasun eta zurruntasunak maskulinitasunarekin lotu litezke. Baina bestetik, Nestor Basterretxearen txoria izango genuke. Txori eskulturiko horrek garaiko euskalgintza eta batez ere, kulturgintza dakarzki gogora. Nolabaiteko intelektualismoa transmititzen du, orduko kantari, eskultore, sortzaile eta apaizek errepresentatzen dutena. Hortaz, esan genezake, hartzaile edo behatzaile inplizitua gizona dela. Heldua, eta kasu honetan gaztelaniaduna.

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea:AEK

Urtea: 1985

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Testu honetan, atzealdeko planoan eta nahiko difuminatuta baldin bada ere, kanpo espazio baten ikonoa daukagu. Ez da guztiz argi ikusten, baina hala ere, esan liteke, zelai bat; arbola batzuk, tartean pinu itxura dutenak bereizi litezke; baserri bat eta honen alboan, lau belar-meta ageri direla. Kanpo espazioa irudikatzen duten ikono horien gainean, lainoz betetako zeru bat ageri da. Errepresentatzen den kapo espazio horretan, badirudi egunez dela, nahiz eta argi gehiegirik ez daukan testuak. Bestetik, gorri koloreko orban moduko baten gainean, esku baten silueta bat dago, esku hau zabalik irudikatzen delarik. Eskuaren tamaina nahiko estandarra dela esan liteke; eta ez da bereizten emakumezko bati dagokion eskua den, edota gizonezko bati dagokiona. Eskuaren silueta horrek, gorri koloreko orban hori "apurtzen" duela dirudi. Are gehiago, eskuaren barruan goian aipatutako kanpo espazio hori ikus liteke; eskua gardena baita. Hala ere, eskuaren barnean irudikatuta dagoen kanpo espazio hori argiagoa da testuan bestela errepresentatuta dagoen beste kanpo espazio zatia baino. Aipatutako elementuez gain, ondoren tentu handiagoraz errepresentatuko diegun hitzeko hainbat elementu ageri zaizkigu. Batetik, "Euskal Herria, herri bat, hizkuntza bat" esaldia dago. Eta bestetik, testuaren sinatzailea ageri da: AEK. Izen hori osatzen duten siglek "Alfabetatze euskalduntze koordinakundea" esan nahi baldin badute ere, izenaren alboan "euskararen alternatiba herritarra" esaldia ageri da. Hala nola, testua koadro moduko batean dago sartuta. Hau da, aipatutako elementuak lauki batean sartuta daude, eta kanpoaldean marko moduko bat dauka testuak. Hala ere, marko horren baitan deskribatutako irudi eta elementuak egoten jarraitzen dute. Kanpo espazioak errepresentatuta egoten jarraitzen du, marko moduko horretan.

Praktikak edo ekintzak: Elementu bizidunik ez da ageri testuan, hortaz, praktika edota ekintza zuzenik ere ez. Hala nola deskribatutako elementuek ere, ez garamatzate hizkuntzaren erabilerari lotutako ekintza, mugimendu edo praktikara. Eskua izan liteke mugimendu edo ekintzarekin lotu litekeen elementu bakarra. Larritasun sentsazioa ematen du eskuak, behatzaile edo hartzailearen laguntza eske balego bezala. Zentzu horretan bai, ekintzarako, edota laguntzarako dei gisara ere ulertu liteke eskua. Badirudi esku horrek euskararen beraren larritasuna errepresentatzen duela; euskara dagoen egoeratik ateratzeko laguntza dei bat.

Koloreak: Koloreei dagokionez, testua iluna dela esan genezake. Erditik beherako zatia batez ere beltza da. Erditik gorakoan, aldiz, zelai eta abarrak, berde ilunez errepresentatuta daude. Eta zerua, aldiz, gris moduko batez. Hala ere, arreta deitzen duten koloreak testuan bi dira. Batetik, eskuaren atzealdean kokatzen den gorri kolorea, eta bestetik, idatzizko testua errepresentatuta dagoen kolorea: zuria.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelego hartzailearengandik gertuen, "Euskal Herria, herri bat, hizkuntza" bat esaldia izango genuke. Hala ere, hartzailearengandik gertu kokatu genezake eskua bera ere; badirudi hartzaileari dei egiten diola nolabait, nahiz eta distantziari dagokionez bigarren plano batean egon.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hala nola testuaren zentroan, eskuaren silueta izango genuke, zentralitate horrek nabarmentzea dakarrelarik. Testuaren goialdean, eta nahiz eta atzeko plano batean egon, baserria, zelaiak eta arbolak izango genituzke. Nolabait ere, ideala errepresentatuz. Behealdean, aldiz, eta errealtatea islatuz, testuaren sinatzailearen izena legoke: AEK. "Euskal Herria, herri bat, hizkuntza bat" esaldia aldiz, eta nahiz eta nahiko behean kokatuta egon, nabarmendu egiten da. Badirudi eskuarekin batera testuaren erdialdea edo zentroa konpartitzen duela.
 - **Prominentzia:** "Euskal Herria, herri bat, hizkuntza bat" esaldia lehen plano batean kokatuta dago, nahiz eta testuaren behealdean egon. Eskua aldiz, erdibideko plano batean kokatuta egongo litzateke, hau da, esaldiaren atzealdean. Hala ere, eta koloreekin egiten duen joko horregatik, hartzailearengandik gertu kokatzen dela esan liteke.

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek hainbat idatzizko esaldi dakarzkigu. Lehenik eta behin, eskuaren azpialdean zuriz eta pintzel batekin eskuz idatzita balego bezala: "Euskal Herria, herri bat, hizkuntza bat" esaldia izango genuke. Bestetik, eta kartelaren igoerle enpiriko gisara, AEK eta "euskararen alternatiba herritarra" esaldiak.

Tenporalitatea: Testuak hitzen bidez bederen, ez du tenporalitatekeri errepresentatzen. Hau da, ez dago aditzik. Hala ere, eta testuan ageri den paisaia bukoliko eta nekazal eremukoari erreparatuta, iraganera garamatzate kanpo espazioa islatzeko erabilitako ikonoek. Betidanik egon izan den herri batera, eta horrekin, baita aspaldiko hizkuntza batera ere. Bestalde, oraina ere islatzen du esaldiak, eta baita euskararen "egungo" egoera larrira islatzen duen

eskuak ere. Hala ere, etorkizun zantzuak ere ageri dira testuan. Hau da, badirudi "hemen herri bat dago, eta herri honek hizkuntza bat dauka" dioskula testuak, iraganetik datorren herria. Baina hala ere, etorkizun bat ere irudikatzen du. Euskal Herri bat irudikatzen du -nazio gisara, baina baita Estatu gisara ere-, herri eta hizkuntza horri dagokion Estatu. Hortaz, *continuum* bat, edota jarraikortasun bat iradokitzen duela testuak esan genezake.

DISKURTSOA:

Kartel honek diskurtso mailan, hainbat elementu dakarzkigu. Batetik, Euskal Herriaren ideia-
ren baitan artikulatzen da testua. Hau da, nekazal eremuko paisaia horren bidez baserria-
rekin erdigunean... Eta hitzez ere, esaldiaren subjektua nolabait badirudi Euskal Herria bera
dela. Hau da, diskurtsoan zentralitatea, hizkuntzak baino, territorioak edo lurraldeak berak
izango du; zelai eta baserri bidez islatzen den Euskal Herriak. Hau da, herri garen heinean
daukagu hizkuntza bat. Herri edo Euskal Herri horrek, Estatu errepresentatzen du. Hala
nola Estatu bat behar dugu hizkuntza bat daukagun heinean, berau salbatzeko. Moderni-
tateko Nazio-Estatuen sorrerako ideia garrantzitsua esaldiak, eta kartelak nolabait; Estatu
bat, besteak beste hizkuntza bakarraren gainean eraikitzen dela dioskun ideia horretara
(Sayad, 2008). Eta aldi berean, nazioa egikaritzeko balizkoa den hizkuntza horrek, nazio
identitatearen, gure kasuan euskal identitatearen erdigunea hartuko du.

Aldi berean, diskurtsoan badago iluntasun bat. Koloreek, paisaiak berak eta batez ere es-
kuak errepresentatzen dutena. Eskuak nolabaiteko larritasun bat transmititzen du. Herriaren
zein hizkuntzaren larritasuna errepresentatzen duela pentsa liteke. Paisaia bukolikoak, ba-
serriak zein zelaiek osatzen dutenak Euskal Herria errepresentatzen dute. Baina bukolikota-
sun hori ez da neurri batean erakargarria. Iluna da, eta badirudi Euskal Herriaren egoera
errepresentatzen duela. Paisaia horren zentroan -nolabait ere Euskal Herri errepresentatu
horren erdigunean- eskua izango genuke. Orbain gorri baten erdian dagoen esku orba-
na. Euskal Herri ilun horretako hizkuntza dirudi, larritasunez betea; hartzaille/behaztaileari
oihuka, laguntza eske bezala dagoena.


Eta azkenik, badago beste elementu diskurtsibo garrantzitsu bat. Hori, AEK sinatzailearen
alboan dagoen esaldiak osatzen du: "Euskararen alternatiba herritarra". Testu hau baino
bi urte lehenago sortu zen HABE, 1983. urtean. Marko teorikoan aipatu den gisara, garai
gatazkatsuak izan ziren 80 eta 90eko hamakada horiek. AEK-k HABEren sorrera euskararen
aldeko mugimenduaren, edo zehatzago esanda, euskalgintza sozialaren aurkako estrate-
giatzat hartu zuen (Tejerina, 1999: 99). Hala ere, HABE publikoa zen, eta nolabait ere, AEK
"pribatua". Egitate horren aurrean kokatzeko definitzen du AEK-k bere burua testu honetan,
"euskararen alternatiba herritar" gisara. Nahiz eta HABE izan publikotasun horren jabea,
AEK-k nolabait ere testu honen bidez, argi utzi nahi du herriarena, herritarren alternatiba,
beraiek direla.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Ez dago batere argi. Elementu
ezberdinak barnebiltzen ditu testuak, eta tartean hartzaillea interpelatzen du zuzenean, es-
kuaren sinboloa erabilita. Hala ere, argi esan liteke testu hau euskal hiztunei zuzendutakoa
dela. AEK euskararen ezagutzara dedikatzen den eragile bat den arren, euskara hutsez
dago testua, beraz, ondoriozta genezake testu honen bidez AEK-k bere jarduna promozio-
natzea baino, nolabaiteko aldarrikapen politiko bat egitea nahi zuela kartel honen bidez.

Kartela iluna da oso, eta nolabaiteko larritasun eta agonia bat islatzen du. Eta horretaz gain, esan liteke garaiko mugimendu iraultzailearen edo ezker abertzalearen kartelen estetikaren baitan kokatzen dela. Nahiko testu maskulinizatua da, darabilen tematika eta estetika kontuan izanda. Testuak hartzaille gizonezko bat irudikatzen duela esatea gehiegizkoa litzateke.

K06

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea: Euskal Herrian Euskaraz

Urtea: 1980-1987

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Testu honetan ez da bere horretan kanpo espazioa irudikatzen duen ikonorik ageri. Hala ere, hainbat elementu dakarzkigu testuak. Kartelean koaderno moduko bat ageri da. Koaderno hori azal edota hondo beltz baten gainean dago. Uztai-koaderno moduko bat da, baina goialdean daude kokatuta uztaiak. koadernoari blok itxura emanez. Lehen orria, marroi-haranja kolorekoa, orriz pasatzen bezala ageri da, eta orriaren goialdean, hondo zurian eta letra beltzez esaldi bat ageri da: Aberria euskaraz. Lehen orri horren azpian, hainbat irudi ageri zaizkigu bigarren orriaren zati batean, collage moduko bat osatuz. Goialdean kokatuta dagoen irudian, eta nahiz eta oso argi hautematen ez den, badirudi jende multzo bat dagoela. Manifestazio edo antzerako baten errepresentazioa dirudi, eta kolore morekoa da ikonoa. Jende guztia norabide berdinean baitago kokatuta. Bestetik, eta lehen irudi horren azpian, gris eta beltz kolorez, lau elementu ezberdin izango genituzke. Batetik, Pablo Picasso margolariaren "Gernika" (1937) artelaneko zatiak

izango genituzke. Zehazki, bi buru bereizi genitzake, eta baita artelan horretako esku bat ere. Bestetik, eta aurreko ikonoen tematika berdinari jarraituta, gerra irudikatzen duten bi irudi ageri zaizkigu. Lehenik, gerrako hegazkin bat dirudiena. Eta bigarrenik, bi pertsonen buruak. Horiek lurrean eta bizirik gabe daudela dirudi. Hau da, esan liteke gerra edo sarraski baten biktimak errepresentatzen dituela ikonoak. Gai berdinarekin jarraiki, eskuinaldean kokatuta dagoen argazki batean, bi pertsona ageri dira, arma banarekin eskuetan. Bereari aurrealdean –bi pertsona horiek bizkarra ematen ari baitira–, haga batean bandera bat ikus liteke. Testuingurua kontuan izanik, bandera ikurrina dela esan genezake, eta bi pertsona horiek gudariak errepresentatzen dituztela. Beste collage-ko argazkietan errepresentatuta agertzen den gerra horretan parte hartu zuten euskaldunak alegia. Testuaren behealdean, eskuineko aldean kokatuta, suntsitutako baserri baten argazkia dago; hau ere, sarraski berberaren ondorio gisara hauteman liteke. Orain artean aipatutako irudien gisara, zuri beltzean errepresentatuta baitago. Collage-a osatzen duten zuri beltzeko argazki horien erdian, eta hondo more baten gainean zuri, Euskal Herrian Euskaraz taldearen ikurra dago.

Testuaren ezkerrean bestalde, kolore morez eta zuriz, pertsona multzo bat ageri zaigu. Badirudi ikonoak manifestazio bat errepresentatzen duela. Eta azkenik, irudi horren barrenean, testuaren igorle enpirikoa islatzen da: Euskal Herrian Euskaraz. Hizki zuriz, eta hondo more batean gainean idatzita.

Pertsonak: Testu honetan ageri diren pertsonen talde gisara hartzen dute zentzua. Hau da, pertsona masa edo talde gisara errepresentatzen dira testuan ageri diren giza-gorputzak. Argazki "orokorrak" dira. Hau da, pertsona bakoitzak kasik ez du esanahirik, esanahia taldearena dela iradoki daiteke. Bestalde, eta argazkian oso argi ikusten ez baldin bada ere, adin eta genero ezberdinetako pertsonak islatzen direla esan daiteke. Hala ere, aipagarria da gazteagoak edota zaharragoak, baina errepresentatzen diren pertsona guztiak helduak direla.

Praktika edo ekintzak: Testuan hainbat pertsona errepresentatuta ageri badira ere, badirudi pertsona hauek ez dutela hizkuntza-praktikarik errepresentatzen. Hala eta guztiz ere, eta batez ere jendetza isladatzen den argazkietan, mugimendua edo ekintza bat hauteman liteke. Manifestazio batean doazen pertsonak direla esan bailiteke, eta manifestazio batek protesta, ekintza eta mugimendua errepresentatzen baitu.

Koloreak: Testu honetan, bost kolore ageri dira: zuria, beltza marroi-naranja, grisa eta morea. Hala ere, hiru kolore multzotan bereizi litezke testuan ageri diren koloreak. Batetik, kolore neutroa errepresentatuz, lehen orriko marroi-naranja kolorea izango genuke. Bigarrenik, iraganaren gordintasuna errepresentatuz, beltza eta grisa egongo lirateke. Eta azkenik, badirudi kolore moreak etorkizuna edo esperantza errepresentatuko luketela. Morez irudikatzen baitira manifestazioa errepresentatzen duten arazkiak, eta baita Euskal Herrian Euskarazeko ikurra ere.

Personen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparratuta, behatzailearen edota kartelean hartzailearengandik gertuen, "Aberria euskaraz" esaldia izango genuke. Hala ere, hartzailearengandik gertu kokatu genitzake, iragana, gerra eta sarraskia errepresentatzen duten "Gernika" artelaneko zatiak; gerrako bi gorpu hilak eta hegazkina, eta baita gudariak ere.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hala nola testuaren goialdean, eta ideala errepresentatuz, "Aberria euskaraz" esaldia ageri zaigu. Behean, aldiz, eta erreal gisara, igorle enpirikoa "Euskal Herrian Euskaraz". Zentroan, aldiz, nabarmenduz, gerrako irudiak errepresentatzen dituen collage zatia izango genuke.
 - **Prominentzia:** Lehen plano batean, goialdean kokatuta dagoen "aberria euskaraz" esaldia izango genuke. Eta bestetik, baita gerra isladatzen duten collageko argazkiak ere. Era berean, zentroan kokatuta daudenak.

Idatzizko hitzak: Testu honek jada behin baino gehiagotan aipatu diren idatzizko bi elementu barnebiltzen ditu. Testuaren esaldi eta aldarri nagusi gisara "aberria euskaraz" esaldia. Eta bestetik, igorle enpiriko modura "Euskal Herrian Euskaraz".

Tenporalitatea: Testuak hitzen bidez bederen, ez du tenporalitate errepresentatzen. Hau da, ez dago aditzik. Hala ere, esan liteke testuko esaldi nagusiak, "aberria euskaraz" esaldiak alegia, orainaldia zein etorkizuna errepresentatu lezakeela. Irudien bidez ordean, eta baita kolore morearekin, etorkizuna irudikatzen da. Grisa, beltza, azken finean iluna, gerrari eta aberriari egindako barrabaskeriei dagokie. Morea, berriz, mugimenduari, euskarazko etorkizuneko aberri horri.

DISKURTSOA:

Kartel honek diskurtso mailan, hainbat elementu dakartzkigu. Lehenengo elementu diskurtsiboa, eta testuan garrantzia nabarmena daukana, aberria litzateke. Aberria ez da herria, ez da nazioa, aberria hori baino gehiago da. Aberri hitza XIX. mende amaieran sortua izan zen, Sabino Aranak sortua hain zuzen ere: *"Neologismo creado por Sabino Arana a finales del siglo XIX, a partir de aba (que interpretó como sinónimo de la palabra «padre», usada aquí con significación de antepasado) y (h)erri con el significado de patria"* (Euskaltzaindia, 2021). Aberriak hortaz, badauka iraganaren esanahi bat kontzeptuan barneraturik. Testuan ere, argi eta garbi ageri da iraganaren presentzia irudi bidez. Iragan gordina islatzen da, badirudi Espainiako gerra zibileko irudiak direla collage-an erabiltzen direnak. Baina sarraskia, gerra, gordinkeria hori... badirudi estrapolatu egin litekeela. Hau da, kartelean iragan gisara errepresentatzen denak badirudi, oraindik ere, nolabaiteko presentzia bat daukala. Manifestazioetan ageri den jendeak injustizien aurka egiten baitu, eta testuan bi manifestazio ageri dira irudikatuta. Badirudi, iraganeko gerra horrek, eta azken finean sarraski horrek, orainean ere badaukala eraginik. Hor kokatu litezke testuan ageri diren protestak.

Hala, aipagarria da zentralitatea edota erdigunea aberriak daukala. Suntsituta, edota sufritzen dagoen aberri hori errepresentatzen da testuan. Eta euskara, aberri horren beste elementu bat izango litzateke; ziur asko beste batzuk baino garrantzitsuagoa, edota aberria


egin egiten duena bederen. Baina euskara bere horretan ez da islatzen. Aberriaren bidez ematen zaio esanahia. Hau da, aberria izango da subjektua kartel honetan ere, nazio zanpatuaren narratiba ageri baitzaigu. Nortasunarekin eta identitatearekin lotura eginez, esan liteke ez dakigula euskara aberri horren identitatearen zentroan aurkitzen den edo ez. Baina esan liteke ezetz. Testu honetan, badirudi aberria irabazteko dagoela, eta gainera, aberri hau euskaraz egin beharko dela. Hau da, aberriak berak du garrantzia, eta izate propioa. Hau da, "euskarak egiten gaitu aberri" esatea oso ezberdina litzatekeen. Esaldi horretan euskara baita identitatearen elementu behinena. Baina kasu honetan aberria da zentroa, irabazi beharrekoa alegia.

Eta bestetik, testuak gatazka eta tentsioa errepresentatzen du. Iragan gatazkatsua gerraren beraren bidez errepresentatzen da; nazio zapalkuntzaren ideia. Hala ere, oraina edota etorkizuna ere, tentsio horrekin dago islatuta. Hau da, badirudi oraina, edo hobeto esanda etorkizuna irabazteko tentsioa bizi izan beharko dela, gatazka, manifestazioetan, borrokan irabaziko baita etorkizuna. Ekintzarako, mugimendurako deia egiten du testuak.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Ez dago batere argi. Hala ere, testua euskara hutsez idatzita dago, hortaz, ondorioztatu liteke euskal hiztunengana zuzentzeko testua dela. Elementu ezberdinak barnebiltzen ditu testuak, eta tartean hartzailea interpelatzan dute zuzenean gerra errepresentatzen duten irudiek. Hala nola kartela bera nahiko bortitza dela esan liteke. Tentsioa, gatazka, mugimendua, ekintza, gudariak... barnebiltzen ditu. Bestalde, aberria egitea da mezua, euskarazko aberria, baina garrantzitsua aberria egitea izango da. Eta badakigu gudariaren figura aberriaren zaindari eta eraikitzailea gizona izan dela, edota Euskal Herriaren eta abertzaletasunaren epikan, gizon figurak bete duela gudariaren errepresentazio hori (Etxebarrieta & Rodriguez, 2016). Beraz, ezin da testu honetatik ere ondorio borobilik atera. Hala ere, eta aztertu ditugun elementuak kontutan hartuta, testua bera nahiko maskulinizatua dela esan genezake.

K07



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Euskal Herrian Euskaraz

Urtea: 1980-1992

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Testu honetan, ez da bere horretan kanpo espazioa irudikatzen duen ikonorik ageri. Hala ere, hainbat elementu ageri dira testuan errepresentatuta. Lehenik eta behin, esan liteke testua koloretsua dela; azal edota hondo laranja baten gainean eraikita baitago. Bestetik, goialdean "Euskal Herrian Euskaraz" esaldia ageri da. Letra larriz idatzita, beltzez eta "euskaraz" hitza tamaina handiagoan. Hala nola, eta oso argi bereizten ez baldin bada ere, "euskaraz" hitzaren barruan pertsonen aurpegiak daude islatuta, zuriz. Hitzaren baitan dauden aurpegiak aurrera begira ageri dira, eta badirudi beste argazki handiago batetik hartutakoak direla; jendetza errepresentatzen duen argazkiren batetik. Testuaren erdian kokatuta, Euskal Herria errepresentatzen duen mapa bat dago. Lurrealdearen errepresentazioa beltzez dago, eta gerizpe gris moduko bat dauka atzealdean. Euskal Herria beltzez irudikatuta baldin badago ere, bi marra ageri dira testuan. Marra batek, zuriz, gorritz eta urdinez osatutakoak -Frantziar Estatuko banderaren koloreak-, Iparraldeko

lurraldeen, eta Hegoaldekoen arteko muga islatzen du. Eta beste marrazkiak, gorriz eta horiz marraztutakoak –Espainiar Estatuko banderaren koloreak– EAE eta Nafarroaren arteko muga errepresentatzen du. Hala nola, eta marra hauek suntsitu edota apurtzen, hiru ikurrina izango genituzke. Ikurrina horien barruan, beltzez, ikurrina horiek kokatuta dauden gune geografikoetako herriak ageri dira. Ikurrinak ez daude Euskal Herria errepresentatzen duen irudian zehar banatuta, hauek Bizkaiko zati bat, Gipuzkoako beste zati bat eta Nafarroako iparraldeko zati bat hartzen dutelarik. Hala nola pentsa genezake ikurrina horiek euskara errepresentatzen dutela. Euskararen erabilera altuena zen lurraldeetako guneetan baitaude kokatuta. Eta ikurrina horiek mugak suntsitzen dituzte. Lurraldearen osotasunera ikurrina horiek barraiatzea dela helburua pentsa liteke testua ikusita. Behealdean, aldiz, zuri kolorez marraztutako marra bat dago. Eta horren azpian, beltzez marraztutako hondo baten gainean hizki zuriz “Eta kitto!” esaldia. Esaldi horren eskuinean, aldiz, Euskal Herriaren Euskaraz taldearen ikurra ageri da.

Pertsonak: Goian aipatu den bezala, goialdean letra larriz idatzita dagoen “Euskaraz” hitzaren barruan pertsona aurpegiak ageri dira. Aurpegi horiek aurrera begira daude, behera/hartzaileari begira. Sentsazioa da letra bakoitzean dauden aurpegi hauek denak beste irudi handiago batetik eratorriak direla. Hau da, ez dirudite aurpegi solteak, denek beste irudi handiago batekoak dirudite.

Praktika edo ekintzak: Testuan hainbat pertsona errepresentatuta ageri badira ere, badi-rudi pertsona hauek ez dutela hizkuntza-praktikarik errepresentatzen. Hala eta guztiz, eta aurpegi oso gutxi ageri baldin badira ere testuan, badi-rudi masa efektua, edo jendetza errepresentatzeko erabiltzen direla. “Euskaraz” hitzaren barnean daude. Hau da, badi-rudi “euskaraz” hori sostengatzen, jende multzo handia dagoela. Jendetza edo masa sentsazio horrek ekintza, praktika edo mugimendura garamatza. Aurrera begira daude aurpegiak, eta badi-rudi aurrera datoze, mugimenduan daudela alegia.

Bestetik, lurraldearen baitan kokatutako ikurrinak izango genituzke. Ikurrinen bidez ere, mugimendua islatzen dela esan liteke. Ikurrina horiek, testuan mugak errepresentatzen dituzten bi marrazkiak suntsitzen dituzte, eta badi-rudi, zabalpen edo hedapenerako joera bat daukatela.

Koloreak: Testu honek, hainbat kolore barnebiltzen ditu. Batetik, eta kartelaren hondoa osatuz, kolore laranja izango genuke. Bestetik, beltza. Beltzez “Euskal Herriaren Euskaraz” esaldia, Euskal Herria errepresentatzen duen figuraren hondoa eta behealdean kokatuta dagoen marra izango genituzke. Gorriz, berdez, eta zuriz –ikurrinaren koloreen bidez– euskara erre-presentatzen dela esan liteke. Gorriz eta horiz –Espainiar Estatuko banderaren koloreekin– EAE eta Nafarroaren arteko muga. Zuriz, gorriz eta urdinez –Frantziar Estatuko banderaren koloreekin– Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko muga irudikatzen da. Eta zuriz “Euskaraz” hitzaren barnean kokatuta dauden aurpegiak; “Eta kitto!” esaldia, eta Euskal Herriaren Euskaraz taldearen ikurra.

Personen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelego hartzailearengandik gertuen, Euskal Herria errepresentatzen duen irudia izango genuke. Hala ere, goialdean kokatuta dagoen "Euskal Herrian euskaraz" esaldia ere hartzailearengandik gertu kokatzen da.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hala nola testuaren goialdean, eta ideala errepresentatuz, "Euskal Herrian euskaraz" esaldia ageri zaigu. Behean, aldiz, eta erreal gisara, igorle enpirikoaren ikurra, eta baita "Eta kitto!" esaldia ere. Zentroan, aldiz, nabarmenduz, Euskal Herria errepresentatzen duen irudia ageri zaigu.
 - **Prominentzia:** Lehen plano batean, erdialdean kokatuta dagoen Euskal Herria errepresentatzen duen mapa izango genuke.

Idatzizko hitzak: Testu honek, jada behin baino gehiagotan aipatu diren idatzizko bi elementu barnebiltzen ditu. Testuaren esaldi eta aldarrri nagusi gisara "Euskal Herrian Euskaraz" esaldia. Eta bestetik, behealdean kokatuta dagoen "Eta kitto!" esaldia.

Tenporalitatea: Testuak, hitzen bidez bederen, ez du tenporalitateari errepresentatzen. Hau da, ez dago aditzik. Hala ere, esan liteke testuko esaldi nagusiak, "Euskal Herrian euskaraz" esaldiak alegia, orainaldia zein etorkizuna errepresentatu lezakeela. Irudien bidez, ordea, etorkizuna ere islatzen da. Ikurrinen bidez errepresentatuta dagoen euskara mugimenduan dago, eta mugak suntsituz, badirudi zabalpen prozesu batean dagoela.

DISKURTSOA:

Kartel honek diskurtso mailan, hainbat elementu dakartzkigu. Hasteko esan genezake, eta garai honetako beste hainbat karteletan ikusi ahal izan dugun gisara, erdigunea edota zentralitatea Euskal Herriaren errepresentazioak hartzen duela. Euskara herria edo nazioa eraikitzeke tresna gisara hautematen da. Hau da, euskara da ezarritako mugak apurtzen dituen, eta nolabait, berriak ezarri nahi dituen. EAE eta Nafarroaren arteko muga zein Hegoalde eta Iparralde berezitzen dituen mugak suntsitzen ageri da euskara. Mugaz gairikoa hizkuntza gisara errepresentatzen da, "inposatutako" muga horien zentzua ezbaian jartzen duen elementua da. Hala ere, beste muga batzuk ezarri nahi ditu. Zazpi probintzien Euskal Herria osatu nahi du euskarak, eta testuan ageri den Euskal Herrian euskara ez dago presente lurralde guztian. Hau da, euskara da nazioa sortzen duena, baina aldi berean, irudikatutako nazio horren baitan, euskarak lurraldeak ditu irabazteko, horregatik aldarrri nagusia den "Euskal Herrian euskaraz" esaldia. Hala nola, eta garaiko beste testu batzuen antzera, subjektu nagusia Euskal Herriak berak osatzen du, eta ez euskarak. Nahiz eta testu honetan baduen presentzia bat behintzat euskarak -ikurrinen bidez-. Hala ere, euskarak ez die beste hizkuntzei aurre egiten, nazio bat eraikitzeke traba diren mugei baizik. Nazio eraikuntzaren helburua oso argi islatzen du testuak, hortaz.

Bestetik, eta argumentazioari begiratu bat emanez, "eta kitto!" esaldi irmoa izango genuke. Hasteko, elebarkatasunaren ideia dakarkigu esaldiak. Testuan ez da Euskal Herrian presente dauden hiru hizkuntzen arteko elkarbizitza baketsu bat irudikatzen, eta ezta eskatzen ere. Testu honetan, Euskal Herri osoa euskalduna izatea eskatzen da, eta argumentu nagusia

"Eta kitto!" izango da -harridura ikur eta guzti-. Irmotasuna, sendotasuna eta nolabaiteko oldarkortasuna adierazten du "eta kitto!" horrek. Esan liteke intransigentzia puntu bat ere adierazten duela. Hala nola erabilera sustatzeko, edota hizkuntza praktikak aldatzeko ez da argudiorik ematen testu honetan.

Azkenik, aipagarria da hizkuntza zapalkuntza bat baino, muga eta abarren bidez nazio zapalkuntza bat adierazten edota errepresentatzen duela testuak.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Ez dago batere argi. Hizkuntzari erreparatuta, euskara hutsean dago testua idatzita, hortaz, esan liteke euskal hiltunei zuzendutako testua dela. Testuan, nahiz eta kolore nagusia laranja izan, ez da kartel ilun bat, esan liteke nahiko oldarkortasun, autoritarismo edota intransigentzia islatzen eta errepresentatzen duela kartelak. Batez ere "Eta kitto!" esaldiak garamatza baieztapen hori egitera. Bestalde, mugen suntsipenak eta abarrek euskal iruditerian oso presente egon den gudariaren figura maskulinizatu batekin konektatzen gaitu. Hortaz, diskurtsoari eta errepresentazioari dagokionez, hartzailea agian maskulinoa izan litekeela pentsa genezake.

K08

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea: EKB eta Ikastolen Konfederazioak elkarlanean bultzatutako kanpaina

Urtea: 1988

EKBk eta Ikastolen Konfederazioak elkarlanean egindako kanpaina izan baldin bazen ere, EAJ, EA eta HBk ere babestu zuten. Kanpaina honek bi helburu izan zituen. Batetik, euskararengana gizartearen egon zitekeen pertzepzioan eragitea; eta bestetik, Nafarroako zein Iparraldeko Ikastolak diruz laguntzea: *"Dozenaka milioi pezeta jaso ziren eta euskararen aldeko 300.000 sinadura baino gehiago bildu Europako Parlamentuko lehendakariari aurkeztu zitzaizkionak urte horretako abenduan egindako ekitaldi berezian"* (Soziolinguistika Klusterra, 2020a).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kartela hondo edo azal beix baten gainean eraikita dago. Hala ere, azal beix horren gainean, laranja koloreko orban bat ageri zaigu; eta orbana ez da uniforme. Hala nola orban horren gainean, testuko elementu nagusia izango genuke, Euskal Herriko lurraldea errepresentatzen duen mapa bat. Mapa horretan, Euskal Herriko zazpi probintziak irudikatzen dira, baina ez da mugarik islatzen; ez muga fisikorik, ezta muga politikorik ere. Hala nola maparen ertzak urdinez margotuta daude, eta erdialdea, aldiz, beix kolorekoa da. Lurraldea errepresentatzen duen irudiaren erdialdean, "Bateginik" kanpaina honetako irudia ageri da. Kanpainako ikurra "B" hizkia da, eta hizkiaren barruan bat zenbakia ageri da. Irudizko ikurraren azpian, "Bateginik" kanpainaren izena ageri da; ikurra urdin kolorez dagoelarik, eta hitza, aldiz, laranja kolorez. Hitzeko elementu gehiago ere badakartza testuak: "Euskarak eta ikastolak mugarik ez" esaldia, maparen azpialdean kokatuta dagoena, hain zuzen ere. Hitzeko esaldi hori urdinez dago idatzita, eta badirudi eskuz idatzitako grafia antzerako batekin erre-presentatuta dagoela. Hala nola "mugarik ez" esaldia kolore laranja azpimarratuta dago.

Praktikak edo ekintzak: Testuan ez da pertsonarik, ezta elementu bizidunik ageri. Hala nola praktika edota ekintza espezifikorik ere ez da azaltzen. Hala ere, idatzizko hitzei erreparatuz gero, "Bateginik" hitzak berak badauka nolabaiteko indar bat, batasuna erakusten duen indar bat. Eta zentzu berean, "mugarik ez" esaldiak ere indar hori islatuko luke. Badago dei moduko bat, mugimendua adierazten duena, elkartzeko mugimendua, eta baita euskara eta ikastolak, mugaz gaindi zabaltzekoa ere.

Koloreak: Testu honetan, hiru kolore ageri zaizkigu. Batetik, beix kolorez azala edo hondoa egongo litzateke; dena kolore horren gainean eraikitzen delarik. Bestetik, kolore urdina egongo litzateke. Kolore urdin hori, Euskal Herria errepresentatzen duen mapa islatzeko erabiltzen da; kanpinaren ikurra marrazteko eta baita "Euskarak eta ikastolak mugarik ez" kanpainako esaldi nagusia errepresentatzeko ere. Hala nola laranja kolorea, aldiz, lurraldearen maparen atzeko orbanean, eta "mugarik ez" esaldia azpimarratzeko erabiltzen da.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota karte-leko hartzailearengandik gertuen, Euskal Herriko lurraldea errepresentatzen duen mapa egongo litzateke.
 - **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua horizontalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, zentroan, nabarmenduz, eta aipatutako moduan, hartzaile/behatzailearengandik gertuen Euskal Herria errepresentatzen duen mapa egongo litzateke. Behealdean aldiz, eta errealtatea errepresentatu nahian, "euskarak eta ikastolak mugarik ez" esaldia.
 - **Prominentzia:** Lehen plano argi batean, Euskal Herria errepresentatzen duen mapa egongo litzateke, eta honen barruan, "Bateginik" kanpainako ikurra. Esan liteke, mapa horrek hartzen duela testuaren gehiengoa.
-

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek bi idatzizko esaldi dakarzkigu. Batetik, "Bateginik" hitza izango genuke. Kanpaina honetako leloa eta izenburua izango litzatekeena. Eta bestetik, "euskarak eta ikastolak mugarik ez" esaldia.

Tenporalitatea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia. Badirudi, eta batez ere "euskarak eta ikastolak mugarik ez" esaldiaren bidez, orainari egiten diola erreferentzia. Baina kanpainako izenburua hartzen baldin badugu; Bateginik, eta testuan ageri den beste esaldiarekin irakurtzen badugu -euskarak eta ikastolak mugarik ez-, badirudi etorkizun bati ere egiten diola erreferentzia. Hau da, badirudi dei bat dela. Batasunerako dei bat; batuta mugak gaintzea errazagoa izango litzatekeela nolabait esateko modu bat.

DISKURTSOA:

Testu honen baitan, hainbat diskurtso edo elementu diskurtsibo bereizi genitzake. Hasteko, batasunerako deia izango genuke. Marko teorikoan irakurri ahal izan den moduan, gatazka garaiak izan ziren 80ko eta baita 90eko hamarkadak ere (Agote, 1995). Horretaz gain, eta 60ko hamarkadan eta baita 70ekoan ere, euskarak abertzaleagoaren baitan, eta euskal identitatea egituratzeko izan zuen pisua eta indarra poliki poliki galtzen joan zen. Esku artean ditugun hamarkada hauetan, euskarak batzeko baino, elkarbanatzeko gehiago balio zuela uste izan baitzuten abertzale batzuk (Odrizola & Zabalo, 2014). Hartara, kanpaina honetan eta batasun dei honekin, bi helburu lortu nahi direla pentsa genezake. Batetik, bi familia abertzaleen arteko elkarbizitza bat eman zedin pausuak ematea. Eta bestetik, euskara kohesiorako tresna, eta euskal nortasun edo identitatearen zentro izaten jarraitzea; berriz ere erdigunera ekartzea. Garai honetan, gatazka politikoak euskara politikaren erdigunetik kendu zuela baitzirudien (Munizguren, 1992: 44).

Hala eta guztiz ere, kanpaina honek barnebiltzen duen batasun dei horren muina, badirudi Euskal Herria bera dela. Hau da, euskara izango da Euskal Herria kohesionatzeko elementu behinena, muga guztien gainetik, kohesioa, batasuna eta bakartasun hori lortuko duena; bakartasuna, izate bat eraikitzearen zentzu hertsian. Zentzu horretan ulertu genezake kanpainako ikurraren baitan kokatuta dagoen 1 zenbakia ere. Badirudi nazioari egiten diola erreferentzia; mugak gainditzeari, eta bat izateari. Testu honetan euskarak eraikiko du Euskal Herria, leloak dioen moduan: Euskarak eta ikastolek ez baitute mugarik izango.

Hala nola "muga" kontzeptuak badu pisurik kanpaina honetan. Idatzizko hitzen bidez nahiz irudi bidez, mugarik "gabeko" Euskal Herri bat irudikatzen da. Egun -eta baita orduko testuinguru historikoari erreparatuz gero ere- indarrean dauden muga administratibo-politikoei buruz ari da testua. Zuzenago, Frantziar zein Espainiaren arteko muga gainditzeaz. Hala ere, beste muga batzuk ezartzen ditu era beran, Bizkaiak Kantabriarekin, edota Arabak Errioxarekin izan litezkeen mugak kasu. Eta bestetik, badirudi beste muga ez horren materializatu eta ikusiezin batzuen "gainetik" ere igaro nahi dutela euskarak zein ikastolek. Euskararen aurkako erasoen gainetik, edota jendartean euskarak izan dezakeen prestigio ezaren gainetik, alegia. Hizkuntzaren zapalkuntza, hortaz, nazioaren zapalkuntzarekin nahiko lotuta ageri zaigu. Hau da, ez da batere esplizitua zapalkuntza hori, baina euskarak eta ikastolek mugei ez diogun neurrian, muga batzuk egon badaudela azpimarratzen ari gara. Eta horiei aurre egin behar zaiela.

Aipagarria da eta hamarkada hauetan erabileraren bueltan errotu baldin bazen ere euskararen aldeko aldarria, kanpaina honek (ere), euskararen beraren erabilerari ez dio egiten erreferentziarik. Hau da, euskararen alde *egoteko* deia egiten duela dirudi. Eta agian, gutxieneko batasun bat lortzeko ezinbestekoa izan zen gauzak horrela formulatzea. Hala nola ez da ematen euskara erabiltzeko argumentaziorik. Agian identitate nazionalaren garapenarekin lotu liteke euskararen erabilera. Baina ez da ematen berariazko argumenturik. Era berean, euskarari ez zaio adjektiborik eransten. Hala ere, eta zentzu honetan esan liteke, aberzaleen arteko kohesio hori eman zedin, mezua baikorragoa dela -baikorragoa garai-ko beste testu batzuekin alderatzen bada-. Koloreak nahiko alaiak eta biziak dira; eta, nahiz eta mezua nazio eraikuntzarekin oso lotuta egon, eta ezezkoaren bueltan eraiki -mugarik ez-; mezuak tonu positiboa islatzen du: eskuz idatzitako letrek ikastolekin konektatzen baitute, kolore argiek alaitasunarekin...

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Hala ere, eta hizkuntza erabilerari erreparatzen baldin badiogu, euskaldunei zuzenduta dagoela ondoriozta genezake, euskaraz idatzita baitago testua. Bestetik, eta generoaren aldagaiari erreparatuta, ezin liteke ezer berezirik esan. Testua beste eragile batzuen garai bertsuko testuekin konparatzen baldin badugu, askoz ere alai edo koloretsuagoa da; ez horren oldarkorra. Hala ere, generoari erreparatuz trantsizio moduko batean kokatuko litzateke kartela.

K09



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: AEK
Urtea: 1998

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Testu honetan, kanpo espazioa errepresentatzen duen elementu bat dago: itsasoa. Hala ere, aipagarria da, itsasoa errepresentatzen duen ikono bat baldin bada ere, testua marrazki bidez osatua dagoela. Hau da, "marrazki bizidun" estilokoak lirateke bertan agertzen diren pertsona edota objektuak, eta ez espresuki, errealitatea islatzen duten argazkiak, esaterako. Hala nola, eta eskuartean daukagun testua borobila dela azpimarratuta, goialdean letra larriz, eta aipatutako itsasoaren "gainean", "euskaraz bagara!" esaldia ageri zaigu. Esaldi horretako letren ertza urdinez ageri zaigu, eta barrua aldiz hori kolorez. Gorago aipatutako itsasoaren azpian, hondo gorri baten gainean, Euskal Herria errepresentatzen duen mapa bat izango genuke. Mapa horrek, ertzak larroxa kolorekoak ditu, eta barrualdea aldiz, berde kolorez betea. Euskal Herria errepresentatzen duen mapa horren gainean hainbat pertsona ageri dira, baina pertsona horien azalpen eta deskribapena aurrerago egingo da. Hala ere, aipagarria da testuko pertsonak hainbat elementu edo objektu dituztela esku artean. Bi emakumek bakoitzak bandera bana du esku artean. Bandera bat morea da, eta bestea, berriz, horia. Bi bandera horietan eskuekin egindako zeinuak daude errepresentatuta, baita gaur egundik "emotikono" gisara hautemanenez aurpegi bat ere. Testuaren behealdean, AEK siglak daude, eta sigla horien azpian "izena eman euskaltegi eta barnetegietan!" esaldia. Aipatutako sigla horiek, eta baita esaldiak ere, ertzak horiz dauzkate margotuta, eta barrua aldiz, more kolorez.

Pertsonak: Testuan 27 pertsona ageri dira errepresentatuta. Hauek, Euskal Herriko lurraldea errepresentatzen duen maparen gainean kokatuta daude gehienak. Hala ere, pertsona bat adibidez, itsasoan dago. 27 pertsona horietatik, 14k emakume helduak dirudite. Beste lauk, emakume gazteak. Bostek haurrak, eta beste lauk gizon helduak lirateke. Hala nola, aipagarria da emakumeetako bat haurdun dagoela. Bestalde, pertsonak kolore ezberdinez margotuta baldin badaude ere, badirudi testuan ageri den pertsonetako batek ere ez duela izaki arrazializatu bat errepresentatzen. Gorputzei dagokienez, denetariko gorputzak ageri zaizkigu testuan. Gorputz txikiak, handiak, lodiagoak, argalagoak... badirudi, gorputzen bidez, aniztasun bat errepresentatu nahi izan dela. Arropei erreparatuta bestalde, 70eko hamarkadan horren famatu egin zen "hippie" estetika gogorarazten digu. Generoaren aldagaiak, adinarenak, zein gorputzaren aldagaiak, aniztasuna errepresentatzen badute ere testuan -hau da, gizon zein emakumeak daude errepresentatuta testuan; haurrak, zein pertsona helduak...- estetikoki esan genezake errepresentatutako pertsonak estetika berdinarekin errepresentatuta daudela. Hippie estetika da nagusi. Eta bestalde, arlekin itxuradun bi pertsona ere ageri dira, malabarak egiten gainera. Hala nola, eta jarre-ri erreparatuz, pertsonak alaitasuna transmititzen dute. Gorputz jarre-ri -batzuk helduta ageri dira...-, errepresentatutako pertsonen aurpegiek, edota testuak barnebiltzen dituen kolore biziek, hori errepresentatzen baitute. Dibertsioa eta gozamina nabari da pertsonen gorputz eta aurpegietan.

Praktikak edo ekintzak: Errepresentatuta dagoen pertsona bakoitza badirudi gauza batean dabilela. Hau da, nahiz eta errepresentatutako pertsona gehienak oinez ageri diren, praktikak ez daude elkarloturik. Pertsonak alde ezberdinetara begira daude, gehienak oinez, baina ez norabide berean. Testuak, praktiken eta pertsonen mugimenduaren bidez, ez du aurretiko testu batzuetan ikusitako "manifestazio sentsazio" hori islatzen. Beste emakume bikote bat esaterako, dantzan bezala ageri da. Arlekin moduan jantzita daudenak aldiz, malabarak egiten ageri dira. Eta dibertimenduaren errepresentazio gorena aldiz, itsasoan dagoen pertsonak islatzen du. Badirudi pertsona hau uretan dagoela, bere ondoko beste bi pertsonek bota dutelako. Uretan ageri denaren albokoak hortaz, barrez lehertzen ageri dira testuan.

Koloreak: Koloreei dagokionez, testua oso argia eta bizia dela esan genezake. Kolore anitzez osatua da hortaz, testua. Baina esan genezake koloreen tonuari erreparatuz gero, kolore guztiak oso biziak direla. Itsasoa eta AEKren siglak more kolorekoak dira. "Euskaraz bagara!" esaldi nagusia, aldiz, horiz margotua dago. Euskal Herriko lurraldea errepresentatzen duen mapak, aldiz, ertzak arrosa kolorekoak ditu, eta barrualdea berdea. Horren azpian ageri den fondoak, aldiz, gorria. Eta pertsonen arropa, eta eskuartean darabiltzaten objektu ezberdinak kolore bizikoak dira: urdinak, arrosak, moreak, berdeak, laranja...

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota karte-leko hartzailearengandik gertuen, "Bagara!" hitza letra larriz eta AEKren siglak ageri zaizkigu.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua borobila baldin bada ere, bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hala nola goialdean eta ideala errepresentatuz, "euskaraz bagara!" esaldia ageri da. Behealdean aldiz, eta erreala errepresentatuz, AEKren siglak ageri zaizkigu, eta baita "izena eman euskaltegi eta barnetegietan" esaldia ere. Zentroan, aldiz, eta nabarmendu nahian, pertsonak ageri dira. Pertsona koloretsu eta alaiak.

— **Prominentzia:** Lehen plano batean, AEK egongo litzateke, eta tarteko plano batean aldiz, "bagara!" hitza.

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek hainbat idatzizko esaldi dakarzkigu. Batetik, goialdean kokatuta dagoen "Euskaraz Bagara!" esaldia ageri zaigu. Eta bestetik, behealdean kokatuta dauden, AEK siglak, eta baita "izena eman euskaltegi eta barnetegietan!" esaldia ere.

Tenporalitatea: Testuak hitzen bidez bederen, orainaldia adierazten du. Oraina islatzen du, euskaraz bagara!; orain. Eta irudi bidez ere horixe da islatu nahi duen ideia testuak. Euskaraz izate horrek zer dakarren alegia. Alai da irudia, eta euskarazko orain hori islatzen dute bertan ageri diren pertsonak ere.

DISKURTSOA:

Kartel honek diskurtso mailan hainbat elementu dakarzkigu. Batetik, "euskaraz bagara!" esaldiaren bidez *gu* bat islatzen du testuak. Euskarazko jendartearen *gu* bat markatzen du. Badirudi *gu* hori inklusiboa dela. Hau da, *gu* hori ez da kontrajartzen "zu" batekin. Ez du bestetasunik erakusten. "Euskaraz bagara" esatea ez baita "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?" esatearen berdina. Gainera, islatzen den *gu* hori alai da, koloretsua, gozagarria dirudi. *Gu* horren eraikuntzan zerikusi argia du Txepetxek testu hau argitaratu baino hamar bat urte lehenago argitaratutako teoriak. Horren arabera, sustapen linguistikoaren subjektua etengabe eraikuntzan dagoen hiztunek osatutako komunitatea izango da (Zarraga, 2010: 45). Horixe islatzen da testuan, euskararen hiztun komunitatea. Eta badirudi, euskararen bidez, edota euskaraz biziz, hiztun komunitate hori pozik eta aske bizi dela. Hala ere, aipagarria da hiztun komunitate hau Euskal Herrian errotuta dagoela. Hau da, euskal herriko lurraldea errepresentatzen duen maparen gainean aurkitzen da komunitate. Baina urte batzuk aurreragoko testuek ez bezala, hiztun komunitateak eraikitzen du herria, eta ez alderantziz. Euskara da kartel honetako subjektua, edota baita euskal hiztuna ere. Baina ez nazioa. Nazioaren baitan kokatzen dira euskara eta euskal hiztuna, bi egitate horiek eraikitzen dute nazioa; hala ere, nazio eraikuntza hori ez da izango testuaren ardatza.


Euskara erabiltzeko argudioak –edota berau ikastekoak– intentziozkoak lirateke. Hau da, euskaraz bagara. Hala ere, argudio nagusiak testuan ageri diren irudien bidez transmitzen dira. Euskara gozagarria da, alai, anitza, dibertigarria. Eta adin tarte guztientzako modukoa. Alaitasuna, gozagarritasuna... ez dira lotzen adin tarte bakarrarekin –haurrekin–, baizik eta euskaraz dibertitzeko aukera adin tarte guztiena da. Gainera, euskara dibertigarria da, baina aldi berean ez da *naif*-a. Hau da, pertsonen estetikari erreparatzen badiogu, hauek nahiko "alternatibo" gisara definitu baitaitezke. Euskarak zentzu horretan kontrakotasuna, edota normaren aurkakotasuna islatzen du. Pertsona errepresentatuen artean esaterako, ez dago familia egitura tradizionalik, edota bikote heterosexualak errepresentatzen dituen izaki bizidunik.

Amaitzeko, aipagarria da hizkuntza zapalkuntza edota menderakuntzarik ez dela errepresentatzen. Euskararen alderdi positiboa erakusten zaigu; eta zapalkuntza eta abarrak albo batera uzten dira.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Ez dago batere argi. "Euskaraz bagara" da testuaren esaldi nagusia, hau da, *gu* bat errepresentatzen du. Testuan, begirada batean, badirudi emakume gehiago dagoela gizonezkoak baino. Zenbakiei begiratu gero ere hala da, lau gizon heldu soilik errepresentatzen baititu testuak. Hala nola, eta garai honetako beste testu batzuei erreparatu gero, esan liteke beste testu batzuek errepresentatzen duten oldarkortasuna ez duela honek inondik inora ere errepresentatzen, adibidez. Testua, eta hortaz hartzailea ere, ez dira maskulinoak. Hala ere, feminitate hegemonikoa ez du errepresentatzen testuak. Bertan ageri diren pertsonak ez dira normatiboak; estetikoki esaterako, alternatiboak dira. Errepresentatutako egoerei dagokionez ere, ez da ageri familia nuklearrik edota, bikote heterosexualik. Hortaz, testua bera, eta baita testu honi dagokion hartzaile/behatzaile inplizitua genero trantsizio baten dagoela esan liteke. Hala ere, testu honen hartzaile inplizitua nahiko "alternatiboa" -estetikoki, eta bizi estilo- izan behar duela dirudi.

K10



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Kontseilua

Urtea: 1998

"Bai Euskarari" kanpaina kontseiluak euskal jendartearen euskararen aldeko akordio zabal-lortzeko asmoz abian jarri zuen egitasmoa da. 98ko abenduan 3 une esanguratsu izan zituen. Batetik, abenduaren 21ean Euskal Herriko hamar alderdi politikoetako ordezkariak *Euskararen Normalizaziorako Konpromiso Politikoa* izeneko agiria aurkeztu eta sinatu zuten Bilbon -Xabier Arzallus eta Arnaldo Otegi izan ziren bertan, besteak beste-. Jarraian, abenduaren 23an, hogeita bi gizarte-eragile nagusik Bai Euskarari Akordioaren lehen sinaketa egin zuten UNESCOren lekukotasunarekin. Hilabete batzuk geroago etorriko zen sinatze zabalagoa: 687 sinatzaile Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Eta kanpainari amaiera emateko, abenduaren 26an Euskal Herriko 5 estadio 125.000 lagunekin bete ziren ekitaldi bakar baten parte eginez denak ere, nor bere tokitik (Kontseilua, 2020).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kartela hondo edo azal urdin ilun baten gainean eraikita dago, eta ertzak aldiz, beltzak dauzka. Goitik behera egituratzen da testua, eta goiko partean, ideala errepresentatuz, hiru esaldi daude hiru hizkuntza ezberdinetan idatzita; esanahi berbera daukaten hiru esaldi dira. Horiz goialdean, "El acuerdo del siglo XXI" esaldia dago. Horren azpian, kolore zuriz eta letra handiagoz, "XXI. mendeko akordioa" esaldia ageri da. Horren azpian, eta urdinez, "L'accord du XXI siècle" esaldia dago. Hiru esaldi horien azpian, aldiz, "bai euskarari" kanpaina osatzen duen ikurra ageri da. Ikurra horia da, borobil hori bat. Borobil horren gainean, "bai" hitza ageri da behin eta berriz errepikatuta, kolore laranja. Hala eta guztiz ere, "bai" guzti horien gainean "bai" urdin bat dago. Ikurraren azpian, marra zuri bat ageri da, eta marra horren azpialdean, "euskarari" hitza dago idatzita; letra txikiz. Behealdeko beltzutako koadroan, hiru esaldi ageri dira; hiruak esanahi berbera daukatelarik, baina hiru hizkuntza ezberdinetan idatzita ageri dira. Euskarazko esaldia -zuriz marraztua- "Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat" da. Gaztelaniazko esaldiak aldiz -horiz marraztua- "El 26 de diciembre tienes un compromiso" dio. Eta azkenik, urdinez, frantsesezko esaldia ageri da "Le 26 décembre tu as un engagement". Hiru esaldi horien azpian, aldiz, igorle enpirikoa ageri da: Euskararen gizarte erakundeen kontseilua eta honen ikurra.

Praktikak edo ekintzak: Testuan elementu bizidunik ageri ez den arren, eta hortaz, praktika edota ekintza zuzenik ere ez, kanpaina honetako leloan bertan mugimendurako edota ekintzarako deia hauteman genezake. "Bai euskarari" da kanpainaren leloa, eta baietz esateari buruz ari da. Hala ere, eta nolabaiteko mugimendua adierazten baldin badu ere, erabilerarako saltoa ez du islatzen testuak. Hau da, kartelak euskararen alde egotearen aldarria egiten duela dirudi, erabilerarako saltoari erreferentzia baino gehiago.

Koloreak: Lau kolore nabarmendu genitzake testuan. Batetik, urdina. Urdin ilunez testuaren hondoan izango genuke. Eta urdin argiazgoz, aldiz, frantsesez idatzita ageri diren bi esaldiak. Horretaz gain, eta testuaren hondoko urdin kolore berdinarekin, ikurraren gainean nabarmenduz ageri den "bai" hitza izango genuke. Bestetik, zuriz "XXI. mendeko akordioa" eta "Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat" esaldiak izango genituzke, eta baita behealdean kokatuta dagoen "euskarari" hitza ere. Horretaz gain, igorle enpirikoaren izena eta ikurra ere zuriz ageri dira. Horiz, aldiz, gaztelaraz ageri diren bi esaldiak izango genituzke, eta baita kanpainako ikurra ere. Eta amaitezko, kartelaren buelta guztian, eta ertza osatuz, beltzezko koadro moduko bat ageri da.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboa:** Distantziari errepikatuta, behatzailearen edota karteletako hartzailearengandik gertuen, kanpainako logoa egongo litzateke. Kartelaren zati dezente bat hartzen du ikurrak, eta kolore ezberdintasunarekin eta abarrekin, behatzailearengandik gertuen kokatuta dagoen elementua dela esan genezake.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, goialdean, eta ideala errepresentatuz, hiru hizkuntzetan idatzitako esaldiak ageri zaizkigu. "Bai euskarari" XXI. mendeko akordio gisara definitzen duten esaldiak alegia. Erdialdean, eta nabarmenduz, kanpainako

ikurra izango genuke. Eta behealdean, erreala errepresentatu nahian, "euskarari" hitza egongo litzateke.

- **Prominentzia:** Lehen plano argi batean logoa aurkitzen da. Koloreagatik, eta baita erdialdean kokatuta dagoelako ere, bera nabarmentzen da gehien. Hala ere, eta planoei erreparatuz gero, "XXI. mendeko akordioa" esaldia eta "euskarari" hitzak ere lehen plano batean egongo lirateke. Baina ez dira ikurra bezainbeste nabarmentzen.

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek hainbat idatzizko esaldi dakarzkigu. Batetik, "XXI. mendeko akordioa" hiru hizkuntzetan izango genuke. Bestetik, "euskarari" hitza, eta baita ikurrean kokatuta dagoen "bai" hitza ere. Eta azkenik, "Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat" esaldia egongo litzateke euskaraz, gaztelaniaz eta baita, frantsesez ere. Azken esaldi horrek, Euskal Herriko bost futbol estadio betetzeko ekintzari egiten dio erreferentzia.

Tenporalitatea: Testuak orainaldiari eta etorkizunari egiten dio erreferentzia. "Bai euskarari" esaldiak orainaldia errepresentatuko luke. Nolabait ere, esan bai euskarari lioke esaldiak. Hala ere, eta goialdean kokatuta dagoen esaldiari erreparatuz gero, "XXI. mendeko akordioa" esaldiari alegia, esan liteke esaldi horrek etorkizunari egiten diola erreferentzia. Hau da, testua XX. mende amaierakoa da. Hortaz, "Bai Euskarari" kanpainaren inguruko akordio hau, nolabait ere XXI. mendeko akordioa izango dela iragartzen ari da.

DISKURTSOA:

Testu honen baitan hainbat diskurtso edo elementu diskurtsibo bereizi genitzake. Testua guztiz intertextuala da. Hau da, kanpainaren lelo nagusiak 1978. urtean Euskaltzaindiak egindako kanpainaren lelo nagusia dakarkigu. Eta horixe da gainera testu honek, eta oro har kanpaina honek bilatzen dutena. Nolabait ere, 1978ko izpiritu harekin konektatzea. Euskararen inguruan ilusioa, askatasun hegarrria, baikortasuna, grina... berriz ere piztea. Horretaz gain, 1978. urtean eta "Bai Euskarari" kanpainaren baitan lortu zen batasuna ere, nolabait irudikatu eta lortu nahi izan zen 1998an ere. Hala nola, eta testuko elementu nagusietara etorrira, "Bai Euskarari" kanpainaren lelo nagusia egongo litzateke. Mezu positiboa da argi eta garbi, eraikitzailea nolabait, eta baita zabala ere. Bai esaten zaio euskarari, eta ez "ez" beste zerbaiti. Horrek garrantzia handia dauka garai honetan Euskal Herriko espazio publikoan, ezetzaren bidez errepresentatutako kontraktotasunak izugarriko garrantzia hartuko baitu (Zulaika, 1988: 303). Baikortasun edo positibotasun horrek irekitasuna ematen dio euskarari. Baikortasuna eta nolabaiteko esperantza zantzuak beste bi elementuetan ere ikusi genitzake. Batetik, ikurrean koloreak eta baita gainaldean dauzkan "bai" guztiek ere, nolabaiteko baikortasun sentsazioa ematen dute. Are gehiago, ikurrak badirudi eguzki bat errepresentatzen duela; edota eguzkia -argitasunaren ikurra- datorkigula burura behintzat, ikurra ikusten dugunean. Eta baikortasuna adieraziko ligukeen beste esaldi bat "XXI. mendeko akordioa" esaldia litzateke. Mende guztiko akordiorik garrantzitsuentzat jotzen du bere burua testuak. Eta aldi berean, argi eta garbi batasun baterako, edota gutxieneko batzuetara heltzeko akordioaren garrantzia ere azpimarratzen du. Ez da erabilera kanpaina soil bat, XXI. mendeko akordiotzat baitauka bere burua. Hau da, akordioa, hitza, sinadura, egotea... bilatzen zela esan liteke; egitea baino lehenago. "Bai euskarari" leloak mugimendu edo ekintza bat islatzen badin badu ere -esan bai euskarari-, akordio hitzak egotera, sinadurara... garamatza.

Era berean, eta akordioaren filosofiarekin lotuta, kartela soila da. Urdin ilun kolorearekin, eta baita ertzak beltzez margotuta ere, badirudi euskarari inguruan izan ditzakeen tradizio zein gatazka usain guztiak kendu, eta beratu doitu nahi dela. Ez dago naziorik, ez dago gorputz alternatiborik, ezta gatazkarik ere. Enpresa industrial handien estetika daukala dirudi; horiek zer bait sinatzeko neurria egindako estetika. Neutraltasuna adierazi nahiko balu bezala.

Hala ere, soiltasun horrek, gatazkarik ez horrek, badu bakearekin, euskararen despolitizazioarekin loturarik. Kontuan izan behar dugu Lizarraga-Garazi garaia zela, ilusioa, batasuna, bake-nahia... zirela nagusi Euskal Herrian, eta baita euskalgintzan ere (Inda, 2019). Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak bakerako nahi bat erakusten du Abenduaren 26an estadioetan egin zen kanpaina amaierako adierazpenetan: *"Duela 20 urte hegan abiatu zen San Mamesen euskararen uso zuria. Uso zuri honek, bat egin du bake eta askatasunaren usoarekin, eta elkarrekin doaz XXI. mendera hegan. Euskararen usoak bakea eta askatasuna behar baititu hegan egiteko"* (ARGIA aldizkaria, 2013). Garaiko testuinguru soziopolitikoak agertzen da hitz horietan. Euskalgintzak 80-90eko hamarkadetan barne gatazka eta tentsio nabarmenak bizi izan zituen, eta adierazpen horrek argi uzten du zein den etorkizunerako nahia, eta baita bidea ere; bakearena. Hala nola, eta bake eta askatasun horrekin lotuz, euskara independente bat islatzen da testu honetan. Hau da, ez du ez kulturarekin ezta nazioarekin loturarik egiten. Nazio zapalkuntzarik ez da ageri, eta euskara bera da subjektua. Hala eta guztiz ere, aipagarria da hizkuntza menderakuntzarik edota hizkuntzarenganako zapalkuntzarik ere ez dela agertzen.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Hala ere, esan genezake euskal zein erdal hiztunei zuzendua dagoela. Euskal Herrian presente dauden hiru hizkuntzak baitaude errepresentatuta. Baina esan liteke euskararen presentzia nabarmenagoa dela. Euskarazko esaldiak letra tamaina handiagoan baitaude idatzita; eta "bai euskarari" leloa euskaraz soilik idatzita baitago. Hala nola, eta garai honetako testuei erreparatuta, aztertutako karteletatik erdaraz dagoen kartel bakarra da. Beraz, euskararen subjektua edota hartzaile/behatzaile inplizitua zabaltzeko nahi bat sumatzen zaio testuari, eta esan liteke, baita, kanpainari berari ere.

Testu hau, hartzaile/behatzaile inplizituari dagokionez, esan liteke trantsizio nabarmenean dagoela. Hau da, kartelean soiltasun, zurruntasun edota seriotasunaren bidez, maskulinitatea errepresentatzen duela esan genezake. Hala ere, kartelean errepresentatzen den maskulinitatea ez da garaiko beste testu batzuetan ageri den maskulinitate oldarkor hori. Hala, eta gatazka edo politizazio kutsua euskarari kentzeko, beratu sotildu zela esan liteke; neutralitate bat erakutsi nahi bat dago testuan. Baina zurruntasun, soiltasun, eta kolore horien bidez, neutraltasun hori nahiko maskulinoa dela esan liteke.

K11



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Ttakun Kultur Elkartea eta Lasarte-Oriako Udala

Urtea: 2005

Lasarte-Orian euskararen alde egin izan den 40 orduko jaialdia da euskararen maratoia. Ttakun kultur elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin antolatzen duen jaialdia da. Aipagarria da Euskararen 9. Maratoia -2016. urtean egin zena- izan zela Euskaraldiaren inspiratzailea (Ttakun, 2019).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kartela hondo edo azal gris baten gainean eraikita dago, baina hala ere, testu koloretsu bat dela esan liteke. Hala nola goialdean, eta nolabait ere ideala errepresentatuz, hizki zuriz, testuaren "izenburua" edo izango genuke: "Euskararen IV. Maratoia". Azpimarragarria da hizkiak zuriz agertzen direla, eta zenbakiak aldiz, kolore horiz. Izenburu horren azpian, testuaren erdialdean, hau da, testuan nabarmentzen den elementu gisara, hiru panpina izango genituzke. Lehenik eta behin, panpina eta hondo gris-beltzaren erdian, eskuoihal moduko bat ageri da. Eskuoihal horrek, marra lila eta moreak ditu bere baitan. Eskuoihal horren gainean, hortaz, hiru koloretako panpina moduko ageri dira. Ez dago argi panpina

horiek pertsonak simulatzen dituzten edo ez, baina esan liteke pertsonen ikonoak behintzat ez direla. Panpina horiek soilik burua eta gorputza izango dituzte. Hau da, ez daukate beste gorputz atalik. Ezkerrean kokatuta dagoenak adibidez, buru horia dauka. Buruan bi orban beltz txiki ditu, eta beste orban borobil handiago bat. Orban horiek dituzten forma eta neurriengatik, esan liteke begiak eta ahoa direla. Ezkerreko panpinaren gorputza berdea da, eta aipatu den moduan, ez dauka beste gorputz atalik. Bestetik, baina ezkerreko panpina honekin jarraiki, aho edo aurpegi ingurutik marra batzuk ateratzen zaizkiola aipatu liteke. Marra horiek kolore ezberdinak dituzte –berdea, horia, laranja, urdina eta arrosa-. Esan liteke marra horiek berba, hitza, euskararen erabilera errepresentatzen dutela azken finean. Ezkerreko panpina horren alboan, erdian kokatuta, beste panpina bat dago. Panpina horrek burua laranja dauka, eta aurpegian hiru orban ditu, bi begi eta ahoa direla ondorioztatatu genezake. Horrek ez dauka erabilera, edo hitza errepresentatzen duen ezer ahoan, eta barrez ari dela esan liteke. Erdiko panpinaren alboan, beste panpina bat aurkitzen da. Horrek burua arrosa kolorekoa du. Aurpegian bi begi eta ahoa errepresentatzen duten orbanak ditu, eta erabilera edota hitzaren sinboloak izan litezkeen marraz ateratzen zaizkio ahotik. Horiek, beste aldekoaren moduan, koloretako marraz dira. Ertzeko panpina horrek bestalde, gorputza laranja kolorekoa dauka. Hiru panpinen gainean “40 ordu gogoz!” esaldia dago. Kasu honetan, zenbakia ertz zuriz eta hondo hori errepresentatuta dago. “Ordu” hitza arrosaz eta “gogoz” kontzeptua, aldiz, horiz. Behealdean, eta erreala errepresentatuz, ekintza hau egingo den data eta lekua aurki genitzake: “Urriak 26-27. Lasarte-Oria”. Data berdez idatzita dago, zenbakiak zuri-horizko diana moduko baten gainean aurkitzen direlarik. “Lasarte-Oria” herriaren izena, aldiz, urdinez ageri zaigu. Eta data eta lekuaren eskuinean igorle enpirikoen izen eta ikurrak ageri zaizkigu: Lasarte-Oriako udala eta bere armarrria; eta Ttakun kultur elkarte eta honen ikurra. Hala nola aipagarria da testuaren ertzak marra hori batek betetzen dituela.

Praktikak edo ekintzak: Elementu bizidunik bere horretan ez da ageri testuan. Baina esan liteke goian deskribatutako panpinek elementu bizidunen simulazio moduko bat izango liratekeela. Hala nola, eta gorputz atalik eta abar ez baldin badaukate ere, esan liteke testuan ageri den praktika bakarra beraiek errepresentatzen dutela. Testuan ageri den praktika edota ekintza, hortaz, euskararen erabilera litzateke. Gainera, eta koloreei ondoren erreparatuko diegun arren, badirudi euskararen erabilera hori gozagarria edota dibertigarria dela. Panpinak pozik errepresentatuta baitaude, eta erabilera errepresentatzen duten marraz ere kolore biziz marraztuta; nolabait, dibertigarritasun, gozagarritasun edota alaitasuna islatuz.

Koloreak: Espazio eta objektuak deskribatu diren atalean aipatu den moduan, testua oso koloretsua da. Deigarria da, hondo gris-beltza izan arren, zenbateko alaitasuna eta dibertigarritasuna errepresentatzen duen testuak. Modu eta leku ezberdinetan, baina zuria, horia, morea, lila, laranja, berdea, urdina eta arrosa koloreak errepresentatuta aurkitzen dira testuan. Gainera, aipagarria da kolore horien tonalitatea oso bizia dela. Testuan ageri diren koloreak ez dira pastel kolorekoak; oso biziak dira.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelego hartzailearengandik gertuen, "40 ordu gogoz!" esaldia egongo litzateke. Panpinak ere atentzioa deitzen dute, eta hartzailearengandik gertu daude, baina hauek erdibideko plano batean aurkitzen dira.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, goialdean, eta ideala errepresentatuz, "Euskararen IV. Maratoia" izenburua legoke. Zentroan, eta nabarmenduz –testuaren espazio gehiena ere honek okupatzen baitu–, panpinak leudeke. "40 ordu gogoz!" esaldia ere zentroan dago, eta lehen plano batean, baina koloreengatik edota tamainagatik esan liteke panpinak gehiago nabarmentzen direla. Behean, aldiz, eta erreala errepresentatuz, igorle enpirikoen izenak eta ikurrak leudeke. Eta baita maratoia egingo den herriaren izena –Lasarte-Oria– eta data –Urriak 26-27– ere.
 - **Prominentzia:** Jada aipatu den bezala, lehen plano batean "40 ordu gogoz!" esaldia izango genuke. Erdibideko planoan, aldiz, baina lehen planoko esaldia baino protagonismo gehiagorekin, panpinak izango genituzke. Eta beste elementu guztiak bigarren plano batean kokatuta leudeke.

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu den moduan, idatzizko hiru esaldi ageri dira testuan. Batetik, "Euskararen IV. Maratoia" dioen esaldia. Bestetik, "40 ordu gogoz!" dioena. Eta hirugarrenik, data eta lekua zehazten dituen: "Urriak 26-27/Lasarte-Oria".

Tenporalitatea: Testuan ez zaigu idatzizko aditzik azaltzen. Irudiek ere bere horretan ez digute inongo denborarik adierazten. Hala ere, aipatu liteke testuak orainaldiari eta etorkizunari egiten diola erreferentzia. Batetik, orainean kokatuta dago, 40 ordu horiek orain dira. Alaitasun eta gozagarritasunak ere oraina errepresentatzen du. Baina bestetik, testuak bere horretan etorkizunean pasako den zerbait iragartzen du. Hau da, urriaren 26-27an egingo den ekintza hori etorkizuneko da. Hala, "40 ordu gogoz!" esaldian ere badirudi etorkizuna barnebiltzen dela. 40 ordu horiek gogoz igaro behar direla dirudi ondoren, 40 ordu horiek pasa ostean, zerbait aldatzeko asmoz edo.

DISKURTSOA:

Testu honek, hasierako begiratu batekin badirudi ez duela kasik elementu diskurtsiborik barnebiltzen. Hala ere, bi elementu diskurtsibo gutxienez bereizi genitzake. Batetik, euskararen erabilerei ematen zaion zentralitateaz azpimarratu lieke. Panpinen marra horiekin, eta baita panpinen "gorputz-espresioarekin" ere, erabilera errepresentatzen da; eta euskararen erabilera hori dator erdigunerara. Eta bestetik, erabilera horren nolakotasuna egongo litzateke egoki islatuta testuan. Koloreen bidez batez ere, baina baita panpinen bidez, eta hauen egoteko moduaren bidez ere, euskararen erabilera, gozagarritasun, alaitasun eta dibertigarritasun batekin dago erreparatuta testuan. Are gehiago, badirudi gozagarritasun eta dibertigarritasun hori nahiko infantilak direla. Hau da, testuko kolore eta panpinek umeen mundu batera garamatzate. Izan ere, eta euskararen erabilerarako argumentuei erreparatuta, esan liteke testuak ebaluaziozko erabilera argumentuak ematen dituela. Hau da, "erabili euskara dibertigarria delako". Bestalde, badirudi testuak nolabaiteko intertextualitate bat ezartzen duela garai hartako "comecocos" bideojokuarekin.

Izan ere, testuinguru horretan testuak ez du inongo hizkuntza-zapalkuntzarik edota hizkuntza-menderakuntzarik islatzen.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Hala ere, esan genezake kartel hau nagusiki euskal hiztunei zuzenduta dagoela; karteleko elementu guztiak euskaraz baitaude. Hala, eta diskurtsoko elementuei erreparatuz gero, esan liteke testua maskulinoa ez dela. Femenino gisara ere ez dakit kalifikatu litekeen, baina testua infantil gisara ikus genezake. Hau da, testuaren hartzailea seguraski ez da izango haurra, baina estetika oso haurrena daukala azpimarratu liteke. Koloreek, eta kartelaren erdialdean nabarmenduz agertzen diren panpinek, hori ondorioztatzea garamatzate.

K12



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Eusko Jaurlaritza: HPS –Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza–
Urtea: 2006

“Pixka bat es mucho” kanpainaren bidez, ezagutzatik erabilerarako jauzia egite aldera, euskara erabiltzeko gai direnen inplikazioa areagotu eta erabileraren aldeko mezua igorri nahi izan zen. Euskal hiztunak izan zituen hortaz, ardatz kanpainak. Batetik, euskara erabiltzeko beldurra kentzea izan zuen helburu kanpaina horrek. Eta bestetik, euskara ikasten zihar-dutenak animatu, eta euskal hiztunei hauen prozesuan erraztaile izateko deia ere egin zitzaizen (Eusko Jaurlaritza, 2006).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kartela hondo edo azal gris argi baten gainean eraikita dago. Testuan hainbat elementu nabarmendu daitezke. Batetik, eta zuri eta beltz kolorez, bunbuilo handi bat ageri da. Bunbuiloaren barnealdean “Pixka bat es mucho!!” kanpainako esaldia islatzen da. Bunbuilo hori horren behealdean ageri den Ukan birusarena da. Hau da, bunbuiloan agertzen den esaldia Ukanek esandakoa dela ondorioztatuta liteke. Ukanek birus bat errepresentatzen du; euskararen birusa. Hala ere, pertsonifikatuta dagoela esan liteke. Hau da, birus bat da,

baina antropomorfo baten modura errepresentatuta dago. Birusak lau hanka beltz ditu. Hanken goialdean, gorri koloreko ezpain handi batzuk dauzka. Ondoren, gorputza erre-presentatuko lukeen enbor bat izango luke. Enborra hiru kolore ezberdinetakoa da: beltza, berdea eta urdina. Eta enbor horretan bertan izango lituzke Ukanek begiak. Bi begi dauzka, bata bestearen gainean. Enborraren erdialdetik zehazki, beso bat irteten zaio birusari; daukan beso bakarra. Enborraren goialdean, aldiz, "txapel" moduko bat dauka; laranja kolorekoa. Txapel horretan, "Ukan" jartzen du letra larriz. Eta txapel moduko horren goialdean, kolore berdinarekin, antenak diruditen lau marra eta borobil izango lituzke. Birusaren alboan, beltzez, hiru esaldi ageri dira elkarren segidan. Batetik, "Zuk uste duzuna baino gehiago dakizu". Bestetik, "Hitz egin lasai". Eta azkenik, "Ekin Ukan Ekin" esaldia izango genuke. Testuaren behealdean bestalde, ezkerrean, kanpaina honetako webgunea dago islatuta: www.pixkabatesmucho.net. Eta azkenik, igorle enpirikoaren ikurra islatzen da testuan. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren ikurra. Eta horren azpialdean, "Kultura saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza", eta berdina gaztelaniaz: "Departamento de cultura. Viceconsejería de Política Lingüística".

Praktikak edo ekintzak: Testu honetan, pertsonarik ez zaigu ageri. Baina goian aipatu den gisara, elementu antropomorfo bat egon badago; Ukan birusa. Birusa ageri den posturagatik, esan liteke mugimenduan dagoela. Hau da, hankak mugimenduan ageri dira, eta eskuarekin badirudi norbait agurtzen dabilela. Horretaz gain, Ukan hizketan ageri da, "Pixka bat es mucho" esaldia dagoen bunbuiloa berak esaten duela iradokitzen baitu testuak. Hala ere, aipagarria da testuan bera bakarrik ageri dela. Hortaz, ondorioztatu liteke hartzaile/behatzaile inplizituari zuzendutako mezua dela.

Koloreak: Esku artean daukagun testuak ez ditu oso kolore biziak. Goian aipatu den gisara, hondoa gris argia da, nahiz eta goialdean "zirriborro" bat dirudien irudi bat egon gris ilunagoz margotuta. Bestalde, bunbuiloa zuriz eta beltzez ageri da. Eta testuan ageri diren gainerako esaldiak ere beltzez errepresentatuta daude. Hala nola Ukan birusa bera, sei koloreekin errepresentatuta dago: beltza, zuria, gorria, berdea, urdina eta laranja. Aipagarria da birusaren koloreak hondoko gris argiarekin bat doazela. Hau da, ez dira kolore biziak; Ukanengan errepresentatuta dauden koloreak mate erakoak direla esan liteke. Eta azkenik, igorle enpirikoaren ikurrean ageri diren koloreak leudeke: urdina, zuria, gorria, berdea eta marroia.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelego hartzailearengandik gertuen, kanpainako esaldia kokatuta dagoen bunbuiloa egongo litzateke. Gainera, testuaren erdia hartzen du gutxi gora behera bunbuilak, beraz, tamainaz ere handia da.
 - **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, goialdean, baina era berean zentroa hartuz, "Pixka bat es mucho" esaldia kokatuta dagoen bunbuiloa ageri da. Behealdean eta erreala errepresentatuz, kanpainako webgunea eta igorle enpirikoaren ikurrak ageri dira. Hala, eta nahiz eta behealdean kokatuta egon kolore eta abarregatik, Ukan birusa ere asko nabarmentzen dela esan liteke.
-

-
- **Prominentzia:** Lehen plano argi batean bunbuiloa aurkitzen da. Espazioaren erdia edo gehiago ere hartzen duelarik. Bestetik, eta nahiz eta behealdean kokatuta egon, Ukan birusa bera ere lehen plano batean dagoela esan liteke.
-

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek hainbat idatzizko esaldi dakartzkigu. Batetik, "Pixka bat es mucho" kanpaina honetako lelo nagusia izango genuke. Bestetik, Ukan birusaren alboan dauden hiru esaldiak: "Zuk uste duzuna baino gehiago dakizu". "Hitz egin lasai". "Ekin Ukan Ekin". Horietaz gain, informazio "praktikoagoa" eskaintzen diguten esaldiak ere izango genituzke. Hala, kanpainako webgunea: www.pixkabatesmucho.net. Eta azkenik, igorle enpirikoaren izenak bi hizkuntzetan: "Eusko Jauriaritza/ Gobierno Vasco" eta "Kultura Saila; Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza/ Departamento de cultura; Viceconsejería de Política Lingüística "

Tenporalitatea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia. Testuan dauden idatzizko aditz guztiek orainaldiari egiten diote erreferentzia: "Zuk uste duzuna baino gehiago dakizu"; edota "Ekin" eta "Ukan" aditz solteek. Hala ere, badirudi, batez ere "Ekin" aditzaren bidez, etorkizuna ere sartzen dela jokoan. Hau da, "Ekin Ukan Ekin" hitz lokuzioaren bidez "orain ekin, gero izateko" adierazi nahi duela dirudi.

DISKURTSOA:

Testu honen baitan hainbat diskurtso edo elementu diskurtsibo bereizi genitzake. Batetik, "pixka bat es mucho" kanpainaren esaldi nagusia izango genuke. Esaldi horrek hitz-joko bat dakar. Hau da, euskarazko "pixka bat" esaldia eta "es mucho" -asko da- gaztelaniatzko esaldiarekin esaldi bakarra osatzen du; pixka bat asko dela esatera datorrena. Nahiz eta kanpaina euskal hiztunen erabileran zentratuta egon, gaztelaniatzko esaldia sartzen du, nolabait ere erakargarritasuna irabazteko. Bestalde, "zuk uste duzuna baino gehiago dakizu" esaldiak ere, esan liteke euskal hiztun berriei egiten diela erreferentzia. Hala, euskara identitatearekin uztartzen duela ere adierazi liteke. Hau da, "Ekin, Ukan, Ekin" esaldiarekin, ekin eta izateko adierazten dio hartzaile/behatzaile inplizituari. Beraz, euskara edukitzeak izate bat ere badakarrela ondoriozta genezake. Ez zaiguna batere argi gelditzen da izate hori zerekin dagoen lotuta; euskal nortasun edota identitatearen zantzurik ez baita azaltzen testuan. Hala ere, "ukan" hitzak berak lpar Euskal Herrira garamatza. Bertan erabiltzen baita "izan" aditzaren aldaera trantsitibo gisara (Euskaltzaindia, 2020b). Hala, Ukan aditzak eduki eta izatearen arteko lotura bat islatzen du. Horixe errepresentatzen baitu Ukan birusak ere. Birusa bere horretan jostaria da, alaitasuna islatu nahi duela esan liteke. Birusak adierazten duen antropomorfismo horrek marrazki bizidunetara garamatza; hau da, haurren paradigmarekin lotu genezake birusa bera. Birusak islatzeko edota errepresentatzeko modu asko baitaude, baina kanpaina honetan baten alde egin zen. Hala, birus antropomorfoa da, eta gainera nahiko sinpatikoa dirudi. Bestalde, badago kanpaina hau "infantilizazio" batekin lotzeko beste arrazoi bat. Kanpainarekin batera, eta uda garairako, kantu bat ere plazaratu zen. Kantuaren errepikak honela zioen: "Anima zaitzez laguntxo, ezpainetan euskara goazen pixka bat ez mucho!". Lagun kontzeptuaren txikigarri horrekin -laguntxo- badirudi lagunak ez duela pertsona heldu bat errepresentatzen.


Hortaz, esan liteke kanpaina honetan euskara erabiltzeko bi argudio nagusi ematen direla. Batetik, "izan/Ukan" aditzekin egiten den hitz-jokoarekin pentsa liteke identitateari egiten

diola erreferentzia kanpainak, eta asmo edo intentzioak oinarri dituen argudioak emango lituzke. Bestalde, ebaluaziozko argudioak ere erabiltzen ditu testuak, batez ere irudi bidez. Euskarari esleitu nahi zaizkion adjektiboak kontu dibertigarriekin lotura izatea bilatzen baitute. Hala nola aipagarria da testu honetan ez dela hizkuntza menderakuntza edota hizkuntza zapalkuntzaren inongo zantzurik errepresentatzen.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Hala ere, esan genezake euskal hiztunei zuzenduta dagoela. Hala nola, eta espezifikoago begiratuz gero, euskal hiztun berriei zuzenduta dagoela ere iradokitzen du testuak. Hasteko, lelo nagusia –pixka bat es mucho– gazteleraz dago. Eta badirudi, gutxi baldin bada ere, hitz egitera animatzen duela hartzaile/behatzaile inplizitua. Horretaz gain, “Zuk uste duzuna baino gehiago dakizu. Hitz egin lasai” esaldiak ere euskal hiztun berriengana garamatza. Horretaz gain, eta Ukan birusaren antropomorfismoak, marrazki bizidunekin ezinbetseko lotura bat egitera garamatza. Nolabait ere, haurren mundu batekin, edota haurtzaroaren paradigma horrekin dauka lotura Ukan birusa errepresentatuta dagoen moduak. Beraz, eta nahiz eta haurrentzako kanpaina bat ez den, badirudi hartzaile/behatzaile inplizituak infantilizazio bat sufritzen duela.

K13



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Euskal Herrian Euskaraz

Urtea: 2000-2009

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Testu honetan kanpo espazioen ikonoak azaltzen baldin badira ere, ikono hauetan zentraltasuna pertsonak daukate. Hau da, bi argazki ageri zaizkigu testuan. Argazkietako batean, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ageri da prentsaurreko bat ematen. Ibarretxe errepresentatuta dagoen argazkiaren atzealdean, 2002. urteko Ibilaldiko ikurra ageri da. Beraz, pentsa liteke argazkia urte horretako Ibilaldiko prentsaurrekoren batekoa dela. Lehendakariaren alboan, beste pertsona bat ageri da "PNV ofizialtasunaren ukatzaile. Noiz arte?" esaldia daraman kartel batekin eskuan. Beste ikonoan aldiz, Gabriel Maria Inclan ageri da. Garaiko Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua. Irudi bidezko objektu edota elementu horietaz gain, hitzeko esaldiak ere ageri dira testuan. Batetik, goialdean eta testuko esaldi nagusi gisara "Hau al da euskara maitatzea?" dioen galdera ageri zaigu hori kolorez idatzita. Bestetik, eta hori kolorez, testuaren goialdean barreiatuta, zazpi galdera ikur ageri dira; goiko esaldiari erreferentzia egiten diotenak. Bestetik, eta zuri kolorez, bi ikonoen azpialdean, beste bi esaldi ageri dira: "Eusko Jaurlaritzak Osakidetzako lanpostuetarako ez du euskara eskatzen" dioen esaldia. Eta honen azpialdean, zuri kolorez eta letra

larriz: "Aski da! Euskaraz!" esaldia egongo litzateke. Aipagarria da, testua zuzena baldin bada ere, hondoa edota testuaren azala berde turkesa kolorekoa dela. Hau da, testuaren hondoak ez luke hitzek dakarten zuzentasun, edota oldarkortasun hori islatuko. Hala nola testuaren ertzak beltzez koloreztatuta ageri dira. Eta azpialdean, beltz koloreko marra lodi bat ageri zaigu. Marra lodi horren azpian, horiz eta beltzez, Euskal Herrian Euskaraz taldearen ikurra ageri da. Hau da, igorle enpirikoaren ikurra. Eta zuriz idatzita: "Euskal Herrian Euskaraz!" esaldia.

Pertsonak: Goian aipatu den gisara, bi ikonoren bidez bi pertsona errepresentatu nahi dira testuan ageri diren bi argazkietan. Batetik, orduko lehendakaria zen Juan Jose Ibarretxeren argazkia izango genuke. Argazkia, 2002. urtean Getxon ospatu zen Ibilaldia ekimenekoa litzateke. Lehendakariaren alboan, aldiz, beste pertsona bat ageri da eskuan kartel bat daukalarik "PNV ofizialtasunaren ukatzailea. Noiz arte?" esaldia ageri da pertsona horren kartelean. Aipatutako kartel hori eskuan daukanaren aurpegia ikusten ez den arren, badi-rudi gizonezko baten gorputza dagoela errepresentatuta. Bestalde, lehen argazki horren atzealdean ere pertsonak daude. Ikusten denaren arabera, pertsona horiek gizon helduak dira. Bestetik, eta bigarren argazkiari erreparatuz gero, Gabriel Maria Inclan ikus liteke. Argazkian, orduko Osasun sailburua prentsaurreko batean dagoela dirudi. Hala ere, eta Ibarretxeren prentsaurrekoarekin konparatuz gero, esan liteke Inclan ez dagoela euskarari lotutako prentsaurrekoren batean; edo argazkian behintzat ez da euskarari lotutako inongo beste errepresentaziorik ageri. Hala nola bi pertsona hauen bidez euskararen "aurkakotasuna" sinbolizatu nahi da. Hau da, bi pertsona horiek erabiltzen dira testuan instituzioek euskararenganako duten jarrera salatzen.

Praktika edo ekintzak: Testuan hainbat pertsona errepresentatuta ageri badira ere, badirudi pertsona horiek ez dutela hizkuntza-praktikarik errepresentatzen. Goian aipatu den moduan, pertsonen argazkien erabilera protestarako tresna gisa, eta "etsaia" edota "aurkakotasun" hori islatzeko erabiltzen dira. Hala nola testuak mugimendua edota ekintza islatzen du. Baina ekintza edota mugimendu hori ez zaio hartzaile/behatzaile inplizituari egozten, Jauriaritzari eta hori osatzen dutenei baizik.

Koloreak: Testu honetan, lau kolore nagusi ageri zaizkigu. Batetik, testuaren hondoa edota azalaren kolorea izango litzatekeen berde turkesa. Bestetik, testuan ageri diren hizkiak horiz eta zuriz idatzita leudeke. Eta azkenik, beltza ere izango genuke, hori ertzak marrazteko eta EHEren ikurra errepresentatzeko erabiltzen dira. Hala nola erreallitatea islatzen duten bi argazkietan hainbat kolore ageri dira; Ibilaldiaren ikurrean, pertsonen jantzietan... baina testuan berariaz argazkietan azaltzen diren koloreek ez dute errepresentagarritasunik.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelean hartzailearengandik gertuen, "Hau al da euskara maitatzea?" esaldia izango genuke. Baita esaldi horri dagozkion galdera ikurrak ere. Hala ere, eta bigarren plano batean ageri diren arren, daukaten tamaina eta koloreagatik, Ibarretxe eta Inclanen argazkiak ere hartzailearengandik hurbil kokatu genitzaite.
-

• **Esanahi konposizionala:**

- **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hala nola testuaren goialdean eta ideala errepresentatuz, "Hau al da euskara maitatzea?" esaldia ageri zaigu. Behean, aldiz, eta erreal gisara, igorle enpirikoa "Euskal Herrian Euskaraz". Zentroan, aldiz, nabarmenduz, Ibarretxe eta Inclanen argazkiak izango genituzke. Hala nola, eta behealdean kokatuta dagoen arren, "Aski da! Euskaraz!" esaldia ere nabarmenduta egongo da; hizkien kolore eta tamainagatik.
- **Prominentzia:** Lehen plano batean, goialdean kokatuta dagoen "Hau al da euskara maitatzea?" esaldia izango genuke, eta baita horri dagozkion galdera ikurak ere. Eta bestetik, politikarien argazkiak, eta "Aski da! Euskaraz!" ere erdibideko plano batean kokatu genituzke.

Idatzizko hitzak: Testu honek, jada behin baino gehiagotan aipatu diren idatzizko lau elementu barnebiltzen ditu. Batetik, "Hau al da euskara maitatzea?" galdera. Bestetik, testuaren protestaren azalpena izango litzatekeena: "Eusko Jaurlaritzak Osakidetza lanpostuetarako ez du euskara eskatzen" dioen esaldia. Hirugarrenik, goiko azalpen horren aurrean igorle enpirikoak egiten duen errebindikazioa: "Aski da! Euskaraz!". Eta azkenik, igorle enpirikoaren izena: "Euskal Herrian Euskaraz".

Tenporalitatea: Testuak hitzen zein irudien bidez oraina errepresentatzen du. Hau da, Ibarretxek Jaurlaritza errepresentatuz, eta Inclanek Osakidetza, ez dituzte osasun sistema publikoari ezarritako hizkuntza eskakizunak betetzen. Hala ere, "Aski da! Euskaraz!" esaldiarekin aldaketa bat islatu nahi da. Hau da, etorkizunean betetzeko eskakizun bat. Beraz, oraina eta iragana biak errepresentatuko litzuzke testuak.

DISKURTSOA:

Kartel honek diskurtso mailan hainbat elementu dakarzkigu. Lehenengo elementu diskurtsiboa "Hau al da euskara maitatzea?" galderaren baitan aurkitu genezake. Galdera horrek hainbat elementu barnebiltzen ditu. Batetik, euskararen inguruan egondako diskurtso baten oihartzuna izango luke. Hau da, euskara maitatu behar denaren paradigma horretara garamatza galdera, baina bestetik, galdera horren baitan salaketa bat ere badago. Ondoriozta liteke Euskal Herrian Euskaraz taldearentzat PNVk edota Eusko Jaurlaritzak euskara maitatzearen diskurtso hori erabiltzen duela, baina ondoren, euskararen erabileraren aldeko ekintza edota praktikarik ez duela jartzen martxan. Gainera, testuan bertan datorkigu galdera horren erantzun edota azalpena. Hau da, EHEren arabera, Eusko Jaurlaritzak ez du Osakidetza postuetan euskararik eskatzen. Administrazioako euskararen erabileraren inguruan ari da hortaz testua. Zehazki, 67/2003 dekretuan zehazten da Euskal Osasun zerbitzuan -Osakidetza- euskarak izan behar duen lekua. Hala nola euskal hiztunen eskubideak errespetatuz, Osakidetza euskara zerbitzu-hizkuntza behintzat izan beharko dela jasotzen da bertan, eta lan-hizkuntza ere izaten saiatuko direla (Eusko Jaurlaritza, 2012). Hala nola, eta "Aski da! Euskaraz" esaldiarekin, EHE eskubide urraketa batez ari dela dirudi. Hala nola 67/2003 dekretuan ezartzen direnak ez direla betetzen adieraztea nahiko balu bezala. Baina horretaz gain, mezua oso zuzena da, eta gainera, "errudunak" ere seinaltatzen ditu. Errudun horiek irudi grafikoz errepresentatzen dira testuan Juan Jose Ibarretxe eta Gabriel Maria Inclanen argazkiekin. Horretaz gain, eta arestian aipatu den galdera

indartze aldera, hau da, "Hau al da euskara maitatzea?", Ibarretxeren Ibilaldiko argazki bat erabiltzen da. Hala, Ibarretxeren beste hainbat argazki erabili zitekeen testu hau eraikitzeko, baina Ibilaldikoa erabiltzea erabaki da. Argi eta garbi, Ibarretxeren Ibilaldiko argazki horrek euskararekiko maitasunezko diskurtso hori errepresentatuko luke, eta hortaz, argazki horren bidez maitasun diskurtso horren kontra egitea ere bilatzen da. Nolabait, maitasunezko diskurtso horren kontra egin, eta eskubideen bermatze bat eskatzen delarik. Hala eta guztiz ere, eta diskurtsoak diskurtso, testu honetan euskararen politizazio nabarmen bat ematen dela aipa liteke. Hau da, nolabait ere aurreko garaiko politizazio eta konfrontaziozko testuetara garamatza kartelak. Euskararen erabilerak, eta osakidetzako arau hausteak zentralitate bat daukate, baina Jaurlaritzaren aurka egiteak ere izango du lekurik testuan, eta horrek islatzen duen diskurtsoan.

Euskararen erabilerarako ematen diren argudioei erreparatuz gero, berariaz badirudi ez dela argudiorik ematen. Baina testua bere osotasunean, edota testuinguruan aztertuz gero, legitimaziozko argudioak ematen dituela esan liteke. Hau da, Osakidetzara joan eta herritarrek euskaraz arreta jasotzeko eskubidea daukatela azpimarratzen du testuak, 67/2003 dekretuak horrela zehazten duelako. Bestetik, eta modu berean, espezifikoki hizkuntza zapalkuntza edota menderakuntza baten zantzuak ageri dira; eskubide urraketa bidez errepresentatuak. Eta are gehiago, "zapaltzaileen" irudi grafikoak dakarzkigu testuak: Ibarretxe eta Inclanek, alegia. Hala nola horiei eskatzen zaizkie ekintzak, eta ez hartzaile/ behatzaileari. Nolabait, esan liteke testua oso zuzena dela, eta oldarkortasun puntu bat ere erakusten duela.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Ez dago batere argi. Hala ere, testua euskara hutsez idatzita dago, hortaz, ondorioztatu liteke euskal hiztunengana zuzentzeko testua dela. Elementu ezberdinak barnebiltzen ditu testuak, baina badirudi hartzaile/ behatzaile inplizituak instituzioetan dauden pertsonak direla. Hau da, bi hartzaile eta bi helbururekin izan litzake testuak. Batetik, egoera aldatu lezaketen instituzioetako pertsonak -politikariak-. Eta bestetik, informatua izango den hartzaile/ behatzailea. Hala ere, eta testuaren errepresentazioari begiratuz gero, esan daiteke oldarkortasun dezente barnebiltzen duela testuak. Hau da, maskulinizitatutako testua eta protesta moldea lirateke testu honek barnebiltzen dituenak. Hala ere, ez da erraza ondorioztatzea zer nolako hartzaile/ behatzaile inplizituari dagokion kartela.

K14



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Kontseilua

Urtea: 2010

Honela deskribatzen du Kontseiluak berak zer izan zen "Euskaraz bizi nahi dut" kanpaina: "2010eko maiatzaren 15ean Iruñean egindako manifestazioan du jatorria dinamikak. Euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuten ehunka herritarrek, eta segidan hedatu zen Euskal Herri osora "Euskaraz Bizi Nahi Dut" leloarekin. Mezu hori aldarri, hainbat ekimen egin dira herritarrek ahalduntzeko asmoz: film lehiaketak, mobilizazioak, jokoak..." (Kontseilua, 2010).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kartela hondo edo azal beltz baten gainean eraikita dago. Hala nola testuak ez du objektu espezifikorik ere barnebiltzen. Esaldi bat soilik ageri da bertan errepresentatuta: "Euskaraz bizi nahi dut" esaldia, alegia. Esaldiaren zati bateko hizkiak -euskaraz bizi-, kolore ezberdinez errepresentatuta daude. Eta esaldiaren bigarren zatia aldiz -nahi dut-, zuri kolorez. Aipagarria da letra xehez idatzita dagoela esaldia, eta ez daukala bukaeran harridura ikur, edota bestelako puntuazio markarik.

Praktikak edo ekintzak: Testuan elementu bizidunik ageri ez den arren, eta ezta objektu edota bestelako elementurik ere, grafikoki ez zaigu praktikarik ageri. Hala ere, eta hitzen bidez, praktika edota ekintza islatzen du testuak. Batetik, euskaraz bizitzea islatzen du esaldiak. Euskara bizitzeko esparru guztietara zabaltzeko desira bat. Eta bestetik, "nahia" islatzen du. Eskubide edota beste ezeren gaintetik, euskaraz bizitzeko nahia eta desira da testu honetako esaldiak dakarrena.

Koloreak: Zazpi dira testu honek barnebiltzen dituen koloreak. "Euskaraz bizi" esaldian hizki bakoitzak kolore bat dauka; arrosak, berdeak, horiak, urdinak eta laranja osatzen dutelarik esaldi hau. Eta bestetik, "nahi dut" esaldia egongo litzateke. Esaldi horrek barnebiltzen dituen hizkiak zuri kolorekoak lirateke.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelego hartzailearengandik gertuen, "euskaraz bizi" esaldia legoke. Esaldi horrek barnebiltzen dituen kolorengatik, berau kokatzen baita hartzailearengandik gertuen.
 - **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua horizontalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, goialdean, "euskaraz" hitza egongo litzateke idatzita. Bestalde, erdialdean, eta hitza nabarmenduz, "bizi" kontzeptua izango genuke. Eta behealdean, erreala errepresentatuz, "nahi dut" esaldia ageri da.
 - **Prominentzia:** Planoei erreparatuz gero, ez dago testuan nabarmentzen den hitzik. Hau da, plano bakarrean -lehen planoan- daude esaldiko hitz guztiak.
-

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, testu honek idatzizko esaldi bakarra banebiltzen du: "Euskaraz bizi nahi dut" esaldia, alegia.

Tenporalitatea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia. "Nahi dut" aditzarekin argi islatzen da orainaren presentzia hori.

DISKURTSOA:

Testu honen baitan esaldi bakarria islatzen baldin badu ere, badira aztertu ahal izateko hainbat elementu. Batetik, "bizitzaren" kontzeptua dakarkigu esaldiak. Hau da, euskara orain artean gauza askorekin lotu izan da beste testu batzuetan, baina bizitzarekin berarekin, bizigarritasunarekin oso gutxitan -inoiz ez- lotu izan da. Hau da, euskaraz edozer gauza egin litekeela azpimarratu nahi du testuak, baina are gehiago, bizi ere egin nahi dela. Bizitzaren osotasuna errepresentatzea nahi du hortaz testuko esaldiak. Bestetik, nahia izango genuke. Esaldi horrek ez dakartza aurretik beste testu batzuetan aztertutako eskubideak barnebiltzen dituen diskurtsua, edota identitatea interpelatzen duena... baizik eta pertsonaren nahia; gogoia, alegia. Esaldiaren subjektuak ere berritasuna dakarkigu. Subjektua singularra da. "Nik nahi dut" euskaraz bizi izatea; baina aldi berean ez da zu batekin kontrajartzen. Hau da, nire nahia soilik islatzen da; "nia" dago presente, eta "ni" horrek ez du kontrapuntuan bestetasunik islatzen. Bestetasunik islatzen ez duen moduan, hizkuntza komunitaterik ere ez du barnebiltzen; subjektua singularrean baitago. Honela azaltzen du gainera egitasmoak bere webgunean singularitate hori: "*Eta norberaren egunerokoa berea bakarrik denez, euskaraz bizitzeko nahiak ere mila aurpegi ditu. Mila pena, mila poz, mila motibazio, mila desira, mila egonezin... Guztiok dugu zer esan eta zer egina*" (Kon-tseilua, 2010).

Hala, eta koloreen bidez, euskaraz bizitze hori badirudi gozagarria dela, alai neurri batean. Esaldia bera, eta justuki "euskaraz bizi" dioen esaldian, hainbat kolore barnebiltzen baititu. Honekin loturik, aipagarria da, ez dagoela euskalgintzan horrenbestetan erabili den harridura ikur, edota bestelako puntuazio markarik. Hortaz, ondoriozta genezake errebindikaziorako beste modu bat errepresentatzen duela esaldiak.

Bestalde, hizkien grafiaren bidez, eta baita kolore horren alai bidez ere, haurren munduarekin loturaren bat egin genezake esaldiaren bitartez. Hau da, esaldiaren grafia berak, hizki txikiz idatzia eta letra horren borobilekin, umeekin nolabaiteko lotura bat ezartzen duela aipa liteke; baita "euskaraz bizi" esaldiaren baitan erabiltzen diren kolore bizien bidez

ere. Azkenik, aipagarria da hizkuntza zapalkuntza edota menderakuntzarik bere horretan ez dela ageri. Baina esaldia bere horretan hartzen baldin badugu, euskaraz bizitzeko nahi bat adierazten da. Hau da, pentsa liteke egungo egoeran euskaraz bizitzeko hori zerbaitek galarazten duela.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Diskurtsoari erreparatuz gero, beste testu aldarrikatzaile batzuek duten kutsu maskulinizatu horretatik aldentuta dago testua. Hala, euskara bizigarri, alai eta gozagarri hori kolore oso biziekin islatzen da, hizki bakoitza kolore batekin margotuz. Egitate horrek berak badirudi puntu infantil bat ematen diola testuari, baita hizkien grafiak ere. Baina hartzaile/behatzaile inplizitua zehazki nor den esatea, ezinezkoa litzateke.

K15

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea: Euskaltzaleen Topagunea

Urtea: 2013

Mintzalagunak mintzapraktika programetan parte hartzen duten kideak dira. Lehen mintzapraktika taldea 1993. urtean sortu zen Donostiako Bagera Euskara Elkartearen, eta besteak beste: *"Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzten dituzten egitasmoak dira"* (Topagunea, 2017).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Testu honetan, beste askotan ez bezala, kanpo espazioa simulatzen duen elementuak aurki genitzake. Hasteko, eta testuaren goialdean, zerua ageri zaigu. Zeruari begiratuta esan liteke egun argiz dela testuan islatzen den lekuan, eta eguraldi "ona" egiten duela. Hau da, lainoak ageri baldin badira ere, zeru erdia baino gehiago ostarre batean aurkitzen da. Hala nola, eta kanpo espazioekin jarraituz, testuak Euskal Herriko eraikinekin sortutako "skyline" bat dakarkigu. Hau da, Euskal Herriko eraikin ezberdinak hartu -Donostiako Udaletxearen eraikina, Iberdrola dorrea, Gasteizko Andra Mari zuriaren plazako monumentua...- elkarren ondoan jarri, eta collage moduko bat sortu dute. Hala, badirudi New York edota beste AEBtako hiri baten pareko "skyline" bat sortzea izan dela helburua testuan. Nolabait ere, testuko protagonista diren "supermintzalagunak" hirian

kokatuz; nekazal eremua gogorarazten duen elementurik ez baita aurkitzen testuan. Hala nola, eta jada aipatu den moduan, testuko objektu edota elementu behinena "supermintzalagunek" osatzen dute. Hau da, mintzalagunen figura edota kategoria hartu, eta testu honetarako super-heroi gisara errepresentatu dira pertsona horiek. Izan ere, Aitziber Garmendiak eta Kepa Errastik beteko dute supermintzalagun papera testuan. Testuaren goialdean superheroiak errepresentatuz ageri dira Garmendia eta Errasti. Biak superheroiengan horren berezkoa den buzo gorri moduko batekin ageri dira, kapa gisara "dantzarako" zintak dituztelarik. Edota, kapa gisara lepoan dituzten zintek behintzat euskal dantzetan erabiltzen diren zintak gogorarazten dituzte. Horien jantziekin jarraiki, biek dantzarako alpargata moduko batzuk dauzkate. Galtzerdi zuri luze batzuen gainean alpargata zuri eta gorri batzuk dituzte jantzita, alegia. Buruan aldiz, Garmendiak zapia darama, eta Errastik, aldiz, txapela. Biak elkarri begira ageri dira, eta hegan joango balira bezala; esku bat luzatuta daukatelarik. Bien erdian, "Supermintzalagunak, elkartu gurekin" esaldia ageri da; hori-laranja kolorez. Eta horretaz gain, "supermintzalagunak" hitzaren atzean, superheroi hauen ikurra litzatekeena ageri da. Ikurra beste superheroi batzuen ikurra gogorarazten dizkigu; tartean, superman-ena. Bestalde, aipagarria da, lehen aipatu den ostarte hori badirudiela supermintzalagunek zabalduakoa dela. Hau da, zeruaren formagatik, eta hodeiek sortzen duten argi-guneagatik, badirudi superheroiek beraien sortua dela ostartea. Bestetik, eta lehenago deskribatutako "skyline" horren gainean, zehazki hiru etxe ezberdinen gainean, jende multzoak ageri dira, supermintzalagunen atentzioa deitzen ariko balira bezala. "Skyline" horren aurrealdean, baina "skyline" honetatik kanpo, hau da, ez dira kanpo espazio horren parte, hainbat pertsona ageri dira. Pertsona horiek kamiseta berdina daukate: gorria eta paparrean supermintzalagunen ikurrarekin. Bestetik, postura ezberdinetan ageri dira "skyline" aurrean errepresentatuta dauden pertsona horiek baina batzuk behintzat gora begira daude, eta badirudi supermintzalagunei keinuren bat egiten dabiltzala. Eta azkenik, pertsona horien aurrean, lehen plano batean, lehen aipatu ditugun Aitziber Garmendia eta Kepa Errasti aktoreak agertuko lirateke. Horiek lehen planoko irudi honetan jada, ez dira superheroien arropekin ageri. Esan liteke "kalez" jantzita edo errepresentatuta daudela. Hau da, superheroien kamisetak dauzkate biek soinean, baina gainetik Garmendiak jertse urdin bat dauka, eta Errastik, berriz, alkandora koadrodun bat, urdin kolorekoa baita ere. Azkenik behealdean, eta erreala errepresentatuz, izen-emateko lekuak; fisikoak zein online bidezkoak, eta igorle enpirikoaren izena ageri dira. Horretaz gain, testuan publizitate den programaren ikurra eta izena ere ageri dira; mintzapraktika. Horren eskuinean, esan bezala, igorle enpirikoa ageri da, sustatzaile gisara identifikatuz bere burua. Eta azkenik, babesle gisara Eusko Jaurlaritzako ikurra ageri da. Behealdean kokatuta dauden sinbolo edo ikur horien alboan, eskuinean alegia, QR kode bat, eta baita kanpaina hau diseinatzen lagundu duen komunikazio edota diseinu enpresaren ikurra ere: Di-da "zure balioen marka" -hau da, egungo Sorland enpresa-.

Pertsonak: Goian aipatu bezala, pertsonak lau gune edota multzo ezberdinetan izango genituzke kokatuta testuan. Batetik, goialdean kokatutako supermintzalagunak egongo lirateke. Horiek superheroien buzo moduko batekin jantzita ageri dira. Hala ere, superheroi buzo horren bereizgarri gisara edo, euskal folklorearekin lotu litezkeen hainbat elementu identifikatu litezke: txapela, zapia, alpargatak, kapa moduan ipinitako zintak... bestalde, eta gorputz jarrerari dagokionez, bi pertsona horiek superheroien "ohiko" postura batean egongo lirateke. Hau da, hegan eta esku bat aurrealdera luzaturik. Bigarren pertsona

multzoa hiru eraikinetan daudenek osatuko lukete. Hala, pertsona horien inguruan ezin izango da datu askorik eman. Testuan atzeko planoan aurkitzen baitira, eta ez baitu uzten distantziak detalerik ikusten. Hala ere, aipatu liteke etxe bakoitzaren gainean sei-zazpi pertsona aurkitzen direla, eta ikusten denaren arabera badirudi emakume zein gizonen errepresentazioak direla. Hirugarren pertsona multzoa "skyline"-etik kanpo, baina horren aurrean, kokatzen den koadrilak osatuko luke. Hirugarren jende multzo hori 17 lagunek osatzen dute, edota behintzat 17 lagun daude ikusgarri. Antzeman daitekeenaren arabera, pertsona bat kenduta beste guztiak 40 urtetik gorako pertsonak lirateke. Hau da, pertsona helduak daude testuan errepresentatuta. 17tik 10, aldiz, emakumeak izango dira. Jantzkerari erreparatuz gero, lehen aipatu den moduan, guztiak kamiseta berdina daukate, gorria eta supermintzalagunen ikurra paparrean daukana, alegia. Behealdean, aldiz, errepresentatutako pertsona guztiak galtzak daramatzate jantzita. Gorputz jarrerari dagokionez, ez da erraza zer errepresentatzen duten azterzea. Batzuk gora begira ageri dira, supermintzalaguneri kasu egiten bezala. Beste batzuk, aldiz, aurrera begira ageri dira. Hala nola, esan daiteke hirugarren multzo horrek hizkuntza-komunitatea errepresentatu lezakeela. Eta azken pertsona multzoa aurretik supermintzalagun gisara errepresentatuta agertu izan diren Aitziber Garmendia eta Kepa Errastik osatuko lukete. Horiek honako errepresentazio honetan supermintzalagunen kamiseta baldin badaukate ere, kalez jantzita ageri dira. Hau da, superheroien transformazio aurreko pertsonak errepresentatuko lituzketela dirudi lehen plano honetan ageri diren Garmendia eta Errastik.

Praktikak edo ekintzak: Testuan elementu bizidunak ageri ez den arren, eta hortaz, praktika edota ekintza zuzenik ere ez, kanpaina honetako leloan bertan mugimendurako edota ekintzarako deia hauteman genezake. "Bai euskarari" da kanpainaren leloa, eta gaztelaniazko itzulpenean ageri den moduan, "Tu también di si al euskera" esaldian baietz esateari buruz ari da "Bai euskarari" esaldia. Hala ere, eta nolabaiteko mugimendua adierazten baldin badu ere, erabilerarako saltoa ez du islatzen testuak. Hau da, euskararen alde egotearen aldarria egiten duela dirudi kartelak, erabilerarako saltoari erreferentzia baino gehiago.

Koloreak: Kartela koloretsua da. Hau da, lehen aipatu den bezala, egun argitako irudia islatzen du. Hortaz, lainoen zuri eta urdina behintzat ageri dira testuan. Bestetik, kolore aipagarrienak horia eta gorria direla esan liteke. Hau da, testuko "supermintzalagunak elkartu gurekin" esaldia hori-laranja moduko kolore batean dago errepresentatuta; baita superheroien ikurra ere. Eta horretaz gain, gorri kolorez goian deskribatutako pertsona multzoen kamisetak ageri dira. Horretaz gain, batez ere eraikinen kolore marroia edo zurixka azpimarratu liteke. Eta baita eraikin "modernoagoen" kolore urdinxka ere.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota karteletako hartzailearengandik gertuen, Aitziber Garmendiak eta Kepa Errastik errepresentatutako mintzalagunak leudeke. Kalez jantzita, baina superheroien kamiseta gorriarekin agertzen direnak, alegia.
-

• **Esanahi konposizionala:**

- **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, goialdean eta ideala errepresentatuz, "supermintzalagunak elkartu gurekin" esaldia eta superhero horien ikurra izango genituzke. Baita supermintzalagunen irudia ere. Hau da, superheroi trajearekin Garmendia eta Errasti hegan agertzen diren irudia, hain zuzen ere. Bestalde, behealdean eta erreala errepresentatuz, izen emate lekuak, eta igorle enpirikoaren, zein babeslearen izenak leudeke. Zentroan, berriz, eta nabarmenduz, Euskal Hiri horren "skyline-a" egongo litzateke. Eta baita kalez jantzitako Garmendia eta Errasti ere.
- **Prominentzia:** Lehen plano argi batean, kalez jantzitako Garmendia eta Errasti leudeke. Erdibideko plano batean, goian ageri den supermintzalagunen errepresentazioa, horien ikurra eta "supermintzalagunak elkartu gurekin" esaldia egongo lirateke. Bigarren plano batean, aldiz, "skyline"-aren aurrean aurkitzen den pentsona multzoa egongo litzateke. Eta hirugarren eta azken plano batean, "skyline"-a bera, eta zerua egongo lirateke.

Idatzizko hitzak: Ez dago idatzizko testu asko eskuartean dugun testu honetan. "Supermintzalagunak elkartu gurekin" esaldia izango genuke idatzizko esaldi bakar gisara. Eta bestetik, programan izena emateko leku eta abarrak ere idatziz jasotzen dira.

Tenporalitatea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia. "Supermintzalagunak elkartu gurekin" orain dirudi esaten duela testuak. Hala ere, transformazio bat ere islatzen du testuak. Hau da, superheroiak superheroi bihurtu litezke. Eta hori islatzen da gainera Aitziber Garmendia eta Kepa Errastiren trantsizioaren bidez. Hortaz, eta aldaketa eta trantsizio hori errepresentatzen duen neurrian, etorkizuna ere barnebiltzen du testuak.

DISKURTSOA:

Testu honek hainbat objektu zein espazio errepresentatzen ditu, eta neurri berean, hainbat elementu diskurtsibo dakartzkigu. Batetik, eta testua mintzapraktika programarena izaki, euskal hitzun guztiei zuzenduta egongo litzateke; euskaraz idatzita baitago. Baina badaude hainbat elementu zuzenean hitzun berrienganako mezu bat dela pentsatzera garamatzatenak. Batetik, mintzalagunak superheroi gisara islatzen ditu testuak. Hau da, transformazio bat barnebiltzen du bere baitan testuak. Kalez jantzitako Aitziber Garmendiak eta Kepa Errastik transformatu gabeko mintzalagunak errepresentatuko litzukete, baina trantsizio baten bidez superheroi bilakatuko liratekeenak. Euskarak, hortaz, transformazio horretarako bidea eskainiko luke. Euskarak transformaziorako giltzaren esanahia daukan heinean testuan, pentsa daiteke testua bera hitzun berriei eskainita dagoela. Nahiz eta, hitzun zaharrek ere eta mintzapraktika elkarbanatutako esperientzien bidez, transformazio bat bizi dezaketen. Hala nola, eta superheroien tematika horrekin, nahiko zientzia fikzioko kontu gisara errepresentatzen da euskara. Hala ere, eta superheroi gisara errepresentatzen diren Garmendia eta Errastiren jantziak ikusirik, folklorizazio bat ere ikusten da testuan. Hala nola euskara hiritarra da defendatzen dena testu honetan "skyline"-aren errepresentazioarekin, baina aldi berean, poxpolin eta baserritar gisara errepresentatzen dira supermintzalagun horiek. Bestetik, pluralaren erabilera egongo litzateke. Bi dira pluralaren erabilera azpimarratzen duten hitzak. Batetik, supermintzalagunei deia plurallean eginda dago. Hau da,

hartzaile/behatzaile inplizitua pluralean deitzen da; supermintzalagunei zuzenduta baitaigo testua, eta ez supermintzalagunari. Bestetik, "elkartu gurekin" esaldia izango genuke. Gu bat dago islatuta, hortaz, testuan. Pentsa liteke, gu hori euskal hiztun komunitatea dela. Kasu horretan, testuan bertan errepresentatzen da irudi bidez hiztun komunitate hori. Hala nola hiztun komunitatearen errepresentazioa adinez bederen ez da oso anitza; pertsona gehienek 40 urtetik gora dauzkatela baitirudi. Generoari erreparatuta, aldiz, emakumezkoen gorputzak gehiago direla azpimarratu daiteke. Superheroien erabileraren horrek, esan daiteke "Disney" mundua errepresentatzen duen paradigma batekin lotzen gaituela. Hau da, euskara hiritar, dibertigarri eta gozagarri bat irudikatu nahi da testuan. Bere horretan botere bat eskaintzen diona erabilerarako jauzia ematen duen hiztunari. Baina diskurtsoa nahiko infantila dela iradoki lezake bere horretan testuan errepresentatuta dagoen diskurtsoak. Hala nola, eta euskarak super-botere bat eskaintzen duen neurrian, ez da agertzen hizkuntza zapalkuntza edota menderakuntzaren adierazlerik.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Diskurtsoaren kategorian aipatu den gisara, testua euskal hiztunei eskainita egongo litzateke. Hau da, testua euskara hutsez idatzita dago, eta horretaz gain, mintzapraktika saioetan izena emateko euskararen ezagutza izan behar da derrigorrean. Hala ere, eta goian aipatutako elementuen bidez, transformazioaren ideiatatik batik bat, testua hiztun berriei zuzenduta dagoela pentsa liteke. Horretaz gain, testuan errepresentatuta dauden pertsonen adina 40 bat urtetik gorakoa da. Baina testuaren errepresentazioak ez garamatza helduen mundu batera, baizik eta nahiko infantila den mundu batekin egiten du lotura. Hala nola testu honetan hiztun berrien erradiografia nahiko infantila egiten dela aipatu liteke.

K16



IGORLE ENPIRIKOA:

Egilea: Eusko Jaurlaritza: HPS –Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza–
Urtea: 2013

Kanpaina hau 2013ko azaroan eta abenduan egon zen indarrean. Kanpainaren leloa: "Euskara, mundiala!" izan zen (Eusko Jaurlaritza, 2013)

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Hala eta guztiz ere, aipagarria da mundu digitala errepresentatzen duen sare gisako bat ageri dela irudian. Puntu ezberdinak lotuta ageri dira marra ezberdinen bitartez. Hau da, hondo edo azal urdin argi baten gainean, zuriz koloreztatutako hainbat puntu elkarlotuta errepresentatzen dira. Puntuak borobil forman daude lotuta, kolore berdineko marrekin. Puntu batzuek, ez guztiek, izenak daukate; hitzak ageri dira puntu batzuen alboan. Kanpoaldean eta ikusgarritasun gehiagorekin, bederatzi punturen gainean daude izenak. Goitik beherazko norabidean –eta eskunetik ezkererakoan– ageri diren hitzak ondorengoak lirakeke: anitza; giltza; modernoa; nirea; gaztea; koloretsua; hitza; zurea, eta zubia. Puntuak eta marrek osatzen duten borobilaren barnealdean bestetik, hiru hitz agertuko lirakeke errepresentatuta: denona; geure, eta bizia. Horretaz gain, puntu eta marrek osatzen duten borobil horren gainean, sare sozialen paradigmarekin lotura izango lukeen traola bat ageri da: #mundiala. Traola hori ere zuriz idatzita dago, eta letra xehez. Hala ere, beste hitzen aldean tamaina handia eta letra mardulak dauzka.

Praktikak edo ekintzak: Elementu bizidunik ageri ez den arren testuan, eta hortaz, praktika edota ekintza zuzenik ere ez, badago testuan islatzen den sare moduko horren bidez mugimendua islatzeko nahi bat. Hau da, esan liteke, sare edo testuko irudi horrek konexioa irudikatzen duela. Hala nola, eta konexio horien bidez, eta leloari edota testuko traolari erreparatuta, esan liteke euskararen zabalkundea ere islatu lezakeela testuak, eta bertan ageri den irudiak.

Koloreak: Koloreei dagokionez, testua oso soila da. Hau da, testuan bi kolore soilik islatzen dira: urdin argia testuaren azala edota hondoa koloreztatzeko eta zuria testuan ageri diren beste elementu guztiak errepresentatzeko. Hala nola puntuak, marrak, irudian txertatuta ageri diren hitzak, eta baita traola ere.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari erreparatuta, behatzailearen edota kartelego hartzailearengandik gertuen traola egongo litzateke; hau da, #mundiala hitza.
- **Esanahi konposizionala:**
 - **Informazioaren balioa:** Testua horizontalean antolatuta dago, eta esan liteke testuaren zentroan kontzentratzen dela errepresentatutako elementua. Hau da, irudikatzen den sare hori erdialdean kokatuta dago; baina gehien nabarmentzen den elementu traola litzateke: #mundiala hitza, alegia.
 - **Prominentzia:** Era berean, lehen plano argi batean, testuan nabarmentzen den elementu berbera legoke: #mundiala hitzarekin osatutako traola.

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin badira ere, kartel honek hainbat idatzizko elementu dakarzkigu. Aipagarria da hasteko, ez dagoela bere horretan idatzizko esaldirik, hitzak baizik. Hortaz, lehen planoan "mundiala" hitzarekin osatutako traola egongo litzateke. Eta bestetik, puntu eta marrek irudikatzen duten sarean 12 hitz daude kokatuta -3 sarearen barruan eta beste bederatzia kanpoan-: anitza; giltza; modernoa; nirea; gaztea; koloretsua; hitza; zurea; zubia; geurea; denona, eta bizia.

Tenporalitatea: Testuak bere horretan ez dio denborari erreferentziarik egiten. Badirudi egun euskara zer den adierazi nahi duela. Baina horretarako, etorkizuna irudikatzen duen mundu digitaletako elementuak erabiltzen ditu, hortaz, testuak etorkizuna ere barnebilduko luke.

DISKURTSOA:

Testu honen baitan, eta esaldi trinkorik egon ez arren, hitzen eta irudien bidez hainbat elementu diskurtsibo eskaintzen dizkigu testuak. Batetik, sarearen ideia legoke. Hau da, euskara konexiorako hizkuntza gisara irudikatzen da. Zehazki, konexiorako hizkuntza moderno gisara. Konexio hori modu askotan errepresentatua izan baitzitekeen, baina mundu digitalarekin egiten du lotura. Hau da, euskarak eskaintzen duen konexioa testuan errepresentatzen den moduan islatuz, testu honek euskara mundu digitalak bere baitan dakarren modernitatearen eta garapenaren ideia horrekin lotzea dakar. Bestetik, eta konexio horiekin lotuz, #mundiala traolaren bidez noranahiko euskara islatu nahi da. Hau da, munduan zabaldu litekeen euskara, beste hizkuntzen alboan. Hala ere, "mundiala" hitz horrek beste esanahi bat ere badauka; apartekoa edota berezia gisara ere ulertu baikenezake. Hala nola "mundiala" hitzaren adiera horrek nolabait ere, euskarak bizitako folklorizazio batekin lotzen du berau. Hau da, "aitorren hizkuntza zaharra" kantan narratzen den hizkuntza berezi eta bakar horrekin. Testuak kontrako irudia sortzen baldin badu ere, autentikotasunera garamatza #mundiala traolaren adiera batek.

Bestetik, aipagarria da sarearen baitako hitzekin euskarari zer esanahi esleitzen zaizkion. Euskara testu honen arabera, modernoa da, koloretsua, gaztea... eta sare batean irudikatzen baldin bada ere, nirea eta zurea hitza ageri zaizkigu. Hau da, sarearen barruan, eta ma-

rrren artean irakurtzea gehiago kostatzen delarik, "geurea" eta "denona" hitzak ageri dira. Kanpoaldean berriz, eta leku ikusterrazago batean "zeurea" eta "nirea" bezalako hitzak. Hau da, badirudi singularra, pertsonala... dela hizkuntza. Hau da, testu honetan behintzat, adiera singularrek pisu eta errepresentagarritasun handiago daukate komunitatea edota kolektibotasuna adierazten dutenek baino. Azkenik, aipagarria da hizkuntza zapalkuntza edota menderakuntzarik ez dela islatzen. Eta are gehiago, hizkuntzaren handitasuna erre-presentatu nahi izan du testuak mundiala dela adierazi azken finean.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Testu honek, argi eta garbi, hizkuntzaren, eta hortaz, baita hiztunaren, hau da, hartzaile/ behatzaile inplizituaren modernizazio bat bilatu nahi du. Testuak irudikatzen duen hartzaile/ behatzaile inplizitua gaztea da. Traola bidez, eta baita sarea errerepresentatzeko modu horren bidez ere, sare sozialak eta mundu digitala interpelatu nahi dira. Hau da, zuzenean gazteekin lotzen den mundu bat. Bestalde, testuaren bidez, eta #mundiala hitza erabiliz, nolabaiteko *conmopolitanismo* bat ere islatzea bilatu dela esan liteke. Munduko hiritar izan nahi duten gazte horiek interpelatzen dituela dirudi testuak.

K17

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea: Eusko Jaurilaritza: HPS –Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-
Urtea: 2015

Kanpaina honek euskararen sinbolo berria sortu eta erakusten du. Hala nola herritarrak euskara erabiltzera ere gonbidatzen ditu (Eusko Jaurilaritza, 2015).

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kanpaina honek bere horretan sinbolo berri bat dakarkigu. Euskararen sinboloa izatea nahi duen elementu berri bat. Hala, ez du ez kanpo eta ezta barne espaziorik ere errepresentatuko testuak; sinboloa da bere horretan. Hala nola testuan ageri den euskararen sinbolo berri honek txori bat errepresentatzen du. Txoria eskuinera begira dago. Hau da, hartzaile/behatzailearen eskuinera begira. Forma borobila dauka, txori guztia borobil batean errepresentatuta dagoela esan liteke. Borobil horren azpian, bi marratxo izango ditu kanporaka begira; txoriaren hankak errepresentatzen dituztelarik. Bestetik, ezker aldean, borobilari beste triangulu batek "ihes" egingo dio, isatsa errepresentatuz. Eta eskuinaldean, mokoa dauka irudikatuta. Hala nola beltzez profilatuta dago txoria. Barrualdea zuriz margotuta dauka, eta paparra gorriz. Papar gorri hori tarteko, pentsa genezake txori honek txanxangorria errepresentatzen duela. Horretaz gain, kanpainak bere horretan ere "Euskararen txanxangorria" izena hartu zuen (Eusko Jaurilaritza, 2015).

Praktikak edo ekintzak: Txoria bere horretan geldik ageri da testuan. Hau da, txoria ager zitekeen hegan, edota bestelako mugimendu batzuk egiten, baina geldirik dago islatuta. Hala ere, txorien bidez mugimendua islatu liteke; hegan egiteko nahi bat. Azken finean, zelanbait ere ekintzarako, askatzeko eta mugimendurako gogo bat.

Koloreak: Hiru kolore ageri dira errepresentatuta testuan. Txoria berez zuria dela esan liteke. Ertzak beltzez margotuta dauzkan arren, eta paparraldea gorritz koloreztatuta daukalarik.

Tenporalitatea: Testuak ez dio inongo denborari erreferentziarik egiten. Hala ere, txoriaren sinboloarekin badago aldaketa, igoera bat errepresentatzen du txoriak, euskara etorkizunearan beste era batera egongo denaren esperantza. Beraz, txoriaren sinboloaren bidez etorkizuna ere hauteman genezake testuan. Hala nola testuan badago intertextuala den elementu bat. Txoriak, eta nahiz eta txantxangorria den eta ez usoa, 1978ko "Bai Euskarari" kanpainara garamatza. Batez ere txoriaren koloreek, eta euskararen sinboloa "berriz ere" txoria izateak, nolabait, iraganeko kanpaina horrekin konektatzea dakar.

DISKURTSOA:

Testu honetan ez dago idatzizko elementu diskurtsiborik. Hau da, elementu bakarra jada aipatu dugun moduan, txantxangorriak dakarkiguna da. Hala ere, badira txantxangorri honek eskuartera dakarkigun hainbat elementu. Hasteko, goian aipatu den intertextualitatearen bidez hainbat trantsizio elementu identifikatu genitzake. Hau da, Basterretxearen usoa, euskararen sinbolo ez ezik, euskara bakearen sinbolo gisara, eta batasun sinbolo gisara ere irudikatu nahi izan zuen. Askatasun egarri bat islatzen zuen orduko hartako txoriak. Txoriaren errepresentazio bat zen, hau da, nolabait ere, txoriaren figura artistiko bat errepresentatzen zuen. Hala, eskuartera datorkigun txori hau ez dago artistikoki erreperesentatua. Txori borobila da, eta argi eta garbi adierazten du txori bat dela. Ez dauka ertzik, nolabait ere, "gozotu" egin izan balute bezala dirudi. Borobildu duten neurrian, gozotasuna, sinpatia edota atsegin itxura irabaziko balu bezala. Hau da, euskararen sinbolo berria, nahiko sinpatikoa dela esan liteke. Ez ditu errepresentatzen Basterretxearen txoriak berarekin zekartzan aurrerakoitasun eta abangoardia haizeak. Esan liteke euskara diskurtso gozo eta atsegin batekin saldu nahi izan dela kanpaina honen bidez. Eta horretarako irudi paregabea, sinbolikoki bederen, txantxangorri puztu batek eskaintzen du. Atsegintasun eta gozotasun horren bidez nahi du, hortaz, txantxangorriak, euskararen sinbolo gisara, hartzun erabilera sustatzea. Hala nola, eta txoriak askatasun nahi bat edota hegan egin nahi bat errepresentatzen duen arren, testu honetan islatuta ageri den txoriak ez dauka errepresio edota askatasun ez horren zantzurik. Hau da, hizkuntza zapalkuntza edota menderakuntzarik ez luke erreperesentatuko sinbolo honek.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez dago batere garbi zein publikori edota hartzaile/behatzaile implizituri dagokion euskararen sinbolo berri hau. Badirudi belaunaldi ezberdinetako pertsonen zuzenduta egon daitekeela. Batetik, eta koloreen bidez eta baita bere horretan txori bat delako ere, 78. urteko kanpaina hura bizi izan zuten euskaldunei keinu bat egiten diela pentsa daiteke. Baina bestetik, eta txoriaren transformazioa ikusita, batez ere borobiltasun horrek, zer nolako gozotasun, atsegintasun eta azken finean "marrakiz bizidunetako" pertsonaia baten irudiri egiten dion erreferentzia hautemanda, esan daiteke nolabaiteko infantilizazio prozesu bat jasan duela txoriak. Hau da, euskararen sinbolo berriari dagokion, edota horrek erreperesentatzen duen hartzaile/behatzaile implizitua ezin genezake esan haurra denik, baina sinboloak, eta 78. urtekoarekin konparaketan jarriz, nolabaiteko infantilizazio bat bizi izan duela pentsatzera garamatza.

K18

**IGORLE ENPIRIKOA:**

Egilea: Euskaltzaleen Topagunea. Euskaraldia 27 eragilek sustatu baldin bazuten ere, eta instituzio eta gizarte eragileen arteko elkarlan baten fruitu izan baldin bazen ere, igorle enpiriko gisara Topagunea identifikatu liteke (Euskaraldia, 2018).

Urtea: 2018

Euskaraldia hiztunak aktibatzeko helburuarekin abiatu zen (Topalabea, 2020: 19). Funtsean, Euskaraldiak hizkuntza-ohituretan eragitea nahi izan zuen, hizkuntza-ohitura batzuk aldatu, eta horiek arau sozial berri bihur zitezen. Helburu horrekin, Euskaraldiko parte hartzaileak bi rol hartu behar izan zituzten; ahobiziena eta belarriprestena (Illaro eta Martinez de Lagos, 2018). Hala ere, komeni da aipatzea Euskaraldia ez zela erabilera kanpaina bat izan, baizik eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial bat. Hala ere, komunikazio kanpaina bat izan zuen, eta K18 testu hau horren adibide da.

PARTE HARTZAILE ERREPRESENTATUA:

Espazioa eta objektuak: Ez dago errealitatea simulatzen duen kanpo edota barne espaziorik. Kartela hondo edo azal urdin ilun baten gainean eraikita dago. Urdin ilunezko azal horren gainean, kolore ezberdinetako puntuak daude islatuta. Puntu batzuk argiagoak dira; lehen plano batean daude kokatuta, eta kolore biziagoekin. Beste batzuk aldiz,

bigarren plano batean daude kokatuta, eta kolore motelagoarekin daude errepresentatuta. Nolanahi ere, hondo urdin ilun horrek, eta gainean dauden koloretako puntuek unibertsoaren errepresentazio bat irudikatuzera garamatzate. Bestalde, eta testua bertikalki egituratuta dagoen neurrian, goialdean ideala errepresentatuz eta letra berde eta xehez idatzita, "Hizkuntza-ohiturak aldatzen ari gara" esaldia egongo litzateke. Horren azpian, letra larri mardulez eta zuriz idatzita: "Euskaraldia" hitza legoke. Egitasmoaren izenburupean, "11 egun euskaraz" esaldia ageri da. Letra larriz, baina izenburua baino askoz ere letra finagoz. Eta azkenik, ariketa soziala burutu zen data azaltzen da testuan: "2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra" dioen esaldia, alegia. Bestalde, testuaren erdialdea baino zerbait behe-rago, Euskaraldiko parte hartzaileek hartu behar izan zituzten rolen ikurrak egongo lirateke. Ezkerrean, ahobiziren ikurra dago errepresentatuta. Borobil zuri baten barruan, urdin ilunez profilatutako ezpain batzuk daude errepresentatuta. Ezpainen eskuinean, unibertsoan barreiatuta dauden moduko puntuak ageri dira, hiru kapa osatuz. Eta puntu horien azpian, ahobizi hitza dago idatzita; "aho" letra arruntez, eta "bizi", aldiz, lodituta. Bestetik, horren eskuinean, belarriprest rolari dagokion irudia ageri da errepresentatuta. Hau ahobizirenaren oso antzerakoa da, baina, hiru kapa sortzen dituen puntuz osatutako marrak, belarriaren ezkerrean daude kokatuta. Hortaz, ikurraren erdian, urdin ilunez profilatuta belarria ageri da, eta belarriaren eskuinaldian "belarriprest" hitza ageri da. Kolore gorri-arrosa moduko batekin idatzita, "belarri" hitza letra arruntez errepresentatuta ageri da, baina prest letra lodiz irudikatuta dago. Bi ikur horien azpian, eta testu guztiko letra finenak dituelarik, ekimeneko webgunea ageri da: www.euskalraldia.eus

Praktikak edo ekintzak: Testuan elementu bizidunik ageri ez den arren, eta hortaz, praktika edota ekintza zuzenik ere ez, badira bi elementu ekintza edota mugimendua adierazten dutenak. Batetik, testuaren goialdean kokatuta dagoen esaldia egongo litzateke: "Hizkuntza-ohiturak aldatzen ari gara". Esaldi horretan mugimendua islatzen da. Aldaketaren ideia barnebilduko luke, eta gainera, aldaketa edota mugimendu hori kolektiboa dela adierazten du esaldiak. Eta bestetik, ahobiziren figurak isurtzen dituen puntuak egongo lirateke, eta neurri berean belarripresten ikurrak "jasotzen" dituenak nolabait. Ikurretan ere, ekintza edota mugimendua hauteman liteke. Hau da, rolek ekintzara eramaten dute pertsona. Ahobiziaren ikurrak hizketara garamatza, eta belarriprestarenak entzutera. Edo horixe da behintzat, ikurretatik ondorioztatu litekeena.

Koloreak: Testuan ageri diren idatzizko esaldiak bi koloreekin daude errepresentatuta. Batetik, testuaren goialdean ageri den esaldia berdez idatzita egongo litzateke; berde nahiko argiarekin. Eta bestetik, ekimenaren izenburua, lelo nagusia eta hau aurrera eramango den datak zuriz idatzita daude. Baita behealdean ageri den webgunea ere. Hala nola testuan presentzia nabarmena daukan beste kolore bat azalean islatzen den urdin iluna litzateke. Eta horretaz gain, puntuen koloreak izango genituzke, denera sei: laranja, urdina, berdea, turkesa, gorria eta arrosa.

Pertsonen eta objektuen kokapena:

- **Esanahi iteratiboak:** Distantziari errepikatuta, behatzailearen edota karteletako hartzailearengandik gertuen, ahobizi eta belarriprestak errepresentatzeko erabilifako ikurrak egongo lirateke.
-

• **Esanahi konposizionala:**

- **Informazioaren balioa:** Testua bertikalki egituratzen da, eta goitik beherako norabidean irakurtzeko egina dago. Hau da, goialdean, eta ideala errepresentatuz, "Hizkuntza-ohiturak aldatzen ari gara" esaldia egongo litzateke. Behealdean, eta erreala errepresentatuz aldiz, euskaraldiko webgunea jasotzen duen esaldia: www.euskaraldia.eus. Zentroan, eta nabarmentzeko asmoz, ahobizi eta belarripresten ikurrak ageri dira. Bestalde, eta ikur horiei erreparatuta, baliteke kasualitatea izatea, baina ahobiziaren ikurrak ezkerrealdean hartzen du; hau da, ezaguna errepresentatuko luke. Belarriprestenak ordea eskuina; berria errepresentatuz.
 - **Prominentzia:** Testuaren goialdean ageri diren esaldiak, eta rolak errepresentatzeko erabiltzen diren ikurrak lehen plano batean ageri dira. Baina rolak errepresentatzeko ikurren forma eta koloreagatik, lehen begiratu batean badirudi horiek daudela lehen plano batean kokatuta. Hala ere, bigarren plano argi batean, hondo urdina eta horren gaineko puntuak egongo lirateke.
-

Idatzizko hitzak: Jada behin baino gehiagotan aipatu baldin bada ere, idatzizko bost esaldi izango genituzke testuan errepresentatuta. Batetik, goialdean lelo gisara edo kokatuta: "Hizkuntza-ohiturak aldatzen ari gara" esaldia. Bestetik, ekimenaren izenburua "Euskaraldia". Hirugarrenik, ekimenaren izenburuaren alboko eslogan gisakoa, edota azpitu gisara ere ulertu litekeen esaldia: "11 egun euskaraz". Laugarrenik, ekitaldia egin zen data: "2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra". Eta behealdean, informazio gehigarri gisara, ekitaldiko webgunea egongo litzateke: www.euskaraldia.eus. Horretaz gain, rolen errepresentazio diren ikurren barruan ere idatzizko testuak izango genituzke. Batean, ahobizi jarri baitu idatziz, eta bestean aldiz, belarriprest.

Tenporalidatea: Testuak orainaldiari egiten dio erreferentzia; "orain ari gara hizkuntza-ohiturak aldatzen". Baina hala eta guztiz ere, eta "hizkuntza-ohitura" kontzeptuarekin, nolabait etorkizuna ere barnebiltzen da. Azken finean, ohituren aldaketak etorkizuneko norberaren izatean eragina bilatzen baitu; baita, gizarte batek izan ditzakeen ohituretan ere.

DISKURTSOA:

Testu honen baitan hainbat diskurtso edo elementu diskurtsibo bereizi genitzake. Batetik, puntuaren kontua egongo litzateke. Puntu horiek, norbanakoak islatuko dituzte, ingurunean eragiten duten norbanakoak, alegia (Euskaraldia, 2020). Hondo urdindun unibertso horrek, hortaz, euskal hiztunen komunitatea islatuko luke. Unibertso hori aldatzeko gogoz dagoen norbanakoz osatutako unibertsoa. Bestetik, kolore ezberdinez errepresentatzen dira puntuak. Hau da, norbanakoen aniztasuna ere testuan islatu nahi izan dela dirudi. Hala ere, eta ariketa norbanakoengan zentratzen dela jakitun, badago taldea islatze nahi bat. Hau da, "hizkuntza-ohiturak aldatzen ari gara" dio esaldiak. Hau da, norbanakoarengan zentratzen da ariketa, baina badago nahi bat eta testuan argi eta garbi errepresentatzen dena, ariketa hori nolabait ere kolektiboa izan dadin. Komunitate bat silatu nahi da. Norbanakoaren ohitura aldaketa eta aktibaziotik hasi, baina ariketa kolektibo gisara planteatzen da. Honek deskribatzen duite egitetate hori Arrate Illaro eta Iker Martinez de Lunak: *"Norbanakoaren mailan, hizkuntza-ohitura eta inertzien aldaketa erabaki pertsonal batetik abiatzen da, bakoitzak aldaketa egiteko hartzen duen erabakitik. Baina erabaki edo konpromiso horrek gauzapeña ere behar du benetako aktibazio bihurtzeko eta horretarako, beste elementu*

garrantzitsu bat behar du norbanako bakoitzak: tresnak behar ditu urratsa eman eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Aktibazioa konpromisotik abiatzen da beraz, baina ahalduntzea (tresnak izatea, prestatuta egotea) behar-beharrezkoa da guztiz gauzatzeko aldaketa” (Illaro & Martinez de Lajos, 2018: 69). Hala nola diskurtso horretan ikus litezke edota hautesman litezke feminismoarekin igurtziak. Ahalduntzea bezalako kontzeptuak aipatzen dituzte aurretik aipatutako autoreek. Igurtzi horretan ere aurki genezake norbanako eta kolektiboaren arteko oreka bat bilatu nahi bat. Ahalduntzea esaterako, ariketa individual gisara hasi, baina modu kolektiboan gauzatzen den prozesu bat baita. Hala ere, eta puntuaren esanahi eta abarrekin jarraiki, ikus liteke roletako ikurretan puntuak hizkuntzaren esanahia hartzen dutela. Hau da, ahotik puntuak irten egiten dira, eta belarrira berriz sartu. Ahobizia ere egitearekin lotu liteke, eta belarriprest, aldiz, egotearekin. Badago hor, rol dikotomikoak sortu, eta egin/egon binomioan sartuta, rol batek besteak baino prestigio handiagoa izateko arriskua. Bakoitzari esleitzen zaizkion hizkuntzaren aurreko jarrerekin gainera, baliteke rol generodunak izatea. Hau da, ahobizik egin egiten duen bitartean –rol maskulinizatua–, belarriprest egon egingo litzateke, entzun –rol feminizatua– (Lakoff, 1981). Hala eta guztiz ere, rolen kontuarekin badirudi badagoela Euskaraldia eta feminismoaren arteko loturarik. Rolaren aukeraketak performance-a gogorarazten digu, generoen performance-a alegia, genero rolena.


Baina bestetik, aukeraren kontuan ardaztuko da diskurtsoa. Hau da, euskaraz egin eta berau jasotzeko aukerak izango du zeresanik. Ez da diskurtsoa norma, edota beste era bateko errebindikazioan ardaztuko; norberaren aukerak baizik. Eta hori izango da gainera diskurtsoaren berritasuna, eta baita, jendea “harrapatzeko” amua ere.

Hala nola ez da hizkuntza zapalkuntzarik edota menderakuntzarik bere horretan islatzen. Baina ohitura aldaketaren bidez, hizkuntzaren nolakotasunaren inguruko azarnak jaso ditzakegu. Hau da, lema horrekin argi ikus liteke euskara norma behintzat ez dela, edota, egunerokotasuneko ohitura bihurtzeko zenbait oztopo pasa behar direla.

HARTZAILE/BEHATZAILE INPLIZITUA:

Ez da erraza testua nori zuzenduta dagoen ondorioztatzea. Hala ere, esan genezake euskal hiztunei zuzenduta dagoela. Kartela euskara hutsez zen, eta ariketa soziala ere, hau da, Euskaraldia euskal hiztunentzako soilik izan zen. Bestalde, testu honek trantsizioan dagoen euskal hiztun bat errepresentatzen du. Kolore argia, eta hizki grafia “atseginak” erabiltzen baditu ere, garai honetako beste testu batzuen infantilizaziotik ihes egitea helburu duela dirudi. Hala ere, koloretako puntuak eta baita marrazki bidezko ikurrek ere, adierazten dute oraindik, beste testu batzuetan ikusi ahal izan den infantilizazio kutsu hori. Hala ere, argi dago hiztuna edota hartzaile/behatzaile inplizitua trantsizio batean dagoela.

K19



K20





1.

Tene Mujika *emakumea*

Nekane Goikoetxea



2.

Euskararen esanahia(k)

Onintza Legorburu





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ISBN: 978-84-457-3676-0



9 788445 736760